

Giza Eskubideei buruzko Deusto Koadernoak

ISSN (bertsio inprimatua): 2603-5766 • ISSN-L (loturako): 2603-5766
DOI (bilduma): <https://doi.org/10.18543/LFGQ4860>

Núm. 116

ISBN (zenbakia): 978-84-1325-276-6
DOI (zenbakia): <https://doi.org/10.18543/VDWZ3748>

Euskadiko espetxeetan askatasunaz gabetuta dauden emakumeen desberdintasunak agerian jartzen, Bangkokeko Arauen bitartez

Carmen Meneses Falcón
Rosa Martínez Perza (Koord.)



Deusto

Instituto de Derechos Humanos
Pedro Arrupe
Giza Eskubideen Institutua

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

DOI (bilduma): <https://doi.org/10.18543/LFGQ4860>

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

116 zenb.

DOI (zenbakia): <https://doi.org/10.18543/VDWZ3748>

Euskadiko espetxeetan askatasunaz
gabetuta dauden emakumeen
desberdintasunak agerian jartzen,
Bangkokeko Arauen bitartez

Carmen Meneses Falcon
Rosa Martínez Perza (Koord.)

Bilbao
Deustuko Unibertsitatea
2026

ERREDAKZIO BATZORDEA

Encarnación La Spina, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Cristina de la Cruz, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Trinidad L. Vicente, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Felipe Gómez Isa, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

ARGITATZE BATZORDEA

Anja Míhr, Utrechteko Unibertsitateko Human Rights Centereko ikertzailea, Herbehereak.

Antoni Blanc Altemir, Lleidako Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna.

Carlos Villán Durán, Presidente de la Asociación Española para la Promoción del Derecho Internacional de los Derechos Humanos.

Carmen Márquez, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Sevillako Unibertsitatea.

Cristina Churrua, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Eduardo J. Ruiz Vieytez, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Fernando Fantova, gizarte zerbitzuekin lotutako gaietako aholkularia, Bilbao.

Francisco López Bárcenas, Giza Eskubideen Mexikar Akademia, Mexiko.

Gaby Oré Aguilar, giza eskubideetako eta genero gaietako nazioarteko aholkularia eta Human Rights Aheadeko kidea, Madril.

Gloria Ramírez, Mexikoko Unibertsitateko Autonomo Nazionaleko Politika Zientziako katedraduna, UNAM, Mexiko.

Gorka Urrutia, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Jaume Saura, Kataluniako Giza Eskubideen Institutuko presidentea, Bartzelona.

Joana Abrisketa, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Jordi Bonet, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko Bartzelona Unibertsitatea.

José Aylwin, Giza Eskubideen behatokiko zuzendaria, Temuco, Txile.

José Luis Gómez del Prado, Mertyzenarioak erabiltzeari buruzko Nazio Batuetako lan-taldeko kidea, Ginebra, Suitza.

José Manuel Pureza, Ikasketa Sozialen Zentroa, Coimbrako Unibertsitatea, Portugal.

Judith Salgado, Giza Eskubideetako Andeetako Programa, Simón Bolívar Andeetako Unibertsitatea, Quito, Ekuador.

Koen de Feyter, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Amberesko Unibertsitatea, Belgika.

Manuela Mesa, Bakerako Hezkuntza eta Ikerketa Zentroko (CEIPAZ) zuzendaria, Madril.

Noé Cornago, Nazioarteko Harremanetako irakasle titularra, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

Pablo de Greiff, International Center on Transnational Justice, New York.

Víctor Toledo Llancaqueo, Politika Publikoetako Zentroa, ARCIS Unibertsitatea, Santiago, Txile.

Vidal Martín, Nazioarteko Harremanetarako eta Kanpoko Elkarrizketarako Fundazioko (FRIDE) ikertzailea, Madril.

Lan honen berregintza, banaketa, komunikazio publiko edo moldaketaren bat egiteko, ezinbestekoa da egileen baimena izatea, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Lan honen atalen bat fotokopiatu edo eskaneatu behar izanez gero, jo ezazu CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org <<http://www.cedro.org>>).

© Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak

1 posta-kutxa - 48080 Bilbao

Posta elektronikoa: publicaciones@deusto.es

ISSN (bertsio inprimatua): 2603-5766 • ISSN-L (loturako): 2603-5766

ISBN (zenbakia): 978-84-1325-276-6

DOI (bilduma): <https://doi.org/10.18543/LFGQ4860>

DOI (zenbakia): <https://doi.org/10.18543/VDWZ3748>

Lege gordailua: LG BI 00054-2026

Azterlan honetan lagundu duten askatasunaz gabetutako emakumeei eta Euskadiko espetxeetako profesionalei, haien ekarpenik gabe ezin izango zelako azterlan hau egin.

Azterlan honetako parte-hartzaileak

Ikerketa-taldea (Comillas Unibertsitate Pontifikala)

Carmen Meneses Falcón, zuzendaria.

Antonio Rua Vieites

Ana Huesca González

Almudena Juárez Rodríguez

Olaya García Vázquez

Laguntzaileak: María Valera López, Adrián Teruel Martínez, Diana Rendo Rodríguez eta Montserrat Pantoja Zarza

ASDEPRES elkarteko Emakume eta Genero Batzordea

Rosa Martínez Perza

Margarita Aguilera Reija

Alicia Alonso Merino

Lourdes Barón Jaqués

Libertad Francés Lecumberri

María José González Rodríguez

Virginia Pastrana Herrera

José Revilla Parody

José Gómez Alarcón

Aurkibidea

Hitzaurrea	
<i>EMAKUNDEko zuzendaria</i>	13
Espetxe Zuzenbideko Elkartearen aurkezpena	
<i>Rebeca Santamalia</i>	15
Azterlanaren testuingurua	17
Aurrekariak	21
Helburua, datuen iturria eta prozedurak	27
Helburuak	27
Metodologia	28
Elkarriketak	28
Galdetegia	30
Inkestatutako laginaren deskribapena	32
Bangokeko arauak	35
Espetxean dauden emakumeak ikusarazten	39
1. Emakumeen profila eta talde espezifikoak	39
1.1. Emakume gazteak	40
1.2. Profil espezifikoak dituzten emakumeak	42
1.3. Indarkeriaren biktimak	48
2. Espetxean sartu aurreko egoera	49
3. Espetxeratzea eta helmuga	52
4. Espetxeak	60
5. Espetxeen sailkapena	69
6. Espetxearen ordezkotza neurriak	75
7. Espetxe-erregimena	81
7.1. Diru-sarrerak	90

8. Ama izatea espetxean	91
9. Miaketak	95
10. Zehapenak eta bitarteko hertsatzaileak	97
11. Osasuna, ongizatea eta osasun-arreta	102
11.1. Arreta psikologikoa eta psikiatrikoa	109
11.2. Droga-mendekotasunak gainditzeko tratamendua	115
11.3. Medikazioaren kontsumoa	119
11.4. Espetxeko profesionalen arreta	122
11.5. Tratua eta tratu txarrak espetxean	125
11.6. Abusuak – Sexu-abusuak	130
12. Kontaktuak eta bisitak	133
12.1. Senideekiko eta seme-alabekiko kontaktua eta haien bisitak	133
12.2. Abokatuekiko kontaktua	140
13. Nola ikusten duten askatasunaz gabetutako emakumeek beren espetxea	141
13.1. Hobetzeko iradokizunak, inkestatik abiatuta	145
14. Espetxeetako langileen prestakuntza eta trebakuntza	149
14.1. Askatasunaz gabetutako gizonen eta emakumeen artean hautemandako aldeak	157
15. Oztopoak eta egiteke dauden gaiak	163
16. Mantendu beharreko lorpenak	165
17. Azterlanak, gardentasuna eta etorkizuneko ildoak	166
Ondorioak	169
Erreferentzia bibliografikoak	175
Eranskinak: galdetegiak	177

Hitzaurrea

Genero-zeharkakotasuna bultzatzeko beharraz hitz egitean, adierazi nahi dugu gure jardun publikoan kontuan hartu behar dela emakumeek eta gizonak bizi-baldintza desberdinak ditugula eta politika publikoek desberdintasun horri erantzun behar diotela, gure gizarteko esparru guztietan, baita espetxeen diseinuan eta plangintzan ere.

Gure gizartean nagusi diren genero-erolek arrakalak eta desorekak eragiten dituzte, hala nola pertsonak zaintzeko lanaren banaketa desorekatua, emakumea buru duten guraso bakarreko familia-nukleoen ehuneko handiagoa, errenta-maila txikiagoak eta langabezia handiagoa emakumeen artean, eta emakumeen aurkako indarkeria matxista, haien askatasuna eta bizi-kalitatea baldintzatzen dituen egiturazko indarkeria.

Faktore horiek ezinbestean hartu behar dira kontuan gure gizarteko edozein eremutan esku hartzean, desberdintasun horiek eragin nabarmena baitute emakumeak eta gizonak gizartean egoten diren moduan.

Espetxeei dagokienez, kontuan izan behar dugu espazio maskulinizatuak direla, gizonak eta gizonentzat pentsatutako erakundeak. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu emakume presoek euskal espetxeetan zer egoera bizi duten jakitea, errealitatea ezagututa esku hartzeko eta haien egoera hobetu ahal izateko.

Azterlan honek, ustez gure herrialdeko espetxe-erakundeek diseinuan eta planteamenduan eragina izango duenak, mundu ikusezin batera hurbiltzen gaitu, hau da, kartzelan dauden emakumeen mundura; horrez gain, hobekuntzak proposatzen dizkigu, emakume presoen tratamendurako arauak eta emakume delitugileentzako askatasuna kentzen ez duten neurriak ezartzeari buruzko Nazio Batuen 70 arauetatik abiatuta. Arau horiei Bangkokeko Arauak esaten zaie, eta Nazio Batuen Batzar Nagusian onartu zituzten 2010ean. Lehenengo araua, hain zu-

zen ere, askatasunaz gabetutako emakumeen behar bereziak kontuan hartzea da.

Azterlana espetxeak Euskal Autonomia Erkidegora transferitu zirenetik urtebetera egin da; beraz, deskribatutako egoera Euskadiko zen-troetan beste kudeaketa bat ezartzeko abiapuntua izango da. Horrez gain, aukera bat da Euskadin askatasunaz gabetutako emakumeen behar espezifikoak zehazteko eta behar espezifiko horiek lantzeko programak, zerbitzuak eta jarduerak diseinatzeko tresnak emateko.

Azken helburua askatasunaz gabetutako emakumeen bizitza hobetzea da, genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik esku hartuz, hau da, pertsona bakoitzaren bizitzan eragina duten faktore guztiak kontuan hartuta, hala nola generoa, arraza, egoera sozio-ekonomikoa eta gaitasun fisikoa.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet Carmen Menesesi eta bere taldeari txosten hau egiteagatik, emakumeek Euskadiko kartzeletan bizi duten errealitatearen argazki bat aurkezten baitigu. Espero dut baliagarria izango dela ahalduntzea eta askatasunaz gabetutako emakumeen eskubideen defentsa bultzatzen jarraitzeko.

Miren Elgarresta Larrabide,
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

ASDEPRESen aurkezpena

Rebeca Santamalia Espetxe Zuzenbideko Elkartea (Asdepres) irabazi asmorik gabeko erakundea da. Abokatuek osatzen dute, zuzenbidearen adar ahaztu horretan, espetxe-zuzenbidean, profesional gisa dihardutenek, bokazioz eta konpromiso-maila handiz.

Asdepres erakundearen helburu nagusietako bat askatasunaz gabetuta dauden pertsonen oinarrizko eskubideak betetzearen alde jardutea da, edozein espetxeratze-zentrotan. Jardun horretan guztian aintzat hartzen dira araudi hauek, eta araudiok garatu edo ordezkari ditzaketen etorkizuneko adierazpenak: Nazio Batuen Presoen Tratamendurako Gutxieneko Arauak (Nelson Mandela Arauak), Nazio Batuen esparruan emandako Emakume Presoen Tratamendurako Bangkokkeko Arauak, Europako Kontseiluaren Europako Espetxe Arauak, eta adingabeen justizia administrazioarako Nazio Batuen Gutxieneko Arauak (Beijing Arauak).

Bere helburuak lortzeko, lan-batzordeak ditu antolatuta. Batzorde horietako bat da Emakume eta Genero Batzordea, eta hura da gaur aztergai dugun ideia eta proiektuaren arduraduna: «Bangkokkeko arauak: Euskadiko espetxeetan askatasunaz gabetuta dauden emakumeen desberdintasunak ebaluatzen».

Azterlan honen zergatia, lehenik, erantzukizunez jokatzearen alde egin nahi izatea da, jakin baitakigu oraindik ere, XXI. mendean, generodesberdintasunak daudela. Eta, bigarrenik, espetxeetako esku-hartze profesionalean metatutako esperientziek agerian utzi digutela askatasunaz gabetuta dauden emakumeek askotariko diskriminazioak jasaten dituztela, gizonak eta gizonentzat pentsatutako erakunde batean daudelako.

Alde horretatik, «Nazio Batuen Emakume Presoen Tratamendurako Arauak eta Emakume Delitugileentzako Askatasuna Kentzen ez duten Neurriak», edo, beste izenez, «Bangkokkeko Arauak», nazioarteko

estandar batzuk finkatzen dituzten arauak dira, eta panazea ez diren arren, garrantzi handiko aurrerapausoa dira askatasuna kendu zaien emakumeekin esku hartzeko.

Egia da, hasieran, ilusioak eta anbizioak eraman gintuela, planteatutako lan handi hori gure bitartekoak erabiliz egiteko gai izango ginela uste izan baikenuen. Zorionez, une horretan planteatu zen Comillas Unibertsitateko ikerketa-taldearekin —Meneses doktorea buru— lankidetzan aritzeko aukera; horregatik, oso eskertuta gaude, gaian agertutako interesagatik eta ideia soil bat ikerketa-proiektu zientifiko bihurtu ahal izatea posible egiteagatik.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari, azterlana Euskadiko espetxeetan egiteko aukera emateagatik. Izan ere, uste osoa dugu azterlanak ematen dituen emaitzak kontuan hartuko direla espetxeetako kudeaketan, beren Erkidegoan askatasuna kendu zaien emakumeen egoera hobetzeko, Euskadiko espetxe-eredua betearazteko oinarrietan jasotzen den moduan.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu azterlanean parte hartu duten pertsona guztiei (talde teknikoei, funtzionarioei, osasun-taldeei, zuzendaritza-taldeei eta beste guztiei), egin duten ekarpen eskuzabalagatik.

Eta, azkenik, baina horregatik garrantzirik kendu gabe, eskerrak ematen dizkiegu galdetegia betez azterlanean parte hartu duten askatasunaz gabetutako emakume guztiei. Gure helburua da haien AHOTSA izatea, orain arte ESPETXE-SISTEMAK AHAZTU eta IKUSEZIN BIHURTU dituen emakume horien ahotsa.

Emakume eta Genero Batzordea
ASDEPRES

Azterlanaren testuingurua

azterlanaren abiapuntua Rebeca Santamalia Espetxe Zuzenbideko Elkartek espetxeetan dauden emakumeen diskriminazioari buruzko azterlan bat egiteko agertutako kezka eta nahia izan zen, Estatuko espetheen baimena lortuta. Behin azterlana hasita zegoela, eta espetxe-erloko eskumenak Eusko Jaurlaritzari transferitu eta gutxira (2021eko uztaila), Euskal Autonomia Erkidegoa sartu ahal izateko aukera planteatu zen. Beste ikerketa batzuetan ere sartu izan zen, beti kontraste handia eragiten baitu beste eremu batzuekin alderatuta, gizarte-arazoan ezaugarriak eta arazo horiei aurre egiteko moduari dagokienez.

Euskal Autonomia Erkidegoa azterketan sartuta, emakumeen egoeraren irudi bat eman ahal izango zitzaion espetxe-kudeaketa jasotzen zuten eta Euskadiko Espetxe Eredua garatzen hasten ziren unean. Bestela esanda, urtebete baino ez zen igaro Euskadiko espetxeetan kudeaketa-eredu berria ezarri zenetik azterlan hau hasi genuenean, eta txosten hau eredu horren abiapuntua da. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetako emakumeen egoeraren diagnostikoa lortzeko aukera ematen zitzaion. Hala planteatu zitzaion, hasiera batean, Eusko Jaurlaritzako arlo horretako arduradunei, eta interesgarria irudituz ez, EMAKUNDEk finantzatu zituen gastuak. Alde handia izan zen Espainiako Estatuko Emakumearen Institutuak emandako erantzunarekiko, ez baitzitzaion egokia irudituz azterketa Estatu-mailan egiteko gastuak finantzatzea. Eskerrak eman nahi dizkiogu EMAKUNDEri, erakutsitako interesagatik eta aitzindaria izateagatik emakumeen inguruko mota guztietako azterlanak sustatzen, emakumeen desberdintasunak eta bazterkeria nabarmenduz. Alde horretatik, erreferentziazko izaten jarraitzen du, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ere. Jakin badakigu lan honek, Euskadin aurretik egindako beste batzuekin batera, eragina izango duela espetxe-erakundearen diseinu eta planteamendu berrian, emakumei buruzko beste ikerketa batzuekin gertatu den be-

zala. Azterlan hau ez da Euskadiko espetxeetan egindako esku-hartzearen edo euskal espetxeetan diharduten langileen ebaluazio bat, ez eta horien arduradunena ere. Askatasunaz gabetuta dauden emakumeen gertaerak, pertzepzioak eta jarrerak jasotzen dituen azterlan bat da, bai eta emakume horiek artatzen dituzten profesionalenak ere, emakumeek espetxean dituzten baldintzei eta egoerei buruz. Beraz, irakurleak argi izan behar du ez direla adierazi Eusko Jaurlaritzak eskumenak jaso zituenetik ezarritako jarduketak. Horren arrazoiak da, besteak beste, urte batzuk igaro ondoren baloratu ahal izango dela politika berriaren eragina eta politika horren kudeaketarako esku-hartzeak. Azterlanari 2023ko urtarrilean ekin zitzaion, eta 2023ko abenduan amaitu zen.

Halako azterketa baten abiapuntua erakunde itxi bat denean, eta, oro har, ezagutzen ez diren alderdi asko dituenen, desadostasunak sortzen dira azterlanetik ondorioztatutako emaitzak aitortzean. Erresistentzia horien jakitun izanik, azterketa honetan gizarte-zientzietako ikerketaren kalitate-estandarrak aplikatu dira. Azterlan honetan erabilitako metodologiak ikerketa zientifikoaren zorrotzasun- eta kalitate-irizpideei jarraitu die. Horren arabera, datuak eta metodologia triangulatu egin behar dira, askotariko informazio-iturriak erabili behar dira EAEko espetxeetan nahiz espetxeetatik kanpo, eta kanpoko pertsonen gainbegiratu edo ikuskatu behar dute. Bestalde, azterlan hau Comillas Unibertsitate Pontifikaleko Etika Batzordearen eskuetatik igaro da, ikerketajardunbide egokiak planteatzen eta zaintzen dituen batzordetik. Beraz, zorrotzasun- eta kalitate-irizpideei jarraikiz, eta ikerketa zientifikoaren betekizun etikoak une oro aitortuz, eskuratutako datu eta informazioetatik ateratako ondorioak dira jarraian azalduko diren emaitzak, halako moldez non espetxe-erakundeaz kanpoko edozein ikertzailek ondorio berberak aterako bailituzkeen.

Hasiera batean hausnartzeko eta erabakitzeko abagunea eman zuen balioesteak ea azterlanak konparaziozkoa izan beharko ote zukeen, askatasunaz gabetutako gizonen eta emakumeen artekoa. Azken erabakia emakumeen informazioa bakarrik jasotzeko azterlan bat egitea izan zen, espetxeratutako gizonetako buruzko informazio ugari dagoela eta konparazio gisa erabil genezakeela kontuan hartuta. Oro har, askatasunaz gabetuta dauden pertsonen buruz emandako datuak gizonetako buruzkoak dira ia beti, bai azterlanetan eta ikerketetan, bai espetxe-administrazioak emandakoetan. Emakumeak espetxeratuen % 10 ere ez izateak ikusezin egiten ditu. Datu orokorrenak sexuaren arabera bereizita daude duela urte gutxitik, baina gizonen eta emakumeen egoeran, baldintzetan edo ezaugarrietan sakondu nahi denean, gizonetako biztanleria ordeztzen duten datuak erabiltzen dira, gehiengoak direlako, eta emakumeak ez dira aintzat hartzen. Alderatu ahal izateko

adina datu ditugu espetxeratutako gizonezkoei buruz. Azterlana espetxeratutako emakumezkoei buruz soilik egin zen, ez zitezen kopuru txikia izateagatik ikusezin bihurtu edo baztertu, eta, era berean, feminismoari eta generoari buruzko hainbat azterlani jarraitu zitzaien¹.

Espetxeratuta dauden emakumeen diskriminazioa aztertzeko, abiapuntutzat hartu dira Nazio Batuen emakume presoen tratamendurako 70 arauak eta emakume delitugileentzako askatasuna kentzen ez duten neurriak, edo, bestela esanda, Bangkokeko Arauak. Arau horiek Nazio Batuen Batzar Nagusian onartu ziren 2010ean, emakumeek mundu osoko espetxeetan desberdintasunak jasaten zituztela jabetzean. Lan honek lagundu egin nahi du emakumeen baldintzak hobetzen, eta ziur gaude Eusko Jaurlaritzak kontuan hartuko dituela.

Azterlanaren zuzendaria

¹ Romo, N. (2010): «La mirada de género en el abordaje de los usos y abusos de drogas», *Revista Española de Drogodependencias*, n.º 35(3), pp. 269-272.

Aurrekariak

Askatasunaz gabetutako emakumeen diskriminazioa lehendik aztertu dute beste emakumezko ikertzaile batzuek, bai Espainiako Estatuan, bai Euskadin. Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoan aurretik egindako zenbait azterlan oso interesgarriren ekarpenak aipatu eta mahaigaineratu behar ditugu. Hiru azterlanei egingo diegu argi, zabalak eta ardura handiz egindakoak direnez gero.

Lehen azterlana¹ Elisabete Arostegui, Araceli Fernández, Nieves García del Moral eta Aurora Urbano (2008)² egileena da, eta espetxeratzeak gizon eta emakumeengan eta haien familia-ingurunean dituen ondorioak aztertzen dituzte. Horretarako, diseinu kualitatiboa erabiltzen dute, askatasunaz gabetutako gizon eta emakumeei elkarriketa sakonak eginez.

Bigarrenak, Estibaliz de Miguelenak³, espetxeetan dauden askatasunaz gabetutako emakumeen maitasun-harremanak aztertzen ditu. Behaketak, parte-hartzailearen eta elkarriketen bidez, Zaballako espetxeko emakumeen egoeraren irudia ematen du.

Hirugarren lanak, María Ruizenak⁴, emakumeek espetxeetan jasandako diskriminazioa aztertzen du, emakume horiei ematen zaizkien aurreiritziak eta estereotipoak eta haiek artikulatzen dituzten erresis-

¹ Epigrafe honetan aipatutakoen aurretik egindako beste lan bat topatu dugu, Manzanos Bilbao, C. (2003): *Situación de las mujeres en las cárceles del País Vasco*, Bilbo: Gobierno Vasco. Lan bikaina den arren, ez dugu sartu, duela 20 urte baino gehiagoko lana delako.

² Arostegui, E., Fernández A., García del Moral, N., Urbano, A. (2008): *Género y Prisión*. Bilbo: Arg.: Zubiko

³ de Miguel Calvo, E. (2015): *Relaciones amorosas de las mujeres encarceladas*. Bilbo: UPV/EHU

⁴ Ruiz Torrado, M. (2017): *Kartzela Genero-erakunde bezala*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

tentzia-jardunbideak aintzat hartuta. Lan horrek ere metodologia kua-
litatiboa du abiapuntutzat, informatzaile desberdinei egindako elka-
rrizketa sakonetan oinarrituta. Honako taula honetan, espetxeratutako
emakumeei buruzko urte bateko eta besteko datuak laburbildu ditugu,
txosten honetakoak barne.

1. taula
Espetxeratuak Euskadin

Urtea	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gutizkoa
2008	1.258 (% 91,09)	123 (% 8,91)	1.381 (% 100)
2015	1.140 (% 9,6)	133 (% 10,4)	1.273 (% 100)
2017	1.204 (% 89)	149 (% 11)	1.353 (% 100)
2023ko urr. oct.	1.450 (% 92)	127 (% 8)	1.577 (% 100)

Iturria: Estatuko Espetxeetako Idazkaritza Nagusia.

Emakumezko egile horiek egiaztatzen zutenez, espetxe-sistemak
joera androzentrikoa du, diskriminatzailea eta hierarkikoa da, jarduke-
tek ez dute genero-ikuspegirik, eta ez dago askatasunaz gabetutako
emakumerik desberdintasunei eta gizarte-bazterketari buruz egindako
azterlan feministetan. Jarraian, xehetasun handiagoz azalduko ditugu
aipatutako azterlanetan landutako puntuak.

Delitu-ezaugarriak eta ezaugarri soziodemografikoak

Azterlanetan adierazten denez, espetxeetan dauden emakumeen
proportzioa txikia izateak desabantailan jartzen ditu gainerako espetxe-
ratuekin alderatuta, gizonezkoak baitira nagusi. Hain zen handia aldea,
non espetxeetako esku-hartzearen diseinua gizonei zuzenduta baitze-
goen.

Espetxeratutako emakumeek egindako delitu ohikoenak lotuta zeu-
den osasun publikoarekin, legez kanpoko substantzien garraioarekin
(«mando» izatearekin) edo lapurreta eta ebasketa txikiekin. Oraindik
ere, delitu horiek gailentzen dira emakumeen artean, nahiz eta azterlan
honetan ez den datu hori jaso.

Askatasunaz gabetutako emakume gehienak bazterkeria-, pobre-
zia- eta kalteberatasun-testuinguruetatik zetozen, bai eta emakume
atzerritarren edo pobrezia-egoeran zeuden gutxiengo etnikoen taldee-

tatik ere. Emakume horien artean aise nabari zitekeen desegituratze-maila handiko familia-inguruneak zituztela, eta gurasoengandik afektu eta babes txikia jaso zutela.

Gizarte- eta hezkuntza-maila txikia zutela adierazi zen halaber, bai eta lanerako prestakuntza-maila txikia zutela ere. Emakume horietako askok ez zuten aurrez enplegu edo etxebizitza egonkorrik izan.

Substantzia psikoaktiboekiko mendekotasunak askatasunaz gabetutako emakumeen sektore handi bati eragiten zion, eta mendekotasun horrekin lotuta zegoen emakume horietako askoren delitua.

Indarkeria matxista pairatu zutenen kopurua handia zen biztanleria orokorrarekin alderatuta, eta bere horretan eutsi zitzaion hiru azterlanetan.

Arreta berezia eman behar zaie bikotekideen arteko harremanei; izan ere, indarkeria jasateaz gain, bikotekideak normalizazio urriko gizonetzakoak izan ohi ziren, eta mendekotasun-harremanak izaten zituzten haiekiko. Emakumeek bikotekideen konplize edo estaltzaile jokatu ohi zuten.

Nahiz eta emakumeen berrerortzea txikiagoa izan, prebentziozko espetxeratze gehiago zeudela adierazten zen, eta kondenak handiagoak zirela, Europako herrialde gehienekin alderatuta.

Espetxean sartzea

Azterlanetan aipatzen zenez, espetxean sartzen zituzten unean, emakumezkoak gazteagoak izan ohi ziren gizonetzakoak baino. Espetxeratuak izateak, halaber, eragin psikologiko eta pertsonal handia zuela aipatzen zuten. Segurtasun falta, beldurra, antsietatea eta babesgabetasuna sortzen zien, batez ere lehen aldia zenean, ez baitzuten espetxe-sistema ezagutzen. Espetxeratzearen eraginak kostu handia zuen emakumeengan eta haien familiengan, haiek jarraitzen baitzuten familia-sistemaren, zaintzaren eta seme-alaben hezkuntzaren sostengatzaile izaten. Amaren, zaintzailearen eta emaztearen rola eteteak estigma sozial garrantzitsua zekarkion, baita zigorra bete ondoren bere horretan iraun zezakeen erruduntasun- eta lotsa-sentimendua ere. Haietako askok familiekin komunikatzeko estrategiak antolatzen zituzten, espetxeak familiengan zuen eragina minimizatzeke.

Ikerketek adierazten zutenenez, espetxeratzea bizitzeak berarekin zekarren segurtasuna eta autonomia galtzea. Emakume batzuentzat, hondoa jo ondoren bizitza aldatzeko aukera bat zen. Halakoetan, espetxean arrisku txikiagoan zeuden eta segurtasun handiagoa zuten kalean baino, behin substantzia psikoaktiboak kontsumitzeari utzi edo beren

ongizate pertsonalean arreta jarri ondoren. Beste batzuentzat, berriz, beren bizitzako esperientziarik txarrena zen: mingarria, suntsitzailea, umiliagarria eta duintasunik gabea.

Espetxeko baldintzak

Aipatutako azterlanetan, emakumeen espetxeko bizitzaren alderdi asko aipatzen ziren. Hasteko, emakumeek espetxeetan toki gutxiago zutela adierazten zuten, eta horren eraginez, espetxe-zigorak gogorragoak zirela haientzat. Espazio horrek gizonezkoen espazioak baino bizigarritasun-baldintza okerragoak zituen, hainbat arrazoiengatik, baina bereziki geroago sortua zelako.

Emakumeekin lotutako zenbait gabezia aipatzen ziren: ez zegoela amen unitaterik⁵; aukera gutxiago zituztela hirugarren gradua lortzeko; ez zegoela bereiz sailkatzeko tokirik, modulu bakarra zegoelako eta modulu-motak aukeratu ezin zituztelako; lekualdatzeetan gabeziak zeudela gizonezkoenekin alderatuta, helmuga-espetxera arteko ibilbideak oso luzeak zirelako (batzuetan asteak edo hilabeteak behar ziren). Era berean aipatzen zuten txikiagoa zela emakumezko langileen kopurua, soldata baxuagoak zituztela, eta lan oso feminizatuak egiten zituztela. Hezkuntza- eta lanbide-jarduerak ez ziren nahikoak, eta ez ziren oso motibagarriak. Emakume horietako askok emakumeen tradiziozko zereginak egiten zituzten (ile-apainketa, estetika, joskintza...), eta horiek ez ziren beti lan-irteera errentagarrienak izaten.

Seme-alaben zaintza galtzearen inguruan, sarritan aipatzen zuten ez zela haien kargu egiten ez familia ez eta umeen aita ere. Amatasunari buruzko kezka oso handia zen. Itzelezko eragina zuen seme-alabengandik banantzeak, eta zaintza hori familiako beste emakume batzuen edo erakunde eskudunen esku uzten zen. Bestalde, esangura handia zuen eredu amabakarrak, eta, beraz, seme-alaben aitaren laguntzarik ez izateak. Generoari dagokionez, arrakala nabari zen, espetxeratuengan garrantzi handiagoa baitzuen ama izateak, aita izateak baino. Beraz, ardura handiagoa ematen zitzaaien amei.

Espetxeko bikote-harremanak mendekotasunezkoak ziren, hein batean, eta ez zuten bikotekideen laguntza izaten, espetxeratuak izatean bikotekideek utzi egin zituztelako edo haiek ere espetxean zeudelako. Bestetik, azterlanek adierazten zuten familiek babes handiagoa ematen zietela gizonezkoen, emakumezkoen baino. Beraz, espetxeratuak

⁵ Azterlan horiek egin zituztenean, artean ez zegoen amen modularik.

emakumeen sektore bat bakar-bakarrik zegoen, eta ez zuten kanpoan zain zegoen inor, laguntza emateko edo beharrak artatzeko. Bakar-dade handiagoa, laguntza afektibo eta ekonomiko txikiagoa, eta bisita gutxiago izatea gailentzen ziren haien artean. Bestalde, adierazten zuten emakumeek espetxean jasotzen zuten arreta psikologikoak gatazka eragiten zuela administrazioak betetzen zituen bi rolekin: laguntza ematearekin eta kontrolarekin. Kontuan harturik aurreko prekarietate-egoerekin lotuta zeudela, osasun-egoera fisiko eta psikiatriko desegokia zen nagusi. Azterlanetan adierazten zenez, osasun-egoera okerragoan zeuden; depresio eta antsietate handiagoa zuten, eta gehiago medika-tzen ziren (antidepresiboak, lasaigarriak eta antsiolitikoak). Alde horretatik, medikalizazio psikiatriko handiegia zutela adierazten zen, arreta terapeutikoaren kaltetan. Gainera, emakume gisa zituzten rol sozialak desbideratu zirenez, are autoestimu baxuagoa zuten, norbere buruare-kiko irudi gutxiesgarria, errudun-sentimendua areagotzen zitzairen eta estigma indartzen zuen gizarte-zigor gisa. Espetxeratutako emakumeak emakume txar, desbideratu, bekatari eta promiskuitzat hartzen ziren.

Espetxe-arreta

Aipatutako azterlanen arabera, emakumeei zuzendutako espetxe-tratamenduak ez zituen soilik beren tradiziozko gizarte-rolak indartzen; horrez gain, haien feminizazioa eta infantilizazioa indartzen zituen. Emakumeak sarriago eta zorrotzago zigortzen ziren, nahiz eta ez izan gizonezkoak bezain gatazkatsuak eta ez eduki haiek bezalako profil krimi-nologiko bortitzik. Hala ere, diziiplina-erregimena gogorragoa eta zurrunagoa zen haiekin. Zaintzako eta barneko funtzionarioek tolerantzia txikiagoa zuten emakumezko presoan portaerarekiko. Hala eta guztiz ere, emakumeak hobeto egokitzen ziren espetxera, eta egoera berean zeuden gizonezkoek baino zailtasun txikiagoa zuten espetxealdiaren baldintzei men egiteko.

Espetxe-sistemari dagokionez, azterlanek zioten zailtasunak zeudela genero-desberdintasunez eta -diskriminazioez jabetzeko, nola askatasunaz gabetutako emakumeen aldetik, hala profesionalen eta espetxeko zaintzako langileen aldetik. Espetxe-sistema sexista zela zioten; izan ere, ez zituen emakumeen behar espezifikoak aintzat hartzen, amatasuna izan ezik, eta ez zituen behar bezala trebatzen, espetxetik ateratzean birgizarteratzeko. Esku-hartzeak estereotipo sexistaz eta genero-ikuspegi-rik gabeko banakako jardueraz josita zeuden, eta karga negatiboa eta estigma areagotzen zituzten. Dena den, halakoxeak ziren azterla-nak egin zireneko espetxe-politikak ere; izan ere, genero-estereotipo

tradizionalak indartzen zituen helmugetan, jardueretan, tailerretan eta lanetan. Espetxe-sistemak gizartean generoari, kalteberatasunari eta gizarte-bazterketari lotuta zeuden desberdintasunak errepikatu eta areagotzen zituen.

Maria Ruizen lanak baino ez zituen jaso eta deskribatu emakumeek espetxe barruan izandako erresistentzia-jardunbideak. Presoen arteko babes- eta elkartasun-sareak antolatzen ziren; baimendutako eta debekatutako produktuen merkatu irregular bat agertzen zen; eta emakumezko presoen arteko harreman afektibo-sexualak sortzen ziren, motibazio afektiboak, sexualak edo ekonomikoak bultzatuta.

Azkenik, espetxeko irteera izaten zen beste une gogor eta zaila, gizartearen gaitzespenari egin behar izaten baitzioten aurre.

Helburua, datuen iturria eta prozedurak

Euskadin emakumeen moduluak dituzten bi espetxe daude: Martutene, Donostian, eta Zaballa, Gasteizen. Izan ere, Basauriko zentroak, Bilbokoak, ez zuen gizonezkoentzako modulua besterik, azterlan honi ekin genionean. Beraz, helburuak eta informazio-bilketa bi zentro horietan bete dira.

Helburuak

Hasierako helburuak, azterlan hau gidatu dutenak, hauek izan dira:

1. Euskadiko espetxeetan askatasunaz gabetutako emakumeen berariazko zer premia ez den asetzen zehaztea.
2. Bangkokeko Arauetatik zein betetzen diren eta zein ez adieraztea.
3. Askatasunaz gabetuta dauden emakumeen behar asegabeak ezartzeko, Euskadiko espetxe-sistemak zer oztopo dituen zerrendatzea.
4. Programak, zerbitzuak eta jarduerak diseinatzeko tresnak ematea, emakumeen behar espezifiko horiek lantzeko, eta horiei erantzuteko.
5. Askatasunaz gabetutako emakumeen egoera hobetzeko proposamenak egitea.
6. Espetxealdiaren ordezkotako neurriak indartzea, askatasunaz gabetutako emakumeentzat.
7. Lankidetzatzaileak ezartzea Espetxe Sistemaren (ES) eta gizarte zibilaren artean, Euskadiko espetxeetan sexuari eta generoari lotutako desberdintasunak ezabatzen batera lan egiteko.

Metodologia

Helburuak betetzeko, era bateko eta besteko metodologiak erabili ziren. Ikuspegi kualitatiboa erabili zen alderdi subjektiboenak eta ezkutukoak jasotzeko eta horietan sakontzeko; ikuspegi kuantitatiboa, berriz, aztergaiaren hedadura ezagutzeko. Beraz, estrategia kualitatiboak eta kuantitatiboak modu osagarrian, konbinatuan edo triangulatzailean aplikatu ziren¹. Ikerketarako bi teknika nagusi erabili ziren. Batetik, espetxeetako talde profesionalari eta zuzendariei egindako sakoneko elkarrizketak erabili ziren, bai eta askatasunaz gabetuta dauden emakumeei eginikoak ere. Espetxe-erakundearekin lotutako funtsezko informatzaileak ere izan ziren (aholkulariak, abokatuak eta GKEetako profesionalak, besteak beste), bai eta erakunde horretatik kanpokoak ere. Eta bestetik, elkarrizketa horiek aztertzeak aukera eman zuen galdetegi bat egiteko, ahal beste informazio jasotzeko emakumeen iritziei eta egoerei buruz. Xehetasun handiagoz deskribatuko ditugu teknika horiek eta haien prozedurak, bai eta elkarrizketatutako pertsonen lagina ere.

Ikerketa-proiektua Comillas Unibertsitate Pontifikaleko Etika Batzordeak aurkeztu eta onartu zuen, eta ikerketa-taldeak baldintza nagusiak jarraitu direla bermatu du: borondatezkotasuna, anonimotasuna, konfidentzialtasuna (batez ere elkarrizketetan), eta egiazkotasuna.

Elkarrizketatutako pertsona guztiei baimena eskatu zieten ikerketa-taldeko kideek elkarrizketa egin aurretik. Baimena emanda, onartu egiten zen elkarrizketetan parte hartzea eta elkarrizketatzaileek konpromisoa hartzen zuten parte-hartzaile bakoitza identifika zezakeen daturik ez jakinarazteko. Horregatik, txosten honetan ez da elkarrizketatutako informatzaileen xehetasunik ematen; izan ere, bi espetxetan baino egin ez denez, nahiko erraza izango litzateke pertsona horiek identifikatzea.

Elkarrizketak

26 elkarrizketa egin ziren. Guztira, askatasunaz gabetutako 9 emakume elkarrizketatu ziren, erregimen arruntean dauden 7, eta hirugarren gradua duten 2. Zaballako espetxean egin ziren 9 elkarrizketa, eta beste 11 Martuteneko espetxean. Gainerako elkarrizketak funtsezko in-

¹ Bericat Alastuey, E. (1998): *La integración de los métodos cuantitativo y cualitativo en la investigación social: significado y medida*. Bartzelona: Ariel.

formatzaileei (adituei, aholkulariei, GKEetako kideei, abokatuei, etab.) egin zitzaizkien, azterlanaren helburuekin lotutako informazio garrantzitsua lortzeko. Elkarrizketak espetxeek berek eman zizkieten elkarrizketatuei, bai askatasunaz gabetutako emakumeei, bai talde profesional teknikoari eta zaintzako edo barneko funtzionarioei; bestela esanda, ez zituen ikerketa-taldeak zuzenean egin. Horrek esan nahi du ikerketa-taldeak ez zuela alborapenik egin hautaketa horretan.

Bi zentroetan egun bateko edo biko tartea eman zitzaien elkarrizketak egiteko, bai emakumeei, bai profesionalen kolektiboari. Espetxeetako zuzendaritzak sarbidea eta elkarrizketatuekiko harremanak erraztu zizkigun, eta gune pribatuak eskaini zizkigun informazioaren konfidentzialtasunari eusteko. Talde teknikoak moduluen sarreran darabiltzan bulegoetan elkarrizketatu zituzten emakumeak; profesionalak, berriz, beren bulegoetan elkarrizketatu zituzten. Elkarrizketek 30 minutu eta ordubete arteko iraupena izan zuten. Audio formatuan grabatu zituzten, baldin eta elkarrizketatuek onespina ematen bazuten. Grabazioagatik deseroso sentitu ziren eta grabatuak ez izatea nahiago izan zuten kasuetan, oharrak hartu ziren, ahalik eta xehetasun handienaz. Elkarrizketatzaile guztiak ikerketa-taldeko kideak izan ziren, eta Bangkok-eko Arauetatik eta azterlanaren helburuetatik abiatuta egindako elkarrizketa-gidoiari jarraitu zioten. Gidoi hori eranskinean dago jasota. Era berean, elkarrekintzak eragindako datuei eta informazioari buruzko oharrak ere hartu ziren, bai eta, bereziki, espetxeratuek egin zizkiguten komentario eta iruzkinei buruzkoak ere.

Elkarrizketak egin ondoren, hitzez hitz transkribatu dira, eta identifikatu zitzakeen datu guztiak ezabatu eta azterketarako prestatu dira.

Beraz, elkarrizketen azterketa deskribatzailea egin da, informatzailea identifikatu dezakeen xehetasunik aipatu gabe. Kategoría analitikoak egin dira elkarrizketa guztiak kodetzeko eta, ondoren, behar ziren segmentuak atera dira, Bangkok-eko arau bakoitza aztertzeko eta interpretatzeko.

Hurrengo taulan adierazi dugu nola izendatu ditugun elkarrizketen bidez lortutako datuak:

2. taula
Egindako elkarrizketen xehetasunak

Elkarrizketatuak	Xehetasuna	Izendapena
Askatasunaz gabetutako emakumeak	E1, E13, E14, E15, E16, E17, E18, E19, E20	Elkarrizketa-kodearen arabera
Aholkulariak, abokatuak, GKEetako kideak, espetheetako zuzendaritzako kideak		Informatzailea
Medikuak	2-3 mediku ²	Medikua
Psikologoak	2 psikologo	Psikologoa
Funtzionarioak*	3 funtzionario*	Funtzionarioa*
Gizarte-langilea	2 G. langile	Gizarte-langilea
Hezitzailea	Hezitzaile 1	Hezitzailea

* Zaintzako edo barneko funtzionarioak.

Ez dugu elkarrizketatuei buruzko datu soziodemografiko gehiagorik eman, oso erraza izango litzatekeelako identifikatzea.

Galdetegia

Behin elkarrizketak eta hasierako azterketa deskribatzailea egin ondoren, askatasunaz gabetuta dauden emakumeentzako galdetegi bat prestatu zen (ikus eranskina). Galdetegi hori, konparatiboa izan zedin, berbera izan da Espainiar Estatu osoan, eta aldez aurretik gainbegiratu zuten bi espetxeek. Galdetegia urriaren amaieran jaso zen Martuteneko zentroan, eta azaroaren hasieran, Zaballako zentroan. Galdetegia euskaratu egin zen, emakume euskaldunek galdetegia errazago betetzeko (ikus eranskina). Bi zentroetako emakume gehienek parte hartzea erabaki zuten, eta galdetegia betetzea. Eskerrak eman zizkioten ikerketataldeari azterlana egiteko kontuan hartu izanagatik, eta galdetegia euskaraz eman izanagatik. Izan ere emakumeetako batek zera adierazi zuen: «*Lehen aldia da zerbait euskaraz eskaintzen didatela espetxean daramatzadan urte hauetan guztietan*». 49 galdetegi jaso ziren; % 75,5 (37) gatzelaniaz, eta % 24,5 (12) euskaraz. Espetxe bateko emakume

² Martuteneko espetxean bi mediku elkarrizketatu genituen batera.

batek soilik egin zion uko galdetegiari erantzuteari. Dena den, egon ziren galdetegia osatu ezin izan zuten emakumeak, izan irteera bat zutelako, beste norabait joan behar zutelako, edo galdetegia ez betetzeko bestelako egoera batzuk sortu zitzaizkielako. Galdetegiak ikerketa-taldearen aurrean bete zituzten. Bete ondoren, emakumeek beraiek sartu zuten gutun-azal batean, eta behin itxita, guri eman zizkiguten, anonimo-tasunari eusteko. Galdetegia betetzeko unean, hezitzaile baten laguntza izan genuen; ez zuen inoiz parte hartu galdetegia egiten, baina taldearen lana erraztu zuen. Emakumeetako batek aipatu zigun egokia izan zitekeela espexera bertaratzea, emaitzen berri ematera. Alderdi hori oso egokitzat jo da, bai eta literatura metodologikoaren zorroztasun-baldintzat ere, bi arrazoi direla eta. Batetik, horrela, lortutako emaitzak baliozkotu daitezkeelako, hau da, protagonistak identifikatuta eta emaitzetan islatuta sentituko direlako. Bigarrenik, gai etiko bat duelako tartean: ikertuak ikerketaren eta ikertzaile-taldearen mesedetan ez erabiltzeko, baizik eta subjektu pasibo gisa, emaitzen berri emanez eta horien inguruan kontzientzia hartzeko aukera emanez.

Galdetegiak paperean jaso ziren, espetxeetan ezin baitzen tresna elektronikorik sartu. Behin galdetegiak bete ondoren, galdera irekiak informatizatu, berrikusi eta jasotzeko ekin zitzaion, eta azterketa deskribatzailea egin zen, bi aldagai zituen. Izan ere, protagonista gutxi izateak ez zuen aukera ematen aldagai askoko azterketa bat egiteko.

Txostenean zehar ageri diren tauletan, ehunekoak (%) eta aztertutako kategoria bakoitzeko maiztasuna edo kopurua (n) jasotzen dira, hau da, baiezkotako erantzuntzat markatu direnak (bai). Taula bakoitzean, lehenik eta behin, aztertutako lagin osoan lortutako erantzunak agertzen dira. Jarraian, bi zutaberen bidez alderatzen dira 10 urte edo gutxiagoko zigorra duten emakumeak eta 10 urte baino gehiagoko zigorrrak dituztenak, bereizitako bi talde osatzen zituztela kontuan hartuta (≤ 10 urte eta > 10 urte)³. Khi-karratuaren proba estatistikoa aplikatu da aldagaiak kategorikoak direnean, eta estatistiko ez-parametrikoa (Mann-Whitneyren U proba) bi taldeen arteko alderaketa egin denean. Bi kasuetan, p balioak estatistika-adierazgarritasuna adierazten digu, hipotesiak bi taldeen artean alderatzean. Beraz, p balioak (estatistika-

³ Galdeketa ez zitzaien galdetu zer delitu egin zituzten; hala ere, azterlana egin zen aldia bat dator terrorismo-delituagatik kondenatuta askatasunaz gabetu zituzten pertsonen lekualdatzearekin. Kontuan hartuta delitu horrengatik zigorrrak betetzen dituzten pertsonen kondena oso luzeak izan ohi dituztela, azterlanak bereiz hartu zituen, eta bi profil markatu: delitu txikiak dituzten emakumeak eta delitu larriagoengatik kondenatutako emakumeak (terrorismoari, osasun publikoari eta pertsonen salerosketari lotutakoak, besteak beste).

adierazgarritasunak) 0,05 baino txikiagoak direnean (% 95eko konfiantza-maila), bi taldeen artean alde esanguratsuak daudela adierazten dute.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu espetxeei, zuzendaritza-taldeei, talde teknikoei eta barneko edo zaintzako funtzionarioei, azterlanean laguntzeagatik eta parte hartzeagatik, haiei esker lortu baikeenuen eskatutako informazio guztia eskuratzea.

Inkestatutako laginaren deskribapena

49 galdetegietatik, 10 Martutenen bete ziren, eta 39 Zaballako espetxean. 2023ko urriaren 11n, askatasunaz gabetutako 1.577 pertsona zeuden EAEko espetxeetan, eta emakumezkoak ziren pertsona horietatik 127⁴. Horrek esan nahi du lagina une horretan askatasunaz gabetuta zeuden emakumeen % 38,5koa zela.

Emakumeen batez besteko adina 45,7 urtekoa izan zen ($DT^5 = 10,15$). Gutxieneako adina 27 urtekoa zen (bi emakume), eta gehieneko adina, 72 urtekoa (emakume bat). Jakina denez, 10 urte edo gehiago zeramatzaten emakumeek batez besteko adin handiagoa zuten (49,7 urte batez beste, $DT = 8,43$) 10 urte edo gutxiago zeramatzatene baino (43,8 urte batez beste, $DT = 10,50$).

Askatasunaz gabetuta zeuden emakumeen % 81,6 (40 emakume) Espainian jaiotakoak ziren, eta gainerakoak Aljerian, Bolivian, Brasilen, Kolonbian, Ekuadorren, Hondurasen, Marokon edo Errusian jaiotakoak. Espainiar jatorrikoa zela adierazi zuten emakumeen % 5,5ek; % 6,1ek, euskalduna zela; % 2k katalana zela. Besteek ez zuten erantzun (4) edo bestelako jatorria zuten.

Emakumeen % 25ek (12) unibertsitate-ikasketak zituzten; % 52,1ek (25) bigarren mailako edo Batxilergoko ikasketak; % 16,7k (8) lehen mailako ikasketak; eta % 6,3k (3) ez zuten ikasketarik. Ikasketa-maila handiagoa zen espetxean 10 urte baino gehiago zeramatzaten emakumeen artean. Izan ere, % 46,7k unibertsitate-titulua zuten; aldiz, 10 urte edo gutxiago zeramatzatenean, % 15,2 ziren tituludunak. Gauza bera gertatzen zen batxilergo-tituluarekin: espetxean urte gehien zeramatzaten emakumeen % 40 ziren tituludunak, eta gutxiago zeramatzatenean % 21,2. Azken horiek, batez ere, bigarren hezkuntzako ikasketak zituzten: % 36,4k.

⁴ Euskadiko Espetxe Administrazioak emandako datuak.

⁵ Desbiderapen tipikoa, hau da, puntuazioek batez bestekoarekiko duten sakabana-tze-neurria.

Emakumeen % 67,3k (33) seme-alabak zituzten; batez beste, 2,12 seme-alaba (DT = 1,36). Seme-alabak zituzten emakumeen % 23k, 3 seme-alaba edo gehiago zituzten. Seme-alabak zituzten emakumeen ia erdiaren kasuan (% 48,4; n = 15), familia egin zen haien seme-alaben kargu; emakumeen % 19,4ren kasuan (n = 6), haurraren aita; eta % 22,6ren kasuan (7), haurrak independizatuta zeuden; halaber, bazi-
ren haurrak aitaren familiarekin (% 3,2, n = 1), adingabeen zentro batean (% 3,2, n = 1) edo adopzio-familiarekin (% 3,2, n = 1) zeuden kasuak.

Emakumeen % 79,2k (38) bikotekidea zutela adierazi zuten; horietatik % 50ek (24) bikotea ere espetxean zuten, eta % 29,2k (14) kanpoan. Bestalde, % 20,8k (10) bikotekiderik ez zutela adierazi zuten. % 32,7k (35) bikotekidea zuten espetxeratu aurretik, baina harremana izateari utzi zioten; aldiz, % 38,8k (19) bikotekidearekin harremana izaten jarraitzen zuten, eta % 28,6k (14) ez zuten bikotekiderik espetxeratu aurretik.

Askatasunaz gabetutako emakumeen % 16,7k (8) desgaitasun intelektuala zuten, eta horietatik 6k (% 75ek) aitortua zuten desgaitasun hori.

Azkenik, emakumeen erdia baino gutxiago (% 46,7; n = 21) ari ziren zigorra betetzen bizi ziren probintzian bertan.

Bangkokeko Arauak

Emakumeen askatasunaz gabetzeko esparruan estatu guztiek aplikatu behar dituzten estandar orokorrak jasotzen dituen nazioarteko tresna juridiko nagusiak honako hauek dira: Nazio Batuen Emakume Presoen Tratamendurako Arauak eta Emakume Delitugileentzako Askatasuna Kentzen ez duten Neurriak, Bangkokeko Arauak izenez eza-gutzen direnak eta 2010ean onartu zirenak. 1955eko «Nazio Batuen Presoen Tratamendurako Gutxieneko Arauak» (gerora «Mandelaren arauak» izena eman zitzaien) berretsi zirenetik, 50 urte baino gehiago behar izan ziren genero-ikuspegia aitor zedin.

Bangkokeko Arauak emakumeen giza eskubideen historiako une garrantzitsua dira. Izan ere, nazioarteko tresna batek lehen aldiz hartu zituen aintzat espetxean dauden emakumeen premia bereziak. Hori funtsezko mugarrria izan zen genero-berdintasuna aitortzeko borroka luzean. Orientabidea ematen duten 70 arau dira, beharrezkoak ez diren espetxeratzeak murrizteko eta espetxeratutako emakumeen behar espezifikoak artatzeko. Politika publikoak diseinatzeaz arduratzen diren pertsonen, botere legegileari, betearazleari eta espetxeetako zerbitzuei zuzenduta daude, bai eta justizia-sistemari ere, esparru baterako eta besterako.

1. arauak ezartzen du zer helburu duten gainerako guztiek; hain zuzen ere, diskriminaziorik ezaren printzipioa errespetatzeko sortu ziren, kontuan hartuz zer behar berezi dituzten askatasunaz gabetuta dauden emakumeek.

2.etik 4.era bitarteko arauak espetxean sartzea eta non espetxeratu dituzte hizpide. Arau horiek lehentasuna ematen diote seme-alabekiko eta familiarekiko hurbiltasunari, bai eta seme-alaben egoeraren berri eduki ahal izateari ere, emakume gehienek familia-erantzukizunak eta hazkuntza-ardurak baitituzte.

5. araua emakumeentzako espazioari edo biziko diren tokiari buruzkoa da. Bertan zehazten da emakumeek eta haien seme-alabek¹ beren higienarako eta beharretarako instalazioak eta produktuak izan behar dituztela, hau da, emakumeen moduluak edo amen moduluak izan behar dituztela.

6.etik 18.era bitarteko arauak espetxeratutako emakumeen eta haiekin egon daitezkeen seme-alaba adingabeen osasun-arretari buruzkoak dira. Espetxeratzean azterketa mediko bat egitea aipatzen da, nolako osasun-arreta behar duten agerian jartzeko. Azterketa horietan, honako hau adierazi behar da: ea sexu-abusurik edo indarkeriarik jasan duten, osasun mentaleko arretarik behar duten, substantzia psikoaktiboan erabilera desegokirik egiten duten, suizidioaren prebentziorik behar duten, GIBaren eta STlen tratamendurik eta prebentziorik behar duten, eta osasun fisiko eta genesiko egokirako prebentzio-jarduerarik behar duten. Jasota dago laguntza psikologikoa ere eman behar zaiela, jasandako indarkeria edo bizi dituzten traumak eta larritasun-uneak di-rela-eta. Horrez gain, pediatra batek egon behar duela adierazten du, espetxeratuarekin dauden seme-alaba adingabeen osasun-balorazioa egiteko. Prebentzio-informazioa jaso beharko dutela ere zehazten da, osasunerako, minbiziaren prebentziorako eta osasun-zentroetan emakumeei ematen zaizkien beste jarraibide batzuetarako.

19.tik 21.era bitarteko arauak askatasunaz gabetutako emakumeen eta haien seme-alaben erregistro pertsonalei buruzkoak dira, eta errespetuzkoak eta duinak izan beharko dutela diote.

22.etik 24.era bitarteko arauetan, zigorrak eta hertsatzeko bitartekoak aipatzen dira. Zigorrek ezin diete debekatu askatasunaz gabetutako emakumeei seme-alabak eta familia ikustea, eta isolamendutik eta hertsapen-neurrietatik salbuesten ditu haurdun dauden, bularra ematen ari diren edo haur txikiak ardurapean dituzten emakumeak.

25. araua espetxeetan jasandako abusuen salaketa errazteari buruzkoa da (arreta berezia jarritz sexu-abusuei), bai eta espetxeratze-baldintzak gainbegiratzeaz arduratzen den taldean emakume langileak egoteari buruzkoa ere.

26.etik 28.era bitarteko arauak, berriz, senideekin, seme-alabekin eta bikotekidearekin izan beharreko harremanak eta bisitak zehazten dituzte.

29.etik 35.era bitarteko arauak aipatzen dute espetxeko langileek prestakuntza izan behar dutela genero-ikuspegian eta emakumeen

¹ Baldin eta haurrak espetxean haiekin batera badaude. 3 urtera arte egon daitezke haiekin.

arretan, genero-diskriminazioaren prebentzioan eta deuseztapenean, emakume presoak indarkeria fisikotik eta hitzezko indarkeriatik babes-
tean, GIB eta HIES gaitzetan, eta osasun mentaleko eta suizidioa prebe-
nitzeko beharretan, bai eta haurren garapenean ere.

36.etik 39.era bitarteko arauak espetxeko emakume adingabeei bu-
ruzkoak dira, haien beharrak adinaren arabera kontuan har daitezen,
arreta berezia emanez haien babesari, hezkuntzari eta lan-prestakun-
tzari. Azterlan honetan, espetxean dauden emakume gazteenengan ja-
rriko dugu arreta, nahiz eta 18 urtetik gorakoak izango diren; izan ere,
espetxeratze-zigorra bete behar duten adingabeak beste erreforma-
zentro batzuetan sartzen dira.

40. eta 41. arauak emakumeak espetxean sailkatzeari buruzkoak
dira, haien errehabilitaziorako behar diren era bateko eta besteko egoe-
rak eta beharrak kontuan har daitezen. Arriskuaren balorazioa egin
beharko da segurtasun handiko neurriak edo gradu murriztaileak apli-
katzean. Arreta berezia emango zaio osasun mentalari edo desgaitasun
intelektualari.

42.etik 47.era bitarteko arauak espetxe-erregimenaren alderdiak jo-
rratzen dituzte, hala nola emakumeentzako, seme-alabentzako (baldin
eta haiekin badaude) edo haurdunaldirako zerbitzuen eskuragarritasuna.
Bestalde, laguntza psikologikoa eskaintzea ere aipatzen da, sexu-
abusua edo indarkeria jasan badute. Emakumeek senideen bisitak iza-
tea ahalbidetuko da, bai eta askatasunean bizitzera igarotzeko aldi-
an behar izan ditzaketen baliabideak eskura izatea ere; horrez gain, gizar-
teratzeko behar duten laguntza guztia emango zaie.

48.etik 52.era bitarteko arauetan, emakume-talde jakin batzuk ai-
patzen dira: haurdun daudenak, bularra ematen dutenak eta espetxean
seme-alabak dituztenak. Arreta berezia izaten da espetxean dauden
seme-alabekin, bai eta, hala dagokionean, haurrak kentzen edo haien-
gandik banantzen direnean ere.

53.etik 55.era bitarteko arauak atzerriko emakumeei edo beste kul-
tura, erlijio edo talde etniko batzuetako emakumeei buruzkoak dira,
jarduera guztietan aniztasun hori kontuan har dadin.

56. arauak kontuan hartzen ditu prebentziozko espetxealdian dau-
den emakumeak, haien segurtasuna bermatzeko, batez ere preben-
tziozko espetxealdian gerta daitezkeen tratu txarrak saihesteko, eta ha-
lakorik izanez gero, segurtasun-neurriak hartzeko.

57.etik 66.era bitarteko arauetan, espetxealdiaren ordezkoko neu-
rriak eta aukerak aipatzen dira, emakumeak senideengandik, seme-ala-
bengandik eta haien mende dauden pertsonengandik ez banantzeko.
Horrez gain, haien hezkuntza, gaikuntza edo arreta biopsikosozialeko
beharrak asetzeko jardurekin uztartzea proposatzen da.

Azkenik, 67.etik 70.era bitarteko arauak emakumeek egindako delituak aztertzeari eta ikertzeari buruzkoak dira, bai eta gizartea sentsibilizatzeari buruzkoak ere, emakume horiek dituzten gabeziei eta gizarteratzeko laguntza-beharrei dagokienez.

Arau horiek emakumeek —kolektibo minoritarioa izateagatik, batez ere— espetxeetan jasaten dituzten desberdintasunak eta diskriminazioak berrikusteko gidalerroak dira. Jarraian, aipamena egingo diegu arau horiei, lortutako emaitzak gaiaren arabera azalduz goazen heinean. Arau batzuk errepikakorrak izan daitezke, zigorak eragindako espetxealdiaren etapa bakoitzean gelditzen baita edo etapa bakoitzari egiten baitzaio aipamen.

Espetxean dauden emakumeak ikusarazten

«Kontuan izan behar duzue hau gizonezkoen kartzela bat dela, emakumezkoak badaude ere».

Barneko funtzionarioa.

Euskadiko espetxeetako batean barne-funtzionario batek aipatutako esaldiarekin ekingo diogu azterlanari. Espetxe hori bisitatzean, adeitasun handiz erakutsi zizkigun emakumeen modulua eta ziegak. Funtzionario hark oso ondo adierazi zuen emakumeen errealitatea, Nazio Batuek eta Espainiako eta nazioarteko azterlan askok ere aipatzen dutena.

Azalpena egituratzeko, gaiaren arabera azaldu ditugu inkestan lortutako emaitzak eta profesionalei eta barneratuei egindako elkarrizketak, eta bi datu-mota horiek, kualitatiboak eta kuantitatiboak, batera integratu ditugu. Profesionalek helarazi zizkiguten profiletatik abiatuta, sekuentzien araberrako ibilbide bat egin genuen, espetxean sartzen denetik irten arte espetxeratuak igaro behar dituen faseen ibilbidea marraztuz. Epigrafe bakoitzaren oin-oharrean Bangkokkeko zein arau dagozkion azalduko dugu. Hala ere, ez dira korrelatiboak izango, arauak ez baitiote ordena berari eusten.

1. Emakumeen profila eta talde espezifikokoak

Espetxeetako profesionalek emakumeei buruzko askotariko ezauzarrien berri eman ziguten. Hori dela eta, haiek azaldutako ezaugarrien

egitura zehazteko, ezaugarri horien arteko desberdintasunak hartu ditugu abiapuntutzat.

Bestalde, 36.-39. arauak adin txikiko emakumeei buruzkoak dira. Bai Euskal Autonomia Erkidegoan bai Espainiako Estatuko gainerako lurraldeetan, adin txikikoentzako berariazko zentroei dagozkie, eta, beraz, ez dira azterlan honetan landu. Hala ere, emakume gazteenak aipatuko ditugu zenbaitetan, bestelako ezaugarriak baitituzte emakume nagusienekin eta helduenekin alderatuta. Ildo horretan, emakumeen delinkuentziari buruzko 65. eta 66. arauak aipatuko ditugu. Talde espezifikoetako emakumeak ere sartzen ditugu hemen, 53.-55. arauetan azaltzen direnak¹. Emakume atzeritarrei buruzkoa da 53. araua, eta gure espetxe-zuzenbideak arau horretan xedatutakoa jasotzen du Espetxeen Erregelamendu Orokorraren 197. artikuluan eta Zigor Kodearen 89. artikuluan. Dena den, berriro ere kontuan hartu behar dugu arau horiek berdinak direla gizonentzat eta emakumeentzat, eta ez dutela kontuan hartzen, aipatu Arauak azaltzen duen bezala, haurdun dauden edo ama diren emakumeen egoera berezia, ez hemen seme-alabak dituztenena, ez jatorrizko herrialdeetan dituztenena. Datorren epigrafe batean helduko diogu gai horri.

1.1. *Emakume gazteak*

Espetxeratutako emakume gazteak² 18 eta 35 urte bitartekoak³ dira, eta ez zuten kolektibo oso handia osatzen emakumeen moduluak dituzten bi zentroetan informazioa jaso genuenean. Emakume horiek bi profil zituzten: batetik, substantzia psikoaktiboak erabiltzen zituztenak, zentroan guztiarekiko jarrera intoleranteagoa izan ohi zutenak; bestetik, espetxean osasun publikoaren aurkako delituengatik zeudenak. Hala adierazi ziguten elkarrizketatutako emakume batzuek.

¹ 53. araua. «1. Aldebiko edo alde anitzeko akordio bereizleak daudenean, egoiliarak ez diren emakume preso atzeritarrak beren jatorrizko herrialdera lehenbailehen lekualdatzeko aukera aztertuko da, bereziki han seme-alabak badituzte, eta interesdunek hala eskatzen badute edo, jakinaren gainean, onartzen badute.

2. Egoiliar ez den atzerriko preso batekin bizi den haur bat espetxetik atera behar bada, kontuan hartu beharko da haur hori jatorrizko herrialdean birkokatzeak aukera, haren interes gorena kontuan hartuta eta amari kontsulta eginda».

² Emakumezko delitugile gazteei buruzkoa da 65. araua: «Ahal den neurrian, lege-gatazka dituzten haurrak espetxeetan sartzea saihestuko da. Erabakiak hartzean, kontuan hartuko da emakumezko delitugile gazteak zaurgarriagoak direla, generoa dela eta».

³ Ez dago gaztetzat nor hartzen den zehazten duen adin-tarterik, ez Estatuan ez nazioartean. Adibidez, Europako gazte-txartela 26 urtera arte eduki daiteke herrialde batzuetan, eta 31 urtera arte, beste batzuetan. Azterlan honetan, egokien iritzi dugun tarte bat hartu dugu, emakumeen kolektibo murriz bati egiten baitio aipamen.

«Iskanbila sortzen dute, hala-holakoak dira, kaletik datoz eta espetxearen jabe direla uste dute. Parte asko jasotzen dituzte. Ikasten duten arte. Une honetan sei edo zazpi izango dira, eta arazoak dituzte drogekin. «Mando» asko ikusten dira hemen. Madrilera eramaten dituzte eta hona ekartzeko eskatzen dute, lan gehiago dutelako hemen, jarduera gehiago. Hau da, beste preso batzuek diote batzordea ona delako datozela, edo bikotekidea edo familia Bilbon dutelako». E14

Beste profila osasun publikoaren aurkako delituengatik kondena betetzen ari ziren emakumeek osatzen zuten; besteak beste, substantziak beren borondatez garraiatu zituztenak eta horretara behartu zituztenak bereizten ziren.

«Atzerritarrek, haiek diotenez, iruzur egin dietelako etorri dira; inor ez da etorri, edo gutxi etorri dira, beren borondatez. Ez dezagun, hala ere, jeneralizatu. Gero, kartzelan sartzen direnean, haiek dira lan egin nahi duten lehenak, beren burua denerako eskaintzen dutenak. Haiek mantentzen dituzte beren familiak hemendik; kartzelan daudela, beren familiak mantentzen dituzte jatorrizko herrialdeetan, edo ateratzen direnean ere berehala hasten dira lanean, egoera erregulartzatuta badute». Informatzailea

«Droga aldean dakarten atzerritarrei, mando gisa datozenei, haiei kosta egiten zaie. Harrapatuak izateaz gain, ezin dute ezer esan. Izan ere, noski, beren familia hilko dute bestela, edo hori esaten digute, mehatxatuta datozela. Nahiko errudun sentitzen dira haiek, hein batean, hona etortzeagatik, familia uzteagatik, horretara behartu dituen pertsona salatzeke, eta hemen daudela senideei zerbait gerta dakiekeela gogoan izanda; ez dut uste salaketarik egingo dutenik». 2. informatzailea

Profil horiek, delituaren araberakoak, profesional teknikoei eta beste informatzaile batzuei egindako elkarrizketetan lortutako informazioetik jaso dira. Izan ere, ez elkarrizketetan ez inkestan ez zen galdetu zigorra zein delituegatik betetzen ari ziren. Litekeena da Euskadiko eta Estatuko espetxeetan dauden emakumeetako batzuk pertsonen salerosketaren delituaren biktima izatea baina osasun publikoaren aurkako delituekin lotuta soilik identifikatzea⁴. Latinoamerikan, narkotra-

⁴ Erreferentzia hori egiten dugu, kontuan har dadin emakumeak elkarrizketatzean, kasuren batean, delituzko salerosketaren biktimizazio-adierazleak hauteman zirela. Azterlanaren helburua ez zenez, ez da alderdi horretan sakondu, baina espetxe-administrazioak kontuan har dezan adierazi da.

fiko-sareek emakume pobreak substantzia psikoaktiboen mando edo garraiolari gisa baliatzera jo dute, batzuk beren borondatearen aurka, iruzur eginda edo kalteberatasun-egoeran daudela aprobetxatuta. Alderdi horiek nazioarteko hitzarmenetan jasota daude⁵ bai eta Zigor Kodearen 177 bis artikuluan ere, baina sexu-salerosketaren biktimen zentraltasunak ikusezin bihurtzen ditu salerosketaren bestelako biktimak. Carolina Villacampak eta Nuria Torresek⁶ alderdi hori nabarmendu dute Kataluniako espetxeetan, eta arreta berezia jarri beharko litzaieke gainerako espetxeetan ere. Alde horretatik, 66. arauak⁷ egoera horiek aurreikusten ditu, eta estatuak bultzatzen ditu salerosketaren biktima diren emakumeak babesteko eta bigarren mailako biktimizaziorik ez gertatzeko neurriak hartzera.

1.2. *Profil espezifikokoak dituzten emakumeak*

Talde minoritarioetako eta herri indigenetako emakumeentzat irtenbide espezifikokoak bilatzea dute helburu 54. eta 55. arauak⁸. Ez dago kontuan har dezakegun estatu-araurik, eta, beraz, uste dugu Arau hauen edukia ez dela gure legerian sartu.

⁵ Europako Kontseiluaren hitzarmena, gizakien salerosketaren aurkako borrokari buruzkoa (Europako Kontseiluaren 197. hitzarmena), Varsovian eginga 2005eko maiatzaren 16an, BOE 219. zk., 2009ko irailaren 10ekoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36/EB Zuzentaraua, 2011ko apirilaren 5ekoa, gizakien salerosketaren aurkako prebentzioari eta borrokari eta biktimak babesteari buruzkoa eta Kontseiluaren 2002/629/JAI Esparru Erabakia ordeztzen duena (EBAO, 101. zk., 2011ko apirilaren 15ekoa)

⁶ Villacampa, C., & Torres, N. (2012): «Mujeres víctimas de trata en prisión en España», *Revista de Derecho Penal y Criminología*, 3. Aroa, n.º 8, pp.411-494.

⁷ «Ahal den neurrian, ahalegina egingo da Nazioz Haraindiko Delinkuentzia Antolatuen aurkako Nazio Batuen Konbentzioa berresteko, bai eta pertsonen salerosketa, bereziki emakume eta haurrena, prebenitu, zigortu eta zehatzeko Protokoloa berresteko ere, zeinak osatu egiten baitu Nazioz Haraindiko Delinkuentzia Antolatuen aurkako Nazio Batuen Konbentzioa, bere xedapenak erabat aplikatzeko, salerosketaren biktimei ahalik eta babes handiena emateko eta atzerriar askoren bigarren biktimizazioa saihesteko».

⁸ 54. araua. «Espetxeetako agintariak aitortu egingo dute bestelako erlijio- eta kultura-tradiziotako presoek premia desberdinak dituztela, eta diskriminazio-modu ugari aurre egin behar izan diezaieketela, genero- eta kultura-gaietan oinarritutako programak eta zerbitzuak eskuratzeko. Hori dela eta, aurretik prestatu beharko dituzte beharizan horiek lantzeko programak eta zerbitzuak, presoek eta dagozkien taldeei kontsulta egin dezaz».

55. araua. «Aske utzi aurreko eta ondorengo arreta-zerbitzuak aztertuko dira, preso indigenentzat eta etnia- eta arraza-talde jakinentzat egokiak eta eskuragarriak direla bermatzeko, dagozkien taldeei kontsulta eginda».

54. arauak erlijio- eta kultura-tradizioekiko errespetua du hizpide, baita haien beharrei buruzko programak ere. Euskadiko espetxeetan esku-hartzeak egiten dira ildo horretan, ez soilik erlijio-laguntza emanez, Eliza Ebanjelikoen Federazioarekin lankidetzan (erlijio-sinesmen hori dute etnia horretako pertsona askok), baita Gao Lacho Drom Ijito Elkartearen programen bitartez eta ADAPeK, Emakume Presoei Laguntzeko Elkartek egindako «Mujer gitana, de raza y guerrera» programaren bidez ere.

Beraz, talde etniko edo erlijiosoetako emakumeak izango ditugu hizpide. Alde horretatik, nabarmentzekoa da ijito-etniakoak diren emakume ugari daudela emakumeen moduluetan, eta oso bestelako ezau-garriak dituztela, gainerakoekin alderatuta.

«Erabateko askatasunean dagoen ijito bat dugu orain. Baina jada ez dakit, uste dut ahal duten guztia egiten dutela berriro kartzelan egoteko. Bai, halaxe diotsut. Gogoratzen naiz irten zen uneaz; besarkada bat eman nahian hurbiltzean, burua estaltzen zuen, izugarria zen, baina halako kasu mordera dago. Halako keinu bat egitean (haiengana hurbiltzean) estali egiten dira... marka da benetan... eta halakoak, ehuneko laurogeita hamar». Informatzailea

Emakume ijito horietako asko genero-indarkeriaren eta beste indarkeria batzuen biktima dira, eta barneratuta izaten dituzte indarkeria horiek. Kasu gehienetan, emakumeen rola guztiz bigarren mailakoa eta gizonetzkoaren mendekoa den ijito-talde erabat patriarkaletatik datoz.

«Noizbait indarkeria matxistaren edo abusuen biktima izan direla kontatzen digute emakume guztiek... ez bakarrik bikotekideengandik, zera, gurasoengandik, osabengandik... ez dakit zer, baina historia oso larriak dituzte, oso gogorrak. Horietako zenbaitek, hasiera batean, ez zuten uste bizipen horiek tratu txartzat har zitezkeenik ere». Informatzailea

«Ijito-komunitatearekin are zailagoa da, haien kultura oso matxista delako, eta ez zaio horri heltzen. Izan ere, inoiz haiekin hitz egin nuenean, esaten nuen aldatzen ari dela, jada ez dela hain matxista, baina haiek zera zioten: "ez, ijitoen kultura den bezalakoa da". Beraz, den bezalakoa dela, eta bestela ez dela ijitoen kultura. Baina zaila da, guztiak hala baitatuz... Kontu hauetan oso aurreratua zarela esatea..., ez dakit... baina 60ko hamarkadara joatea bezalakoa da, badakizu? Horietako askoren pentsamoldea, batez ere ijitoen kolektiboarena, horixe da. Emakumearen rola halakoxea da». Informatzailea

«Ijito-etniako neskek, bistan denez, ez dute inondik ere pentsatzen lan egitea, batez ere lanera joaten uzten ez dietelako. Hemen

eskolara joaterik izan ez duten emakume ijitoak izan ditugu, e? Eta guk Banakako Tratamendu Programetan sartu, "eskolara joan behar duzu esan", eta eskolara ez joatea; izan ere, bikotekideek, senarrek, ez diete eskolara joaten uzten, eskola mistoa delako eta ea zer egiten duten haiek gizonen eskolara joaten». 2. informatzailea

Emakume horiek guztiek duten abantaila da sareak eta familia-kohesioa dituztela, eta horri esker, babesa, bisitak eta espetxean behar dituzten alderdi horiek izaten dituztela. Jasotako elkarrizketek erakusten dutenez, harreman ona dago emakumeen artean, etnia eta erlijioagatiko diskriminaziorik gabe, kontuan hartuta beste erlijio-sinesmen batzuetako presoak (ebanjelistak eta musulmanak) daudela. Haien sinemenekin lotutako alderdiak errespetatu egiten dituzte, bai espe-txeak, bai gainerako espetxeratuek.

«Musulmanekin ere bai, gizonekin ekitaldi kolektiboetara ez ir-tea, eta Gabonetan beren gelan geratzea. Gabon-gauean eta Egube-rrri egunean denek elkarrekin jaten uzten diegu, gizonek eta emaku-meek batera afaltzen dute egun berezi horietan, La Mercè egunean, eta halakoetan. Pena handia eman zidan, guztiak atera baitziren, bi neska ijito eta musulman bat izan ezik, eta beren gelan jan zuten, ba-karrik». Informatzailea

*«Bitxia zera da: ijitoek **bisita guztiak beteta** dituzte, eta besteek ez, besteek ez dute bisitarik izaten. Espetxean dauden emakumeak isolatuta geratzen dira, kontuan hartuta, gainera, haiek zirela beren ardurapean pertsonak zituztenak. Estigma geratu egiten zaie». E17*

«Hiru emakume ijito daude, eta errespetu handia diegu, eta haiek guri ere bai. Elkarrekikoa da. Ijitoek lagundu didate gehien. Haiek in moldatzen jakin behar duzu. Gehien dutenak dira, ez zaie ezer falta, familiak denetarik ekartzen die». E18

Emakume ijitoaren profil horrez gain, badira emakume gazteen ata-lean aipatu ditugun beste bi profil: substantzia psikoaktiboekiko men-dekotasuna duten emakumeak, eta emakume atzerritarrak, gehienbat osasun publikoaren aurkako delituak egin dituztenak.

«Ba, mendekotasunari dagokionez, espetxe guztietan bezala... Sartzen diren emakume gehienak bi profiletakoak dira: bat, atze-rritarrak, legez kanpo daudenak, edo droga-trafikoko delituengatik edo gizakien salerosketa delituengatik daudenak; eta bestea, toxi-komanoak, delitu guztiak kontsumoarekin lotuta dituztenak». Psi-kologoa

«Zenbait, agian, ez dira drogetara itzultzen, hau baliagarria izan zaie, hala esaten dute batzuek: "eskerrak harrapatu nauten; bes-tela, elur-pilota hau gero eta handiagoa izango zen, eta azkenean hil egingo nintzen, nik ez nuelako..."». Gizarte-langilea

Emakumeen talde txiki bat ingurune eta testuinguru integratuagoe-tatik eta normalizatuagoetatik dator, eta delitua egiteak eta ondoren espetxeratua izateak dakarkie haustura bizitzan. Hala ere, behin kon-dena bete ondoren, errazago gizarteratu ahal izango dira, gizartearen eremu batean zein bestean: lanean, familian, eremu pertsonalean, eta abar.

*«Badira espetxean sartzen diren eta **gizarteratze-arazorik ez duten** pertsonak; gizarteratuta zeuden, eta itzultzean gizarteratuta jarraituko dute; delituak eraman ditu bertara».* Gizarte-langilea

Hala ere, informatzaileetako batek zioenez, gehienek «motxila bat» dakarte aldean, bizi-ibilbide oso txarra izan dute txikitatik.

*«Beraz, motxila batekin iristen dira bertara. Gainera, askotan, es-petxera datozenak gizarte-zerbitzuek **txikitatik antzeman dituzte**. Pertsona-mota horiekin nekez lan egin daiteke. Hau da, nekeza dena ez da haiekin lan egitea, baizik eta hemendik, kaxotxan artean, bizi-modua konponduta ateratzea, hori da nekeza. Espetxean sartzen di-renean, marjinaziotik datoz, eta ezin izan ditu onbideratu, ez hezkun-tza-sistemak, ez osasun-sistemak. Jaio zirenetik, gizarte-zerbitzuek bazekiten pertsona horiek arazo bat zutela, eta ez hezkuntzak, ez osasunak, ez gizarte-zerbitzuek ezin izan dituzte onbideratu. Eta 25 urte beteta, espetxean sartzen dira».* Gizarte-langilea

*«Denek duten ezaugarria **pobrezia** dela esango nuke. Horri buruz pentsatzen aritu nintzen, bai, uste dut ezaugarri ohikoena eta guztiak dutena pobrezia dela. Ohikoena diot, batzuk ez baitira pobreak».* Gi-zarte-langilea

*«Hemen izan ditugun ia emakume guztiak, beren bizitza pixka bat kontatuz gero... denek **bizitza tamalgarria** izan dute. Denetarik gertatu zaie; tratu txarrak jasan dituzte, abusuak, ez dakit zer familia-desegituraketa... Jakina, guztiak dira, funtsean, emakume gaixoak... eta, beraz, diozu: "orduan, inork ez luke kartzelan egon beharko", ez?».* Funtzionarioa

Hautzarotik eta nerabezarotik askatasunaz gabetutako emakume askok premia handiko egoerak bizi izan dituzte. Ez soilik baliabide ma-

terialen eta oinarrizko beharren premia, bai eta afektuaren eta zaintza-
ren premia ere. Hori gutxi ez, eta mota guztietako abusuak eta askota-
riko indarkeria-egoerak jasan dituzte. Gabezia hori espetxean ikusiko
da, ez baitute ez dirurik ez bisitarik izaten, eta, batzuetan, gizarte-era-
kundeek betetzen baitute hutsune hori, hala nola Caritasek edo Espe-
txe Pastoraltzak.

*«Orduan, **diru-sarrerarik** ez duen jendeak, kalekoak, eska de-
zala eta eman diezaiotela, jende askok ez baitu diru-sarrerarik, edo ez
baitu familiarik. Hemen, dirurik ez baduzu, oso gaizki bizi zara».* E16

*«Donostiako herri batekoa naiz. Nire familia ere bai. Lehen egu-
netik babestu naute, badakite zein den kontua, nahiz eta bidezkoa ez
izan. **Familiaren babesa izateak asko balio du.** Familiaren bisitarik
izaten ez duten emakumeak, dela, agian, atzerritarrak direlako dela
etxetik urrun daudelako, gogorra da, gaizki pasatzen dute».* E20

Gainerako emakumeek besteen gabeziak hautematen dituzte, eta,
batzuetan, haiekiko elkartasun- edo laguntza-ekintzak egiten dira. Iso-
lamendu-egoera, batzuentzat, jatorri atzerritarrekoa izateak eragi-
ten zuen, haien familia Atlantikoaren beste aldean egoteak, eta haien
seme-alaben edo senideen bisitak ezin jaso izateak.

Azkenik, nabarmentzeko profila da terrorismo-delituagatik konde-
natutako emakumeena; oso bestelako ezaugarriak ditu gainerako ema-
kumeekin alderatuta⁹.

*«Ni Andaluzian nengoenean, han zeuden etarrek inondik ere ez
zuten nirekin hitz egin nahi, eta orain, aldiz, ez dut inolako arazo-
rik horietako edonorekin hizketaldi bat izateko. Kexu dira etengabe,
gauza batzuk aldatzeko eskatzen dute etengabe, beste gauza batzuk
gehitzeko... Baina egia da profesionalekin duten harremana hurbile-
koagoa dela, eta, tira, elkarrizketa psikologiko bat izan dezakezula.
Bestalde, badira espetxe-harreman soilaz haragoko gaiak jorratzea
axola ez zaien emakumeak, eta beste batzuek, aldiz, ez dute horrela-
korik nahi».* Psikologoa

*«Begira, nik bai uste dut apur bat heltzen direla... espetxeratuak
dira, gehienek urte asko daramatzate espetxean, hogeitaka urte da-
ramatzate, lehen graduako egoerak izan dituzte, lekualdatze asko, eta
tratu txar instituzionalak jasan dituzte, argi eta garbi, lekualdatzeak,
isolatzeak, sakabanatzeak.... Tira, baloratuko da terrorismoaren aur-*

⁹ Espetxean, Bandakoak, Politikoak edo Etarrek esaten zaie espetxeratu horiei, baina askotariko egoerak daude talde horren barruan, eta ez dira azterlan honetan jaso.

kako borrokan esku hartu duen ala ez, baina nik nire lanbidean ikusitakotik, ez dut horrela bizi izan. Egia da askotan hona iristen direla... atzaparrak kanpoan balituzte bezala, baina berehala ikusten dute zer harreman-mota duten nirekin, gainerako presoekin, funtzionarioekin, hezitzailearekin eta, azkenean, erlaxatu egiten dira, pixkanaka erlaxatzen dira. Eta, tira, haiek pixka bat bereari eusten diote, gu desberdinak garela esanez bezala. Eskakizun gutxiago egiten dituzte; gainera, kanpoan besteek ez dituzten familia- eta laguntza-egiturak izaten dituzte normalean, baina haiei bereziki gustatzen zaie tarte pixka bat markatzen jarraitzea: "gu espetxean gaude beste zerbaitegatik", "beste profil batekoak gara". Baina, tira, uste dut, gero, bizikidetzari dagokionez, azkenean jarduera askotan edo gauza askotan parte hartzen hasi direla». Gizarte-langilea

Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan horrelako emakume gehiago daudenez, egokitu egin behar izan dute, bai emakume horiek, bai barne- eta zaintza-arloko funtzionarioek eta profesionalak. Hala ere, emakumeen kolektibo horren erreferentzietan jasotako aipamenak positiboak izan dira, eta, tarte baten ondoren, laguntza-harremanak ezarri dituzte beste emakumeekin, eta babesa eman diete.

«Alde horretatik, oztopo gutxiago daude emakumeen artean, oztopo gutxiago daude... Nik behintzat, bandako neskekin, esan beharra dut kultura-mailan, maila kognitiboan, bestelakoa dela, beste gauza bat dela, beste ikuspuntu bat. Besteei laguntzeko ahalegina egiten da, besteak konbentziazteko saiakera egiten da, adibidez, oihu edo mehatxu eginez ez dela inora heltzen. Nire ustez, emakumeen erreakzioa, haien artean behintzat, berdinen artekoa da oso, oso parekoa... Destino batean lanpostu huts bat badago, litekeena da bandako batek norbaitengana jotzea, zera esanez: "aizu, hauxe hutsik geratu da, begiratu ea honako hau..., izan ere, agian, lanpetuago badago hobeto egongo da"...». Hezitzailea

Espetxealdiko urteen eta adinak aldean dakarren heldutasunaren ondorioz, emakume askok beste estrategia batzuk erabiltzera jo dute espetxean.

Azkenik, elkarrizketa askotan hautemandako alderdi komun bat izan da emakumeek berrerortze txikia dutela, oso larriak ez diren delituak egiten dituztela, eta berrerortzeko arrisku handiena lehendik pobrezia larrian zeuden edo droga-mendetasuneko arazoak dituzten emakumeek dutela.

«Badirudi mundu guztia erortzen dela, mundu guztia berriro sartzan dela, beti berdinak direla... Ez da egia, arreta jarritz gero...

*Behin edo behin txukunketa egiten hastean... behin oroitzen naiz artxibatutako emakumeen protokolo sozial guztiak txukuntzen jardun nuela, eta **gehienak ez ziren itzuli**. Bai, badago sarritan itzultzen den ehuneko txiki bat...». Gizarte-langilea*

1.3. Indarkeriaren biktimak

Espetxean sartzen diren emakume askoren ezaugarri arrunt bat aurretik indarkeria jasan izana da. Hainbestearino da bereizgarri emakumeen multzo handi baten kasuan, ezen atal honetan ikusarazi nahi izan baitugu. Egindako elkarrizketetan, tratu txarra jasan izanaren berri eman zuten, eta haurtzaroan edo nerabezaroan bizi izandako sexu-abusuen berri ere eman ziguten, elkarrizketatzaileek horri buruz galdetu gabe.

«Taldean tratu txarrak jasaten zituzten emakumeei buruzko ikas-taro bat egin genuen, eta taldean hitz egiten genuen, baita guztiok batera ere. Urtebete baino gehiago iraun zuen. Baina ni hiru hilabetez bakarrik egon nintzen, pixka bat ondoezik sentitzen nintzelako, zerrikeria guztia nahasten zitzaidan, eta utzi egin nuen. Nik uste dut, ondo eraman dudanez, nahiko erraza egin zaidala (espetxealdia). Okerragoak bizi izan ditut kalean, tratu txarren zortzi urteetan, barruan igarotako bost urteetan baino». E1

«Hemen bada kide bat, bikotekide ohiarekin aurrez aurreko bisitak zituena eta harengandik jipoiak jasotzen zituena, eta berea zen errua, ez zuelako hura salatu nahi izaten, haren beldur zelako». E13

«Senarrarekin ez, 14 urterekin desloratu ninduten, bortxatuz... osabak. Ez daki inork. Psikologoarekin hemen baino askoz gehiago landu dut beste zentro batzuetan. Genero-indarkeriari buruzko ikas-taroa egiten aritu naiz, eta asko lagundu dit. Bikoteren batek jo izan nau, eta hitzezko indarkeria erabili ere bai». E13

Bikote barruko indarkeriaren eta emakumeek jasandako beste indarkeria batzuen errealitatea hain da gailena eta etengabea, non hobetu egin baitaitezke indarkeria horrek eragindako trauma sendatzeko arreta, eta egoera horiek maneiatzeko estrategiak eskuratzea. Horixe aitortzen zuen talde tekniko profesionalak ere.

«Zenbat emakume artatu genitzake genero-indarkeriagatik? Modulu horretan hamar psikologo behar ditugu gutxienez, baina

ez modulu horretan soilik, baizik eta modulu guztietan, benetako arreta emateko. Izan ere, hona etortzen diren emakumeen %90ek genero-indarkeriarengatiko zerbitzuak behar dituzte». Informatzaileria.

Publizitate-kanpaina ugari egiten dira indarkeria matxistaren aurka hainbat eremutan, kontuan hartuta lege integralak dagoeneko 20 urte beteko dituela, baina Espainiako Estatu osoko espetxeetan, tartean Euskadikoetan, arreta oso txikia jasotzen dute indarkeria-mota horren biktima izan direnek; deigarria eta kontraesankorra da.

2. Espetxean sartu aurreko egoera

Espetxean sartu aurretik, emakumeek oso bestelako bizi-ibilbideak izan zituzten. Atal honetan, inkestaren bidez lortutako emaitzen berri emango dugu.

Askatasunaz gabetutako emakumeek espetxean sartu aurretik arrisku- edo zaurgarritasun-egoerarik jasan ote zuten aztertu da. Ildo horretatik, emakumeen % 50ek adierazi zuen ondoez psikologikoa zuela, % 46,2k adierazi zuen drogekiko edo alkoholarekiko mendekotasuna zuela, % 42,5ek bikotekidearengandik tratatu txarrak jasotzen zituela, % 40,5ek arazo ekonomiko larriak zituela, % 39,5ek medikazio psikiatrikoarekin tratatuta zegoela, % 37,8k osasun mentaleko arazoak zituela eta % 36,8k sexu-abusuak jasan zituela. Klean bizitzea edo prostituziora behartua izatea ziren egoera ohikoenak: emakumeen % 16,7 eta % 17,1, hurrenez hurren.

Espetxean 10 urte edo gutxiago zeramatzen emakumeak eta 10 urte baino gehiago zeramatzenak alderatuz gero, alde nabarmenak zeuden egoera hauetan: bikotekideak tratatu txarrak ematea, ondoez psikologikoak izatea eta arazo ekonomiko larriak izatea. Prebalentzia handiagoa zuten espetxean urte gutxiago zeramatzenek, 10 baino urte gehiago zeramatzenek baino. Beste egoera batzuk ere, esaterako, delitua egiteko presioa jasatea, drogekiko edo alkoholarekiko mendekotasuna izatea edo tratamendu psikiatrikoa jasotzea, sarriagoak ziren espetxean denbora gutxiago zeramatzen artean denbora gehiago zeramatzen artean baino. Gainerako egoeretan ez zen alde esanguratsurik hauteman.

3. taula
Espetxeratu aurretik bizitako egoerak

Espetxeratu aurretik, egoera hautakoren bat jasan zenuen?	GUZTIAK ¹⁰		≤ 10 URTE		> 10 URTE		p balioa ¹¹
	n	BAI (%)	n	BAI (%)	n	BAI (%)	
Leporatu didaten delitua egiteko presionatu ninduten	36	30,6	23	43,5	13	7,7	0,027
Bikotekideak tratu txarrak ematen zizkidan	40	42,5	27	59,3	13	7,7	0,002
Sexu-abusua jasan nuen	38	36,8	25	40,0	13	30,8	0,581
Prostituzioan aritzera behartu ninduten	35	17,1	22	22,7	13	7,7	0,261
Drogen/alkoholaren mende nengoen	39	46,2	26	57,7	13	23,1	0,044
Kalean bizi nintzen	36	16,7	23	17,4	13	15,4	0,878
Desgaitasun fisikoa	37	24,3	24	29,2	13	15,4	0,358
Desgaitasun psikikoa	37	24,3	24	29,2	13	15,4	0,358
Osasun mentaleko arazoak	37	37,8	24	50,0	13	15,4	0,041
Ondoez psikologikoak	38	50,0	25	64,0	13	23,1	0,018
Medikazio psikiatrikoarekin tratamenduan	38	39,5	25	52,0	13	15,4	0,031
Arazo ekonomiko larriak	42	40,5	29	55,2	13	7,7	0,004

Horrez gain, espetxeratu aurretik hurrengo taulan jasota dauden egoera horietako batean ote zeuden ere galdetu zitzaien. % 52,6k lan egonkorra zeukan¹², % 34,4k medikazioa hartzen zuen osasun menta-

¹⁰ Erantzun duten kasuen kopurua eta baiezko erantzuna eman dutenen ehunekoa (%) aurkeztu dira.

¹¹ p balioa adierazi da, alderatutako bi multzoen arteko estatistika-adierazgarritasuna adierazteko: 10 urte edo gutxiagoko zigorra dutenen eta 10 urte baino gehiagoko zigorra dutenen artekoa. Horrela, aldeak adierazgarriak direnean, hau da, bi taldeen artean desberdintasunak daudenean, p balioa 0,05 edo txikiagoa da, eta emaitza garrantzitsua letra lodiz markatu da.

¹² Galdetegia betetzen ari zen emakumeetako batek lan egonkorra izateak zer esan nahi zuen galdetu zigen. Litekeena da, beraz, hitz horrek emakume batzuentzat beste adiera bat ere izatea.

lagatik, % 32,4k diru/sorospen publikoa jasotzen zuen, % 30,3k bere kabuz zaintzen zituen seme-alabak, % 21,9 metadona/beste adikzio batzuen tratamenduan zegoen. % 3,3k bakarrik zituen seme-alabak harreran. Espetxean 10 urte edo gutxiago zeramatzaten emakumeak eta 10 urte baino gehiago zeramatzatenak alderatuz gero, ez zen alde esanguratsurik hautematen egoera bakar batean ere, seme-alabak beren kabuz zaintzeari dagokionean salbu. Azken kasu horretan, ez zegoen halako egoerarik 10 urte baino gehiagoz espetxeratutako emakumeen artean; eta, alderantziz, 10 urte edo gutxiago zeramatzaten emakumeen % 30,3 zeuden egoera horretan.

4. taula
Espetxeratu aurreko egoerak

Espetxera sartu aurretik, egoera hauetakoren batean zeuden?	GUZTIAK		≤ 10 URTE		> 10 URTE		p balioa
	n	BAI (%)	n	BAI (%)	n	BAI (%)	
Lan egonkorra neukan	38	52,6	25	48,0	13	61,5	0,434
Aldi baterako lana neukan	28	14,3	17	11,8	11	18,2	0,642
Gurasoak zaintzapean nituen	32	15,6	20	15,0	12	16,7	0,902
Nik bakarrik zaintzen nituen seme-alabak	33	30,3	21	47,6	15	0,0	0,005
Diru/sorospen publikoa jasotzen nuen	34	32,4	22	40,9	12	16,7	0,155
Metadona/beste mendekotasun batzuen tratamenduan nengoen	32	21,9	20	25,0	12	16,7	0,587
Medikazioa hartzen nuen, osasun mentalagatik	32	34,4	20	45,0	12	16,7	0,108
Seme-alabak harreran nituen	30	3,3	18	5,6	15	0,0	0,414

3. Espetxeratzea eta helmuga¹³

Estatuan dugun Espetxeen Lege Organiko Orokorra¹⁴ ez du gizonen eta emakumeen arteko inolako bereizketarik egiten espetxe batean sartzen diren unean, eta irizpide berberak erabiltzen dira espetxeratua- ren beharretara hobekien egokitzen den modulua zein den zehazteko informazioa behatzean edo biltzean.

Sexua, besteak beste, espetxeetako bereizketa-irizpideetako bat da, eta gizonak eta emakumeak bananduta egon beharko dute, baldin eta erregelamendu bidez ezarritako salbuespenezko kasurik ez badago.

Jarduketa-protokolo baten arabera, pertsona bat espetxe batean sartzen denean, hasiera batean atal jakin batean kokatzen dute. Gehienez ere bost egun eman ahal izango ditu bertan, arrazoi medikoak edo segurtasunekoak egon ezean. Era berean, Espetxeen Erregelamenduaren 20. artikulua ezartzen duenez, espetxean sartzean, ahalik eta lasterren artatu behar dute pertsona hori hainbat profesionalak. Espezialista horiek haren egoeraren ebaluazioa egiten dute, espetxe barruan talde edo modulu espezifiko bat esleitzea proposatzen dute eta haren beharretara egokitutako tratamendu-programa indibidualizatua egiten dute.

«Espetxeratzean, lehen elkarrizketa horiek egiten zaizkio; psiko- logoarekin, gizarte-langilearekin eta hezitzailearekin. Bai? Barne-sail- kapenerako; gero, modulura igarotzen da, eta moduluan bere talde propioa du. Handik gutxira, bertako hiru profesionalak... taldeko le- gelaria ere kontuan hartzen delako, baina bi baino ez daude... espe- dienteak eta protokoloak baino ez dituzte egiten, ez baitie besterik egiteko denbora ematen». Psikologoa

«Guk, normalean, norbait lanegun batean espetxeratuz gero, handik 24 ordura ikusi ohi genuen, baina elkarrizketa bat egiten zaio,

¹³ 1. Arreta egokia eskaini beharko zaie une horretan bereziki kalteberak diren emakumeen eta haurren ospitaleratze-prozedurei. Emakumezko preso heldu berriek beren senideekin elkartzeko, aholkularitza juridikoa jasotzeko eta erregelamenduari, espe- txe-araubideari eta ulertzen duten hizkuntza batean laguntza behar izanez gero erabili beharreko instantziei buruzko informazioa jasotzeko bitartekoak izan beharko dituzte, eta, atzerritarren kasuan, beren kontsulatueta ordezkariegana jotzeko aukera ere izan beharko dute.

2. Espetxeratzearen aurretik edo espetxeratzen diren unean, aukera eman beharko zaie haurrak ardurapean dituzten emakumeei haiei buruzko erabakiak hartzeko, kar- tzela-aldia bertan behera uzteko aukera ere aurreikusiz, zentzuzkoa den aldi baterako, haurren interes gorenaren arabera.

¹⁴ 1/1979 Lege Organikoa, irailaren 26koa, Espetxeen Lege Orokorra, 1979ko urria- ren 5eko BOE, 239. zk.

bere familiaz, diru-sarrerez eta etxebizitzaz galdetzeko. Hau da, gizarzte-arazoren bat duen ala ez jakiteko, horra bideratuta dago. Eta tira, gero, familiekin harremanetan jartzen bagaituzte, deitu egiten diegu, familia lasaitzeko. Esku-hartze hori hasieran egiten da». Gizarzte-langilea.

Espetxeratuaren osasun-egoera ebaluatzeko, medikuek haren osasun fisikoa eta mentala aztertzen dituzte. Ebaluazio horretan, suizidio-saiakeraren arriskurik dagoen zehazten da, dagokion protokoloa aplikatzeko (Euskal Autonomia Erkidegoan protokolo espezifiko bat dago). Era berean, adikziorik duen, medikaziorik hartu edo tratamendurik jarraitu behar duen baloratzen da. Hala ere, batzuetan oharkabean igaro daitezke emakumeen premia espezifiko batzuk, hala nola abstinenzia-sindromea beren kabuz jasan behar izatea, normalean ez dutelako jakinarazten eta profesional medikoek edo psikologoek ez dutelako detektatzen.

«Begira, espetxeratzean kokaina kontsumitzen nuen. Orduan, gertatu zitzaidan guztiarekin, ni kontsumitzen aritu nintzen atxilotu ninduten egunera arte. Gero bai, abstinenzia pasatzen duzu. Gogorra da, dena buruan biltzen zaizulako. Ez duzu barrenak husteko modurik; zigarro bat, norbaitekin hitz egitea, etxera deitzea... Ez dituzu erraztasun horiek. Iritsi bezain pronto esan zidaten isolamendura nindoala, eta ez dagoela besterik. Ez zegoen inor, ez psikologorik, ez norekin hitz egin. Eta 26 hilabete daramatzat, eta primeran». E15

Espetxean sartzeak larriagotu egin ditzake aurreko osasun mentaleko egoerak. Droga-mendekotasuna duten emakumeek abstinenzia-sindromeari aurre egin behar diote espetxeko lehen isolamendu-uneetan, eta sindrome horren intentsitatea gogorragoa edo arinagoa izan daiteke, kontsumo-mailaren arabera. Laguntza egokia ez jasotzeak nabarmen larriagotu ditzake espetxeratzearen ondorioak, eta esperientzia are traumatikoagoa izatea eragin. Euskadiko espetheen abantailetakoa bat da medikuek presoaren historia klinikoa eskura dezaketela, eta, horri esker, hobeto ezagut dezaketela haren osasun-egoera orokorra. Osasun-eskumenak Osakidetzari transferitu izanak erraztu egin du arreta hori azken urteetan.

«Abisatu egiten digute, ikus ditzagun. Hor egiten da lehen balorazioa... kalean duten medikazioaren gaia... Abantaila hori dugu, eta Osakidetzaren historia ikus dezakegu Euskaditik baldin badatoz, suizidio-arriskua baloratzeko». Medikua

Medikuaz gain, gainerako profesionalek (psikologoak, hezitzaileak, gizarte-langileak) 24 orduko epean ebaluatu behar dute pertsona horren egoera soziala eta pertsonala, eta espetxeratzean jarduketara zehatzik behar duten zehaztu behar dute. Halaxe esan ziguten elkarriketetan.

«Hainbat protokolo daude profesional batentzat eta besteearentzat. Psikologoei dagokienez, horri buruz hitz egin baitezaket nik, bada zirkular bat, norbait askatasunaz gabetzean, eta soilik askatasunaz gabetzean... eta orain esango dizut zergatik ...lehenengo 24 orduetan ebaluatu behar dugula arautzen duena. Zergatik? Arrisku autolitikoa duen edo aurretik gaixotasun mentalik duen detektatzeko, edo beste edozein zirkunstantzia, pertsona horren osotasun fisikoa babesteko erabakiak hartu behar izateko modukoa. Beraz, psikologoak gara askatasunaz gabetutako pertsona hori baloratzen dugunak. Beste zentro batetik badator, tokiz aldatu badute edo graduz aldatu dutelako badator, beste profesional batzuek baloratu dituzten pertsonak direnez, jakintzat ematen dugu dagoeneko egin dela lehen ebaluazio hori, eta, beraz, guk ez ditugu jada pertsona horiek ikusten, gizarte-langileek bakarrik ikusten dituzte, kontaktuetarako edo dena delakorako datuak hartzeko. Eta hezitzaileek, haiek duten profilaren arabera, nolabait, barne-sailkapenerako esleipenak egiteko, nora joango diren eta non jarriko diren erabakitzeko. Beraz, emakumezkoen eta gizonezkoen kasuan, halakoetan berdin-berdin jokatzeko da. Nik ez dut alderik ikusten askatasunaz gabetzeetan, emakumea zein gizona izan. Berdin zait». Psikologoa

«Beraz, nik guztiak ikusten ditut sartzen direnean, gizarte-langileena egiten dugu, tira, hori espetxeratu guztiekin egiten dugu, hor ez dago alderik. Nik sarrera-elkarriketa egiten dut. Elkarriketa nahiko sakona izaten da hasieratik, sartzen diren unea oso garrantzitsua izaten baita emakumearentzat, izan lehen aldiz sartzean, izan dagoeneko gurean ezaguna denean. Baina egia da asko entzuteko unea dela, asko jasotzeko unea... emozioei eusteko unea ere bada, eta baita informazio asko biltzeko unea ere, jada hasieratik lanerako plan bat ezartzen saiatzeko. Esku hartzeko zer behar daude? Eta prestaketa horretan eragina dauka prebentziozkoa edo zigortua den jakiteak; logikoa denez, gauzak asko aldatzen dira emakumearen espetxeratzea prebentiboa edo zigortua den kontuan hartuta. Izan ere, berarentzat ere prebentziozko espetxeratzea edo zigortua bizitzea ez dira gauza bera. Baina, tira, zigortuta dagoen batekin, sarrera-elkarriketatik hasten gara hasierako sailkapena zein izan daitekeen pixka bat prestatzen, ikusten ea zer informazio biltzea izan daitekeen interesgarria sailkapenerako». Gizarte-langilea

Aurreko profesionalak aipatzen zigun moduan, ez dago alderik, ez espetxeratzeke protokoloan, ez eta esku-hartzean ere, gizonezko edo emakumezko izan. Ildo horretan, garrantzitsua litzateke genero-ikuspedia txertatzen duten tresna espezifikokoak¹⁵ izatea, espetxeratzean emakumeek dituzten behar eta gabezia espezifikokoak errazago hautemateko.

Protokolo horiek aldatu egin ziren pandemian, eta neurriak hartu ziren presoak ez kutsatzeko.

«Hor pixka bat galtzen naiz, batez ere espetxe honetan, normalea da haiek etortzea eta heldutako pertsonaren hatz-markak hartzea, datuak hartzea, sarrera-fitxa egitea; medikuak aztertu behar du, ez dakit espetxeratu eta 24 edo 48 ordura den. Une horretan emakumeak sartzen dira, zuzenean igarotzen dira emakumeen modulura, eta espetxeratu berrientzako soilik den gela bat dago bertan. Orduan, miatu egiten dute, debekatuta dagoen ezerekin sar ez dadin, jakina. Eta behin modulura heltzean, gelaxka horretan sartzen da, espetxeratu laguntzaile batekin, eta berekin egongo da gutxi gorabehera astebetetz, moduluaren funtzionamendua azaltzeko, errespetu-arauak pixka bat azaltzeko, eta abar. Normalean, gu ere hurrengo egunean jaisten gara, asteburua egokitu ez bada, espetxeratu eta hurrengo egunean. Baina orain prebentziozko isolamendua ere badago, baina jada ez da COVIDarekin zegoen bezain zorrotza, orduan pixka bat itxaron behar baikenuen, PCRa egin arte, haiekin egon ahal izateko, baina elkarriketak kristalean zehar ere egin zitezkeen. Baina, egiazor, kristalean zehar, espetxeratu batekin sarrera-elkarriketa bat... agian espetxea dagoeneko ezagutzen duen preso batekin, gehiagotan egon den batekin. Baina espetxean lehen aldiz sartzen den pertsona batek hezitzailearekin elkarriketa kristal bidez egitea, kontuan hartuta espetxean bere eguneroko kontaktua izango dela, bada, hori ere ez; jaitsi eta haiekin hitz egiten genuen, baina aurkezpen hu-

¹⁵ 6/2021 zerbitzu aginduak, Zigor Betearazpenaren eta Gizarteratzearen Zuzendaritza Nagusiarenak (Estatuko Epetxeetako Idazkaritza Nagusia) «Zigor-betearazpenaren genero-ikuspedia ezartzeko oinarri» buruzkoak, 2. puntuan deskribatzen ditu garatu beharreko genero-neurriak: «2. *Espetxe-kudeaketa osoa berrikusi eta baloratu beharko da, espetxeratutako emakumeen desberdintasun-egoerak detektatzeko eta horiek arintzeko jarduerak abian jartzeko. Alde horretatik, protokoloek, espetxeratzean egindako elkarriketen txostenek eta suizidioak prebenitzeko programari buruzkoek berariaz eta modu berezian jaso beharko dituzte espetxean dauden emakumeetan bereziki gailentzen diren alderdiak. Zehazki, alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: genero-indarkeriaren edo beste indarkeria batzuen biktima izatea, prostituzioa, adikzioak, etxerik gabeko emakumeak, guraso bakarrekoak, immigrazioa, talde etnikoetako kide izatea, gutxiengoetako kide izatea, edo beste edozein kalteberatasun-egoera. Guztiak ere nahitaez jaso eta kontuan hartzekoak dira espetxealdi osoan.*»

tseko elkarritzeta bat zen, hau da, "hezitzailea naiz, barrura igarotzen zarenean modulan egongo naiz egunero, eta erreferentzia izango naiz"...». Hezitzailea

Hasierako balorazioan, emakumeek pairatzen dituzten egoera asko hautematen dira: gizarte- eta osasun-egoera larriak, edo esku-hartze bat behar dutenak, bereziki espetxean eskarmentu handiko talde bat baldin badago.

«Norbait oso hondatuta baldin badator, azkar antzematen zaio, baina dagoeneko hala zetorren kanpotik. Arazo psikopatologiko batekin baldin badator, berehala antzematen zaio. Izan ere, urte askoko esperientzia dut, urte asko dira halako profilak ikusten, badakit ez dela oso zientifikoa esatea, baina horixe da errealitatea, haiek ikuste hutsarekin badakigu jada zertxobait... begirada, begi-kontaktua, hitzik gabeko komunikazioa...». Psikologoa

Elkarrizketatutako emakumeek askotariko bizipenak izan dituzte. Batzuek esperientzia ontzat kontatzen ziguten; beste batzuek, aldiz, gertaera desatsegin, gogor eta umiliagarri gisa bizi izan zuten.

«Ongi. Besterik gabe. Miatu egiten zaituzte eta egun pare bat ematen dituzu behean, espetxeratu berrien gelan. Eta ongi, zerbait nahi baduzu hari deitzen diozulako. Behean, nik uste dut hemen baino hobea dela, hemen ez baitzaituzte erizaindegira jaitsiko hilzorian ez bazaude». E13

«Oso txarra, bizitza osoan izan dudana okerreana. Gainera, konfinamenduarekin geunden, igande arratsalde batean ekarri ninduten, 17:00etan, eta zuzenean Bunkerrera sartu ninduten, 14. modulura, isolamendura, COVIDean geundelako. Gainera, gaizki nentorren, oso gaizki, nire lau seme-alabak etxean utzi nituelako, eta hor uzten zaituztelako. Hotz handia egiten du. Otorduak hotzak heltzen zaizkizu. 12 egun eman nituen isolatuta. Espetxeratu bat begira neukan, leihodun beste ziega batetik. 12 egun gogor izan ziren, ezin nuelako gainera telefonoz hitz egin, ez zidaten irteten uzten... Funtzionario zerbitzuburu batek mugikor bat uzten zidan bi egunean behin, eta etxekoekin hitz egin nezakeen 5 minutuz. Telefono-deia izaten zen. Beraz, niretzat nahiko gogorra izan zen, zein baldintzatan nentorren ere kontuan hartuta, bi egunez egon bainintzen ziegetan, lorik egin gabe, jan gabe. Eta handik hona ekartzen zaituzte, 12 egun isolatuta egoten zara, gogorra da». E15

«Tira, Ertzaintzak kalean atzeman ninduen, ikusi egin ninduten eta ziegara eraman ninduten lehenik, eta gero hona etorri nintzen,

eta hasiera-hasieratik oso ondo. Gizon bat etorri zen, arropa ekarri zidan, arroparik gabe nentorrelako, aurreko egunetik jantzita neramarenaekin, eta ziega batera ekarri ninduten, bertan bi egunez isolatuta egoteko, COVIDarengatik. Janariarekin etortzen zitzaizkidan neskek animatu egiten ninduten, ez nion negar egiteari uzten. Nik, adibidez, iritsi nintzenean, neska asko zeudela pentsatu nuen, eta 14 neska zeudela esan zidatenean, lasaitu egin nintzen». E18

Espetxeratzean, sarrera-moduluan egindako isolamendu-prozesu hori larritasunez bizi dute, eta, laguntzaileraren bat egon arren, ez dirudi espazio- eta azpiegitura-baldintzak atseginak direnik lehen une horiek igarotzeko.

«Nik gogoan dut... heldu nintzenean guztiari begira nengoela eta neskak atseginak izan zirela, oso harrera ona egin zidatela; lagun-koia naiz, urte asko eman ditut jendaurrean lan egiten. Nirea genero-indarkeriagatik da, eta, beraz, ez du borrokekin eta lapurretekin zerikusirik. Kostatu zitzaidan, asko kostatu ere, baina behin modulura heltzean, eta etxera dei egin dezakezunean, zure ziegan kokatzen zara eta zure gauzak ikusten dituzu. Ni igande batean sartu nintzen, eta nire abokatuak berehala deitu zien alabei, poltsa bat presta zezaten, eta alabak hurrengo egunean ekarri zidan epaitegira. Ostiraletik eduki ninduten arropa berarekin, hurrengo ostiralera arte. Ezin dutxaturik nengoen, isolamenduko gelek ez dutelako dutxarik, ur hotzeko txorrota bat besterik ez. Astebete arropa berarekin, lo zein esna, dutxatu gabe». E15

Emakumeen moduluan beti dago espetxeratu berriei laguntzeko prest dagoen norbait. Izan ere, haiek dakite ondoen zer sentitzen den espetxe batean lehen aldiz sartzean. Lehen egun horietan norbaiten laguntza izatea funtsezkoa da emakumeentzat, eta horietako askok ematen dute laguntza hori, espetxekideengandik babes handia izan zutela gogoratzen baitute. Une horretan, eta ondorengo beste batzuetan, emakumeen arteko elkartasun- eta laguntza-harremanak sortzen dira.

«Beti dago norbait, espetxeratu bat, nolabait harrera esaten diogun hori egiteaz arduratzen dena. Orduan, espetxeratu bat edo beste egon ohi dira zeregin hori nolabait egiten, eta, beraz, espetxeratu berriak dagoeneko moduluan dagoen batek lagunduta eman ohi ditu lehenbiziko egunak. Profilaren arabera da oso; izan ere, pertsona bat behin baino gehiagotan sartu bada eta hainbeste lagun edo gidari behar ez baditu, bada ez. Baina bai, aurreikusten da dagoeneko espetxeratuta daudenek harrera egin eta lagunduko dietela, eta hemen oso taldekoia izaten da hori, gutxi direnez, lan hori guztien artean egiten dutelako, nolabait». Gizarte-langilea

Behin sarrera-prozesuan ezarritako denbora igaro ondoren, modulu bat esleitzen zaie. Baina Martuteneko espetxean, emakumeentzako modulu bakarra dagoenez eta ezin denez modulurik hautatu, ez da giltzaperatze-motaren arabera bereizketaren printzipioa betetzen: prebentziozkoak eta kondenatuak, adinekoak eta gazteak, edota delitu-motaren arabera, besteak beste¹⁶. Preso batzuek beren egoeraren arabera sailkapen baten falta sentitzen dute (premia espezifikoari arreta emateko modulu bat baino gehiago izatearena); beste batzuek, aldiz, ez dute sailkapen hori positiboki baloratzen, ez baitute ulertzen.

«Bada, batetik ondo, horrela ez dituzulako ez onerako ez txarre-rako sailkatzen. Hemen berdin dio zure senarra jo duzun, lapurtu duzun... guztiok berdinak gara, berdinak bezala sailkatuta gaude. Hobe ikusten dut, horrela ez duzu etiketa jarrita». E20

Bestalde, espetxeratu berriei laguntzeko prestatzen dira bertan denbora bat daramaten askatasunik gabeko pertsonak, lehen aldiz sartzeak dakarren egoera traumatikoari aurre egiten laguntzeko.

«Baditugu horretarako prestatuta dauden zenbait preso, preso-laguntzaile deitzen diegunak, eta pertsona horiek dira behera jaisten direnak eta kristal batez bereizitako aldameneko gelaxka batean, lehen behaketa hori egiten diotenak, isolatuta dagoen egun horretako jarraipen hori». Psikologoa

«Ez diot uko egin laguntzeari, niri oso ondo etorri zitzaidalako. Izan ere, gero, gainera, ez dizute erretzen uzten. Ostiraleko zazpi eta erdie-tatik, igandera arte erretzen ez uztean erotu egiten zara, dena kentzen dizute. Eskerrak laguntzen jardun zuen kideari! Ordenantzakoa ere bikain portatu zen, asko kezkatzen zen isolamenduan zegoen jendeaz. Tabako-pakete bat ekarri zidan isilean. Abenduaren 6an sartu nintzen, eta abenduaren 18an igo ninduten modulura, arratsalde. Behean zaudelako beldur zara, bakarrik, eta ez dakizu zer duzun zain». E15

¹⁶ ELOOren (Espetxeen Lege Organiko Orokorra) 16. artikulua: «Ospitaleratzea edozein espetxetan egiten dela ere, berehala bananduko dira zenbait alderdi kontuan hartuta: sexua, hunkiberatasuna, adina, aurrekariak, egoera fisikoa eta mentala, eta, zigortuei dagokienez, tratamenduaren eskakizunak. Ondorioz: a) Gizonek eta emakumeek bananduta egon beharko dute, araudiaren arabera zehaztutako salbuespenezko kasuetan izan ezik. b) Atxilotuak eta presoak kondenatuengandik bananduta egongo dira, eta, bi kasuetan, berrerorleak lehen mailakoengandik. c) Gazteak, izan atxilotuak, presoak edo zigortuak, helduengandik bananduta egongo dira, araudiaren bidez zehazten diren baldintzetan. d) Gaixotasun edo urritasun fisiko edo mentalak dituztenak bananduta egongo dira espetxeko erregimen arruntari jarraitu ahal diotenengandik. e) Atxilotuak eta dolo-zko delituengatik preso daudenak eta zuhurtziagabekeriako delituengatik daudenak bananduta egongo dira».

«Bestela ere nahiko gogorra bada aske zegoen pertsona bat espetxeratzea, kontuan hartuta asko lehen aldiz datozela... bada, pentsa nolakoa den bakarrik zauden modulu batera sartzea, eta hor bestek kristalean zehar baino ez ikustea. Kontxo, bere larruan jarrita, ez dut pentsatu nahi nolakoa izan behar duen horrek». Psikologoa

Profesionalek aipatu zutenez, espetxeratzeko unean alde nabarmen bat zegoen bi sexuen artean: larritasunaren eta antsietatearen zama askoz ere handiagoa zen emakumeen artean gizonen artean baino.

«Larritasun-arazoak, antsietate-arazoak. Nik jakin badakit emakumeek gehiago sufritzen dituztela hain akutua diren patologia horiek. Gizonek baino gehiago, bai, gizonek baino gehiago, askotan seme-alabak kanpoan uzten dituztelako, neba-arreben, gurasoen edo aita-amaginarreben ardurapean utzi behar izaten dituztelako. Eta, tira, nekeza egiten zaie seme-alabengandik banantzea, eta batez ere ziurgabetasunari aurre egitea, haiek beti jakin nahi izaten baitute, zera... Eta nolakoa izango da nire zigorra? Sei hilabete ditut, edo zortzi hilabete? Noiz uste duzu aterako naizela? Horregatik... ez? Hau da, nire seme-alabak utzi ditut, eta haien ardura berez ardura hori hartu beharrik ez duen norbaitek hartu du...». Hezitzailea

Larritasun horren jatorria, gehienetan, beren ardurapean edo zaintzapean dituzten seme-alabak eta senideak bakarrik uztea izaten da.

«Nik psikologoari hauxe esaten diot: nahi duzuen guztia egingo dut, baina nire seme-alabak behar ditut». E15

Oinarrizko irizpideetako bat¹⁷ da zigorra bizilekutik ahalik eta gertu betetzea¹⁸, Espetxeen Lege Organiko Orokorren 12.1 artikuluan ezarritakoa betez: «Espetxeen kokapena espetxe-administrazioak finkatuko du, izendatzen diren lurralde-eremuen barruan. Nolanahi ere, ahalgina egingo da bakoitzak behar beste aukera izan ditzan, espetxeko beharrak asetzeko eta deserrotze soziala saihesteko».

«Sartzen ari den edo sartzen den jende gehiena hemengoa da, edo, nolabait, Euskadin bizi da edo hemen errota dago». Gizarte-langilea

¹⁷ ELOOren 12. artikulua

¹⁸ 4. araua: «Ahal den neurrian, emakume presoak beren etxetik gertu dauden espetxeratze-zentroetara edo errehabilitazio sozialeko zentroetara bidaliko dira, beste pertsona batzuk zaintzeko dituzten ardurak, presoen lehentasunak, eta programa eta zerbitzu egokien eskuragarritasuna kontuan hartuta».

4. Espetxeak¹⁹

Espetxeak eraldatu egin dira azken hamarkadetan, ez soilik azpiegiturari dagokionez, baita kudeaketa- eta funtzionamendu-sistemari dagokionez ere, erregimen frankistako espetxeen alderdi nabarmenenak atzean utzita; izan ere, Donostiako Martuteneko espetxea da ezaugarri horiek dituen eta irekita dagoen espetxeetako bat. Nolanahi ere, aurreikusita dago hura ixtea eta zentro berriago batera lekualdatzea.

Horri dagokionez, ez gure Espetxeen Lege Organiko Orokorrak (19. artikulua), ez gure Espetxe Erregelamenduak²⁰ (13. eta 14. artikulua), ez dute inolako bereizketarik egiten emakumeen eta gizonen artean, eta xedatzen dute gaueko alojamendurako nahiz bizitza komunerako eremuetan higiene-beharrak bete beharko dituztela, eta behar bezala egokituta egon beharko direla, bertako espazioaren bolumena, aireztapena, ura, argiztapena eta berokuntza-sistema inguruko baldintza klimatikoaren arabera doitu egon daitezela. Baina geure buruari galdetzen diogu ea zenbateraino dauden egokituta espetxeak emakumeen beharrak betetzeko eta zertan bereizten diren gizonen beharretatik.

Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago emakumeentzako berariaz egokitutako espetxerik. Beraz, bertan dauden hiru zentroetatik bitan, modulu bat edo bi dituzte espetxean sartu behar diren emakumeentzat. Zehazki, hauek dira emakumeak hartzen dituzten bi zentroak: Zaballako zentroa edo Arabako espetxe probintziala, emakumeentzako bi modulu dituen eta erregimen arruntean dauden 65 emakume hartzen dituen²¹, eta Martuteneko zentroa, emakumeentzako modulu txiki bat duena eta erregimen arruntean dauden 16 emakume hartzen dituen (2023). Zaballako zentroa ereduak²² deritzen kartzela-mota da, eta nahiko berria (2011ko abenduan inauguratu zuten). Martuteneko zentroa bestelakoa da, egitura erradiala baitu, iragan mendeko espetxee-

¹⁹ 5. araua: «Emakume presoak hartzeko barrutiek haien generoari dagozkion higiene-beharrak asetzeko behar diren instalazioak eta gaiak izan beharko dituzte, doako toalla sanitarioak eta haurren nahiz emakumeen zaintzarako ur-hornidura iraunkorra barne, bereziki janaria prestatzen duten, haurdun dauden eta edoskitzaroan edo hilero-koarekin dauden emakumeen zaintzarako».

²⁰ 190/1996 Errege Dekretua, otsailaren 9koa, Espetxeen Erregelamendua onartzen duena (BOE, 40. zk., 1996ko otsailaren 15ekoa).

²¹ Azaroaren 1ean, Eusko Jaurlaritzaren Espetxe Sistemaren datuak.

²² Horrela esaten zaie, denek egitura bera dutelako, desberdina aurreko mende-koekin alderatuta. Zentroaren sarreran, profesionalen bulegoak eta langelak daude, eta, gero, segurtasun-kontrol eta -ate batzuk igaro ondoren, hainbat modulu dituen espazio batera sartzen da. Modulu horietako batzuk askatasunaz gabetutako pertsonentzat dira, eta beste batzuk zerbitzu komunak dira, hala nola kiroldegia, eskola edo lanerako edo jardueretarako gelak.

tan ohikoa; izan ere, 1948an jarri zuten martxan, eta jada zaharkituta geratu da. Haren itxiera eta Zubietara lekualdatzea programatuta badago ere, azterlan hau egin den unean irekita jarraitzen du, eta lekualdatze-data finkorik gabe. Dena den, bertako profesional askok haren balorazio ona egiten dute, aurrerago ikusiko dugun bezala.

«Bai, baina ea, zuk bisitatu dituzun zentro ia guztiak ereduzko deritzenak dira, hau da, ez dute zerikusirik funtzionamenduan hauekin; hau espetxe bat da. Espetxearen egitura antzinako presondegiek zuten bera da, la Model, Carabanchel..., espetxe zahar guztiek egitura hau zuten, erradiala. Eta espetxe modernoak askoz ere modularragoak dira, konpartimentu gehiagotan zatitutakoak; dena dago askoz banatuago. Hemen (Martutenen) dena da oso familiarra. Hau herri handi bat bezalakoa da, edo herri txiki bat bezalakoa. Hau da, jendea askatasun handiagoz mugitzen da, eta funtzionarioarekin den harremana askoz ere estuagoa da ereduzko kartzela batean baino. Horietan, funtzionarioa beirate baten atzean egoten da, eta batzuek ezin dute atera ere. Hau da, egun osoan presoen ondoan egotea, elkar ukitzen, espetxe zaharretan baino ez da gertatzen». Funtzionarioa

«Zailtasun bakarra dituzten arazoak dira, adibidez, kartzelaren eraikuntza, hau da, ez dituzte gizonen esparru berak, moduluak txikiagoak dira, patioa ere txikiagoa da, ez du eguzkiak jotzen, jantokiak txikiagoak dira. Egia da jende gutxiago dagoela, neska gutxiago, emakume gutxiago, baina horrek eragin egiten die, gero, zenbait... zera, egiten dituztenean... hau da... sailkatzen dituztenean edo behin-behinean... dituztenean, adibidez, sarreraren eremura jaistean... Baina, noski, hori administrazioaren arazoa da, gizonek ostiralero izaten dituzte lekualdatzeak. Hemen, ezagutzen ditudan zenbait neska... hilabete baino gehiago daramate, bi hilabete lehen graduan, eta hor jarraitzen dute. Egia esan, ezkutuko zigorra da, ez baitute patiorik, ez dira ateratzen. Izan ere, gizonek...». Funtzionarioa

Martuteneko espetxeko langileei oso egokia iruditzen zitzaizen zentroaren egitura, askatasunaz gabetutako pertsonetara tratuari dagokionez, askoz ere gertukoagoa; langile horietako batzuek zioten gertutasun hori galdu egiten dela ereduzko espetxeetan²³.

«Eta asko galtzen da; funtzionarioak huts egiten du zentro berrietan, funtzionario asko kabinan egoten baitira, ...eta irten egin behar

²³ Erabilera anitzeko lekuak dira, eta hainbat profil eta ezaugarri dituzten espetxeratuak hartzeko aukera ematen dute. Ikusi: <https://www.proyectoprisiones.es/los-centros-tipo/>

da. Espetxeratua oso txarra izanagatik ere, irten beharra dago. Bai, horrela ezagutu egiten baituzu». Funtzionarioa

«Ni beti... emakumeen atalera joaten nintzen, funtzionarioekin esertzen nintzen, haiekin berriketan jarduten nuen, pixka bat... "nola dago hau?", edo "bada, gaur, ez dago aguantatuko dituenik, ea begiratu bat ematen diezun"... Badakizu, ohikoa? Eta hori da horrelako zentroen alderdi ona. Nire ustez, zentro guztiek hau bezalakoak izan beharko lukete, txikiak, askoz ere interakzio handiagoa izaten baita. Funtzionarioek esaten didate: "Aizu, XXX, jaitxi apur batean hau ikustera, ze... aurrez aurrekotik atera berri da, eta jota dago". Hori ez da gertatzen makro-kartzela batean; ezin dute. Espetxe berriak oso krudelak dira, ia ez dago kontaktu fisikorik. Badakizu ze poz den funtzionarioa espetxeratuarekin patioan paseatzen ikustea? Hori ez da gertatzen ereduzko kartzela batean». Profesionala

Era berean, haien ustez, eraikinaren espazioak eta kokapenak errazten duen hurbileko tratu horrek badu beste abantaila bat egin beharreko zereginarekin lotuta, aukera ematen baitu moduluan zer gertatzen den azkar diagnostikatzeko.

«Zentzu horretan, Martutene oso espetxe atipikoa da. Horrelako oso gutxi geratzen dira. Oso espetxe txikia da, barneratuen profila baxua da oro har, hau da, ez dago lehen graduirik, ez dago jende gatazkatsuegirik... Izan ere, funtzionatzeko moduak berak ez du uzten jende oso gatazkatsua egotea... esperientzia pixka bat izanez gero, modulura sartzen zara, bertan 15 espetxeratu dituzula, eta zerbitzua bertan egin ohi baduzu, ezagutu egiten dituzu eta, beraz, erraz jabetzen zara zer dagoen. Bost minutura jada badakizu egun lasaia izango duzun ala ez; espetxe handi batean, aldiz, ez, ezinezkoa baita». Funtzionarioa

Abantaila hori, Martutenen hain estimatua dena, desabantaila bat ere bada, emakumeek oso leku mugatua baitute, gutxi izan arren. Emakumeei zuzendutako jarduerak hobetzeko eta zabaltzeko proiektuek hartzen dute, ia erabat, egunean zehar baliatu dezaketen espazioa; beraz, oso eremu txikia geratzen da, eta, batzuetan, gatazkak²⁴ areago-ztea eragiten du.

«Hemen, leku honetan, agian, espazioa... izan ere, lehen, jangela eder bat zuten, baina bertan ileapaindegia handi bat muntatzea era-

²⁴ Gatazka esatean, espazio txiki batean, emakumeen arteko bizikidetzaharreman estuan sor daitezkeen tentsio- edo haserre-harremanez ari gara. Ez dira gizonen moduluetan sor daitezkeen gatazkak.

baki zuten, ikastaroak egiteko, baina azkenean geratu zaie... ez dakit ikusi zenuen... hau da, ile-apaindegia dagoen lekuan jangela zuten; gero, orain jangela dagoen lekuan, eguneko gela zuten, ...hor egon zitezkeen, eta erre egin zezaketen, neguan, batez ere... Baina, orain espazio hori kendu zaie, eta leku hori geratzen zaie, jateko, egoteko eta abar...». Funtzionarioa

Nolanahi ere, emakumeen moduluak eta patioak gizonenak baino txikiagoak dira. Emakumeak oso kontziente ziren zeinen espazio txikia zuten, eta, hain zuzen ere, alderdi hori izan zen ia guztiek ikerketa-taldeari aipatu zigutena, bi zentroetara elkarriketak eta gal-detegia egitera joan ginenean, baita talde honek berak emakumeen moduluak eta patioak bisitatu zituenean ere, planteatutako informazioa egiaztatu zuelarik. Emakume-kopuru txikiagoa izateaz justifikatzen zen haientzako leku gutxiago izatea; izan ere, adierazi ziguten gizonen moduluak askoz handiagoak zirela baina espetxeratuak ere askoz gehiago zirela. Espetxeetan leku gutxiago izatea justifikatzeko erabiltzen den irizpidea espetxeratuak (gizon nahiz emakume) espazio-ratioa da. Hala ere, espetxe-sistemetak adituek badakite —eta frogatuta dago— urte askoan espazio txikian bizitzeak zentzumen-gaitasunari eragiten diola, eta hori hainbat ikerketatan²⁵ aipatu izan da, non osasunean izandako ondorio kaltegarri eta negatiboak jaso diren. Emakumeek okupatzen dituzten azpiegiturak mugatuagoak dira gizonen okupaturikoak baino; hala ere, sexuaren arabera espazio-ratioa ez da garrantzitsua, baizik eta horrek osasunean duen eragina. Patio txiki batek eta kondena luze batek zentzumen-arazoak eragiten dizkio askatasunaz gabetutako edonori, eta hala berresten du literatura zientifikoak; izan ere, ondorio eta sekula nagusizat aipatzen ditu ikusmenean, pertzepzioetan eta sententzioetan izaten diren afekzioak, bizi-baldintzak aldatzen dituztenak. Egiaztatu dugun bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Estatuko gainerako lekuetan, emakumeak espazio txikiagoetan daude, gutxiago direlako, eta horrek ondorioak ditu espetxe-zigor luzeak dituzten emakumeen osasunean; gizonen ez dituzte halako ondorioak izaten, ez baitaude patio txikiagoak dituzten modulu txikietan.

Espetxeen kokapen geografikoari dagokionez, alde nabarmena dago. Martuteneko zentrora hiriko autobusez irits daiteke, euro bateko edo 2 euroko kostuarekin, baina ez da gauza bera gertatzen Zaballako zentroan, autobiaaren ondoan eta mendi baten gainean baitago. Ikuspegi atsegina ematen die askatasunaz gabetutako pertsonen espetxeko

²⁵ Ikus Columbiako Unibertsitateko Bruce Westernen ikerketak.

eraikin batetik bestera igarotzen direnean, baina oso konplexua da zentrorra joaten diren familientzat.

«Orain eraikitzen dituzten kartzela guztiak berdinak dira, denak berdin-berdinak. Eta ez dago ia autobusik. Familia horiek ezin dute; izan ere, herrira autobusez joan behar dute, herritik taxi bat hartzen dute, diputaziokoa, haraino igotzen dituen... baldin eta libre badago... eta bestela... bestela taxi bat hartu behar dute Gasteiztik, autorik ez bada, eta noski, taxian 25 edo 30 € dira joaneko bidaia eta beste 25 edo 30 € itzulerakoa. Batzuek ezin dute joan. Kartzela hone-tako kapilaua oso ona da; hori da kartzelako burua, dagoen gauzarik onena. Charly, onena... Hortaz, "Charly, zera behar dut... hau behar dut"». Funtsezko informatzailea

«Kontua da espetxea eraikitzen dutela gaiztoak urruntzeko. Hori horrela da, gizareratze... ez, gaiztoak urruntzeko. Eta ahalik eta urrunen jartzen duzu, eta horrela ez duzu inolako arazorik auzokoe-kin... badakizu zer esan nahi dizudan? Oso erraza da, ez dago istilurik». Informatzailea

Dena den, beste espetxe batzuetatik igaro diren zaintzako edo barneko funtzionarioek, gizon nahiz emakumeek, bestelako balorazioa egiten zuten Zaballa eta beste espetxe batzuk alderatzean. Berdeguneak edukitzea eta zabala izatea oso modu positiboan baloratzen zuten, bai espetxeko langileentzat bai espetxeratuentzat, ez ordea askatasunaz gabetutako emakumeentzat; izan ere, funtzionarioek adierazi zutenez, emakumeek ezin dute espazio horietaz gozatu, haien joan-etorriak murriztagoak eta laburragoak direlako, eta beti ondoan norbait dutela, gainera (gizonengan ez zuten halakorik sumatzen).

«Zerbait zehazki galdetuko bazenit, izan ere, nik orokorrean ikusten dut, eta, ba ez dakit, burura etortzen zait... ba... beste kartzela batzuk... Kartzela honek, adibidez, badu gustatu zitzaidan beste zerbait: bideak. Bideak esaten diegu eremu komunetara joateko pasabideei, hau da, modulu batetik irten eta gune soziokulturalera joateko erabiltzen direnei; hobeto zainduta daude, lorategi modukoak dira, berdeak. Naturan gaude, eta hori... Bertara irten, eta uste dut kartzelan egongo ez balira bezala sentituko direla, apur bat; ikusiko duzu irteteen. Agian, gaur, ez da hain egun ona, baina irten eta, hemen, mendian zaude, eta hori eskertzen da. Esan bezala, ni Huelvan, Malagan... izan naiz, eta han eguzkiak kiskali egiten du; hormigoia hormigoia gainea, landare eta berdegune gutxi, eta etsigarriagoa da. Alde horretatik, kartzela hau ondoen eraikitako kartzelako bat da, bisualki edo nahi duzun bezala esan». Funtzionarioa

Ziega guztiak berdinak dira, bai gizonentzat, bai emakumeentzat. Gure espetxe-sisteman printzipio zelularrak agintzen du, askatasunaz gabetutako pertsona bakoitzak bere ziega izan dezan, salbu eta ziega-ren neurriek eta bizigarritasun-baldintzek aukera ematen badute per-sona bat baino gehiago hartzeko, haien intimitatea zainduta, edota aldi baterako, espetxeratuak kopuruak banakako plazen kopurua gain-ditzen badu²⁶. Egiari zor, ziega partekatu behar bada, gune itogarria izan daiteke ondo moldatzen ez diren edo nolabaiteko enpatiarik ez duten bi lagunentzat.

«Denok dugu telebista ziegan. Berogailua neguan. Ziegak berdi-nak dira gizon nahiz emakumeentzat. Argitasuna berdina da. Kon-keta daukagu, dutxa, baina ez bidetik. Kartzela zaharrean bai, bazen. Ziegarik falta ez bada, zuk erabakitzen duzu partekatu nahi duzun ala ez». E14

Bi espetxeetan, emakumeen modulu bakar batean ere ez dago bi-detik. Aurreko espetxeratuak aipatu bezala, Arabako espetxe zaharrean baino ez zegoen, hark hala esan zigun. Emakumeen espetxeetan bideta izatea haiekiko sentsibilizazio-modu bat da, eta genero-ikuspegia txer-tatzeko modu bat, Italiako espetxeetan egiten duten bezala. Hau da, gai sinbolikoa eta praktikoa da. Oro har, emakumeek gehiago erabil-tzen dute bideta, eta arrazoiek lotura dute emakume izatearekin, ne-rabazarotik menopausiara bitartean hilekoa izatearekin, askotariko hi-lekoak izatearekin, sarritan medikazioa, etengabea garbitasuna eta atsedena eskatzen dutenak. Bidetak parte intimoak garbitzen laguntzen du odoljario jarraituak izatean, eta osagarri eroso eta egokiena da ema-kumeen higienarako. Bidetaren erabilerak, ingurumena zaindu eta eko-nomian aurrezteak ez ezik, zenbait emakumeren ongizatea hobetzea ere badakar, odoljario etengabeak eta mingarriak dituzten emakumeena eta endometriosisa edo hilekoarekin loturiko beste nahasmendu batzuk jasan ditzaketen emakumeena, adibidez. Gai praktikoa da, baina baita sinbolikoa ere; hau da, espetxeetan horrelako higiene-ontziak izatea emakumeengan pentsatzea da, femeninoan eta genero-ikuspegiare-kin²⁷. Orain arte, bazter utzi den gaia izan da alderdi askotan, baita es-petxe guztien plangintzan eta diseinuan ere.

Bangkokeko arau honetan adierazten den alderdietako bat da ema-kumeek beren generoari dagozkion higiene-beharrak betetzeko instala-

²⁶ ELOOren 13. artikulua.

²⁷ Zuñil Navarro M eta Villarreal, A. 2024: *La mitad que sangra: cómo y por qué he-mos ignorado históricamente la menstruación*. Madril: Libros del K.O. argitaletxea.

zioak eta gauzak eduki ahal izatea, doako toalla sanitarioak barne. Horri buruz galdetu genien, eta ia denek hau erantzun ziguten:

*«Orain **lixiba** kendu digute. Sortan, hortzetako pasta, eskuila, orrazia, edalontzia, mahai-tresnak eta kondoia, lubrifikatzaileak, konpresak, normalak eta handiak, etortzen dira». E20*

«Ez datoz tanpoiak, horretaz konturatu naiz, eta ez dakit zergatik». Psikologoa

Emakumeek bi espesxeetan hobetu beharko liratekeen bi alderdi aipatu zituzten: janaria eta eraikineko hezetasuna.

*«**Janariarekin**, bai, okerragoa da, gero eta okerrago jaten dugu. Gaur, hain justu, hezitzailea etorri da, eta aipatu diogu. Eta begetarianoa egin naiz; izan ere, kanpoko jendea kontratatu dutenez, Siriako jendea edo marokoarrak, adibidez, ongarri asko erabiltzen dute, eta nik gastritisa dudanez, ezin dut jan, baina begetarianoa eskatzen dut, ... baina herenegun medikuarekin egon nintzen eta esan nion ezin dudala egon atuna eta gulak jaten. Hori ekonomatuan erosten dut. Aspertuta nago hori jateaz. Dilistak gogorrek daude, erreta edo piperbeltz askorekin. Oilaskoak dilisten zapore bera du. Denak du zapore bera». E4*

*«**Hezetasun** handia dago kartzela honetan. Handia, oso handia. Ia denok gaude gaixo. Ni antibiotikoa hartzen ari naiz; izan ere, arropa garbitu... eta gero dagoen hezetasunarekin, ez da lehortzen». E16*

Hezetasunari dagokionez, eragina izan dezake haien osasun-baldintzetan, batez ere gaixotasun jakin batzuk dituzten emakumeen artean. Denek adierazi ziguten berogailua zutela, baina, dagokien ziegaren araberak, berogailua hobeto edo okerrago ibiltzen da.

Aipaturiko beste alderdietako bat izan zen megafonia gaizki dabilela Martuteneko emakumeen moduluan, eta horrek ondorioak izan ditu batzuetan, bisitarik gabe geratzea edo bisita-denbora laburtzea, adibidez; eta hori bereziki mingarria zen seme-alabak ikusteari eragiten zionean.

*«Bisitak sakratuak dira, familia atean dagoenean funtzionarioak **megafoniatik** deitzen du, baina emakumeen modulura ez da megafonia iristen. Orduan, hango funtzionarioak hemengoari deitzen dio esateko: “bidalidazu hau, familia hemen dago-eta”. Orduan hemen gaude, ordurako, baina ahaztu egiten zaie, gizonak garela pentsatzen dute, edo, besterik gabe, ahaztu egiten zaie. Baztertuta gaude». E17*

Azkenik, nabarmenduriko beste egoeretako bat Martuteneko erizaindegia zegoen gelarekin dago lotuta, hau da, emakumeek bertara joan behar zuten edo han egon behar zuten unearekin, gelak ez baitziztuen baldintzak betetzen. Gai hori xehetasun handiagoz ikusiko dugu hurrengo puntuan.

«Zentzu horretan, hobeto. Kezkatzen gaituen beste gai bat, ez baitakigu nola dagoen, erizaindegia egon da; izan ere, emakumeen erizaindegian, azkenaldian joaten garenean, ia ez da emakumerik egoten. Ez dakit hor zerbait egin nahi duten eta aldatu... zeren oso gaizki zegoen, hura kondena bikoitza izateren parekoa zen, hau da, espazio txiki bat, eta han ez zegoen patiorik, gainerako moduluetan egoten den bezala. Leku txarra zen. Jendeak ziegan sartuta ematen zuen eguna, isolamenduan egongo balira bezala. Hortaz, kontu hori horrela zegoen aspalditik, eta horretaz ere kexatu izan gara. Baina orain ikusten ari gara egoera aldatzen ari dela, hau da, gaizki dagoen jendea edo ospitalera eramaten dute edo... zeren erizaindegira joan, eta han ez dago emakumerik; joan izan garen azken aldietan ia ez zegoen inor; hortaz, oraindik ez dakigu. Kontu horrekin zehazki zer gertatzen ari den ikertzen ari gara, baina, nire ustez, agian hobekuntzaren bat egingo dute alderdi horretan, ez dakit». Informatzailea

*«Emakumeak eduki izan ditut goian, hanka igeltsatuta, eskailera-rik jaitsi ezinik. Erizaindegi bat dugu, baina ez dituzte bertara jaisten. Horrelako diskriminazioak daude, eta, agian, jakin behar dituzue. Are gehiago, atzo neska bat izan nuen zunda batekin hor, erizaindegian. Aitzitik, mutil batek bihurritu bat edo antzeko zerbait egin... eta erizaindegira. **Emakumeak bere moduluak geratu behar du**, eskaile-
rak igo, jaitsi... Zergatik ez dute emakumeentzako espazio bat prestatzen erizaindegiko eremuan? Hor ez dago emakumerik erizaindegian, hori diskriminazioa da, hau da, nolabait esateko, espetxearen erakuntzarekin loturiko diskriminazioa. Baina tratuari dagokionez, nik ez dut diskriminazio-kasurik antzeman». Funtzionarioa*

Osasun-arretari dagokionez, espazioaren baldintzak ez ziren berdinak gizonentzat eta askatasunaz gabetutako emakumeentzat. Martutenen, zehazki, emakumeek ez zuten errehabilitaziorako gune egokirik espetxeko osasun-eremuan, eta horrek diskriminazio eta kalte nabarmena dakarkie emakumeei, ez soilik beren osasun fisikoan, baita osasun psikikoan ere (isolamendua).

Zenbaitetan, emakumeak beste espetxe batzuetara eramaten dituzte hainbat arrazoiengatik; alderdi horiek ere jaso ziren galdetegian. Emakumeen % 54,5 (galdera horri erantzun zioten 44 emakumetatik

24k) kartzelaz aldatu izan zituzten uneren batean; batez beste, 5,6 lekualdatze izan zituzten (DT = 6,0), eta emakume bakoitza 4,7 espetxe-tan egon zen (DT = 4,2). Noski, lekualdatutako emakumeen ehunekoa, lekualdaketen kopurua eta egondako espetheen kopurua nabarmen handiagoa izan zen (p balioa = 0,000) espetxean 10 urte baino gehiago zeramatzaten emakumeen artean —% 85,7, lekualdaketen batez bestekoa 14,5 (DT = 5) eta batez besteko espetxe-kopurua 8,7 (DT = 4)— espetxean 10 urte edo gutxiago zeramatzatenen artean baino —% 40, lekualdaketen batez bestekoa 2,7 (DT = 2,1) eta batez besteko espe-txe-kopurua 2,2 (DT = 1,5)—. Emakumeak lekualdatzeko, arrazoi na-gusi hauek izan ziren: epaiketara joatea (% 30), familiarengandik hur-bilago egotea (% 26,7), eskaera egitea (% 26,7), gatazka bat izatea (% 20), hainbat zehapen izatea (% 16,7) eta haur bat izatear egotea (% 13,3). Ez da alde esanguratsurik hauteman espetxean 10 urte edo gutxiago zeramatzaten emakumeen eta espetxean 10 urtetik gora ze-ramatzatenen artean, bi kasu hauekin loturiko arrazoietan salbu: epai-ketara joatea, arrazoi horrek proportzio handiagoa baitzuen 10 urtetik gora zeramatzatenen artean (% 57,1) 10 urte edo gutxiago zera-matzatenen artean baino (% 6,3), eta haur bat izatea, proportzio handi-agoa baitzuen espetxean 10 urte baino gehiago zeramatzatenen artean (% 28,6) 10 urte edo gutxiago zeramatzatenen artean baino (% 13,3).

5. taula
Lekualdatzeen arrazoiak

Zergatik lekualdatu zintuzten?	GUZTIRA		≤ 10 URTE		> 10 URTE		p balioa
	n	BAI (%)	n	BAI (%)	n	BAI (%)	
Nire familiarengandik hurbilago egoteagatik	30	26,7	16	18,8	14	35,7	0,303
Hainbat zehapen izateagatik	30	16,7	16	12,5	14	21,4	0,52
Gatazkak izateagatik	30	20,0	16	18,8	14	21,4	0,857
Haurtxo bat izatear egoteagatik	30	13,3	16	0	14	28,6	0,024
Epaiaketara joateagatik	30	30,0	16	6,3	14	57,1	0,003
Nik neuk eskatzeagatik	30	26,7	16	25,0	14	28,6	0,828

5. Espetxeen sailkapena²⁸

Askatasunaz gabetutako pertsonak, espetxean sartu eta behaketa-aldia igaro ondoren, gradutan sailkatzen dira, hainbat zirkunstantziaren arabera. 40. eta 41. arauak bideratzen gaituzte sailkapenera eta arriskuen ebaluaziora, askatasunaz gabetutako emakumeen behar espezifikoak kontuan hartuta. Arau horiekin loturiko araudiez aritzean, hauek aipa ditzakegu: ELOOren 16. artikulua eta Espetxeen Erregelamenduari 100.-109. artikulua, espetxeko sailkapenari loturikoak. Egia esan, gure zuzenbidean ez dago arau horien benetako transposizioirik. Aipatutako artikuluetako bakar batek ere ez ditu kontuan hartzen generoaren berezko beharrak (40. araua), ez eta genero-gaiak ere, sailkatzeko metodoak ezartzeko (41. araua) edo emakumeen arriskuen ebaluazio eta sailkapen egokia egiteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeek bigarren gradurako moduluak baino ez dituzte, eta, beraz, emakumeren bat lehen graduan sailkatzen badute, Espainiako Estatuko espetxe batera eraman behar izaten dute, aurrez aipatu bezala. Beste gai bat da gradu hori aplikatzearen egokitasuna, hau da, haren beharra eta eraginkortasuna, informatzaileetako batzuek planteatu ziguten bezala.

«Horri dagokionez, ez dakigu zer gertatuko den, onerako izan liteke lehen gradurik ez egotea, baina ez dugu hain argi hori horrela izango denik; izan ere, oraindik martxa hartzen ari gara, eta gaur-

²⁸ 40. araua. «Espetxeetako administratzaileek sailkapen-metodoak prestatu eta aplikatuko dituzte, emakume presoaren generoaren berezko beharretan eta haien egoeraren zentratuta, haien errehabilitazioa, tratamendua eta gizarteratzea lortzeko programak ahalik lasterren planifikatzen eta gauzatzen direla ziurtatzeko».

41. araua. «Emakume presoaren arriskuen ebaluazioa eta sailkapena egiteko, genero-gaiak aintzat hartuta, beharrezkoa izango da:

a) Kontuan hartzea emakume presoek oro har arrisku txikiagoa dutela gainerakoen-tzat, eta segurtasun-neurri handiek eta isolamendu-maila zorrotzenek eragin bereziki kaltegarriak izan ditzaketela.

b) Emakume presoak banatzeko eta kondenaren beteazpena planifikatzeko, haien aurrekari buruzko funtsezko informazioa kontuan har dadin ahalbidetzea, hala nola jasandutuzten indarkeria-egoerei buruzkoa, ezegonkortasun mentalaren eta substantzien kontsumoaren balizko historialari buruzkoa, eta amaren erantzukizunei eta haurren zaindari loturiko bestelako erantzukizunei buruzkoa.

c) Kondena betetzeko erregimenean generoaren berezko beharretara egokitutako errehabilitazio-programak eta -zerbitzuak ezartzen direla zaintzea.

d) Osasun mentaleko arreta behar duten emakume presoak esparru ez-murritzaleetan sartzen direla zaintzea, bertako segurtasun-erregimena ahalik eta arinena izanda, eta tratamendu egokia jasotzen dutela zaintzea, osasun mentaleko arazoak izateagatik soilik segurtasun-arau zorrotzagoak dituzten zentroetara bideratu beharrean».

gaurkoz ez dago lehen graduaren sartzeko moduko pertsonarik, baina baliteke etorkizunean halakoak izateko prestatzen aritzea. Nik ez dut baztertzen horrelakorik gertatzea eta, beraz, ez dakidanez, ba... Arazoa da gradu horretan zigorra lehenesten dela gizarteratzearen gainetik. Zerbait oso txarra egin duzu? Bada, oso gaiztoa edo oso arriskutsua izan zarenez..., nik ez diot horrelako kasurik ez dagoenik, pertsonaren batek denbora batez isolatuta egon behar ez duenik, nik ez dakit, baina uste dut horrelako kasuek... izan behar dutela...». Informatzailea

Batzuetan, jasotako informazioaren arabera, gradu-erregresioak ez-kutuko zehapena ekar dezake, hau da, bigarren gradutik lehenengora aldatzen denean. Inkestatutako pertsona batzuek zalantzan jartzen zituzten haren aplikazioa, helburua eta eragin ditzakeen ondorioak.

«Nire ustez, lehen gradua, hau da, Eusko Jaurlaritzak, euskal espetxe-eredu berriarekin, planteatu egin beharko luke... kentzea edo ez jartzea, edo lehen graduaren kontzeptu hori aldatzea, lehen graduaren kalamatrika hori aldatzea, zerbait terapeutikoagoa ezartzea. Pertsonarengan oinarritutako beste arreta-modu batzuk..., baina ez du zentzurik 24 orduko itxialdia dakarren lehen graduak. Txikitu egiten zaituzte, eta azkenean amorru handiagoa pizten zaizu, gorroto handiagoa, eta zer ikasten duzu?... itxialdian nola egon». Informatzailea

Euskadiko espetxeetan lehen graduako modulurik ez dagoenez, gradu-erregresioak, espetxeko bizi-baldintzen funtsezko aldaketaz gain, presoak beste zentro batera lekualdatzea dakar. Emakumeen kasuan, lekualdatze hori Avilako Emakumeen Espetxera izan ohi da, Brievara.

«Bai, baina hala da, gertatzen bada, erregresioak proposatzen dituzte eta beste kartzela batera eramaten dituzte. Hau da, hemen ez dute jendea lehen graduaren uzten. Norbaitek uste badu hanka asko sartzen duela eta lehen gradua merezi duela, Brievara lekualdatzen dute». Informatzailea

Nolanahi ere, ez dago emakume asko lehen graduako bizi-erregimenean eta, horrenbestez, ez da hain premia erabakigarria. Baina, bai, gabezia bat dago modulu terapeutikoetan, ezaugarri bereziak dituzten emakumeentzako moduluetan, etab. Emakumeentzako berariazko modulurik ez egotea eragingarri izan liteke esku hartzeko eta errehabilitatzeko beste modu batzuk ezartzeko, jokabide lagunkoiagoa eta normatiboagoa lortzeko bidean, baldin eta beharrezkoa bada. Teorian, es-

petxea errehabilitaziorako lekua da eta, alde horretatik, birplanteatu egin beharko litzateke zer den egokiena delitu bat egiteagatik kondemnatu dituzten emakumeentzat.

Ildo horretan, Euskadiko espetxe-politikaren elementu oso positibotzat nabarmentzen dugu espetxearen erabilera gutxitzeko printzipioa, helburu estrategikotzat hartuta erdi-askatasuneko erregimenak sustatzea eta komunitatean berriro sozializatzea. Helburu horiek hirugarren graduoko sailkapena sustatzea dakarte eta, joera horren ondorioz, bete-tze-erregimen arrunta hirugarren gradua izatea eragin dezake, ez bigarren gradua²⁹.

«Bada, begira, aldaketa handia izan da egungo idazkari nagusiarekin. Idazkari nagusi berriarekin, beste norabide bat hartu zen hirugarren graduari dagokionez, guztiz bestelako norabidea. Lehen, hirugarren graduoko proposamenen % 50 edo % 60 artean ukatu egiten zituzten Madrilén. Baina zaintza-epaile zoragarria dugu, eta taldeak egiten duen proposamen oro onartzen du. Automatikoa zen. Gainera, honela esaten zizuten: “ukatu egiten dizuegu, epaileak emango baitizue”, eta beste epaile batzuek ez. Izan ere, hemen, Euskadin, zorte handia izan dugu epailearekin. Ezin duzu sinetsi zer izan den emakume hori guretzat, gainera bizitza osoa darama, e! hirugarren graduoko proposamenekin. Gainera, jada normalizatu egin dugu, ziur baixeunden ukatu egingo zigutela, eta...». Informatzailea

Aurreko informatzaileak adierazi bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan espetxe-zaintzako epailearengana jotzeko aukera izan dute, eta hark onartu egin ohi zituen; hala, testuinguru eta giro berezia sortu da, emakumeei hirugarren graduak aplikatu baitzaizkie. Bestalde, profesional batzuek zalantzan jartzen zuten espetxean sartzea bera ere, eta emakume gehienak, hasiera batean, hirugarren graduari sailkatu behar liratekeela zioten.

«Primario bat, espetxean lehen aldiz sartu den norbait, haurdun dagoena, benetan une egokia da emakumea espetxeratzeko?... agian, agian, delitua egin zuenetik bost urte igaro direnean, hau da, epaiketa atera zaio, baina bizitza berregina eta berregituratua du, eta orain kartzelan sartuko duzu, haurdun dagoela edo 15 eguneko hau-

²⁹ Euskal espetxe-sistemak emandako datu ofizialek joera hori erakusten dute. 2023ko urriaren 11n, lurralde historikoen arabera, hauek ziren hirugarren graduari sailkatuta zeuden emakumeen ehunekoak: Araban % 15,28, Gipuzkoan % 57,14 eta Bizkaian % 100.

rra duela? Bada, hor dago justizia. Nire ustez, badira moduak, komunitatearentzako zerbitzuak daude, kanpoan gauzatu daitezkeen programak... Beste gauza bat baita odol-delitu oso itsusia egin duen norbait, hori saihestezina baita, azkenean delitu itsusia egin baituzu... eta kondena handia duzu». Hezitzailea

Elkarriketatutako emakumeak ere jakitun ziren hirugarren gradua lor zezaketela.

«Oso gaizki, ezintasun handia nuen nik. Batzordekoek oso ja-rerra ona izan dute, hirugarren gradua eman didate eta, nahi ala ez, nik ditudan aurrekari penalengatik, ditudan guztiengatik, ia bi urte dira. Eusko Jaurlaritzarena balioetsi behar da, aurrerapen handia izan da eskumenak hartu dituztenetik. Eskumuturrekoa ematen zizuten, baina Madrilera bidali eta oniritzia eman bitartean, jada ia zigor osoa beteta zenuen». E19

«Sei hilabeteko kondena dut, eta nik uste dut laurdena betetzen dudanean hirugarren gradua emango didatela». E18

«Ni, hemen sartu nintzenetik, Gatazken Batzordean egon naiz; bitartekaritza egiten duten pertsonak dira, eta moduluko lotura izan naiz urtebetez, eta sartu nintzenetik ari naiz lanean. Officeko orde-zkoa nintzen urtarrilean, eta otsailean sinatu nuen nire kontratua. Hor-tik garbitegira igaro nintzen, eta ia bi urte daramatzat bertan. Biga-rren arduraduna naiz; saiatu egiten naiz, eta haiek ikusi egiten dute. Lehen "laurdena" datorren urteko ekainean daukat, eta esan zidan aurrerantzean egiten dudana guztia nire baimenei begira izango dela. Espero dut 12 urte ez egotea, eta ez dut zertan zazpi urte egon ere, segurtasunagatik eskatu ohi dituzten gutxienekoak. Nik ez daukat epaileak jarrita, hau da, haien esku nago, Tratamendu Batzordearen esku. Alegia, agian lau edo bost urte bete beharko ditut, eta ia bi urte beteta ditut. Baikor nago. Ez dut amore ematen». E15

Halaber, bazekiten hirugarren gradu horretan atzera egin zezaketela, baldin eta delitu bat egiten bazuten edo berriro kontsumitzen hasten baziren. Azken kasu horretan, espetxera itzuli beharrean, beste neurri batzuk eskaintzea planteatu liteke, substantzia psikoaktiboek konsumoa uzten laguntzeko, batez ere droga-mendekotasunen errehabilitaziorako eskaintzen diren programetan ez dutelako genero-ikuspegia aintzat hartzen.

«2015ean sartu nintzen, eta 2020an atara; bi urte eta erdi egon naiz kalean, eskumuturrekoarekin. Berriro erori nintzen, pilulekin, eta 6 hilabete daramatzat barruan. Baldintzapekoa kendu zidaten.

Gradu-erregresioa izan zen. ADAPen nengoen, eta berriro erori nintzen». E13

Hezitzaileetako batek honako hausnarketa hau egin zigun emakume asko berriro erortzea eragiten duten arrazoiei buruz, bai eta espetxearen zentzuaz, horren jatorrian pobrezia eta gizarte-bazterkeria dauden kasuetan.

«Batzuk itzuli egin dira. Hemen daramatzadan bi urteetan, batzuk itzuli egin dira, bai, eta beste batzuk ez. Bai, agian lehen aldia izan da eta... baina, noski, begiratu neska honi, gaur elkarriketatuko duzuen nesketako bati. Neska horrek egoera prekarioa du etxean, eta bera da etxera dirua daraman bakarra, inolako prestakuntzarik izan gabe. Bada, neska hori supermerkatuetara joaten zen erosketak doan egitera. Bai, noski, neska horri kanpora irtetean ez bazaio programa bat eskaintzen, zerbait ikas dezan eta ordaindu ahal izan dezan, laguntza bat edo zerbait... nik ere gauza bera egingo nuke. Hau da, nik ez badut ezer... Neska horrek ez du odol-deliturik, ezta indarrez egindako lapurretarik ere, Mercadonara erosketak egitera joatea da delitua, oso gaizki supermerkatu-rako, baina, zer esango dizut, gu ere zerbaitetarako gaude hemen, eta nik beti uste izan dut, esaterako, espetxea zentzu horretan beti geratzen dela motz. Eta hemen, dena den, bada jarraipena egiten duten erakundeak, laguntza edo babesa ematen dutenak, baina Espainiako espetxe gehienetan ez dago halakorik. Hau da, irteten dira kalera, beren zigorra beteta, eta... eta berdin kartzela-zigorra bete ondoren ingurune berera itzultzen diren droga-zaleekin. Bada, bai, izan ere, berriro leku berean jartzen dira. Horregatik, nire ustez, bai, kartzelak bere funtzioa bete dezake, baina beldurtzea beste ezer baino gehiago, ez baitago beste arlo batzuetan esku hartzeko beste langilerik... baina, egiari zor, beti gehiago egitea da kontua». Hezitzailea

Galdetegia bete zuten emakumeei dagokienez, % 73,5 2. graduan zeuden espetxean, % 6,1 1. graduan, eta % 14,3 behin-behineko espetxealdian. % 61,2 errespetu-moduluan sartu zituzten; % 34,7 modulu arruntean; eta % 4,1 modulu mistoan. Bestalde, % 54,2k lehen aldia zuten espetxean, eta, hainbat aldiz egondakoei erreparatuta, % 73,7 birritan egon ziren, % 21,1 hirutan eta % 5,3 4 aldiz.

6. taula
Modulua, gradua, espetxealdiak

Egungo egoera			Modulu-mota		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Behin-behinean	7	14,3	Errespetuzkoa	30	61,2
1. graduan	3	6,1	Mistoa	2	4,1
2. graduan	36	73,5	Arrunta	17	34,7
3. graduan	1	2	Gutzizkoa	49	100
Beste batzuk	2	4,1			
Gutzizkoa	49	100			
Lehen espetxealdia?			Zenbat aldiz espetxean?		
	Kopurua	%		Kopurua	%
Ez	22	45,8	2	14	73,7
Bai	26	54,2	3	4	21,1
Gutzizkoa	48	100	4	1	5,3
			Gutzizkoa	19	100

Inkesta egiteko unean, hiru emakumek adierazi zuten lehen graduan zeudela; deigarria da, berez ez baitago lehen gradu-ko modulu-rik emakumeentzat Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan. Horren azalpen bat izan daiteke preso horiek, aurreko egunetan, lehen graduan egon izana, eta beste espetxe batzuetako modulu horietatik iritsi berriak izatea. Beste azalpen bat izan daiteke isolamenduan egotea eta, galdera-sortan hori adierazteko aukerarik ez zutenez, lehen gradua markatzea. Euskal espetxeetan halaber ez dago modulu mistorik, baina bai jarduera mistoak, eta baliteke aukera hori adierazi zuten bi emakumeak egoera horri buruz aritzea. Litekeena da akats bat izatea ere; izan ere, 26 emakume lehen aldiz zeuden espetxean, horietatik zazpi behin-behinean, eta baliteke ez jakitea zein den espetxe-sailkapena³⁰.

³⁰ Ikerketa-taldeko lau pertsona laguntzen eta presoan zalantzak argitzen aritu ziren Zaballan, presoak galdetegia betetzen ari ziren unean. Martutenen, ordea, emakume gutxi zirenez, ikertzaile nagusia baino ez zen joan, eta bost kasu horiek, ziur asko, Martutenekoak izango dira, ez baitzuten galdera askorik egin.

Emakumeek, batez beste, 7,63 urte zeramatzaten EAEko espetxeetan (DT = 8,23). Bertan denbora gehien zerman emakumeak 25 urte zeramatzan, eta gutxien zermanak, hilabete bat. Emakumeen %24,5ek urtebete baino gutxiago zeramaten kartzelan; %69,4k (34 emakume) 10 urte edo gutxiago zeramaten, eta, horrenbestez, %30,6k (15 emakume) 10 urte baino gehiago. Bestalde, emakumeen %14k, gutxi gorabehera, 20 urte edo gehiago zeramatzaten espetxean.

Emakumeen %45,7 (galdera horri erantzun zioten 46 emakumeetatik 21) lehen graduaren egon izan ziren uneren batean³¹, 101 hilabete, batez beste (DT = 102,8). Ehuneko hori nabarmen handiagoa izan zen (p balioa = 0,000) espetxean 10 urte baino gehiago zeramatzaten emakumeen artean (%86,7) —172 hilabete, batez beste (DT = 87,3)— 10 urte edo gutxiago zeramatzaten emakumeen artean baino (%25,8) —16,3 hilabete, batez beste (DT = 24,3)³²—.

Emakumeen %60 (galdera honi erantzun dioten 45 emakumeetatik 27) isolamenduan egon ziren uneren batean, 453,2 egun, batez beste (DT = 1046,2). Ehuneko hori nabarmen handiagoa izan zen (p balioa = 0,000) espetxean 10 urte baino gehiago zeramatzaten emakumeen artean (%93,3) —990,4 egun, batez beste (DT = 1436,7)— 10 urte edo gutxiago zeramatzatzenen artean baino (%43,3) —23,5 egun, batez beste (DT = 23,6)—. Isolamenduan egon ziren aldian, emakume bakar bat ere ez zegoen haurdun.

6. Espetxearen ordezkot neurriak³³

Bangkoeko Arauetan, aipamen berezia egiten zaie espetxe-zigorren ordezkot neurriari; neurri horiek hartuz gero, zigortutako emakumeak ez dira espetxeetan sartzen; gai horri III. atala eskaintzen zaio, 57. artutik 66. araura³⁴.

³¹ Emakume-talde bat terrorismo-delituagatik kondenatuta dago, eta uste dugu lehen graduaren hainbeste denbora aipatzean haiei buruz ari direla; dena den, ez zen delitua jaso.

³² Baliteke, terrorismo-ekintzengatik zigortutako emakumeen kolektiboari buruz ari zitea, baina ez dugu ziurtasunik, ez baitzitzaie galdetu zergatik ari ziren zigorra betetzen. Dedukzio hori gorabehera, baziren beste delitu batzuegatik kondenatuak betetzen ari ziren emakumeak ere; iruzkin informaletan eman ziguten horren berri.

³³ Azalpena: Ordezkot neurriak aipatzean, zigorra betetzeko ohiko erregimenaren ordezkot neurriez ari gara, ez espetxe-zigorren ordezkot neurriez, azken horiek, nolabait ere, zigor-arloko jurisdikzioaren mende baitaude (eteteak, ordezkapenak, etab.).

³⁴ 57. araua. «... *Estatu kideen ordenamendu juridikoen esparruan, behin-behineko espetxealdiaren eta zigorraren hautazko eta ordezkot neurriak landu beharko dira, ema-*

Zentzu horretan, gure Zigor Kodeak, 80. artikuluan eta hurrengoetan, askatasunaz gabetzen duten eta iraupen jakin bat gainditzen ez duten zigorrak etetea ahalbidetzen du; hau da, aukera ematen du espetzeetan ez sartzeko eta, horrela, espetxeratzeak dakartzan ondorio desozializatzaileak eta estigmatizatzaileak saihesteko, betiere zigor hori beharrezkoa ez bada etorkizunean beste delituri ez egiteko.

Espetxeratzea saihestu ezin bada, espetxe-legeriak aukera ematen du hasiera-hasieratik 3. graduan sailkatzeko (erdi-askatasuneko erregimena). Zentzu horretan, Estatuko Espetxeetako Idazkaritza Nagusiaren 6/2020 Instrukzioak —zuzenean erregimen irekian sartzeko protokoloari buruzkoak— arautzen ditu horretarako baldintzak, sartzeko prozedura eta sailkapen-prozedura.

Bestalde, Euskadiko espetxe-sistemaren oinarrietan, «Espetxeratzea gizarteratzerara bideratzea» izeneko 3. ardatz estrategikoan, 42. neurrian, hau adierazten da, hitzez hitz: «Hirugarren graduko pertsona baten hasierako sailkapena (erdi-askatasuneko erregimena atal irekietan), 5 urtera arteko zigorretan».

Horregatik, emakumeen profila kontuan hartuta, gizonek baino delitu gutxiago eta arinagoak egiten baitituzte, kondena betetzen hasten diren unetik ezarri beharko lirateke espetxealdiaren ordezkot neurriak. Ildo horretan, dagoeneko aipatu dugu espetxeratzea zalantzan jartzen zuen profesioaletako baten diskurtsoa, haurdun zeuden emakumeei buruzkoa, zehazki, nahiz eta haurdunaldi hori, hain justu, espetxean ez sartzeko izan.

Nolanahi ere, arau eta atal hori espetxealdiaren ordezkot neurriei dagokio. Alderdi hori ez da sakon aztertu ikerketa honetan, aztergai horrek berekin baitakar beste gizarte-eragile batzuei (epaileei, legegileei...) elkarriketak egitea; beraz, etorkizunean heldu beharko zaio gai horri. Lan honetan, xehetasun handiagoz aztertuko dugu 3. gradua, lehen ere aipatu duguna.

Aurrerapauso handia eman da Espainiako Estatuak eta Eusko Jaur-laritzak emakumeen balorazioak egiteari eta haiei hirugarren gradua emateari dagokionez.

kume delitugileentzat berariaz pentsatuak, horietako askoren biktimizazio-historia eta beste pertsona batzuk zaintzeko dituzten ardurak kontuan hartuta».

58. araua. «... Bidezkoa eta posible denean, hautazko mekanismoak erabiliko dira delituak egiten dituzten emakumeen kasuan, hala nola ordezkot neurriak eta behin-behinekot espetxealdia eta zigorra ordezkot dituzten beste batzuk».

61. araua. «Delitugileak kondenatzean, auzitegiek aringarriak aztertu ahal izango dituzte, hala nola zigor-historiarik ez izatea eta delituzko jokabidearen arintasun erlatiboa eta izaera, kontuan hartuta interesdunek beste pertsona batzuekin dituzten zaintza-ardurak eta haien egoera partikularra».

«Bada, begira, aldaketa handia izan da egungo idazkari nagusia-
rekin. Idazkaritza nagusiarekin beste norabide bat hartu zen hiruga-
rren graduari dagokionez, guztiz bestelako norabidea. Lehen, hiru-
garren graduako proposamenen %50 edo %60 artean ukatu egiten
zituzten. Ez genuen inoiz Euskadin probatu. Zergatik? Zaintza-epaile
zoragarria dugulako, eta taldeak egiten duen proposamen oro onar-
tzen duelako. Automatikoa zen. Gainera, honela esaten zizuten:
“ukatu egiten dizuegu, epaileak emango baitizue”, eta beste epaile
batzuek ez. Izan ere, hemen, Euskadin, zorte handia izan dugu Ruth
Alonsorekin. Ezin duzu sinetsi zer izan den emakume hori guretzat,
gainera bizitza osoa darama, e! hirugarren graduako proposamenekin.
Gainera, jada normalizatu egin dugu, ziur baixeunden ukatu egingo
zigutela». Psikologoa

2023ko urrian, 1.577 pertsona zeuden askatasunaz gabetuta
EAEko Espetxe Administrazioaren mende (127 emakume), eta 221 bal-
dintzapeko askatasunean (horietatik 24, emakumeak). Askatasunaz ga-
betutako 127 emakume horietatik 84 erregimen arruntean zeuden (71
Arabian eta 13 Gipuzkoan) eta 43 erregimen irekian. Data horretan ez
zegoen emakumerik lehen graduari. Araban hirugarren graduari zigor-
tutako emakumeak %15,28 ziren (%8,50 gizonetan). Gipuzkoan hi-
rugarren graduari zigortutako emakumeak %57,14 ziren (%42,80 gi-
zonetan). Eta Bizkaian hirugarren graduari zigortutako emakumeak
%100 ziren (%74,91 gizonetan)³⁵.

Espetxean dauden emakume batzuek, hemen azaldutakoaz gain,
adimen-desgaitasun aitortua dute, eta hori ere delituarekin lotuta dago.
Hortaz, emakume horientzat, espetxea ez litzateke lekurik egokiena
egin duten kaltea konpontzeko. Etorkizunean sakonago aztertzeko gaia
litzateke: emakumeak, desgaitasuna eta espetxea³⁶.

Era berean, gure Zigor Kodeak 60. artikuluan arautzen duenez, bu-
ruko nahasmendu larriko egoera iraunkor bat hautematen bada eta ho-
rrek zigorraren zentzua ulertzea eragozten badu, espetxe-zigorraren
betearazpena eten egingo da erotasunagatik; horretarako, laguntza
mediko egokia bermatu beharko da.

³⁵ Euskadiko espetxe-sistemak emandako datuak.

³⁶ 60. araua: «Baliabide egokiak aurreikusiko dira, delitugileentzako aukera egokiak
egiteko; aukera horietan, askatasunaz gabetzen ez duten neurriak eta emakumeak zi-
gor-arloko justiziaren sistemara daramatzan arazo ohikoenak konpontzeko esku-har-
tzeak uztartuko dira. ...desgaitasun mentala duten emakumeentzako tratamendu ego-
kia, eta enplegu-aukerak areagotzeko hezkuntza- eta trebakuntza-programak. Programa
horietan, aintzat hartuko da haurrak artatzeko zerbitzuak ezartzeko beharra, bai eta be-
rriaz emakumeei zuzendutako beste zerbitzu batzuk ezartzeko ere».

Lehen aurreratu bezala, emakumeak hirugarren graduari sailkatzearen aldeko jarrera agertu du espetxe-sistemak. Noski, jokabide ona eta zigorraren zati bat beteta izatea eskatzen da, zigorra oso luzea bada. Baina, kasu askotan, beste neurri bat eskaini eta haren aldeko apustua egin beharko litzateke.

«Demagun pertsona bat espetxean sartzen dela, sei urteko zigorrari jartzen diotela, sei urtez egoten dela barruan, eta, gero, atea ireki eta kalera ateratzen dela. Dena ondo joanez gero, askatasun-bizitzara pixkanaka hurbiltzeko prozesua erregimen irekiaren eta baldintzapeko askatasunaren bidez egiten da. Emakumeei dagokienez, orokorrean, ahal duten gehienak hirugarren graduari daude. Zein ez daude egoera horretan? Hirugarren graduari atera eta huts egin dutenak; izan ere, zertarako emango diezu hirugarren graduari, gero... Edota, uneren batean, delitu oso larria egin duten eta hirugarrena lortzeko denbora behar duten pertsonak, baina horrek ez du esan nahi lortuko ez dutenik. Eta zer arazo daude gero? Bada, nire ustez, pertsona horrek laguntza-sare bat izanez gero, nahiz eta oso txikia izan, eta hirugarren sektore instituzionalaren laguntzarekin osatzen bada, ba...». Informatzailea

Kontua ez da espetxeak hirugarren graduari ematea soilik; horrez gain, kanpoko laguntza behar du, familiarik ez duelako edota ez delako egokia familiara itzultzea.

«Nik esango nuke neurri handi batean horregatik ditugula hainbeste barneratu hirugarren graduari, hirugarren sektorearen babes eta esku-hartzeagatik. Baliabide integralak behar dituzten pertsonak, hainbat arrazoi direla-eta egoitza-baliabide bat behar dutenak... Egoitza-baliabideak finantzatu ditugu, baina, arlo horretan, ez dugu nahikotasunik. Badira horrelako pertsonak, batez ere premia oso, oso, oso, oso espezifikoak dituztenak». Informatzailea

«Beno, ahalmenik gabe sentitzen gara. Emakumeekin gehiago... Tira, hemen, batez ere kanpoan familia-babesik ez duten pertsonentzat aritzen gara, profil desberdinekoak, batzuk atzerritarrak direlako, familia hemen bizi ez delako, edo familiekin harremana galdu dutelako, edota familiekin zer egin jakin ez eta estrategiaz aldatzea erabaki dutelako. Horrenbestez, pisu hauetan amaitzen dute, eta behar beste egiten saiatzen gara emakume bat hirugarren graduari gabe gera ez dadin, komatxo artean, kanpoko babesik ez izateagatik. Baina, nire ustez, emakume horien guztien ezaugarri nagusia pobrezia da. Pobrezia ekonomikoan murgilduta daude, eta pertsona helduak dira; hortaz, askotan esaten dugu "ea, pertsona honek ikastea nahi dugu", eta badirudi ba... dual moduko bat egingo duela, hau da, tailerrean

lan egin eta, aldi berean, ikasi. Azkenean, zu eta ni bezalakoak dira, eta nahi duguna da diru-sarrera batzuk izatea. Zeren... "helduak gara, eta oso ondo iruditzen zait niri prestakuntza ematea, DBHko titulu-lua lortu ahal izatea, baina bizi ere egin behar dut, eta batzuetan irabazten dudana diru gutxi horrekin ere, hau da, 500 € irabazten badut ere, 250 atera ahal izango dizkiot familiari, primeran etorriko zaizkionak"». Gizarte-langilea

Komunitate-sare bat dago, eta egoitza-etxebizitzak, espetxetik atera ahal izateko, kanpoko laguntzarik ez izan arren. Euskadin balia-bide-sare zabala da, eta eskaintza ona. Hala ere, hirugarren gradua lortzeko langa, batzuetan, pixka bat altua da, sailkapen horretan jarraitu ahal izateko ezarritako baldintzak bete behar baitituzte, kanpoko balia-bidearen berezko eskakizunez gain.-

*«Beno, kostatzen da, kostatzen da, **kostatzen da irtetea**. Baina, tira, jendea... praktikan gertatzen da... Baina, beno, badakizu, kartzelan onuraren bat lortu nahi baduzu asko kostatzen da, asko, asko, eta **ez da hankarik sartu behar, ezertarako**. Orduan, noski, puntu horretara iristea oso nekeza da batzuetan, eta, gero, edozein hanka-sartzek...; izan ere, hirugarren graduan egon arren, kondena bat betetzen jarraitzen duzu, eta, horregatik, aldian-aldian txostenak bidali behar dituzte». 2. informatzailea*

*«**Ez dute prestaketarik ematen**, ez dago ezer. Hemen uzten zaituzte, eta zeure baitan diozu "bihar aterako naiz..."». Pisu batera bidal zaitzakete, non egon ez baduzu. "**Atera horra" esaten dizute, eta kito**. Ez dakizu zer aurkituko duzun. Edota ezin zara baimenarekin atera, ez baitago irteteko plazarik. Jendearekin jolasteko modu bat da. Beldurra ematen dit irtetea egokitu, baina ezin irten izatea. Ezingo dudalako etxera joan, ezingo naizelako seme-alabekin egon. Esku-hartze bat dago, eta konformatu egin behar, ez dago besterik».*
E15

Komunitatearen baliabideak eskura jartzen zaizkie, baina familiarren eta lagunartearen laguntza ezinbestekoak dira gizarteratzeko eta bitzita normala egiten hasteko. Beste batzuetan, bikotearengandik eta familiarengandik urrundu behar dira, eragin kaltegarria dutelako, eta, batzuetan, kanpoko baliabideen ezagutzarik ez izateak edota haiekiko koordinaziorik ezak ere hirugarren graduan huts egitea eragin dezake.

*«Emakume horiei irteten uzten zaie, **prestakuntza jasotzera, as-telehenetik ostiralera lan egitera**, zerbait ikastera, eta, gero, **familiarekin joaten dira asteburuan**. Edo emaztea hemen uzten da*

Gasteizen, denbora batez, familia toxiko horretatik urrundu behar dugulako, bikote horretatik. Baina, batzuetan, badirudi espetxe-sistemari kosta egiten zaiola hori ulertzea. Profesionalak gara, eta denbora asko daramagu». Informatzailea

Kanpoan eskuragarri dauden baliabideetako batzuek iraupen mugatua dute, eta denbora murrizta da emakume batzuen beharrak betetzeko, denbora gehiago behar baitute guztiz gizarteratzeko, erreku-peratzeko eta autonomia lortzeko, gizonak baino askoz baldintzatzaile gehiago baitituzte, eta familia-laguntza gutxiago.

*«Hiru hilabeterako etortzen dira hona, baina **zer gutxiago urte eta erdi baino!** Emakume batzuek urte eta erdi behar dute. Beste batzuek zortea dute, familia normalizatueta eta hobeetan bizi dira, eta delituak, agian, ez du zerikusirik pobreziarekin, beste zerbaite egin baitute... gramo bat kokarekin harrapatu dituzte, adibidez. Bada, kito. Baina ateratzen zara, eta hor duzu babes hori, eta oinarri hori oso garrantzitsua da. Familia oso garrantzitsua da... edo oinarri ona edo lagunak izatea. Oinarri hori izanda, dagoeneko % 60 duzu. Gainerakoa berez etortzen da... lana bilatzen lagunduko dizute, ikasten, baina hor duzu babesa... baina halakorik ez baduzu, ateratzean duzunarekin, non jango duzu, zer... edo berriro bizimodu txarrera zoaz, DSBEn kobratzen ari den familiarekin, beste bat gehiago. “Mari, ez garela iristen DSBerekin, lapurtzera atera behar dugu”. Eta lapurtzera ateratzen dira». 3. informatzailea*

Azkenik, ezin ditugu aipatu gabe utzi emakume atzeritarrek hiru garren graduan dituzten zailtasunak. Familiarik eta errotzerik ez dutenez, baliabide komunitarioen mende dago hirugarren gradua. Baina ia guztiek utzi zituzten familia eta seme-alabak jatorrizko herrialdeetan, eta haiekin zorretan sentitzen dira, haiekiko ardura sentitzen dute. Hirugarren gradua lortzean, lan egin nahi dute, baina zenbaitetan ezin dute, egoera administratibo irregularrean³⁷ daudelako; horrek, ezkutuko ekonomiara daramatza, lan prekarioetara edo, batzuetan, prostituziora.

*«Baina, noski, hemen dauden aldian, hirugarren graduan edo baldintzapeko askatasunean, denbora horretan... emakume askok ez dute joan nahi, (emakume atzeritarrek) hona etortzen baitira bizimodu hobe baten bila, eta ez dute alde egin nahi. Baina **talka egi-***

³⁷ 2005. urtean, Ministroen Kontseiluak, uztailaren 1eko Aginduaren bidez, askatasunaz gabetutako atzerriko pertsonen lan egiteko baimena izateko baldintzak eta egoerak zehaztu zituen, baina ez zituen aintzat hartu egoera eta kasu guztiak.

*ten dute atzerritartasun legearekin. Esaten diezu: "hemen, pen-
tsatu behar duzu ez dagoela besterik. Lan egin badezakezu, ezkutuko
lana, ezkutuko ekonomia, ba hori aterako duzu, neska, nik ez baiti-
zut ezetz esango"; izan ere, zer egingo duzu? Eta bien bitartean ikas-
taro bat egiten ari bazara, espetxean zerbait utz diezazuten... ba, ezin
duzu. Askorekin gertatu izan zaigu... **hau utzi eta klub batera alde
egitea**, baina, printzipioz... Hemen egonda, batzuek onartu izan
dute, eta beste batzuek susmatu egin dugu, ez digutela esan pros-
tituzioan ari direla nolabait, bada bai. Hemen zaudenean, berez, ez
duzu diru-sarrerarik behar, baina haien ardurapean dauden seme-ala-
bak dituzte, edo gurasoak, eta ezkutuko ekonomian lan egitea beste
aukerarik ez dute». 3. informatzailea*

Jasotakoa eta azaldutakoa kontuan hartuta, adieraz dezakegu Eus-
kal Autonomia Erkidegoan baliabide-sare zabala dela, bai eta espetxea-
ren ordeztasun beste aukera batzuk sustatzen dituzten estrategiak ere, eta,
batez ere, Espainiako Estatuko gainerako herrialdeetan baino neurri
handiagoan sustatzen dela hirugarren gradua, espetxeetako biztanle-
ria txikiagoa delako eta Gobernuak berak finantzatutako baliabide-sare
oso garrantzitsua delako. Dena den, espetxeko eta zerbitzu komuni-
tarioko profesionalen arteko koordinazio eta komunikazio hobea iza-
nez gero, egiten den lana eraginkorragoa eta efizienteagoa izan liteke,
talde teknikoak elkarriketetan adierazi bezala.

7. Espetxe-erregimena³⁸

Arauen atal honetan tratamenduaren, jardueren eta destinoen pro-
gramak aipatzen dira³⁹.

³⁸ Espetxe-erregimenari buruz hitz egiteko, garrantzitsua da Bangkokeko Arauetan eta Espainiako espetxe-araudian jasotakoan maila kontzeptualean zer alde dagoen adieraztea. Gure espetxe-sisteman bi kontzeptu daude mugatuta, eta modu desberdinean eragiten diete askatasunaz gabetutako pertsonen: bata, espetxe-erregimena da eta, bestea, espetxe-tratamendua. Bi kontzeptu horiek, praktikan, ez dute zerikusirik. Nolanahi ere, Bangkokeko Arauak jasotzen dituen Nazio Batuen Ebazpenean, espetxe-erregimenaren atalean, birgizarteratzea helburu duen tratamendua osatzen duten programei eta jarduketari buruzko informazio guztia sartzen da. Gure espetxe-legerian, berriz, alde handia dago erregimenaren eta tratamenduaren artean.

³⁹ 42. araua. «1. Emakume presoek jarduera-programa zabala eta orekatua izango dute eskura. Programa horietan, kontuan hartuko dira beren sexuari berariaz lotutako beharrak.

2. Espetxe-erregimenak malgutasunez erantzuteko aukera emango du haurdun dauden emakumeek, bularra ematen ari diren amek eta seme-alabak dituztenek dituzten

Espetxe-araudiari dagokionez, 110. artikulua, 113. artikulua eta hurrengoak, eta 178. eta 179. artikulua lotuko lirateke 42. arau horrekin. Ez dago hain beharrezkoa den genero-ikuspegirik; ikuspegi hori izanez gero, espetxe-administrazioak, emakumeekin aritzean, kontuan hartu ahal eta behar izango lituzkete haien beharrak, haien sexuaren arabera dituzten berariazko beharrak, amek eta bularreko haurren amek dituztenak, haurdun dauden emakumeenak, eta tratu txar fisiko, psikologiko edo sexualen biktima izan diren emakumeek dituzten beharrak.

43.-47. arauak dagokienez, zenbait eskakizun dituzte, emakumeei, espetxeratu ondoren, gizarte-harremanak eta laguntza errazteko. Gure legerian, badira bisitei buruzko artikulua, eta arau horiekin lot ditzakegu, Espetxeen Erregelamenduko (EE) 41. artikulua eta hurrengoak, esaterako

45.-47. arauak birgizarteratzea errazteko neurriak ezartzen dituzte, eta bat datoz gure legediarekin, zehazki, ELOren 73.-75. artikuluetan, EEOko 118. artikuluan eta hurrengoetan (Prestakuntza, kultura eta kirola) eta EEOko 154. artikuluan eta hurrengoetan (Irteera-baimenak).

beharrak direla-eta. Espetxeetan, haurrak zaintzeko zerbitzuak edo bitartekoak gaituko dira, emakume presoek espetxeko jardueretan parte har dezaten.

3. Ahalegin berezia egingo da haurdun dauden emakumeentzako, bularra ematen ari diren amentzako eta seme-alabak dituzten presoentzako programa egokiak ezartzeko.

4. Era berean, laguntza psikologikoa behar duten presoentzat zerbitzu egokiak ezartzeko ahalegin berezia egingo da; kasurako, tratu txar fisiko, psikologiko edo sexualen biktima izan direnentzat».

Gizarte-harremanak eta espetxeratzearen ondorengo laguntza

43. araua. «Espetxeetako agintariak emakume presoentzako bisitak bultzatu eta, ahal izanez gero, erraztuko dituzte, haien ongizate psikologikoa eta gizarteratzea bermatzeko aurretiazko baldintza garrantzitsu gisa».

44. araua. «Baliteke emakume presoek etxean aparteko indarkeria jasan izana; beraz, hori kontuan izanik, behar bezala kontsultatuko zaie noren bisita jaso dezaketen, haien senideak barne».

45. araua. «Espetxeetako agintariak, ahal duten neurrian, zenbait aukera emango dizkiete presoek —hala nola etxerako bisita, espetxe irekiak, trantsizioko aterpetxeak, eta oinarri komunitarioko programak eta zerbitzuak—, kartzelako irteera errazteko, estigmatizazioa murrizteko eta senideekiko harremanak ahalik eta lasterren leheneratzeko».

46. araua. «Espetxeetako agintariak, baldintzapeko askatasuneko eta gizarte-laguntzako zerbitzuekin, tokiko talde komunitarioekin eta gobernu kanpoko erakundeekin lankidetzan, gizarteratze-programa zabalak prestatu eta gauzatzeko dituzte aske utzi aurreko eta ondorengo aldirako, eta programa horietan kontuan hartuko dira emakumeen behar espezifikoak».

47. araua. «Aske geratu ondoren, laguntza osagarria emango zaie laguntza psikologikoa, medikoa, juridikoa eta praktikoa behar duten emakumeei, zerbitzu komunitarioekin lankidetzan, haien gizarteratzea ziurtatzeko».

Baina, aurrez aipatu bezala, arau horiek, ia guztiak, berdin aplika dakizkieke gizonei eta emakumeei, Bangkokeko Arauen eskakizunen aplikazio zuhur eta zuzenik gabe. Berrirori ere, espetxe-araudi espezifiko bat sortzean genero-ikuspegia aplikatzea falta da.

Gaia zabala denez, hiru eduki jorratuko ditugu: jarduerak, prestakuntza-programak eta destinoak edo lan ordaindua. Horietako bakoitza azaldu aurretik, aipatu behar dugu jarduera horietako asko askatasunaz gabetutako gizonekin batera egiten dituztela. Zentzu horretan, Martuteneko espetxean antolatuta egin dira, emakumeek dituzten espazio-baldintza eskasak eta azpiegiturak kontuan hartuta, hau da, modulu txiki-txiki bat eta espetxearen mutur batean.

«... gizonak eta emakumeak elkartzeko nolabaiteko errezeloa, ados, baina "emakumeak babesik gabe daude", "zerbait gertatzen bada?", "emakumeren bat haurdun geratzen bada?"... Hau da, betiko topikoak, baina, azkenean, kartzela batean gaude eta segurtasunaren gaiak lehentasuna izan behar du, ados, baina, era berean, normaltasunez hartu behar dugu jarduerak batera egitea. Emakumeek gauzak egin nahi dituzte, eta jardueretan parte hartu nahi dute, mis-toak izan arren». Hezitzailea

«Diotenez, 2018an, eskolan, saltsa handia izan zen; ezkondu gabe dauden emakume gehienek horregatik ematen dute izena, gizonak ikusteko eta haiekin egoteko. Harrapatuz gero, egiten duen preso hori zigortzen da, ez die beste presoek kalterik egiten. Hau da, eskola kentzen zaie, mezetara joatea, lana... komunikazioak izan ezik». E19

«Normalean prestakuntza guztia mistoa izaten da, eskola mistoa da, kirol-jarduerak... la-ia dena... horretan aldatu gara, asko, hemen, zentro honetan, duela urte askotatik; horretan aitzindariak izan ginen. Gainera, zentroaren egiturak berak behartu gintuen, emakumeen atalak ez zuelako gehiagorako ematen. Orduan, azkenean, esaten genuen... lortu behar dugu emakumeek... haiek gauzak egitea lortu nahi badugu, parte hartu behar dute eta elkarrekin bizitza egin». Gizarte-langilea

«96. urtean, eskola mistoa zen, eta inoiz ez da arazorik egon eskolan. Beste leku batzuetan aipatzean, esaten dute "baina nola...". Baina, tira, eskolan normal daude, irakaslea ikasgelan dago, ikasgeletako sarrerak eta irteerak funtzionarioek kontrolatzen dituzte, eta kito. Ez dago inolako arazorik, hau da, zein da arazoa elkarrekin klasera joateko? Destinoak, jarduerak... dena mistoa izan da beti. Bada, bai, giza harremanak normalizatu egin behar direlako, eta gizonek eta emakumeek elkarrekin egon behar dutelako. Hemen, funtzionarioek kontra egin zuten, dezente, gehiago zaindu behar zutelako». Psikologoa

Hain zuzen ere, hezkuntza mistoa delako, gizonak eta emakumeak hartzen dituelako, emakume preso horietako batzuek bikotekideen diskriminazioa jasaten dute, ez baitiete eskolara joaten uzten beste gizon batzuekin harremanik izan ez dezaten; lehen adierazi dugun bezala, gehienak ijito-etniako emakumeak eta musulmanak dira. Bi zentroetan emakumeentzat dauden jarduerak eskaintza zabala osatzen dute; gainera, COVIDaren pandemiaren geroztik, handitu eta indartu egin da eskaintza hori, aldi horretan erabat aldatu baitzen, osasun eskakizunetara egokitzeko.

«Urte hauetan gauza asko egin ditugu, gizarte-trebetasunak lantzeko tailerrak, sentimenduen adierazpena lantzekoak, ahalduntze-koak... Hori urteetan egin dugu. Batzuetan goizez, beste batzuetan arratsalde ere bai. Orain, beste zerbaitetan ari gara, ez dakit aipatu dizun, emakume ijitoen talde batekin ari gara lanean». Informatzailea

«Irteera terapeutikoak, zentroan horrela esaten diete, hau da, zentrotik irteteko zerbait antolatzen da, printzipioz hirugarren graduaren dauden emakumeekin, alegia, oraindik bigarren graduaren daudenekin. Ez da baimen bat, egun bateko irteera da, antolatuta dagoen jardueraren bat edo dena delakoa egitera; izan ere, guk antola dezakegu, Espetxe Pastoraltzak antola dezake, edota beste edonork». Informatzailea

Jarduerak askotarikoak dira; adibidez, antzerkia, hitzaldiak, solasaldiak, irteera programatuak eta kirol-jarduerak. Jarduera gehienak aldian behingoak dira, eta beste batzuk denboraldi baterakoak.

«Baina... adibidez, emakumearenganako indarkeriaren aurkako egunean... gainera, ni guardian nengoen eta ikustera igo nintzen... ba... ikuskizun baten antzekoa egin zuten, antzerki baten antzekoa, eta normalean parte hartuko ez lukeen jendea parte hartzera animatu zuten... Berez ekimenerako jarrerarik ez dutenak». Medikua

«Donostiako Emakumearen Etxearekin lankidetzan, tailer batzuk egiten hasi dira; sexualitateari buruzko tailerra atzo hasi zen. Gaur autodefentsa feministako tailerra hasiko da, eta datorren astean entrenamendu funtzionalekoa, hau emakumeentzat soilik, emakumearen etxearen bidez». Hezitzailea

Espetxetik irtetea dakarten jarduerak nori eskaini aztertu egiten da, besteak beste, plazak mugatuak direlako.

«Sari bat da, azkenean sari bat da; izan ere, noski, demagun bi espetxeratu dituzula: horietako batek ez du zigorririk izan espetxean da-

raman denboran, destinoarekin betetzen du eta jarduera gehiagotan parte hartzen du zentro barruan... bada horrek lehentasuna izango du, esate baterako, zerbait izan duen espetxeratuaren gainetik... Orduan, bat-batean, ate hori irekitzen zaie eta hegan egiten dute, eta, gero, itzultzean, bi egun egoten dira... zerbaitek arnasa eman balie bezala. Horrelakoetan, oxigeno asko hartzen dute, eta guri ere baliu digu pixka bat, barneratuari beste modu batean behatzeko, nola erreakzionatzen duen ikusteko». Hezitzailea

Profesionalei galdetzean, jarduera asko dituztela esan zuten, baina, askatasunaz gabetutako emakumeei galdetuta, haiek ikuspegi murritzagoa eman ziguten.

«Egia esan, gutxi. Astelehen goizetan, ordubete ateratzen gara kirol-instalazioetara; astearte eta ostegunetan bederatzigarrenekoak, nahi duena yogara joaten da, eta gero eskolara. Eskulanak ere izaten ditugu, arratsaldean. Baina ez dago besterik. Ordubete kiroldegira, eta bederatzigarrenekoak astean bi egunetan joaten dira, mutilak bezala. Beste egun batean zinema dugu». E13

«Noski, eskola, meza. Jarduerak goizetan. Arratsaldean sexuarena dago, EMAKUNDEtik etortzen dira. Bostetatik zazpietara, eta bi ordu horiek oso ondo egoten dira, bestela hemen egon behar baituzu, edo kartetan, edo paseoan. Eta euria egiten badu, barruan egon behar duzu. Izan ere, beste aurpegi batzuk ikuste hutsa nahikoa da». E18

Halaber, planteatu da eskaintzen zaizkien jarduera askotan parte ez hartzea espetxeratuaren motibazio faltak eragiten duela.

«Begira, pertsonen profil bat dugu, emakume-talde bat, ...bada ez gara gai haiengan motibazioa pizteko, indartzeko, jardueretan inplikatu daitezen». Informatzailea

Bi prestakuntza-mota eskaintzen dira: eskolakoa, profesionalak, lehen, azalpenetan aipaturikoa, mistoa, eta lanbide-ikaskuntzarekin lotutako prestakuntza-tailerretakoa. Biak ala biak prestakuntza arautua eta aitortua duten jarduerak dira.

«Neska batzuk ikasten ari gara. Eskoletara joaten gara. Gizonekin errespetuzko harremana dugu, ez dira gu limurtu nahian ibiltzen, badakite errespetatu egin behar gaituztela. Hobe dute! Eskolatik irteetan, denak patioan elkartzen gara, eta ez diete gurekin egoten uzten; berehala baztertzen dituzte eramateko, baina giro ona dago». E18

«Ikastaro guztiak mistoak dira. Beraz, ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean». Funtzionarioa

Emakumeek eskolan izena eman dezakete, eta nahi dituzten ikasketak egin. Baina Internetarako sarbiderik ez den espetxe batean, zaila da ikaskuntza bete-betea izatea mundu globalizatu honetan, non teknologia eta Internet oinarrizko baldintza eta beharra diren⁴⁰. Zentzu horretan, espetxeratuen artean analfabetismo digitala dago, DBHko, batxilergoko eta unibertsitateko ikasleek ordenagailua eta Internetarako sarbidea baitituzte, ikasteko oinarrizko tresnak. Horrez gain, emakumeentzako lanbide-heziketaren eskaintza murrizta den pertzepzioa dago.

«Gutxienez, prestakuntzaren gaia asko lantzea, eta, batez ere, lan-arloa bideratutako prestakuntza, gero, kalean, hori izango baita jendearentzat baliagarria». Informatzailea

«Jarduera gehiago behar dira; arotzeriako ikastaro bat gustatuko litzaidake. Eskola motz geratzen da. Orain bukatuko dut, eta bi egunetan informaziokora joaten naiz; gainerakoetan ez dut ezer egiten. Nik uste dut ez gaituztela prestatzen, ez dizkigutela tresnak ematen kanpora irteteen lanbide bat garatu ahal izateko, independenteak izateko». E20

Bai profesionalek bai askatasunaz gabetutako emakumeek adierazi ziguten lanbide-heziketa arautuaren eskaintza urria zela, hau da, haien laneratzean eragina izango lukeen eskaintza, gizartean behar diren lanbideena, eta ez espetxean emakumeei gehien eskaintzen zaizkien lanbide klasikoena.

«Hau da, oro har, oso ikastaro feminizatuak egin ditugu... hau da, emakumeenak. Geriatriako laguntzaile izateko ikastaro bat izan genuen, eta gizon askok egin zuten; beraz, bai, bi aldeetatik animatzen saiatzen gara. Alde horretatik lan handia egiten dugu, astun samarrak gara, lantaldeko gainerako kideek ere emakumeak ikus ditzaten. Ez dakit... bai, batzuetan amorratu egiten nau oraindik oso feminizatuta dauden jarduerak —prestakuntzakoak batzuetan— antolatzen direlako». Gizarte-langilea

⁴⁰ 2022. urtean erreforma bat egin zen, liburutegietan Internet izateko eta presoek posta elektronikoa izateko aukera ezartzen zuena, baina aukera horiek baliatzeko baldintzak eta garapena horretarako ezarri behar diren barne-erregimeneko arauak aplikatzearen mende daude.

«*Bai, nik ikusten dut badirela, talde batzuk, oso ideologia zehatza dutenak, kartzelan oso modu erreakzionarioan jokatzeko dutenak. Oso matxista. Pena da, pena, pena. Ez dago lanketarik. Prestakuntzaren gaia planteatzen da: ile-apainketa eta estetika, mistoa. Baina horrekin, kanpoan ez zoaz inora. Nik uste dut bestelako prestakuntzak planteatu beharko liritekeela, iturgintzakoa, mekanikakoa eta informatikakoa; izan ere, prestakuntza horrekin, espetxetik atera eta lana dago. Enpresaz kanpoko lanak badaude, atalkakoak. Ez dakit zenbat kobratzen den, ideiarik ez. Baina orain ez dago emakumerik*». E17

Aitortutako lanbide-heziketarekin gertatzen den gauza bera gertatzen da lan-eskaintzekin ere. Espetxe barruko zerbitzuetan, badirudi azken urteotan ahalegin handia egin dela emakumeak gehiago sar daitezen, gizonen kopuruak ikaragarri handia izaten jarraitzen baitu oraindik.

«*Gero garbategia, sukaldia... sukaldean orain hasi dira emakumeen bat hartzen, baina... Garai batean emakumeak egon ziren, gero gizonak soilik, eta orain emakumeak eta gizonak*».

Elkarrizketatzailea: *Eta erizaindegian? Eri zegoen beste emakumeen bat zaintzen?*

Barnenatua: *Horri laguntza deitzen zaio. Horretarako neska batzuk daude, behar dutenei laguntza ematen dietenak*.

Elkarrizketatzailea: *Hori ordaindutako destinoa da, ezta?*

Espetxeratua: *Bai, esate baterako, orain, moduluan bi neska ari dira destino horrengatik kobratzen. Baina lehen obligazioa edo antzeko zerbitzuak zen errespetu-modulu osoan*». E1

«*Egunean 4 orduz lan egiten dut, astean zazpi egunetan. Hilean 200 euro ordaintzen dizkirate. Alta emanda nago Gizarte Segurantzari*». E13

«*Mahaiak zerbitzatzea, hilean 140 euroren truke. Gosaria, bazkaria eta afaria zerbitzatzea*». E18

«*Gu 60 gara, eta 10ek egiten dugu lan*». E14

«*Baina, tira, ni oso pozik nago zentzu horretan, hau da, ahal den neurrian, ondo nago, lan egiten dudalako eta ez nagoelako egun osoa hemen; izan ere, hemen, egun osoa... ez da pasatzen... Lanordutegia zortzietatik bostetara da. Orain gutxi gara. Neskak bederatzi gara. Ni nagoen lekua... neskak hartzen dituen enpresa bakarra da, beste enpresek ez dute neskarik hartzen. Mutilak 16 dira, baina esan dute gehiago kontratatuko dituztela, lan asko dagoelako*». E16

«Zer lan egiten ditugun? Bada, ekonomatuan, garbategian, “garitak” garbitzea, janaria banatzea orgarekin, sukaldea garbitzea, liburutegia». E19

«Gutaz ahaztuta daude. Zortea dut lanean ari naizelako; izan ere, egun osoa modulan egotea... hil egingo nintzateke. Neska batzuk horrela egoten dira, ez dago jarduerarik. Eskola dago, baina egun osoko zeregina dakarren jarduerarik ez dago. Eskulan tailerra dago, baina guk geuk egiten dugu, ez da inor etortzen. Pastoral soilik, ostiral arratsaldeetan. Ordu asko daude libre. Horregatik, jendea estutu egiten da, aspertu, eta azkenean eztabaidatu egiten dute, jendea suminduta dagoelako». E15

«DBH gainditu dut. Funtzionarioen “garita” garbitzen dut, eta ordaindu egiten didate». E20

Zentroan lan egin ahal izatea pizgarria da, ez aspertzeko eta denbora-galtzea saihesteko, beste alderdi batzuek gain. Dena den, destino gehienak zerbitzu komunitarioak egiteko dira, eta horiekin ez da ez ikasten ez errekonozimendu formalik lortzen; horrenbestez, ez dira baliagarriak espetxetik ateratzean. Emakumeek ahaztuta dituzten perzeptzioa zuten; hau da, lan produktiborako eskaintza gutxi jasotzen zizutela zioten, eta zeuden gutxietan oso profil altua izan behar zela, eskatutako produktibitatea lortzeko.

«Emakumeak, oro har, hondatuago daude fisikoki, batez ere bizi-modu txarra izan duten emakumeak. Eta, noski, tailer batzuetan produktibitatea nahi da. Produktibitate hori lortzen ez baduzu, ba ez, zerren Tratamendu Batzordeak, geuk egiten baitugu hautaketa. Baina, gogoratzen naiz, bazela emakume-mota bat... nik borroka handia egiten nuen haiek tailerretan sar zitezen. Emakume ijitoak, lan-esperientziarik gabeak, normalean inoiz ez zutelako lanik egin. Horregatik, ez zituzten gaitasun horiek, ez zuten abileziarik, baina guk sartzea nahi genuen. Izan ere, azkenean, diru-sarrera hori oso ondo etortzen zaie preso guztiei. Produktibitatean pentsatzen ari bazara, zenbait pertsona kanpoan geratzen dira. Bai, batzuetan badago borroka bat... hau da, emakumeen profil jakin batzuk sartzeko borroka... Zeren, emakume trebeak sartzen dira, horiek ez dute inolako arazorik, baina bazegoen inoiz lanik egin ez duen emakume-talde bat». Gizarte-langilea

«Estatuko beste zentro batzuetan egon izan naiz, eta, eskumenen transferentzia horrekin lotuta, nabaritu dut lan-arloan ahalegina egin dela: sukaldean emakume batek egon behar du, mantentze-lanetan emakume batek egon behar du... Horrez gain, soldata-igoera ere

egin zen, orduak doitu ziren. Kartzelan dagoen pertsonak kanpoan zuen lana galdu du, baina pertsona baten euskarri izaten jarraitu behar du. Zortzi ordutz aritzen da hemen lanean, mantentze-lanetan, 600 euroren truke, eta 600 euroekin ezin du familiaren euskarri izan». E16

Emakumeak destino gutxiagotan egotearen arrazoietako bat destino horietan gizonak egotea zen, haiek baitziren gehiengoa.

«Emakumeen ekonomatuan emakumeak daude, baina ardurazko postuak gizonak betetzen dituzte. Lehen, adibidez, horrela zen... beno, orain, proportzioari dagokionez, ez nuke jakingo gaia nola dagoen esaten. Aspaldian ez dugu ikerketarik egin, baina tailerretako lana, batez ere, gizonak egiten zuten. Emakumeak ez dituzte sukaldean lan egitera sartzen... "haurdun geratzen direlako, labearen atzean larrutan hasten direlako"... Beno, bada ez sartu gizonak, sartu emakumeak». Informatzailea.

Emakumeen multzo batean sumatu dugunez —batez ere atzerritarrengan, baina ez haiengan soilik—, egindako lanagatik lortzen duten diru-sarrerak seme-alaben eta familiaren beharrak ordaintzen laguntzen die, eta horrek apur bat arintzen die espetxean egoteagatik, eta ez seme-alabak zaintzen, sentitzen duten larritasun- eta erruduntasun-zama. Espetxe-sisteman azken urteetan egin diren ahalegin guztiak gorabehera, lanbide-heziketa eta lana oraindik ere konpondu gabeko arazoa dira emakumeentzat; dena den, baliteke, urte batzuen ondoren, emakume gehiago sartzea.

Emakumeen % 78,4 ekoizpen- edo lan-destino batean parte hartzen ari ziren; % 71,1ek kirol-jardueretan parte hartzen zuten; % 69,2k jarduera okupazionaletan; eta emakumeen % 68,8 eskolara joaten ziren. Parte-hartze gutxien jarduera hauetan hauteman zen: Emakumea izan programa (% 20), adikzioen tratamendua (% 23,3) eta osasun mentaleko programa (% 30). Egia esan, badu zentzua, jarduera askoz ere espezifikoagoak baitira, batez ere azken biak.

Behatutakoaren arabera, espetxean 10 urte baino gehiago zeramatzaten emakumeek proportzio handiagoan hartu zuten parte lanbide-heziketako jardueretan (% 53,8), 10 urte edo gutxiago zeramatzaten emakumeak baino (% 23,8). Era berean, denbora gehiago zeramaten emakumeek (% 86,7) parte-hartze handiagoa izan zuten kanpoko hizaldietan, 10 urte edo gutxiago zeramatenek baino (% 56,5).

7. taula
Parte harturiko jarduerak

Zer jarduera-motatan parte hartzen ari zara une honetan?	GUZTIAK		≤ 10 URTE		> 10 URTE		p balioa
	n	BAI (%)	n	BAI (%)	n	BAI (%)	
Eskola/ikasketak (DBH, UNED...)	44	68,8	29	65,5	15	73,3	0,602
Ekoizpen-/lan-destinoa	37	78,4	28	78,6	9	77,8	0,960
Jarduera okupazionalak	39	69,2	25	64	14	78,6	0,351
Kirolak	38	7,1	25	68	13	76,9	0,570
Lanbide-heziketa	34	35,3	21	23,8	13	53,8	0,079
Kanpoko erakundeen hitzaldiak	38	68,4	23	56,5	15	86,7	0,054
Emakumea izan programa	30	20	21	23,8	9	11,1	0,433
Adikzioen tratamendua	30	23,3	21	28,6	9	11,1	0,308
Osasun mentaleko programa	30	30	21	28,6	9	33,3	0,798

7.1. Diru-sarrerak

Emakumeen %87,5ek pekulioa zuten espetxean, 64 eurokoa, batez beste (DT = 43). Sarrerak, batez ere, amek (%37,8), seme-alabek (%15,6) edo bikotekideek (%13,3) egiten zizkieten eta, neurri txikia-goan, lagunek (%8,9) edo beste batzuek (%9,1).

10 urte baino gehiago zeramatzaten emakume guztiek pekulioa zuten espetxean; kopuru hori nabarmen jaisten zen (p balioa = 0,081) espetxean 10 urte edo gutxiago zeramatzaten emakumeen artean (%81,8). Espetxean denbora gehien zeramaten emakumeen kasuan, bikotekideak egindako diru-sarreraren ehunekoa ere handiagoa zen (%26,7) espetxean 10 urte edo gutxiago zeramatzatenen kasuan baino (%6,7) (p balioa = 0,066); gainerako kasuetan ez zen alde esanguratsurik hauteman.

Emakumeen %60,4k (n = 29) adierazi zuten espetxean lanen bat zutela⁴¹; proportzioa nabarmen handiagoa zen 10 urte edo gutxiago

⁴¹ Aurreko galdera batean, 37 emakumek adierazi zuten ekoizpen-destino bat zutela, eta, oraingoan, 29 emakumek adierazi dute lana dutela. Litekeena da destino edo lan kontzeptua desberdina izatea, bakoitzak egin dezakeen balorazioaren arabera; izan ere, espetxean eskaintzen diren lanak eta espetxetik kanpo egiten direnak oso desberdinak dira.

zeramatzateneen artean (% 69,7) 10 urte baino gehiago zeramatzate-
nen artean baino (% 40) (p balioa = 0,054). Batez beste, hilean 272,4
euro kobratzen zituzten (DT = 106,9), eta astean ia 20 ordu lan egiten
zuten (DT = 26,3). Ez zegoen alde nabarmenik emakume beteranoenen
eta espetxean denbora gutxien zeramateneen artean; dena den, ema-
kume beteranoenek gehiago irabazten zuten (batez beste, 335 euro,
DT = 109,8) emakume ez hain beteranoekin alderatuta (batez beste,
259,33 euro, DT = 103,8).

8. Ama izatea espetxean

Haurdun dauden emakumeei, bularreko haurren amei eta kartzelan
seme-alabak dituztenei dagokienez, espetxe-araudian berariazko arau
hauek hartzen dira aintzat: ELOOren 38. artikulua, eta EEren 178.-182.
artikuluak, bai eta Bangkok Arauak⁴² ere.

⁴² 48. araua. «1. Haurdun dauden edo bularra ematen ari diren emakume presoek
beren osasunari eta dietari buruzko aholkularitza jasoko dute, osasun-arloko profesional
batek egin eta gainbegiratuako duen programa baten esparruan. Haurdunei, haurtxoei,
haurrei eta bularra ematen duten amei elikadura nahikoa emango zaie aldian behin,
doan, ohiko ariketa fisikoak egiteko aukera dagoen ingurune osasuntsu batean.

2. Ez da eragotziko emakume presoek beren seme-alabei bularra ematea, horreta-
rako osasun-arrazoi zehatzik izan ezean.

3. Tratamendu-programetan, kontuan hartuko dira erditu berri diren eta haurtxoak
haiekin espetxean ez dituzten emakume presoek beharizan medikoak eta elikadura-
beharrianak».

49. araua. «Haurrak amekin kartzelan egoten uzteko erabaki oro haurraren interes
gorenean oinarrituko da. Amekin kartzelan dauden haurrak ez dira preso gisa hartuko».

50. araua. «Seme-alabak beraiekin dituzten emakume presoek ahalik eta aukera
gehien emango zaie haiekin denbora pasatzeko».

51. araua. «1. Kartzelan amekin bizi diren hurrek etengabeko osasun-arretako zer-
bitzuak izango dituzte, eta haien garapena espezialistek gainbegiratuako dute, erkide-
goko osasun-zerbitzuekin lankidetzan.

2. Ahal den neurrian, haur horiek hazteko aurreikusitako ingurunea espetxeetan bizi
ez diren haurren ingurune bera izango da».

52. araua. «1. Haur bat amarengandik banandu behar den uneari buruzko erabakiak
kasuaren arabera eta haurraren interes gorena kontuan izanik hartuko dira, kasuan ka-
suko legeria nazionalaren arabera.

2. Haurra espetxetik ateratzeko erabaki oro kontu handiz hartu behar da, eta soil-
soilik haurra zaintzeko neurri alternatiboak hartu direla egiaztatu ondoren; atzerriko pre-
soen kasuan, kontsulatuako funtzionarioei ere kontsulta egingo zaie.

3. Haurrak amarengandik banantzen badira eta haur horiek senideen edo beste per-
sona batzuen edota arreta-zerbitzuen zaintzapean jartzen badira, emakume presoek
ahalik eta aukera eta zerbitzu gehien emango zaizkie beren seme-alabekin biltzeko,
hori haurren interes gorenaren mesederako denean eta betiere ordena publikoari eragin
gabe».

Eskumenak transferitu aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan ez zegoen adingabeak zituzten amentzako modulurik, eta, emakumeak erditzen zirenean, Madrilera edo Alacantera eramaten zituzten, edota haurtxo jaioberria familiarekin edo adingabeak babesteko departamentuaren ardurapean (dagokion Foru Aldundian) utzi behar izaten zuten.

*«Denbora honetan guztian, haurdunaldi asko bizi izan ditut. Hasi-
siera batean, badakit haurdun zeuden presoak amen unitatea zuen
zentro batera eramaten zituztela. Gero, beste une batean, ea zer egin
behar zuten galdetzen zitzaion, hau da: "Haurra atera eta aitarekin
edo senideekin utzi behar baduzu, zu hemen geratuko zara, eta jada
adostuta dugu, ospitalean haurra erditzera zoazenean, zuk esandako
senideengana joango da". Gainera, elkarrizketa bat izaten genuen
haurra hartu behar zuen senidearekin. Ezin genuen asko egin, horren
berri emateaz gain. Aldundiek ere ez zuten espedienterik irekitzen, ez
pentsa; izan ere, zu erditzen bazara eta zure haurra eramaten badut,
zuk ez duzu ezer esaten, eta nik zure haurra eramaten dut egoera
normal batean... Bada, preso dagoen emakume batekin gauza bera
gertatzen da norbaitek haurra eramaten badu..., baina guk... bai, hitz
egiten genuen, kudeaketa hori, benetan ondo joango ote zen kez-
katu... Eta azken unean, emakumeek erabakitzen bazuten beren hau-
rrarekin geratzea, bazekiten hiru urtera arte haiekin egon daitezkeela.
Hala, ospitaletik amen unitatea zuen kartzela batera eramaten zituz-
ten, hemen ez baitzen haurrik sartzen; hemen aspalditik ez dugu es-
perientziarik haurrekin». Gizarte-langilea*

*«Ba, haurdun dauden emakumeak, bai, jarraipena hemen ere egi-
ten da, eta emagina behar denean, hona etortzen ez denez, Gas-
teizko osasun-zentro batera bidaltzen dira, Lakuabizkarrara... Uste
dut hara joaten direla emaginaren jarraipena egitera... Hemen, kar-
tzelaratzeko bakarra izan dugu, kalean haur txiki batekin zegoen ema-
kume batena, atxilotu egin baitzuten. Aitak ez zuen nahi izan haurra
bere gain hartu; horregatik, ama haurrarekin sartu zen. Hemen izan
genuen, erizaindegian, astebete egon zen... edo gutxiago, Aldundiak
hartu baitzuen haurraren ardura; izan ere, transferentzia ere izan zen,
sanitarioa, bai... baina espetxeetakoa ez. Beraz, noski, amen unitatera
Aranjuezera edo beste nonora joan behar zuen, eta emakumeak ez*

64. araua. «Posible eta egokia denean, haurdunei eta haurrak ardurapean dituz-
ten emakumeei askatasunaz gabetzen ez duten epaiak jartzea hobetsiko da, eta aska-
tasunaz gabetzeko epaiak ezarriko dira baldin eta delitua larria edo indarkeriazkoa bada
edota emakumeak arriskutsua izaten jarraitzen badu, baina haurraren edo haurren inte-
res gorena kontuan hartuta eta, aldi berean, haur horiek zaintzeko neurri egokiak har-
tzen direla ziurtatuta».

zuen joan nahi. Orduan, nahiago izan zuen haurra Aldundiaren ardurapean geratzea. Gainerakoan, haurdunak izan ditugu, baina ez zaigu egokitu hemen daudela erditu izana. Hemen hirugarren gradu asko eman ohi dira. Beraz, izan ditugun kasuetan, delitu arinak izango zi-rela uste dut, ez zuten zertan egon...». Medikua

Erditu ondoren lekualdatzen dituzte amen unitatera, inoiz ez lehenago, eta alderdi hori berrikusi egin beharko litzateke, lekualdaketa hori emakumearentzat oso une sentiberan gertatzen baita: erditu berri da, eta haurtxo bati bularra ematen ari zaio.

«Hau da, bi aukera baino ez zeuden. Bata, lekualdatu egingo zizutzen, amen unitatea duen zentro batera, eta noski, Espainian hiru zeuden: Picassenten, Sevillan eta Madrilan. Uste dut behin erditu ondoren lekualdatzen dela. Inoiz ez lehenago, ez. Azkenean, haurtxoarekin anbulantzia joaten ziren, etxetik ez dakit zenbat kilometrora, amen unitate batean bizitzera, edo bestela, ama honantz itzultzen zen, hustuta, eta haurra senideei utzita, haien ardurapean...». Psiko-logoa

Dena den, espetxe-eskumenak transferitu ondoren, eta jaioberri bat izan zuen emakumearen kasuari erantzun behar izatean, aurreko medikuak adierazi bezala, Eusko Jaurlaritzako agintari eskudunek amen unitate bat prestatu dute, beste uneren batean premia hori sortuko balitz ere, emakumeek haurrarekin geratu nahi izanez gero, Euskaditik kanpora joan behar izan ez dezaten.

«Eusko Jaurlaritzak unitate bat ireki du, baina oraindik ez dago inor... Badakit emakume bat egon zela, Donostian. Uste dut izan du ten kasu bakarra dela, haur batekin sartu zen emakumea, behin-behinean, eta behin-behineko askatasuna eman zioten». Gizarte-langilea

Oro har, emakumeek nahiago izaten dute haurrak senideen ardurapean utzi, eta hala jakinarazi ziguten elkarriketaturiko profesional askok.

«Ea, nik haurdunaldiak izan ditut hemen; azkenetako bat... emakume bat sartu zen erditzetik 15 egunera. Hau da, kasu hartan, berak erabaki zuen amen unitate batera ez lekualdatzea, ez zuen kanpora joan nahi, izan ere, Valentziara edo Madrilera joan behar zuen, eta, beraz, haurra aitona-amonekin geratu zen, amaren gurasoekin». Gizarte-langilea

«Eta gero, beste kasu bat ere izan nuen, beste emakume bat, ... hura ere haurdun sartu zen, eta haurra amaren aldeko izeba batekin

geratu zen. Emakume ijitoa zen, eta amaren aldeko izeba batekin geratu zen. Eta emakume ijito hura, nik berarekin hitz egin nuen... eta hasieran ez zidan aitortzen, baina gero bai, aitortu zidan haurdun geratu zela auzi bat ebazteke zuelako..., bazekien agian ez ziotela zigorrra etengo eta, hau eta bestea, haurdun geratu zen». Gizarte-langilea

Askatasunaz gabetutako emakumeei gai horri buruz galdetzean, iruzkin eta komentario hauek egin zituzten:

«Bai. Denetarik dago. Denak ondo tratatu dituzte, oro har, baina izan dira arreta gutxiago eskaini dietenak ere, ez dakit zergatik. Ez dakit ijitoak direlako den, payoak...». E13

«Bai, egon izan da. Bi ezagutu ditut. Haurdunaldi osoan hemen geratu ziren, eta arreta medikoa jaso zuten. Ginekologoa etortzen zen. Eta haurtxoa familiari utzi zioten». E14

«Hirugarren gradua izanez gero, nahi badute izorratu egiten dute, gaztigu bat sar diezazuten. Zigortzen gaituztenean, biontzat da zigorra. Zigor-ziega bat dago, eta hara bidaltzen dituzte gaizki portatzen diren neskak. Haurdun dagoen emakumea ziega horretan dago, errespetu gabekoan, emakume funtzionario bati erantzuteagatik». E19

Iruzkin horiek pertzepzio subjektiboak izan daitezke; izan ere, aurrez aipatu bezala, ez dugu antzeman haurdun dauden emakumeekiko neurri hertsatzailerik; baina, edonola ere, emakume horien arreta berrikusi beharko litzateke. Haurdunaren portaera egokia ez bada, beste neurri zuzentzaile bat bilatu beharko litzateke, ez isolamendua edota zigor-ziega; izan ere, emakume horren egoera psikikoak eragina izan dezake haren haurdunaldian.

Azkenik, genero-alborapenaren gaia mahaigaineratu zen zaintzaren zamari dagokionez, emakumeen gain geratzen baita, ez gizonen gain, baina haurrek gurasoak dituzte, aita eta ama, eta, zenbait kasutan, gainera, biak espetxean.

«Hain zuzen ere, hasieratik saiatu izan naiz gai hori ez indartzen, hau da, zergatik izan behar duen emakumeak beti kezka handiagoa edo benetako zaintza-karga handiagoa. Emakumeen kasuan, egia da gehiagotan gertatzen dela, karga horiekin nolabait bakarrik dauden emakumeak, edo bananduta, dibortziatuta edota bikotekide bera ere espetxean dagoen kasuak. Biak sartzen dira espetxean, edo lehenbizi gizona eta gero emakumea, edota badira haurren zama gain, bestelakoak ere badituztenak: adinekoen zaintza, familian

ezindua izatea... Eta zentzu horretan... niri ez zait gustatzen... egun hauetan Bangkokeko Arauak pixka bat irakutzen egon bainaiz, ...ez zait gustatzen arauetan jasotzea, batez ere emakumeei mesede egitea, etxea izan dezan... kontrakoa iruditzen zait, hori indartzen ari gara». Gizarte-langilea

9. Miaketak

Bangkokeko Arauetan miaketa pertsonalak 19., 20. eta 21. arauetan arautzen dira⁴³. Espetxeen Erregelamenduan, miaketa pertsonalei «katxeo» esaten zaie, eta «barne-segurtasuneko neurrien» barruan sartzen dira (Espetxeen Erregelamenduaren 68. artikulua).

Oro har, miaketa guztiak egitean, miatzen den pertsonaren duintasunerako eskubidea, intimitaterako eskubidea eta gainerako oinarritzko eskubideak ahalik eta gehien errespetatuz egin behar dira, premia-eta proportzionaltasun-printzipioak betez, eta baliabide elektronikoei lehentasuna emanaz.

«Segurtasun-arrazoi zehatz eta espezifikoengatik», guztiz biluzik egindako miaketak baimentzen dira (EEko 68. artikulua 2., 3. eta 4. atalak), baldin eta uste bada askatasunaz gabetutako pertsonak, bere gorputzean, «objektu arriskutsuren bat edo pertsonen osasunari edo osotasun fisikoari kalte egin diezaiokeen edota leku horretako segurtasuna edo bizikidetzatza ordenatua nahas dezakeen substantziaren bat» ezkututzen duela. Arauak zehazten duenez, guztiz biluzik egindako katxeo hori presoaren sexu bereko zaintzako langileek egingo du⁴⁴, leku itxi batean eta beste presorik aurrean izan gabe. Katxeo horren emai-

⁴³ 19. araua. «Miaketa pertsonaletan, emakume presoaren duintasuna babesteko eta haien errespetua bermatzeko neurri eraginkorrak hartuko dira. Miaketa horiek emakumeei soilik egingo dituzte, miaketa pertsonalerako metodo egokiei buruzko trebakuntza egokia jaso dutenek, eta ezarritako prozeduren arabera».

20. araua. «Beste ikuskapen-metodo batzuk prestatu beharko dira, hala nola eskaneatzeko metodoak, arroparik gabeko miaketen eta gorputz-miaketa inbaditzaileen ordez, ondorio psikologiko kaltegarriak eta gorputz-ikuskapen inbaditzaile horiek izan ditzaketen ondorio fisikoak saihesteko».

21. araua. «Espetxean amekin dauden haurrak eta presoak bisitatzen dituzten haurrak ikuskatzean, espetxeko langileek gaitasunez, profesionaltasunez eta espetxeratuaren duintasuna errespetatuz jokatu beharko dute».

⁴⁴ Ildo horretan, Espetxe Sistemako Zuzendaritza Nagusiak transexualak integrazteari buruz emandako 7/2006 Instrukzioak ezartzen duenez, transexualek eskubidea izango dute «katxeoak metodo elektroniko bidez egiteko, eta, nolatan ere, aitortutako genero-identitatea errespetatuz». Ildo berekoa da Eusko Jaurlaritzaren 2/2023 Instrukzioa, espetxe-eremuan trans pertsonen tratu-berdintasuna eta bereizkeriarik eza aitortu, bermatu, babestu eta sustatzeari buruzkoa (6. artikulua, f atala).

tza negatiboa bada, legezkoa da beste kontrol-bide batzuetara jotzea, epailearen alde aurreko baimenarekin (zenbaitetan, X izpiak erabiltzen dira eta/edo libragarriak ematen zaizkie).

Miaketak zaintzako edo barneko edozein funtzionarioek erabaki ditzake, eta zerbitzuaren bulego nagusira partea bidaliko du, horren berri emateko. Katxeoak guztiz biluztea badakar, zerbitzuburuak izango du hori erabakitzeke eskumena.

Espainiako Estatuko legedia ikusita, Bangkokeko Arauak Espetxeen Erregelamenduan jasota geratzen dira hauei dagokienez:

- miatutako pertsonaren duintasuna errespetatzeko beharra (19. araua);
- miaketa emakume funtzionarioek egin beharra, guztiz biluzik jartzea badakar (19. araua);
- bitarteko elektronikoen lehentasuna katxeoetan (20. araua).

«Miaketa pertsonalerako metodo egokiei buruzko trebakuntza ego-kia» izan beharra ez da arautzen, ez ELOOn, ez EEn, ez eta katxeoetan bete beharreko «prozedurak» ere, 19. arauan aipatzen direnak.

Gure legedian, halaber ez dago haurren katxeoari buruzko inolako zehaztapenik.

Praktikan, askatasunaz gabetutako emakumeei egiten zaizkien miaketa pertsonalak barneko edo zaintzako emakume funtzionarioek egiten dituzte kasu guztietan; funtzionario guztiek argi dute hori. Hala adierazi ziguten.

«Hori oso barneratuta dugu. Metal-detektagailu batekin eta erraketa deritzogunarekin soilik miatu daitezke, baina ukitu gabe, hemen ez. Hori oso zorrotz betetzen dugu, bai guk, bai Ertzaintzak, neska bat atera behar dutenean haiek miatu behar baitute. Ospitalera joatean, adibidez, emakume bat ekartzen dute haiek katxeatzeko. Hori ez... gaur egun, ez zaigu bururatzen. Noski, emakume batek katxeatzen du; sarrera bat dagoenean, gora deitzen da, emakumeak dau den lekura, eta "aizu, jaitsi behera, espetxeratu bat miatu behar da eta". Hori beti egiten da. Ez dago inor... ez, ez, barneratuta dugu, emakume bat miatzea, ez, ez». Funtzionarioa

Erantzun bera jaso genuen elkarrizketatutako emakume guztien-gandik. Miaketa inbaditzaileagoa behar bada, hau da, X izpiak erabili behar badira, epaitegiari jakinarazten zaio, eta askatasunaz gabetutako pertsona ospitalera eramaten da, han miatu dezaten.

«Ospitalean. Nik ezagutzen dut jendea ospitalera, X izpiekin miaztera, atera dutena, baina hori saltsa bat da: espetxeak epaitegiari eskatu behar dio, epaileari, eta epaileak onartu egin behar du». E1

«2018an egon nintzenean, noizean behin izaten zen, baina, orain, gutxiago egiten dira. Ni ez naute miatzen, beste batzuk agian bai, pertsonaren arabera, droga-kontuengatik zauden ala ez... Emakumeek katxeatzen gaituzte». E19

«Nik zazpi hilabete daramatzat hemen, eta bi ikusi ditut: bat aurreko ziegan, eta bestea garbategian. Noizean behingoak dira. Inbaditzaile samarrak: arropa lurrera botatzen dizute, desordenatu...». E20

Nolanahi ere, miaketa guztiak —pertsonalak, ziegakoak edo norberaren gauzenak izan— emakume presoek inbaditzailetzat bizi badituzte ere, oro har badakite ustez substantzia psikoaktiboak edo debekatutako objektuak edukitzeagatik izaten direla.

Inkestatutako emakumeen % 88,9ri (n = 45) katxeo edo miaketaren bat egin izan zieten espetxean egon ziren aldian. Emakumeen % 78,4 (n = 37) emakumeek katxeatu edo miatu zituzten; katxeoetan, % 57,7ri (n = 26) prozedura informatikoaren bidez egin zieten katxeoa, % 70,4 arroparik gabe utzi zituzten (n = 27) eta % 38,5 (n = 26) flexioak egi-tera behartu zituzten. Arroparik gabe katxeatu zituztenean soilik haute-
man ziren alde esanguratsuak (p balioa = 0,003) antzintasunaren ara-bera; hala, 10 urte baino gehiago kartzelan zeramatzatzen emakumeen % 100 arroparik gabe miatu zituzten, eta, oster, 10 urte edo gutxiago zeramatzatzen emakumeen % 46,7 miatu zituzten horrela.

10. Zehapenak eta bitarteko hertsatzaileak

ELOOren 254.3 artikulua ezartzen du debekatuta dagoela isola-
mendu-zehapena aplikatzea haurdun dauden emakumeei, haurdun-
aldia amaitu denetik sei hilabete baino gutxiago igaro bada, bai eta bere-
kin seme-alabak dituzten emakumeei ere. 22. arauan gai hori aipatzen
da⁴⁵. Ez dugu halako zehapenik egiaztatu edo jaso haurdun dauden
presoen artean.

23. arauan⁴⁶ xedatutakoaren arabera, Espainiako espetxe-legeriak
senideekin, seme-alabekin barne, harremana izatea eragotz dezake-
ten zehapen batzuk ezartzen ditu; zehazki, irteera-baimenak kentzeko
zehapenak (gehienez bi hilabeterako, hutsegite larrien ondorioz) eta

⁴⁵ «Emakume haurdunei, seme-alabak dituzten emakumeei edo edoskitzaroan dau-
den amei ez zaie bakartzeko edo banantze diziplinarioko zehapenik ezarriko.»

⁴⁶ «Emakumezko presoentzako zehapen diziplinarioek ez dute barne hartuko haien
senideekin, batez ere haurrekin, harremanetan jartzeko debekua.»

ahozko komunikazioak mugatzeko zehapenak (gehienez hilabeterako, hutsegite larrien ondorioz).

Planteatu da askatasunaz gabetutako emakumeak gizonak baino gehiago zigortzen direla (Ruiz Torrado, 2017; Alonso Merino, 2020), eta profesionalei galdetu zaie horri buruz. Alde batetik, erantzun dute ez dela egia; izan ere, emakumeak gutxiago direnez, harremana estuagoa da, eta alde batera uzten dira zigortzeko modukoak izan daitezkeen egoera asko.

«Ez dut uste gizon edo emakume izatearen arabera denik, moduluak oso txikiak izatearen ondorio baizik. Adibidez, hemen, 15 emakume ditugu orain, eta, agian orain ez hainbeste, baina, lehen, adibidez, emakumeek bakarrik ematen zieten zerbitzua emakumeei, eta beraz, beti ginen berdinak. Hortaz, esan nahi dudana da, familian bezala zaudela. Azkenean, badirudi ama zarela eta errietan zabiltzala, eta nik uste dut hori dela kontua, nola funtzionatzen duen. Jakina, ez da gauza bera presio handia, edo 50-100 presoko modulua, funtzionarioek askoz harreman gutxiago baitute. Hau da, guk izenez eta abizeenez ezagutzen ditugu presoak. Espetxe handietan jendea karnetarekin ibiltzen da. Ez dakizu nor den nor, mugimendu handia baitago. Eta hemen kaixo urlia, hepa sandia zabiltza... orduan, harreman bat duzu, eta uste dut eragin handiagoa duela horrek, presoekin harreman estuagoa izateak, haiek gizon edo emakume izate hutsak baino». Funtzionarioa

Bestalde, adierazten da portaera bortitza eta iraingarria gizonengan izan ohi direla nagusi, eta ez emakumeengan. Baina portaera horiek emakumeen artean gertatzen direnean, tolerantzia gutxiago dago haiekiko, eta emakumeak larriago zigortzen dituzte. Emakume presoren batek ere bazuen pertzepzio eta esperientzia hori.

«Gizonen sailean ohikoa izan daitekeena, errespetu falta, oso ezohikoa da emakumeen kasuan; beraz, ezohikoa dena, azkenean, gehiago zigortzen duzu. Ez dut uste espetxe honen kasua denik; izan ere, hemen, berriro diot, funtzionarioekin egiten diren aliantza horien ondorioz, askotan gauza asko barkatzen dituzte eta, oro har, gizonen kasuan ez dira halako aliantzak egiten; beraz, ez dira gauza horiek barkatzen... Hau da, badirudi gauzak justifikatu egiten direla, bai? Baina lotura hori dagoenez, permisiboagoak dira. Zer gertatzen da? Bada, permisibitate hori, batzuetan, kaltegarria dela; izan ere, azkenean, gaiztoa izan nahi duenak errespetua galtzen dio funtzionarioari.» Psikologoa

«Bai, nik uste dut baietz, zeren, azkenean, ez da berdin ikusten nik esatea aizu, putakumea, pasaidazu porru bat, emakumea naizen

aldetik itsusia da nik hori esatea, edo zuk esatea putakumea, pasai-dazu porrua. Oso desberdina da, ez da berdin entzuten. Beraz, zigortu egingo zaitut txilioka ari zarelako, ama ona, alaba ona eta emazte ona izan behar duen emakumea zaren aldetik, portaera hori duzulako». Informatzailea

«Bai, badira [zigor] bidegabe batzuk. Niri ez didate inoiz bat ere jarri. Noizbait ahotsa altxatu diot beste bati, baina ez didate inoiz ezer jarri. Uste dut gu gehiago zigortzen gaituztela haiek baino». E19

Lehen aipatu dugun bezala, emakumeen jokabideari dagokionez eskakizun-maila handiagoa izateak sailkapen-graduan atzera egitea ekar dezake, eta, bigarren gradutik lehen gradura igarotzean, ezkutuko zeha-pena eragin dezake; izan ere, Euskaditik kanpoko espetxe batera nahitaez lekualdatzea eragingo du (oro har, Ávilako espetxera), ez baitago emakumeentzako lehen graduko modulurik, sailkapenari dagokion epi-grafean azaltzen den bezala. Azterlanean ez da halako egoerarik jaso.

Zigortuak izan daitezkeen ekintza edo jokabide ohikoenak zein ziren galdetzean, elkarriketatutako emakumeek hainbat egoera adierazten zizkiguten, horietako batzuk bakarrik azaltzen dira.

«Tira, gaizki erantzuten baduzu, azkenean zigortu egiten zaituzte, eta horrelakoak. Zu errespetatzea nahi baduzu, zuk ere errespetua erakutsi behar duzu... Zigortu egin naute, parteak jarri dizkidate, medikazioagatik, kontsumoagatik... pilulak eta kalamua kontsumitzeagatik». E1

«Borrokak, eztabaidak, batzuetan bidegabekeria asko izaten dira. Beste lagun bat beharpenik ez ezer eman gabe daukate, eta ez diote azalpenik ematen. Profesional bakoitzak gauza bat esaten dio. Ez dago koordinaziorik, ez dira ados jartzen». E13

«Une honetan zigor bat betetzen ari naiz, jarri zidaten parte batengatik. Garbitegian ari nintzen lanean, erizaindegira joan nintzen, neska batek gaizki hitz egin zidan eta nik gaizki erantzun nion. X modulukoa zen, ni bezala. Bioi jarri ziguten partea. Ni Y modulura eramán ninduten eta bera X moduluan geratu zen». E14

«Ahotsa pixka bat goratzen baduzu, zigorra. Ni, lehengoan, ur bila jaitsi nintzen une batean; dirudienez, bera igo zen, eta ohea egin gabe nuela ikusi zuen. Goizeko 09:00ak ziren oraindik, eta esan zidan, edo igo eta ohea egiten duzu edo partea jarriko dizut. Ez nion ezer esan. Baina beste batzuei berdín zaie. Baina hori bueltaka hasten da edozer gauzagatik, miatzen, denbora guztian nola jaten dugun begira, eta gu denak isilik, badakigulako nolakoa den». E18

*«Entzun dut gertatu izan dela, zeloak direla eta izorratu egiten zaituztela. Zigorra bientzat da. Hau da, **norbaitekin eztabaidatzen baduzu, partea biontzat da**. Nire ustez, hori ez dago ondo, zer gertatu den entzun eta errua nork duen ikusi beharko lukete».* E20

Hala ere, egiaztatu da zehapenak ezartzean eragina duela dagokion parte jarri duen zaintzako edo barneko funtzionarioaren pertzepzio pertsonalak, bai eta haren izaerak eta jokatzeko moduak ere. Zaintzako funtzionario horiek guztiek ez dute berdin jokatzeko gertaera beraren aurrean, eta nola emakumeak hala profesional teknikoak horren jakitun dira, eta hala adierazi ziguten.

*«Egia da funtzionario batzuek **errazago jartzen dituztela**. Batzuek esan dezakete... «honek partea mereziko luke; hurrengoan, parte», eta beste batzuek, zuzenean, «parte». Zergatik? Ezerezagatik, berandu iristegatik, txorakeria batengatik».* Informatzailea

Gertaera bat da gizonezkoei eta emakumezkoei ezarritako zehapen kopurua, eta berbera edo txikiagoa izan daiteke sexuen arabera, eta beste gertaera bat da zehapen bat ~~edo parte~~ ezartzea eragin duen edukia eta haren inguruabarrak. Hau da, kuantitatiboki antzekoa izan daiteke, baina kualitatiboki oso desberdina. Gertakari horiek batzuetan onartuagoak dira gizonen artean, eta ez hainbeste emakumeen artean, badirelako portaera batzuk gizonengandik espero direnak, baina ez emakumeengandik. Tratu-desberdintasun hori jasota dago Euskadin aurrez egindako azterlanetan, lehenago adierazi diren horietan. Zuzentzeko edo zigortzeko beste modu batzuk ere planteatzen dira errefortzuen bidez, puntu positiboak emanez eta ikastetxeetan haurrekin edo nerabeekin egiten den bezala jokatzuz. Lehen puntu negatiboak ere erabiltzen zirela adierazi da.

*«Bai, merezimenduen orri batzuk puntuak dira, eta **puntu horiekin «vis»ak eskatu ditzakezu familiarekin, bikotekidearekin, irteera terapeutikoak. Nik bi irteera terapeutiko egin ditut».*** E1

*«Lehen **negatiboak erabiltzen ziren** eta orain kendu egin dituzte, neskek presio hori izan ez dezaten; izan ere, nahiko presio baidugu dagoeneko funtzionarioekin. Negatiboak beldurtzeko modu bat ziren; gaizki portatzen bazara, negatiboa jartzen dizute, eta hiru negatiborekin, beste modulura pasatzen zaituzte».* E15

Inkestatutako emakumeen artean, zehapena eragiten duten egoera ohikoenak beste presoekiko gatazkak dira; hala, askatasunaz gabetutako

emakumeen % 60,9k gatazkaren bat izan du beste preso batekin, eta ehuneko hori nabarmen handiagoa da espetxean 10 urte edo gutxiago daramaten emakumeen artean (% 71,9), 10 urte baino gehiago daramatzatenen artean baino (% 35,7). Halaber, ohikoa da (% 45) gatazkak izatea barneko edo zaintzako emakumezko funtzionarioekin, zaintzako edo barneko gizonezko funtzionarioekin baino gehiago (% 23,5); espetxeko profesional teknikoekiko eta zuzendaritzarekiko gatazkak inkestatutako emakumeen % 17,1ek eta % 16,2k adierazi dituzte, hurrenez hurren, eta, aldiz, ez da hain ohikoa Segurtasun Indar eta Kidegoekin gatazkaren bat izatea garraioetan (% 11,8). Egoera horietan guztietan ez da alde esanguratsurik ikusi espetxean egondako antzinatasunaren arabera.

8. taula
Norbaitekin gatazkaren bat izan izana

Espetxe honetan daramazun aldian, izan al duzu gatazkarik ondoren ageri den pertsonaren batekin?	GUZTIAK		≤ 10 URTE		> 10 URTE		p balioa
	kop.	BAI (%)	kop.	BAI (%)	kop.	BAI (%)	
Beste preso batzuekin	46	60,9	32	71,9	14	35,7	0,022
Emakumezko funtzionarioekin	40	45,0	26	46,2	14	42,9	0,844
Gizonezko funtzionarioekin	34	23,5	22	22,7	12	25,0	0,883
Poliziarekin, garraioetan	34	11,8	20	10,0	14	14,3	0,707
Profesionalekin	35	17,1	22	13,6	13	23,1	0,480
Espetxeko zuzendaritzarekin	37	16,2	23	13,0	14	21,4	0,508

Emakumeen % 69,6k (kop. = 46) adierazi zuen egoera larriren bat bizi izan zuela espetxean egon zen bitartean eta, horren aurrean, % 53,7k (kop. = 41) adierazi zuen zerbait egin zuela: espetxeko zuzendaritzari jakinarazi (% 21,7), epaitegietan salatu (% 21,7), bere kabuz konpondu (% 21,7), ezer ez egin (% 13,0) edo beste ekintzaren bat (% 21,7). Espetxean 10 urte baino gehiago zeramatzaten emakumeen artean, nabarmen handiagoa da (p balioa = 0,016) espetxean egoera larriak bizi izan dituztenen ehunekoa (% 93,3), 10 urte edo gutxiago zeramatzatenen artean baino (% 58,1). Egoera horien aurrean zerbait egin dutenen ehunekoa ere handiagoa da (p balioa = 0,003) beterranoen artean (% 85,7), espetxean denbora gutxiago zeramatenen artean baino (% 37,0). Bestalde, nahiz eta alde esanguratsurik ez izan, den-

bora gehiago zeramatenek gehiagotan jakinarazten zioten espetxeari (% 28,6) edo salatzen zuten epaitegietan (% 28,6), denbora gutxiago zeramatenek baino (% 18,8 eta % 18,8, hurrenez hurren). Azken horiek arazoa beren kabuz konpontzeko joera zuten (% 25).

Ez da egiaztatu emakume haurdunei edo edoskitzaroan dauden emakumeei bitarteko hertsatzailerik aplikatu zaienik, Bangkokeko Arauetan berariaz azaltzen den bezala⁴⁷. Arau horrek xedapen bakarra eskaintzen dio gai horri.

Espainiako espetxe-legerian debekatuta dago bitarteko hertsatzailerik erabiltzea isolamendu-zehapena erabiltzea debekatuta dagoen kasu berberetan: haurdun dauden emakumeen kasuan, haurdunaldia amaitu eta sei hilabete igaro baino lehen, edoskitzaroan, eta seme-alabak berekin dituzten emakumeen kasuan, nahiz eta horiek erabiltzea baimenduta dagoen beste pertsona batzuentzat edo beren buruarentzat berehalako arriskua baldin badago (EEO, 72.2 art.). Salbuespen hori ez dago araututa 24. arauan.

ELOOn, hertsatzeko bitartekoak 45.1 artikuluan arautzen dira, eta Espetxe Erregelamenduan, 72. artikuluan. Behin-behineko isolamendua, indar fisiko pertsonala, gomazko defentsak, ekintza egokiko aerosolak eta eskuburdinak dira. Aldi berean bat baino gehiago erabil daitezke.

Bitarteko hertsatzaileak arau bidez tasatutako kasuetan aplika daitezke:

- ihes-ekintzak eragozteko;
- presoan indarkeria-ekintzak eragozteko;
- presoek beren buruari, beste pertsona batzuei edo gauzei kalterik ez egiteko;
- zaintzako edo barneko funtzionarioen aginduekiko erresistentzia aktiboa edo pasiboa menderatzeko.

Ezin dira inoiz ezkutuko zehapen izan, ez dira erabili behar lortu nahi den helburua lortzeko larritasun gutxiagoko beste bitarteko bat badago, eta behar-beharrezkoa den denbora baino ez dute iraun behar. Aipatu dugun bezala, egoera horiek ez dira gertatu aztertutako espetxeetan.

11. Osasuna, ongizatea eta osasun-arreta

Osasun-arretari dagokionez, 6.etik 18.era arteko arauak hartu behar dira erreferentziazat.

⁴⁷ «24. araua. Ez da bitarteko hertsatzailerik erabiliko erditzeaz, erditzen edo erditu berri diren emakumeen kasuan».

Hasierako osasun-azterketari dagokionez, 6. arauak⁴⁸ azterketa mediko sakona egitea ezartzen du, askatasunaz gabetutako emakumeen oinarrizko beharrak detektatzeko, bai eta orain arte oharkabean igaro diren edo detektatu ez diren gaixotasunak edo osasun-arazoak detektatzeko ere, emakumeak diren aldetik arreta bereziz aztertu beharrekoak.

Espetxe-legeriak espetxe-administrazioaren aginduzko betebeharrak gisa ezartzen du presoen bizi-tza, segurtasuna eta osasuna zaintzea (ELOO, 3. art.).

Espetxe Erregelamenduaren 20. artikulua, bere aldetik, espetxean sartu eta ahalik eta lasterren osasun-azterketa egiteko betebeharrak jasotzen du, atxilotuak, presoak eta zigortuak bereiziz, bai eta zer alderdi aztertu behar diren ere, ondoren espetxe-sistemako teknikariek esku hartzeko eredu indibidualizatua edo tratamendu-programa indibidualizatua egin ahal izateko, bakoitzaren egoera prozesala kontuan hartuta.

Artikulu horrek ez du bereizketarik egiten emakumeei bereziki eragin diezaieketen alderdien azterketan, behaketan edo bilketan, ez baitu bereizten espetxeratua gizonezkoa edo emakumezkoa den.

Osasun-laguntza da Espetxe Administrazioak nahitaez bete behar duen prestazio publikoetako bat, eta «Osasun Laguntzari» buruzko IX. Tituluan jasota dago erregelamendu bidez, 207.-220. artikuluetan; besteak beste, arretaren, kudeaketaren, ikerketaren edo konfidentzialtasun-neurriei buruzko jarraibideak ezartzen ditu.

Gure espetxe-araudiak ELOOren III. kapituluaren, 36. artikulutik 40.era bitartekoetan, jasotzen ditu osasun-laguntzari buruzkoak. 38.1 artikulua jasotzen du emakumeen espetxeak arautzen dituen arau espezifiko bakarra.

Emakumeen osasun-arretari dagokionez, Espetxe Erregelamenduan bi jarraibide espezifiko baino ez dira jasotzen: 209. eta 213. artikulua. 209. artikulua arabera «emakumeen espetxeek ginekologo

⁴⁸ 6. araua. «Presoen osasun-azterketak azterketa sakona barne hartuko du, osasun-arretako oinarrizko premiak zehazteko eta honako hauek zehazteko:

a) Sexu-transmisiozko edo odol-transmisiozko gaixotasunen presentzia eta, arrisku-faktoreen arabera, GIBaren proba egitea ere eskaini ahal izango zaie presoei, aldez aurretik eta ondoren orientazioa ere eskainita;

b) Osasun mentaleko arreta-beharrak, trauma osteko estresaren nahasmendua eta suizidiorako eta nork bere buruari lesioak eragiteko arriskuak barnean hartuta;

c) Presoaren ugalketa-osasunaren historia, balizko uneko haurdunaldia eta aurreko haurdunaldiak, erditzeak eta horiekin lotutako alderdi guztiak barne;

d) Tokikomania-arazoaren presentzia;

e) Espetxeratu aurretik jasandako sexu-abusua eta beste indarkeria mota batzuk».

baten aldizkako zerbitzua ere izango dute, eta haurrak amekin bizi badira, pediatra batena (...)»; 213. artikulua, berriz, espetxeetako erizaindegietan eta osasun-arretarako beste edozein gelatan izan beharreko baliabide materialen hornidura arautzen du, eta zehazten du derrigorrezkoa dela obstetriziako tresneria duen gela bat izatea, emakumeak salbuespenez artatzeko erditzeetan.

Espetxe-legeriak, Espetxe Erregelamenduaren 207.2 artikuluan, Espetxe Administrazioaren eta osasun-administrazioen arteko lankidetzahitzarmenak egitea ahalbidetzen du osasun publikoaren eta osasun-laguntzaren alloan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Autonomia Estatutuaren 18.1 artikulua jasotzen du Euskal Autonomia Erkidegoari dago kiola barne-osasunaren arloko Estatuko oinarritzko legeria garatzea eta betearaztea, eta, horregatik, Espetxe Osasunaren arloko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea adosten du. Osakidetzak 2011n hartu zituen bere gain Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetako espetxeratuen osasun-eskumenak, eta hori aurrerapauso garrantzitsua izan zen Euskadiko espetxeetako osasun-arretan.

«Hemen, Euskadin, Osakidetzak ditu osasun-arloko eskumenak, eta bi unitate espezifikoko ditu. Horietako bat lehen mailako arreta da, eta bestea osasun mentaleko unitatea. Bi horiek ere ez dira erakunde bera... Hortaz, hemen mediku batzuk daude, erizainak, klinikako laguntzaileak, farmazialariak, lehen esan dizudan bezala, eta, gero, guardiako zerbitzu iraunkor bat dute, eta hori ez dago beste espetxe batzuetan». Medikua

Jasotako informazioaren arabera, arreta medikoa astean behin ematen da, eta osasun-langile ugari dago askatasunaz gabetutako emakumeen beharrei erantzuteko.

*«Bada, begira, hemen ezarrita daukagu kontsulta programatua, «medikuak ikus nahi dut, eta izena ematen dut» adierazten dut, eta, orduan, hori **astean behin** ikusten da. Bederatzigarren eta hamargarren moduluak astean behin ikusten dira, eta, gero, egon daitezkeen larrialdiak, eta jakina, hor dago arazoa. Ni guardian nago... «ez dakit non pikorta atera zaiola, sudurrean pikorta duela», eta esaten dut «hori ez da larrialdia, ez dadila jaitsi», eta hark esaten du «baina behin eta berriz ari da esaten, berriz etorri zait ez dakit zer esaten», eta nik erantzun «ez dudala gaur ikusiko, hezi egin behar ditugula pixka bat»... atzo ikusi zenuen, herenegun ikusi zenuen, gaur goizean ikusi duzu, eta berriro deitzen du... «ez dudala ikusiko». Jakina, beti gerta dakizuke Pello eta otsoarena». Medikua*

Orduan, zera esaten duzu: «gizona, ba, halakok deitu du, eta normalean ez du deitzen», eta, batzuetan, funtzionarioek ere esaten dizute «aizu, honako honi eman begiratu bat, ez baita astun horietakoa, ez da alferrik kexatzen diren horietakoa». Medikua

Osasun publikoan egiaztatutako kontu bat da emakumeek gizonek baino gehiago erabiltzen dituztela osasun-zerbitzuak, bai berentzat, bai, askotan, familiaren osasunerako. Askatasunaz gabetutako emakume batzuen kasuan, arreta medikoaren eskaera hori ohikoa izan daiteke, bai aldeztu aurretik gaixotasun bat dagoelako, bai egoera pertsonalaren somatizazioagatik. Osasun-langileek bereizi egin behar dute noiz eman behar zaien arreta berehala eta noiz lotzen den etengabeko eskaera hori osasun mentaleko osasun-langileen laguntza eta arreta behar duen egoera psikikoarekin. Baina, batzuetan, irregulartasunak gerta daitezke arreta medikoan, gure informatzaileetako batek adierazi digunez.

*«Medikuak... begira, ahaztu egin zait esatea, hemen **mediku de-zente daude**. Baina gero arreta... Ea, kontsultarako egun bat dute esleituta, baina azkenaldian, eskumenak dituztenetik, ez dira oso erregularrak. Horrek esan nahi du zenbait astetan ez direla etorri. Baina horri buruz presoekin hitz egin behar zenuen, oso arazo handia baita, eta jakingo dute horren berri. Esan dizut, asko entzuten diegu presoek. Presoek astero egun batez dute arreta medikoa, izena ematen dute edo guk ematen diegu izena. Bada, aste askotan **ez dira etorri**. Lehen ez zen hori gertatzen, astean bitan izaten zuten. Orain, aste askotan, badakit etorri ere ez direla egin. Gero, larrialdi bat dutela esaten dizutenean, esaten dizute: «min dut halakotan...», behera deitu, eta, askotan, ez dituzte artatzen. Beraiek dira dakitenak, espedientei begiratu die, baina oso gutxitan..., odoletan ez badaude edo..., baina minagatik...» Funtzionarioa*

Askatasunaz gabetutako emakumeei galdetu genienean jasotako arreta medikoari buruz, haien erantzunak polarizatuta zeuden. Elkarriketatuetakoko sektore batek agerian utzi zituen ikusten zituen zenbait ga-bezia, hala eskatuta ere aintzat hartzen ez zituztenak, hala nola oztopo arkitektonikoak eta haien ondoezak naturalizat hartzea eta horiei jaramonik ez egitea.

*«Uff, astean behin, baina **batzuetan hogeigun igaro dira eta ez da etorri**. Eta erizaindegira jaitsi ahal izateko, gero eta okerrago dago. Funtzionarioek deitzen dute eta medikuek ez zaituzte ikusi nahi. Hilzorian egon behar duzu. Ni egon nintzenetik, okerrera egin du». E13*

«Gainerako **medikuak jatorrak dira, baina oso zaila da ikus zaitzaten**. Zerbait larria bada, adibidez haginetakoz edo belarriko mina, deitu egiten dute eta medikuaren esku dago arreata ematea edo ez. Oso larria izan behar du, edo jakin behar du nori egiten dioten, askok egiten baitute Nolotila ziztatu diezaioten edo paseatzeko». E14

«Medikuei dagokienez, **asteburuan** gaixotzen bazara, oso gaizki. Funtzionarioek ez dute errurik, behera deitzen dute eta ez diete kasurik egiten. Izugarria da; zentzu horretan, larrialdi batean jaisteko, oso gaizki egon behar duzu, eta zuzendariordeak etorri behar du gora, benetan egia ote den ikusteko. Adibidez, neska ijito batek belarria hautsi zuen eta denbora asko eman zuen han bizitzen. Ez dago igogailurik. Gurrpil-aulkian daudenek erizaindegian betetzen dute zigorra. Ez zegoen ongi, ezin baitzuen gora igo, seme-alabei deitzera. Dena eskaileraz josita dago. Erizaindegitik modulura joan zen, eta pertsona bat zuen laguntzeko». E16

«Oso gaizki. Behin, officean nengoen lanean, eta sekulako migrainak jo ninduen, garrasika nengoen. Funtzionarioari esan nion zer ari zitzaidan gertatzen, eta **erizaindegian ez ninduten artatu nahi**, hori esan zidaten. Gizarte-langilea etorri zen, ikusi ninduen eta funtzionarioari esan zion, eraman egingo dut. Lagun batek ziatika-krisi gogorra izan du, eta ez dute jaitsi 4 egun igaro diren arte. Guk ezin dugu medikaziorik izan, beraz, ez zuen ez ibuprofenorik ez parasetamolik hartu». E15

Beste batzuek esperientzia positiboa adierazi ziguten osasun-arreta behar izan badute, eta eskatu dutenean artatu izan dituztela.

«Medikua ere **ondo**. Nahasmendu bipolarra dut eta niri 28 egunean behin ematen didate medikazioa. Erizainak egunero etortzen dira gu ikustera, oso ondo artatzen gaituzte». E20

«Niri, gauean haginetakoz min ikaragarria jarri zitzaidanean, **medikua igo zitzaidan gelara pilulak ematera**. Eta beste behin, gauean minez hasi nintzen, eta jaitsi egin ninduten, Nolotil ipurdian ziztatzera, gaizki nengoelako». E1

Espetxeetako zerbitzu medikoen antolaketa ELOOren 36.1 artikuluan eta Espetxeen Erregelamenduaren 212. artikuluan ezartzen da. Han jasotzen denez, ezagutza psikiatrikoak dituen mediku jeneralista bat, osasun-laguntzaile tekniko bat eta mediku odontologo bat egongo dira. 212. artikulua zuzendariorde mediko bat jartzen du osasun taldearen buru, eta espetxeko zuzendariaren zuzeneko agindupean egongo da.

Emakumeek behar dituzten arreta espezializatuko premiak Osakidetza osasun-zentroetan eta ospitaleetan betetzen dira, eta, horretarako, emakumeak kanpoko mediku-kontsultetara bideratzen dira. Hala jakinarazi ziguten gure galderei erantzunez.

«Kanpora ateratzen zituzten dentistarengana joateko, azterketa medikoak egiten dira. Niri analisiak egin dizkirate. Baina, medikuari dagokionez, ez du arreta handirik jartzen, bihotza lurrean izan behar duzu arreta eman diezazuten. Nirekin lo egiten zuena diabetikoa da. Lotara joan ginen, patiora jaitsi nintzen, seiak iritsi ziren eta hura oraindik ez zen jaitsi. Hura ikustera igo nintzen, eta ez zuen erantzuten. Azukre-jaitsiera bat izan zuen. Funtzionarioari deitu nion, baina, medikuak etorri zirenerako, ordubete igaro zen. Kaleko ambulanzia etorri zen. Gehiago luzatuz gero, ez litzateke hemen egongo. Medikuek bategiaren behar haren luke lo, ez baitakigu zer gerta daitekeen». E19

«Ertzaintzak ekartzen du. Okulistarengana joan behar izan nuen. Ni bakarrik joan nintzen, eraman eta ekarri egin ninduten. Eskuburdirak jarrita. Medikuek, probak egiten badizkizute, eskuburdirak kentzen badizkizute, baina bestela ez». E13

«Irteteko inolako arazorik ez. Ni joan den ostiralean dentistarengana izan nintzen. Ertzaintzak eraman ninduen, autoan, eta eskuburdirak kendu zizkidaten kontsultara sartzeko». E17

Espetxeen Erregelamenduaren 209.2 artikulua ezartzen ditu ginekologiako zerbitzu medikoak espetxe barruan, eta hori da Espainiako espetxe-araudian erreferentzia bakarra berariaz emakumeena den profesional mediko mota horri buruz. Laburbilduz, emakumeentzako espetxeek ginekologo baten aldizkako zerbitzua ere izango dutela dio, eta haurrak amekin bizi badira, pediatra bat.

Arreta ginekologikoa edo genesikoa ere, beharrezkoa emakumeentzat, espetxetik kanpo ematen da, batez ere Martutenen, hango osasun-eremua txikiagoa baita.

«Egia da hona ez zela ez ginekologorik, ez emaginik ez inor etortzen. Eta, eskatu denean, ezetz esan dute; nik uste dut horri nola erantzun ari direla aztertzen. Hemendik atera eta ospitalera eramaten gaituzte». E17

«Bai, gaizki iruditzen zait. Nik irten egin behar nuen, hanka dela eta, eta joateari utzi nion, kikildu egiten ninduelako inork nirekin barrura sartu beharrik. Doktoreak zer esaten didan jakin nahi badut,

eta niri baino ez esatea, ez luke inork nirekin sartu behar. Gainera, ez zait ongi iruditzen eskuburdinekin joan beharra. Poliziaren inguruko hori ez zait ongi iruditzen. Batzuetan bi mutil tokatzen zaizkizu, eta ez zait gustatzen». E19

*«Oso gaizki sentitu nintzen. Kontsulta baduzu, hor daude, ez dizute intimitaterik uzten. Tratu hori oso txarra da. **Ginekologoarenean**, gortina ixten badizute ere, badakizu hor daudela. Neska bat zurekin badoa, eskuburdinak jartzen dizkizute kontsultan, ez dizkizute kentzen. Polizia bakoitzaren esku dago. Bideak bihurgune asko ditu eta besoak atzean daramatzazu, eskuburdinak jarrita. Oso gaizki zoaz. Emakumea sartzen den arren, mutila ere sartzen da. Jatorrak dira, baina lotsatu egiten zara. Ez duzu intimitaterik».* E16

Askatasunaz gabetutako emakumeek agerian utzi zuten ez zutela intimitaterik kanpoko ginekologia-kontsultetan, Ertzaintzak eraman eta laguntzen zituenean. Alde horretatik, eskoltak kontsultatik kanpo geratu beharko luke eta ez sartu haiekin kontsultara, baina hori ez zen beti gertatzen. Emakumeek pribatutasun eta intimitate gehiagoren falta sumatzen zuten Zaballako espetxean; espetxe horrek badauka espazio bat azterketa ginekologikoa espetxetik irten gabe egin ahal izateko.

11. arauak⁴⁹ berariazko eta nahitaezko agindu hau jasotzen du: osasun-azterketan, medikuak bakarrik egon beharko dira; salbuespenez eta medikuak justifikatuta baino ez da beste inor egongo.

*«Hona **ginekologo** bat etortzen da, gela bat du hor atzean eta bost astean behin etortzen da. Hitzorduek emanda ditu, eta ospitalean egin beharreko zerbait badago, hara bideratzen ditu... emakumeen moduluaz arduratzen den lankideak. Emakume berriren bat iristen denean, haren historia berrikusi, zer beharizan ginekologiko dituen ikusi... eta hitzordua ematen diote erizainarekin eta medikuekin. Eta ginekologoarengana bideratzen dute».* Medikua

*«**Ginekologoa** hilerok etortzen da guregana. Baina hemen egon nintzen lau urteetan, ez zidaten urtero bularretako eta minbiziaren*

⁴⁹ 11. araua. «1. Osasun-azterketak irauten duen bitartean, medikuek bakarrik egon beharko dute bertan, salbu eta doktoreak uste badu aparteko zirkunstantziak daudela edo espetxeko langile bat bertan egotea eskatzen badu segurtasun-arrazoiengatik, edo presoak espresuki eskatzen badu espetxeko langilea bertan egotea, 10.2 supra arauan adierazten den bezala.

2. Osasun-azterketak irauten duen bitartean, medikuak ez diren espetxeko langileak egon behar badute bertan, langile horiek emakumeak izan beharko dute, eta espetxeratuaren intimitatea eta duintasuna babesteko eta prozeduraren konfidentzialtasuna mantentzeko moduan egingo da azterketa».

prebentziorako azterketarik egin. Nik uste dut hori kanpora ateratzen dutela, hemen barruan ez dute egiten. Kanpoan baietz esango nuke. Antisorgailuak bai, ematen dizkigute. DIUa jarri zidaten, pilulak ematen dizkizute, gizonezkoen preserbatiboak. Nik ez dut inoiz emakumeen preserbatiborik eskatu, eta ez dut ezagutzen horrelakorik eman dioten nesken kasurik» E13

Oro har, kanpoko arreta behar duten emakumeen osasun-eskaerei erantzuten bazitzaien ere, emakume batzuek adierazi zuten kanpoko osasun-azterketa batzuen zain zeudela⁵⁰.

«Bat egin zidaten hemen, 50 urte bete nituenean. Orain 51 ditut. Nik arazo bat dudala esan nien: nire alaba txikiaz haurdun nengoenean umetokiko minbiziaren abisu bat izan nuen. Gehiago egitea nahiko nuke, urtean bat gutxienez, menopausian sartuta nagoelako dagoeneko. Zain nago, mamografia bat egiteko deituta zidatela esan baitzidan. 52 urte egingo ditut eta zain jarraitzen dut. Asteburuan gaixotzen bazara, ez zaituzte jaisten». E15

Hala ere, beste osasun-zerbitzu batzuk ez ziren berdin baloratu, espetxearen arabera.

Jarraian, arreta psikologikoa eta psikiatrikoa, droga-mendekotasuna duten pertsonen arreta eta arreta horietatik ondorioztatzen den medikazio-kontsumoa azalduko ditugu.

11.1. Arreta psikologikoa eta psikiatrikoa

Askatasunaz gabetutako emakumeen osasun psikologikoari eta psikiatrikoari dagokienez, 12. eta 13. arauak⁵¹ aipatzen dute beharrez-

⁵⁰ 17. araua. «Presoek hezkuntza eta informazioa jasoko dute osasuneko prebentzio-arretako neurriei buruz, baita GIBari eta sexu-transmisiozko eta odol-transmisiozko gaixotasunei dagokienez ere, bai eta emakumearen berezko osasun-arazoei buruz ere».

18. araua. «Presoek beren generoari dagozkion prebentziozko osasun-arretako esku-hartzeak egiteko aukera izango dute, askatasunaz gabetuta ez dauden beren adineko emakumeek bezala, hala nola Papanicolaouren probak eta bularreko minbizi eta emakumeari eragiten dioten beste minbizi mota batzuk detektatzeko azterketak».

⁵¹ 12. araua. «Osasun mentaleko arreta behar duten presoek eskura jarriko dira, espetxean edo kartzelaz kanpoko ingurune batean, osasun-arretako eta errehabilitazioko banakako programa zabalak. Programa horiek kontuan hartuko dituzte genero-gaiak eta gaituta egongo dira traumak artatzeko».

13. araua. «Espetxeetako langileak sentsibilizatu beharko dira emakumei larritasun berezia eragin diezaieketen uneei buruz, egoera horien aurrean behar bezala erreakzionatu eta dagokien laguntza eman ahal izateko».

koa dela espetxeratutako emakumeen osasun mentalaren arreta. 16. arauak⁵² suizidioa eta nork bere buruari egindako lesioak prebenitzeko gutxieneko jarraibideak jasotzen ditu.

Gure espetxe-araudiak ez du ia aipatzen arreta psikologikoa, eta are gutxiago, berariaz, askatasunaz gabetutako emakumeen osasun mentala, ikuspegi psikosoziala kontuan hartuta.

Ez da ezer esaten suizidioaren prebentzioari edo nork bere buruari egindako lesioen inguruan jarraitu beharreko protokoloari buruz, eta hortaz, espetxe-administrazioak arautu behar du suizidioen prebentziorako esparrua. Hori Estatuko Espetxeetako Idazkaritza Nagusiaren bi instrukzioen bidez egiten da: 5/2014 Instrukzioa, suizidioen prebentziorako programari buruzkoa, eta 9/2022 Instrukzioa, espetxeen alorreko suizidioen prebentziorako genero-ikuspegia txertatzeari buruzkoa. Azken horrek aitortzen duenez, «emakumeen kasuan funtsezkoa izango da honako hauek jorratzea: aldeztu aurreko biktimizazio-prozesuak —gizonezkoetan baino ohikoagoak direlako— eta gaixotasun mentala —normalean zailtasun gehiago izaten dituztelako—. Bestalde, beharrezkoa da haien parte-hartzea sustatzea espetxeko jardueretan eta programetan, gizonen maila berean, bai eta, hori posible denean, etxetik gertu dauden espetxeetara eramatea ere, familia-lotura ez hautzeko. Gizonen kasuan, funtsezkoa da maila emozionalean lan egitea, emozioak onartzen eta adierazten ikas dezaten. Halaber, azpimarratu behar zaie garrantzitsua dela laguntza eskatzea eta aurre egiteko estrategia positiboak garatzea, beste estrategia batzuk saihestuz, hala nola drogen kontsumoa edo jokabide oldarkorra».

Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzaren 1/2023 Instrukzioa da Euskadiko espetxeetan suizidioak prebenitzeko programa jasotzen duen dokumentua. Programaren 10. puntuan, arriskuan dauden kolektiboei arreta emateari buruzkoan, aipatzen da beharrezkoa dela genero-ikuspegia aplikatuta esku hartzea nola antolakuntzan hala arreta profesionalean, emakumeak artatuz gero.

EEren 274. artikuluan ezartzen denez, lantalde teknikoak, beste hainbat profesionalz gain, psikologo bat ere izan behar du. Hala ere, profesional horiek dira bisitatutako espetxeetan gehien eskatzen direnak, eta Martuteneko espetxeko emakumeak are egoera okerragoan daude, ez baitute halako espezialistarik.

⁵² 16. araua. «Emakumeentzako espetxeetan, osasun mentalaren arretarako politika zabal baten parte izan beharko dute, osasun mentaleko eta gizarte-laguntzako arretaz-zerbitzuekin kontsultatuta, presoan artean suizidioa eta nork bere buruari egindako lesioak prebenitzeko estrategiak lantzeak eta aplikatzeak, bai eta arrisku-egoeran dauden emakumeei laguntza egokia emateak ere».

Arreta psikiatrikoari dagokionez, nahiz eta espetxe-legeriak zentro psikiatrikoak laguntza-zentro gisa sailkatu eta erregelamenduko kapitulu bat haiei soilik eskaini, osasun-arreta mota hori ohiko espetxeetan (ez espezializatuak) eskaintzen da, eta espetxe-erakundeaz kanpoko profesionalek ematen dute, Osakidetzako langileek.

Osasun mentaleko arretari dagokionez, ELOOren 36.1, 37., 39. eta 66. artikuluen bidez eta espetxeetako establezimendu edo unitate psikiatrikoetan barneratzea arautzen duten 183.-191. artikuluen bidez dago laburbilduta⁵³.

Espetxe-araudiak halako barneratzeei buruzko kapitulu oso bat duen arren, ez dago zentro berezi horietan segurtasun-neurria betetzen ari diren emakumeei aplika dakiekeen genero-bereizketarik.

Oro har, jasotzen da espetxe bakoitzak behaketa psikiatrikorako gela bat izango duela eta ezagutza psikiatrikoak dituen mediku bat egongo dela. Eta espetxeratuen espetxe-egoerari eragiten dioten diagnostiko psikiatrikoak psikiatriako espezialista batez, auzitegiko mediku batez eta establezimenduko mediku batez osatutako talde tekniko baten egin beharko ditu, betiere behaketa- edo tratamendu-taldearen txostenarekin batera.

Arreta psikologikoa eta psikiatrikoa oso garrantzitsua da, baita ezinbestekoa ere espetxeetan; izan ere, osasun mentaleko arazoaren kontzentrazioa askoz handiagoa da espetxeetan biztanleria orokorrean baino. Askotan, delitua nahasmendu mota horrekin lotuta dago, eta nahasmendu hori ez da tratatu izan emakumea aske zegoen bitartean. Emakumeen moduluak dituzten bi espetxeak oso desberdinak dira baliabideei eta arreta psikologiko eta psikiatrikoari dagokienez.

«Orain, Eusko Jaurlaritzaren sarea dugu Osakidetzaren bitartez, osasun mentaleko nahiko sare garrantzitsua. Orain, oro har, emakumeentzat ez ezik, hemengo espetxeratuentzat ere bi psikiatra daude etengabe, eta beste biak, txandakako egunetan daudenak, hau da, hiru psikiatra ditugu hemen modu iraunkorrean, eta gero psikologoak. Psikologoak dira Eusko Jaurlaritzakoak, ez dira hemengoak Osakidetzakoak. Osakidetzakoek ere badute psikologo bat, sare hori dute eta psikologo bat ere bai eta, gero, hemengo psikologoak daude. Nire ustez, duela bost urte baino arreta hobea dago, baina ez bakarrik emakumeentzat, baizik eta espetxeratu guztientzat». Gizarte-langilea

⁵³ Espetxe-unitate psikiatriko bat dago Arrasaten. Espetxe-unitate bat duen ospitale psikiatrikoa da.

Zaballak osasun mentaleko talde nahiko zabala duen bitartean, ez da gauza bera gertatzen Martuteneko espetxean, bi espezialista motak behar baititu. Langileek eta emakumeek aitortu digute hori, informazioa biltzean.

«Eta psikologoak izan beharko genituzke, baina azken urteetan psikologoei dagokienez egoera oso txarra da, ez baitaukagu psikologorik, orduan... jakina, uste dut psikologo gehiago behar direla, oro har, espetxean; izan ere, era guztietako nahasmenduak dituzten pertsona asko daude, maila pertsonalean eta maila terapeutikoan lan egiteko premia handia dutenak, bizitzan bizipen traumatikoak izan dituen jendea, eta alderdi horiek benetan lantzeko beharra dutenak. Eta nik sentitzen dut, daukadan prestakuntzarekin, ezin dudala gehiago egin, eta ezin ditudala behar guztiak ase». Gizarte-langilea

Elkarriketetako informazioei jarraituz, psikologoek hiru funtzio zituzten: programa terapeutiko bat egitea emakumeen zirkunstantzien arabera (sexu-abusuak, indarkeria, erruduntasuna, autoestimua, etab.), haiek artatzea bizitzako une kritikoetan, eta txostenak egitea. Guztiek ez ziruditen funtzio horiek egiteko prest, baina, gainera, psikologiako langileak oso gutxi dira, batez ere Martutenen.

«Psikologoak dugun eskaeretako bat plantilla handitzea da. Psikologo batzuek ez dute esku-hartzerik edo programarik egin nahi. Baina egin egin behar dituzte; hau da, ez da aukerakoa. Ez da posible espetxe batean lau psikologo izan eta esku hartzeko programarik ez egitea, eta horiek egiteko GKEetara jotzea. Eta zorian, GKEek estualdi askotatik ateratzen gaituzte. Baina horrek ezin du horrela izan. Teknikari askok ez dituzte egin nahi, lau txosten egitea baita erosoena. Esku hartzeko programa batek ahalegin handia eskatzen du, asko nekatzten du, nekea eragiten du, saioak prestatu behar dira, eta sartu egin behar da. Eta ez da erraza esku-hartzeak egin beharra, horrela baitauezkazu egun osoan. Beraz, psikologo gehiago behar dira, eta gero aukera eman, nik beti esaten dut, egon daitezela psikologo batzuk esku-hartzean aritzen direnak, eta beste batzuk, kudeaketan». Psikologoa

Denbora eta motibazio faltaren aurrean, psikologiako profesional batzuek kudeaketara jotzen dute, espetxe- eta justizia-administrazioek eskatutako txostenak egiteko.

«Gainera, askotan beraiek esaten dizute«psikologoak txosten bat egin dit, baina bost minutu baino ez dut hitz egin berekin, zer txosten

egingo du?». Noski, esaten duzu... *lan handia du, zer txosten egingo du egiaz zuri buruz, zurekin bost minutuz hitz egin badu?»* Funtzio-narioa

«Ikastaroak egiten dituzte, psikologoak prestatzen ditu, bai, baina espetxean dagoen psikologo batek, ikastaro horiek emateaz gain, arreta psikologikoa behar duten emakume guztiekin ere egon beharko luke, emakumeekin eta gizonekin. Ez dizut esaten asteen behin, baina 15 egunean behin, imajinatu hori 800 preso baldin badaude. Zenbat psikologo behar ditugu? Zenbat daude modulu bakoitzeko?» Informatzailea

Hala ere, lehen esan dugun bezala, profesional bakoitzaren jarreraren mende dago neurri handi batean, eta ehuneko handi batek adierazi du lehentasun kontua dela.

«Jarraipena egin beharra dagoela ikusten badut, elkarriketak programatzen ditut X egunean behin, pertsona nola ikusten dudana kontuan hartuta. Behar hori ez dagoela ikusten badut, maila psikopatologikoan ez dagoelako ezer nire arlotik lantzeko, bi unetan artatuko dut: lehena, haiek eskatzen dutenean; hemen sistema informatiko bat dugu izena emateko, eta, astero, zurekin hitz egiteko nork eman duen izena ikus dezakezu. Bigarrena, tratamendu-batzarraren aurretik igaro behar dutenean; hau da, edozer dela ere beren kasua aztertu behar badute, espetxe-gradua berrikustea badagokie, baimen bat aztertzea badagokie, edo halako beste edozein arrazoi dela eta. Eta hirugarrena, ia ahaztu egin baitzait, txosten-eskaera bat badago, adibidez, zaintza-epaitegiarena. Ba, imajinatu ikusi berri dudana kasu bat, jarraipenik behar ez duena, agian hiru hilabete igaro arte ez dago berriz ikusteko beharrik, baina hiru hilabete igaro baino lehen zaintza-txosten bat eskatzen didate. Badira hiru hilabete ikusi ez dudala; baina, badaezpada ere, joan eta ikusi egiten dut. Horrela egiten dut nik jarraipena». Psikologoa

«Eskaria denetarikoa da. Bada, denetarik. Ezin dudala seme-alabekin hitz egin, lur jota nagoela, eragin handia duten eta antsietate handia eragiten dieten familiako kontuak. Edo esadazu nola egin dezakedan, idatzi egingo diet ala ez? Elkargune bat bultzatuko dut? Ez dut elkargunerik bultzatuko, aitari aurre egin nahi ez diodalako? Gai guztiz pertsonalak, antsietateak eragindako nahasmenduak eta loaren nahasmenduak, eta, gero, baita espetxe-gaiak ere. Noski, zeren, noiz aterako naiz? Zer asmo duzue niretzat? Zein izango da nire ibilbidea? Komunitate terapeutiko batera joan naiteke ala ez? Bideratu nazazu psikiatrarengana... Horiek dira gutxigorabehera eskariak». Psikologoa

Askatasunaz gabetutako emakumeak gutxiago dira gizonekin alderatuz gero, eta arlo hori jorratu liteke emakumeei zuzendutako psikologo batekin; izan ere, biktimizazioko eta mota orotako abusuen aurrekariak ugariagoak dira emakumeengan gizonaizkotasun baina, adierazitako aurreko ikerketek agerian utzi duten bezala.

Errealitatea da psikologiako eta psikiatriako langileek askatasunaz gabetutako gizon zein emakumeei ematen dietela arreta, eta gizonak gehiago direnez, haiengana bideratzen da arreta profesional ia guztia, bai espazioari dagokionez, bai denborari dagokionez. Emakumeen arreta-premiak ase egin behar dira eta, nahiz eta osasun mentaleko arazo gehiago izan, bereziki indarkeria mota guztiekin lotutakoak, kasu gehienetan artatu gabe geratzen dira.

*«Psikologoa hiru hilean behin etortzen da; izan ere, **psikiatra** ikusteko hitzordua hartu behar duzu, eta etortzen bada... berria da eta oso gutxi ikusten dut. Hiru hilabete daramatzat izena emanda; etorri da, bi pertsona ikusi ditu, eta korrika alde egin du, larrialdi bat omen duela eta». E14.*

«Ez, psikiatrarengana baino ez naute jaitsi, eta oso emakume jatorra izan zen, oso atsegina. Gainera, ez nuen lorik egiten eta lo egiteko arazoak nituen; tira, berdin jarraitzen dut. Lo egiteko botikak hartzen ari nintzen, eta bera izan zen bakarra esan zidana norbaitekin hitz egin nahi baduzu, esan nirekin apunta zaitzatela, jaitsi zaitzatela ni banago. Uste dut harekin baino ez nuela hitz egin eta kontatu nion egiaz zer sentitzen nuen». E15

Arreta gabezia hori bi espetxeetan gertatzen da, nahiz eta Zaballa-koa Martutenekoa baino hobeto hornituta egon.

Inkestan parte hartutako emakumeek norberaren balorazio fisikoa eta psikologikoa adierazi zuten, 0 (oso gaizki) eta 10 (oso ondo) arteko eskala batean. Osasun fisikoari dagokionez, batezbestekoa 5,9koa izan zen (DT = 2,5), eta ez zegoen alde nabarmenik espetxean denbora gehiago edo gutxiago zeramaten emakumeen artean. Osasun psikologikoari dagokionez, berriz, batezbestekoa 5,5koa izan zen (DT = 2,8), eta balorazio okerragoa egin zuten espetxean 10 urte edo gutxiago zeramatzaten emakumeek (DT = 2,8), 10 urte baino gehiago zeramatzatenek baino (batezbestekoa 6,6; DT = 2,5).

9. taula
Osasun fisikoaren eta psikologikoaren balorazioa

		Osasun fisikoaren balorazioa	Osasun psikologikoaren balorazioa
10 urte edo gutxiago	kop.	31	31
	Batezb.	6,13	4,97
	D.T.	2,53	2,83
10 urte baino gehiago	kop.	15	15
	Batezb.	5,53	6,6
	D.T.	2,53	2,5
Guztira	kop.	46	46
	Batezb.	5,93	5,5
	D.T.	2,52	2,81
	p balioa	0,653	0,049

11.2. Droga-mendekotasunak gainditzeko tratamendua

ELOOK 37. artikuluan ezartzen du espetxeek sail berezia izango dutela mendekotasun-arazoak dituzten pertsonentzat, eta EEk, berriz, artikulua bat eskaintzen dio erdi-askatasuneko erregimenean dauden presoek mendekotasuna gainditzeko espetxez kanpoko zentroetan barneratzeari. Bangkokeko Arauetan, 15. eta 62. arauetan daude horri buruzko erreferentziak⁵⁴.

Tratamendu-programa mota horren arau-erregulazioa zigorra betearazteko modu berezi gisa garatzen da, eta programa horien metodologia Espetxeen Erregelamenduari 116. artikuluan ezartzen da.

⁵⁴ 15. araua: «Espetxeetako osasun-zerbitzuek drogen erabilera desagokiari buruzko tratamendu espezializatuko programak eman edo eskaini beharko dizkiete emakumeei, kontuan hartuta haien aurreko balizko biktimizazioa, haurdun dauden emakumeen eta haurrak dituzten emakumeen behar bereziak, eta haien kultura-tradizioen aniztasuna».

62. araua: «Emakumeei bakarrik zuzendutako drogen erabilera desagokiaren tratamendurako zerbitzu komunitarioen prestazioa hobetu beharko da, genero-gaiak kontuan hartuta eta traumak tratatzeko gaituta, eta emakumeei tratamendu hori eskuratzeko aukera eman beharko zaie, delitua prebenitzeko eta kondenaren ordezkotzat hartzeko».

182. artikulua ezartzen du mendekotasuna gainditzeko zentro batean sartzea, espetzez kanpoko unitate batean, hala eskatzen duten barne-erantzutzat.

Espetxeetan aplikatutako mendekotasuna gainditzeko tratamendu-erregulazioa komunitate terapeutikoetan dago oinarrituta, eta espetzez kanpoko unitateetan mendekotasuna gainditzeko programa batean sartzeko prestatzera dago bideratuta.

Bisitatuak espetxeetan ezarritako programak programa estandarizatuak dira, kanpotik eginak eta askatasunaz gabetutako ingurune batean aplikatuak, eta horrek zailtasun gehigarri bat dakar berekin. Horrez gain, ez dira kontuan hartzen ez genero-ikuspegia, ez emakume presoek zailtasunak, ez haiek kontsumora jotzeko dituzten arazoak, profesional teknikoek adierazi digutenez.

Droga-mendekotasunen tratamendua Osakidetzaen, espetxeko arreta psikiatrikoko elkarte baten⁵⁵ eta helburu horrekin sartzen diren GKEen artean garatzen da. Baina haien ikuspegiak desberdinak dira, bat ere ez zegoen diseinatuta genero-ikuspegia kontuan hartuta, ez eta emakumeak berariaz artatzeko ere, eta ez dira haien artean koordinatzen.

«Programa estandarrak dira. Beti gehiengoan ardaztuta, gizonengan, hori egia da. Ez, ez dira espetxera egokitutako programak. Hemen drogei buruzko programak GKEek eta Osakidetza eramatean ditzute. Alkoholari buruzkoa betidanik egin izan dut nik, eta egin izan dut kontuan hartuta presoak hemen espetxean daudela eta espetxean egoteak zer muga dakartzan». Psikologoa

«Haiek (GKE) esan zidaten ez direla identifikatzen egiten ditugun programekin, eta haiek egiten dutena beste esku-hartze mota bat dela, indibidualagoa, ez hainbeste taldekoa. Hemen, Gizakia Helburukoek ere hori komentatzen didate, emakumearen presentzia, beno zuk diozuna, jatorria, kontsumitzeko arazoak, bizitza pertsonala, anamnesia ez dela berdina, ez duela zerikusirik». Psikologoa

«Badakit psikologo bat etortzen dela. Baina genero-ikuspegia kontuan hartuta, ez dago halakorik». E17

«Nik badakit badagoela bat, instantziak ikusten baititut. Osakidetza psikologo bat etortzen da. Gero hemen beste bi psikologo daude. Baina baten batek esanez gero... eta nik hala ikusten dut...»

⁵⁵ Bildutako informazioaren arabera, kide gehienek erretiroa hartu dute, eta eten egin da droga-mendekotasunak artatzeko Euskadiko espetxeetan egiten zuten lana.

«droga-mendekotasunetako programan izena eman nahi dut», kalleko psikologo bat etortzen da». Funtzionarioa

Beraz, droga-mendekotasunen arretan eta tratamenduan funtsezko bi alderdi daude: bata indibiduala da, hau da, emakumeak prest egoitea kontsumoa bertan behera uztea planteatzeko, eta, bestea, testuingurua, programak espetxera egokituta egon daitezela; izan ere, espetxean desintoxikazioa errazagoa izan daiteke, isolatuta daudelako, baina kontsumitzeko ohitura galtzeak eskatzen dituen neurriak egokitu egin behar dira ingurune horretara, ingurune hori askatasunaz oso bestelakoa baita. Azkenik, arreta-programek kontuan har ditzatela genero-ikuspegia eta emakumeen arreta, Espainian egindako hainbat ikerketak erakutsi baitute hori beharrezkoa dela.

*«Kontu zaila da; izan ere, haiek ez badute beren arazoari aurre egiteko beharrik ikusten, egon zaitezke hormari burukadak ematen, eta ez duzu ezer lortuko. Hau da, ez dago modurik. **Bizitzako une egokian** egon behar du, eta erabat motibatuta. Eta berdin dio lantzen badituzu, kontenplazio aurreko fasea, kontenplazio fasea... Berdin dio, berdin dio zuk zer nahi duzun, pixka bat motibatu, haiek puntu horretan ez badaude. Nire bizitza profesional osoan ikusi dut hori, ezin konta ahala kasutan». Psikologoa*

*«Begira, espetxeratzean kokaina kontsumitzen nuen. Orduan, gertatu zitzaidan guztiarekin, ni kontsumitzen aritu nintzen atxilotu ninduten egunera arte. Gero bai, **abstinentzia pasatzen** duzu. Gogorra da, dena buruan biltzen zaizulako. Ez duzu barrenak husteko modurik; zigarro bat, norbaitekin hitz egitea, etxera deitzea. Ez dituzu erraztasun horiek. Iritsi bezain pronto esan zidaten isolamendura nindoala, eta ez dagoela besterik. Ez zegoen inor, ez psikologorik, ez no-rekin hitz egin... Ezer hartu gabe pasatzea lortu nuen. Gaur, oraindik, ez da hasieran bezala, baina, batzuetan, amore eman eta marra bat sartuko nuke. Ez dago ez erreformatu-programarik, ez mantentze-programarik, ez ezer. Orain, konfinamenduaren ondoren, gauzak mugitzen hasi dira, baina ez dut drogen mendekotasuna gainditzeko programarik ezagutzen». E15*

*«Hemen, espetxean, dudan **eskaintza bakarra** Gizakia Helburu da, eta, momentuz, ez dago beste eskaintzarik. Hirugarren graduan egon naizenez, ez dut Batzordearekin hitz egin, behin baino ez». E13*

Arazoa konplikatzen eta arreta berezia eskatzen duen beste alderdi bat da droga-mendekotasuna eta gaixotasun mentala elkarri lotuta daudenean. Kasu horietan, bi alderdiak landu behar dira. Profesional

batzuen arabera, egoera horiek kalte handiagoa eragiten zuten emakumeengan, eta espetxeak ez dira horiek artatzeko leku egokia.

*«Baina drogen kontuari dagokionez, arazoa da lehendabizi zer datorren jakitea, **aurrez gaixotasun mentalen bat ote zegoen ala gaixotasuna gero hartutakoa izan ote den**, presoak berak gehiago esan diezazuke, eta nik hor sartu nahi dut. Nik beti esan izan dut: zergatik sartu behar dute gaixo mentalek horrela espetxean? Eta emakumeei dagokionez ere berdin pentsatzen dut, **uste dut haien kasuan ehunekoa are handiagoa dela**. Izan ere, epaitegietan ere aukera gehiago daude, familiaren gaiarekin, sartzen direnean ez sartzeko... Narriadura handiagoa izan ohi da, hori beti esaten baita, emakume bat sartzen denean, hondatuago sartzen dela, egia da. Emakume gutxiago sartzen dira, eta, sartzen direnean, okerrago daude. Leku ona da espetxea gaixo mentala artatzeko? Ez dut uste. Leku ona da espetxea toxikomaniak tratatzeko? Ba, agian, desintoxikazio-aldirako primerakoa izango da, baina gero...»* Gizarte-langilea.

Une honetan, substantzia psikoaktiboei dagokionez, prebalentzia handieneko kontsumo-profila alkoholarekiko mendekotasuna da, tratamendua eskatzen duen biztanleria orokorraren kasuan gertatzen den bezala, eta bereziki emakumeen artean. Profil horrek bereziki joan den mendearen amaieran eta honen hasieran nagusi zena ordezkatu du; izan ere, heroina, kokaina eta legez kanpoko beste substantzia batzuen erabilera zen nagusi, baina, orain, desagertu ez diren arren, ez dira hain ohikoak.

*«Orain ez dago **emakumeen profil** jakin bat... Ez. Emakume gehiago dago alkohol-arazoarekin, baina emakume toxikomanoaren, heroinomanoaren, kokainomanoaren profila asko jaitsi da. Une honetan gutxi daude... hau da, emakumeen sailean, orain bertan, badaukagu bat dagoeneko komunitate terapeutiko batean dagoena kanpoan, eta, orain, alkoholarekin arazoak dituen beste neska bat ere bai. Espetxean sartu duten lehen aldia da, eta bere egoeraz jabetzeko fasean dago. Baina nik uste dut hori dela bakarra... beno, bi izan daitezke une honetan kontsumo-historia dutenak».* Gizarte-langilea

Elkarriketatutako emakumeek jakin bazekiten espetxean substantzia psikoaktiboak zeudela, batez ere gizonezkoen modulu batzuetan, eta presentzia hori txikiagoa zen emakumeen moduluetan.

*«Hemen **kalean baino droga gehiago dago**, denetarik dago. Mutil bat sukaldean harrapatu zuten, txakurrei esker, eta eraman egin zuten. Emakumeen artean, ez dut ikusi kontsumitzen duenik, baina 2018an bai. Gizonezkoen artean droga asko dago».* E19

«Nesken moduluan ez dago mutilenean bezainbeste droga. Baina ez dituzte harrapatzen. Patioan, porruak erre izan dituzte nire aurrean. Lehen nirekin egon zenak porruak erretzen zituen zeldan, eta nik kargu hartu nion, nire alaben kontuagatik gernu-analisiak egiten ari naizelako... Bai, ni espetxeko psikologoak egiten dituen droga-mendekotasuna prebenitzeko hitzaldi batzuetan aritu naiz. Gernu-analisiak egiten ari naiz. AGIPAZ izeneko elkarte bat ere badator, hirugarren graduari dauden pertsonentzat pisu bat duena. Metadona ere ematen digute hemen». E20

Legez kanpoko substantzien etengabeko presentzia oso zaila da kontrolatzea eta desagerraraztea, eta batzuetan heriotza eragiten duten intoxikazioak gertatzen dira. Hori espetxeko biztanlerian aurrez egindako ikerketetan egiaztatu da, bai eta aurrekarien atalean adierazita dauden Euskadiko ikerketetan ere.

«Pentsa, familiek, saminean, sistema egiten dute guztiaren erantzule. "Gaindosiak jota hil bada, espetxean droga dagoelako da, haiek hiltzen ari zaretelako..." Niri «hiltzailea» deitu izan didate. Eta hori guztia kudeatzea... » Psikologoa

Hala ere, arreta handiz ikusiko dugu hori hurrengo puntuan, askatasunaz gabetutako pertsonentzako preskripzio bidezko psikofarmakoei buruzkoan.

Halaber, aipatu behar dugu bi urteko 2024-2025 planean droga-mendekotasunak gainditzeko esku hartzeko 14 programa onartu direla, batzuk espetxe barrukoak, beste batzuk espetxe kanpokoak eta beste batzuk mistoak.

11.3. Medikazioaren kontsumoa

Nazio Batuen Arauetan ez dago ezer jasota espetxeetan botikak emateko moduari buruz. EEn 209.3 eta 213.4 artikuluetan, osasun-laguntzaren eredua aipatzean, jasotzen da zer erantzukizun duen espetxe-administrazioak botiken banaketan eta horien zaintzan, baldin eta botika horiek erabiltzea osasunerako arriskutsua bada.

Medikuaren preskripzio bidezko psikofarmakoen kontsumoa arazo handia izan da Euskadiko espetxeetan, eta, iraganean, heriotza eragin duten hainbat intoxikazio kaltegarri gertatu izan dira. Hala kontatu ziguten.

«Lehen hitz egiten hasi gara, hemen gaindosiak izaten genituen, 2020. urtearen lehen erdia oso txarra izan zen, ZIU ospitaleratutako

ugari izan baitziren botiken intoxikazioen ondorioz. Hildakoren bat ere izan zen, eta, orduan, espetxe-zaintzako epaileak esku hartu nahi izan zuen, arazoa larritzen ari zela iruditzen baitzitzaion. Hiru espetxeetako zerbitzu medikoetako hiru buruei eskatu zitzairen izandako kasuen txostena egiteko. Hemen sendagaien 25 intoxikazio izan ziren; oker ez banago, sei ospitaleratze izan ziren ZIUn, eta uste dut 2 hildako izan zirela. Eta, gero, autopsia, ea autopsiak zer dioen... izan ere, autopsiak ez ditu islatzen kontu guztiak, eta, batzuetan, zenbait gauza eta patologia paretik kentzen dira. Baina, tira, medikazioak edo drogak izan ziren tarteko eta, beraz, zaintzako epaileak erabaki zuen psikofarmako guztiak zuzenean behatutako tratamenduan emango zirela. Hori mugarrria izan zen». Medikua

«Orduan, noski, izugarria zen; goizero zip motako poltsatxo bat ematen zieten, 20 bat pilularekin, eta haiek kudeatzen zituzten, nahierara. Haiekin trapitxeatu ere egiten zuten, jakina; izan ere, pilulei esker bizirauten zuten, e? Kafea, tabakoa... pilulekin erosten zituzte. “Bi pilula saltzen dizkizut eta tabako-pakete bat ematen didazu”, eta sendagaien merkatu librea sustatzen zen hala. Nahi zutenean hartzen zituzten. Gaur, agian, ez dut batere hartuko, eta bihar 20 hartuko ditut, eta jakina, hil egiten ziren». Psikologoa

Egoera hori zela eta, bilerak egin ziren zerbitzu medikoekin, hura aldatzen saiatzeko, baina ez zuten arrakastarik izan. Eta espetxe-zaintzako epaileari jakinarazi zitzaion.

«Eta epaileari egindako laguntza-eskari bat izan zen, eta hark esan zuen: “Egin txostenak, egin gairak guztiei buruzko txostenak, guztiari buruzkoak”. Eta azkenean, ausartu zen egitera... eta esan nion: “zorionak, ikusi dudak erabaki judizial onena”. Medikuek sekulako presioa jasaten zuten botika gehiago lortzeko. Egun guztian kontsultan zituzten: “pilula gehiago”; baina, jakina, ez ziren beraiek hartzeko, saltzeko baizik. Orain, badakitenez aukera hori ez dutela, presio hori txikiagoa da, eta kontsumoa ere asko jaitsi da, izugarri jaitsi ere. Erizainek flipatu egin zuten, urte erdian erdira murriztu zen». Psikologoa

Jasotako informazioa kontuan hartuta, epaileak agindu zuen sendagaiak osasun-langileen aurrean banatu eta hartu behar zituztela, eta osasun-langileek kritikatu egin zuten neurri hori.

«Haserre zeuden, pazientearen autonomia zela eta... pazientearen autonomia? Gaixotasun bat duen jendea buruz ari gara, toxikomanoak dira! Zer autonomia izan dezake toxikomano batek? Zera esango bazenu bezala da: «tori, hartu munduko heroina guztia, eta zuk zeuk kudeatu». Dosi bat ziztatu beharrean, hartu nahi dituzun guztiak. Zer

autonomia izan dezake pazienteak? Eta, azkenean, erregu-oihua izan zen, Zaballan 7 edo 8 preso hil baitziren gaindosiz; izugarria zen, eta gaindosi ia guztiak sendagaiek eragindakoak ziren». Medikua

«Azkenean epaileak ezarri zuen agindu judizial baten bidez. Nik badakit talde medikoei ez zitzaiera oso ondo iruditu, baina niri, kanpotik ikusita, gizarte-langilea naizen aldetik, arrakasta dela iruditzen zait... lehen, miaketak egiten ziren, ikusten zenuen jendeak botikak pilatzen zituela eta ez ziela jarraibideei jarraitzen». Gizarte-langilea

Epailearen aginduak eragindako ika-miken aurrean, Osakidetzak espetxeko osasun-taldea indartu behar izan zuen medikazioa emateko, osasun-langileek behatuta egin behar baitzen hori.

«Orduan, noski, jende andana etorri zen; izan ere, psikiatrak, psikologo klinikoak, osasun mentaleko erizain espezialistak, erizaintzako laguntzaileak etorri dira, eta jakina, kanpoko lankideei esaten diete, "ez dizuet kontatuko, bestela jo egingo nauzue". Haientzat ere, osasun mentalekoentzat, hasieran talka bat izan zen, noski, ez zitzaielako ondo iruditzen bat-batean epaile batek zure lana nola egin behar duzun esatea, zu medikua zaren aldetik. Orduan, izan ziren hainbat errezelok, baina azkenean emaitzek erakutsi dute asmatu zutela. Orduan, jakina, gauza guztiek dituzte beren alde onak eta txarrak, baina alde onenari dagokionez, eta horixe da garrantzitsuenak, ez da beste hildakorik izan arrazoi horregatik. Eta, ba, noizean behin baten batek drogaren bat lortzen duela edo medikazioa trapiatzen duela eta burua pixka bat arinduta etortzen dela, baina tira...» Medikua

«Medikazio gehiena behatuta dago, medikuak ematen du eta une horretan bertan hartu behar izaten dute; beraz, asko gutxitu dira. Jakina, engainatzeko hamaika modu dago. Adibidez, ahosabaiaren azpian jartzea. Baina, nik uste dut ez dela medikazio guztia kontuan hartzen; izan ere, hemen, espetxeratuak, ez emakumeak bakarrik, oso medikatuta daude, ez dakit den izan duten ibilbideagatik, gaizki daudelako... eta beraz, eskura dute errezetadun medikazioa; hau da, medikuak agindutakoa. Gero, jendea medikazio hori gerorako gordezten joaten dela...» Gizarte-langilea

Eta emakumeek ere ikusi zuten aldaketa hori, eta medikazioaren kontsumoa murriztu ere egin zuten, behatuta jasotzen hasi zirenetik.

«Medikazioa goizean, eguerdian eta gauean ematen digute. Haien aurrean hartzen duzu. Lehen ez zen horrela. Lehen pilulen trapiatxeo handia zegoen; orain ere badago, baina gutxiago. Gero dena ateratzen da analisietan. Drogak ere sartzen dira». E13

«Ez, ez, hango pilulak, lehen... orain aurrez aurre ematen dizkigute, hartu egin behar ditugu, eta hango gizonak ahoa begiratzan digu iren-tsi ditugula ikusteko. Lehen poltsatxo batean ematen zizkiguten, egu-nerako. Nik, adibidez, 15 pilula hartzen nituen egunean. Duela zazpi hilabete inguru, murriztu egin zizkidaten, hiru pilulara, eta orain hiru pilularekin jarraitzen dut. Eta nire erabakia izan zen horiek uztea». E1.

Euskadiko espetxeetan botikak emateko eredu hori oso onuragarria izan da askatasunaz gabetutako pertsonentzat. Neurri hori gauzatzeko inbertsio handia egin da giza baliabideetan, eta eredu izan daiteke Espainiako estatuko beste lurraldeetarako.

Emakumeen %46,7k osasun mentaleko botikak hartzen zituen espetxean, baina %38,6k jada hartzen zituen espetxean sartu aurretik. Emakumeek egunean batez beste 3,62 pilula kontsumitzen zituzten (kop. = 34; DT = 4,33). Pilulak nork ematen zizkien galdetuta, 32 emakumek baino ez zuten erantzun. Horietatik %96,8k adierazi zuen medikuak, eta emakume bakarrak baino ez zuen erantzun beste ba-tek (%3,2). Emakumeen %64,3k (kop. = 28) adierazi zuen pilulak behar zituela lo egiteko, %50ek (kop. = 28) lasai egoteko, %25ek (kop. = 28) dena ahazteko, %37,9k (kop. = 29) egunak eraman ahal izateko.

Nahiz eta ez den alde esanguratsurik ikusten osasun mentalerako medikazioa hartzen duten emakume beterranoen eta ez hain beterranoen artean (p balioa = 0,106), oro har, ikusten da medikazioa ez zela hain ohikoa beterranoenen artean (%28,6), denbora gutxiago zeramatenekin alderatuta (%54,8). Espetxean sartu aurretik medikazioa hartzen zuten ala ez aztertuz gero, alde nabarmenak hautematen dira. 10 urte edo gu-txiago espetxean zeramatene emakumeen ehunekoa askoz handiagoa da (%96,2), 10 urte baino gehiago zeramatzateneen artean baino (%14,3). Pilula kopuruari eta pilulak hartzeko arrazoiei dagokienez, ez da alde esanguratsurik antzeman espetxean duten antzintasunaren arabera.

11.4. *Espetxeko profesionalen arreta*

Inkestan parte hartu duten emakumeei dagokienez, hainbat egoe-ratan artatu dituzte espetxean, eta egoera horiek egon daitezke lotuta, besteak beste, osasun fisikoari, mentalari, laguntza juridikoari, eta kan-poko edo barneko arazoei.

Hala, emakumeen %52,4 antsietate- edo depresio-egoeran artatu zituzten, eta alde nabarmenak zeuden 10 urte edo gutxiago zerama-tzaten emakumeen (%69) eta 10 urte baino gehiago zeramatzateneen (%15,4) artean. Emakumeen %47,5i osasun-arazoengatik eman zi-

tzaian arreata, eta ez dago alde nabarmenik konparatzen ari garen bi emakume taldeen artean. % 36,6ri drogekiko mendekotasunagatik eman zitzaien arta, eta espetxean denbora gutxiago zeramaten emakumeen artean (% 46,4) ehunekoa handiagoa zen denbora gutxiago zeramatenen artean baino (% 15,4). Beste egoera batzuk, hala nola sexu-abusuak jasan izana (% 5,4) edo desgaitasuna izatea (% 7,9), maiztasun txikienekoak ziren, eta ez zegoen alde nabarmenik espetxean egondako antzinatasunaren arabera. Beste inguruabar batzuk, hala nola zaintzako edo barneko funtzionarioekin arazoak izatea, emakumeen artean % 13,5ean gertatu zen, alde esanguratsurik gabe. Seme-alabekin edo bikotekidearekin arazoak izateagatik, % 15,4 eta % 13,2, hurrenez hurren, eta alde esanguratsuak daude espetxean 10 urte baino gehiago zeramatzaten emakumeen artean, azken bi egoera horien aurrean ez baitzituzten inoiz artatu behar izan. Bikotekidearengandik tratatu txarrak jasan izanagatik, emakumeen % 18,4 espetxean artatu zituzten, eta ez zegoen alde nabarmenik alderatutako bi taldeen artean.

10. taula
Profesionalek zer egoeratan artatu duten

Egoera hauetako zeinetan artatu zaituzte profesionalak espetxean?	GUZTIAK		≤ 10 URTE		> 10 URTE		p balioa
	kop.	BAI (%)	kop.	BAI (%)	kop.	BAI (%)	
Bikotekidearen tratatu txarrengatik	38	18,4	25	24,0	13	7,7	0,225
Jasan nituen sexu-abusuengatik	37	5,4	24	4,2	13	7,7	0,655
Drogekiko dudan mendekotasunagatik	41	36,6	28	46,4	13	15,4	0,058
Nire desgaitasunagatik	38	7,9	25	12,0	13	0	0,199
Antsietateagatik, depresioagatik...	42	52,4	29	69,0	13	15,4	0,001
Nire seme-alabekin izandako arazoengatik	39	15,4	26	23,1	13	0	0,063
Bikotekidearekin izandako arazoengatik	38	13,2	25	20,0	13	0	0,088
Beste preso batzuen jazarpenagatik	37	18,9	25	28,0	12	0	0,045
Osasun-arazoengatik	40	47,5	27	51,9	13	38,5	0,433
Funtzionarioekin arazoak izateagatik	37	13,5	24	8,3	13	23,1	0,217

Arreta medikoari edo emakumeek jasotako bestelako arretei dagokienez, emakumeen % 90,9 mediku batek artatu zuen azken sei hilabeteetan, % 79,5ek gizarte-langilearen edo gizarte-hezitzailearen bisita izan zuen (% 61), psikologo batek artatu zuen (% 62,8) eta % 69,2 erizaindegira joan zen. Legelaria izan zen espetxean zeuden emakumeen artean presentzia gutxien izan zuen profesionala, soilik % 17,2k jaso zuen haren bisita azken sei hilabeteetan. Egoera espetxeo antzinasunaren arabera alderatzen badugu, ikusten da psikologoaren eta erizaindegiko arreta baino ez zirela izan nabarmen handiagoak denbora gutxien zeramaten emakumeen artean (% 72,4 eta % 79,3, hurrenez hurren), espetxean 10 urte baino gehiago zeramatzatenen artean baino (% 42,9 eta % 50, hurrenez hurren). Gizarte-hezitzailearen arretari dagokionez ere alde nabarmenak ikusi ziren, sarriago artatu baitzituzten denbora gutxiago zeramatenak (% 74,1) beteranoenak baino (% 35,7).

Bi emakumetik bat ginekologo batek artatu zuen azken sei hilabeteetan, eta ez zegoen alde nabarmenik emakumeen artean, espetxean zuten antzinasunaren arabera.

11. taula
Azken hilabeteetan hainbat profesionalak artatua izatea

Azken sei hilabeteetan, profesional hauek artatu zaituzte?	GUZTIEK		≤ 10 URTE		> 10 URTE		p balioa
	kop.	BAI (%)	kop.	BAI (%)	kop.	BAI (%)	
Psikologoak	43	62,8	29	72,4	14	42,9	0,063
Medikuak	44	90,9	30	90	14	92,9	0,761
Erizainak	39	69,2	27	77,8	12	50	0,087
Legelariak	39	17,9	27	18,5	12	16,7	0,891
Gizarte-langileak	44	79,5	29	79,3	15	80	0,958
Gizarte-hezitzaileak	41	61	27	74,1	14	35,7	0,018
Azken 12 hilabeteetan ikusi al zaitu ginekologoak?	46	50	31	51,6	15	46,7	0,756

Askatasunaz gabetutako pertsonen ongizatearekin eta osasunarekin lotuta dauden beste alderdi garrantzitsu batzuk, biztanleria orokorraren kasuan gertatzen den bezala, jasotako tratua eta jasandako sexu-abusuak dira, eta jarraian aztertuko ditugu puntu honetan.

11.5. *Tratua eta tratu txarrak espetxean*

Puntu honetan, askatasunaz gabetutako emakumeek jasotzen duten tratuan jarriko dugu arreta.

Presoen Tratamendurako Gutxieneko Arauen 84.-93. paragrafoen osagarri gisa, 56. arauak⁵⁶ arreta jartzen du prebentzioz espetxeratuta edo epaiketaren zain dauden presoek zaurgarritasun-egoera berezian.

Espetxeen Lege Orokorrak eta Espetxeen Erregelamenduak behin baino gehiagotan aipatzen dute prebentziozko espetxealdia zigortutako presoekiko aldeak ezartzean (prebentziozko establezimenduak, sail bereziak, baimenak, erregimena, jardueretan parte hartu ahal izatea, lana...).

Espetxeko tratuari eta tratu txarrei dagokienez, ELOOren **6. artikulua** honako hau ezartzen du: «preso bakar batek ere ez du tratu txarrik jasango hitzez edo egintzaz». Bestalde, Erregelamenduen **4.2.a) artikulua** jasotzen du presoek honako eskubide hauek izango dituztela: «Espetxe Administrazioak bere bizitza, segurtasuna eta osasuna zaintzeko eskubidea, inola ere torturarik edo hitzezko edo egitezko tratu txarrik jasan gabe, eta arauak aplikatzeko orduan beharrezkoa ez den zorrotasunaren xede izan gabe.»

Hala ere, barne-araudiak ez du inoiz aipatzen emakume presoak bereziki kalteberagoak direla abusuak eta, batez ere, sexu-abusuak jasateko, ezta prebentziozko espetxealdian egoera hori areagotzen denik ere.

Tratu txarrei buruz hitz egiten dugunean, tratu txar fisikoa ez ezik, emakumei eragiten dieten beste tratu txar mota batzuk ere aipatzen ditugu. Emakume presoek jasaten duten tratu txar edo abusu ohikoena sexu-abusua da, eta hurrengo puntuan hitz egingo dugu horri buruz. Horretaz gain, tratu txar psikologikoak eta ahozko tratu txarrak aipatu dituzte elkarriketatutako eta informatzaile gakoetako batzuek. Espetxeratu aurretik, emakume asko tratu txarren biktima izan badira ere, tratu mota batzuk sartu aurretik bizi izandakoaren jarraipena dira emakumeentzat.

«Nik ez ditut jasaten agintekeria duten funtzionarioak, prepotenteak, jendea gaizki tratatzen dutenak, ez emakumeak bakarrik. Baina, zuk tratatuko nauzu gaizki? Haiekin ahal izango duzu,

⁵⁶ «Kasuan kasuko agintariek prebentziozko espetxealdian dauden emakumeek jasaten duten tratu txarren arrisku berezia aitortuko dute, eta neurri egokiak hartuko dituzte, nola normatiboak hala praktikoak, egoera horretan haien segurtasuna bermatzeko».

baina nirekin ez. Hau ez da egiten, ez dizut onartuko, eta ezin ditut jasan; batzuetan, polizia frustratuak dirudite. Ez dira lotsatzen, eta edonoren aurrean egiten dute. Normalean, edo gure aurrean behintzat, funtzionarioek errespetu handiz jokatzten dute. Baina, egia da, batzuetan, esan behar izan dugula: aizu, zergatik tratatzen duzu horrela!». Informatzailea

«Ni ondo moldatzen naiz. Ez dute oihurik egiten. Badago baten bat batzuetan oihu egiten duena guri aginduak emateko; izan ere, zenbaitetan, neskak ez dira isiltzen. Gizonezko funtzionarioak, ondo. Ni zaharretakoa naiz; orduan, ia denak ezagutzen ditudanez, ondo moldatzen naiz. Jende jatorra da. Leihatilara joan, mesede bat eskatu, eta egin egiten dizute; zuk nola hitz egiten duzun, errespeta egiten zaituzte». E14

Elkarrizketatzailea: *Nolakoa da funtzionarioen tratua?*

Emakumea: *Bada, denak ez dira berdinak. Ni, egia esan, ondo moldatzen naiz, baina batzuek nagusikeriaz hitz egiten dizute. Batzuetan, oihu egiten dute, pasatu egiten dira. Ezintasuna eragiten dizute, eta hemen bizi dituzun egoerek gaiztotu egiten zaituzte.*

Elkarrizketatzailea: *Ikusi al duzu zuk tratu txarrik?*

Emakumea: *Pare bat kasuren berri izan nuen hemen izan nintzen aurreko aldian. Gauez sartzen ziren zeldetan. Salaketa bat jarri zuten eta funtzionarioa bota egin zuten. Funtzionario bera izan zen bi aldietan. E13*

«Funtzionarioek batzuetan infantilizatu egiten gaituzte; beste batzuetan, oihu egiten digute. Batzuetan zure onetik atera zaitzate. Hala ere, oro har, hemen tratua egokia da». E17

Egindako elkarrizketetako erreferentziek emakume presoekiko tratua hobetu daitekeela eta hobetu behar dela baieztatzen garamatzate. Kasuetako batean aipatzen da egoera larri baten aurrean («gauez sartzen ziren zeldetan») sistemak neurriak hartu zituela horren inguruan, salaketa baten ondoren. Hala ere, ondorioztatzen da, oro har, emakumeek beren tresnak erabiliz (adeitasuna, otzantasuna...) egiten dietela aurre tratu txarrei. Berriz ere, agerian geratu da profesionalen eta funtzionarioen jarrerak bakoitzaren nortasunaren eta borondatearen araberakoak direla.

Bi espesketetan helarazi diguten alderdi bat izan da emakume presoekiko gehiegizko babes (gehiagizko kontrola) gizonezko presoekin konparatuta. Babes hori haienganako infantilizazio gisa bizi dute, eta adierazi zuten egoera hori ez zela gertatzen gizonekin. Emakumeek hautematen zuten gizonezkoak beraiek baino askatasun handiagoz

mugitzen zirela espetxeko espazio komunetan, eta emakumeak beti zaintzako edo barneko funtzionarioek lagunduta joaten zirela alde guztietara.

«Emakumezko funtzionarioak gogorrangoak dira emakumeekin, asko kontrolatzen gaituzte. Gizonezko funtzionarioek gehiago uzten gaituzte gure kasa. Harreman handia dut haiekin, gizonetzkoen moduluetara joaten naiz, eta beste era batera tratatzen zaituzte. Baina emakumezko funtzionarioek gu asko kontrolatzen gaituzte. Komunikazioetara jaitsi, eta eraman egiten zaituzte; gizonetzkoak, berriz, nor bere kasa joaten dira. XX. moduluko gizonen atea irekita dute egun osoan. Gizonak nahi dutenean irteten eta sartzen dira. Gu, zentzu horretan, kontrolatuago gauzkate, ezin gara mugitu funtzionario bat ondoan izan gabe. Ez da babesa, kontrola baizik». E15

«Hobeto garbitzen dute, baina gauza bat ere esango dizut, hori da behintzat hemen beti gertatu dena, emakumezko funtzionarioek gehiago eskatzen baitiete emakumezko presoiei». Informatzailea

«Orduan, gu azkenak gara. Gizonezkoak alde guztietan dabilta elkarrekin. Mugitu egin daitezke, patiora, beste aldera, liburutegira..., aretoan egon daitezke. Nonahi daude. Baina gu ez, gu hemen gaude. Orduan, hara edo jarduera batera joateko, kostatu egin zaigu bakarrik joatea, gure bila etortzen zirelako mistoak ziren jarduerak egiteko. Emakumeok bortxatuak izateko gaude. Eta hemen, ba, hauxe da profila: %40 erasoengatik eta emakumeen aurkako indarkeriagatik dago kondenatuta. Gu babesteko modu bat da. Baina infantilizatu egiten gaituzte, ezereztu». E17

«Hau da, batzuetan iruditzen zaizu eskolaurreko eskola batean zaudela. Zentzu horretan, egia da pixka bat infantilizatu egiten direla. Nik beti esaten diet hau hemen kartzela delako pasatzen dela, beste estilo bateko kartzela batean pentsatu ere ez litzateke egingo txorakeria horiei jaramon egitea, baina hemen horrelako gauzei egiten zaie jaramon». Funtzionarioa

Emakumeek hautemandako infantilizazio eta kontrol berezi hori, neurri batean, kondena betetzen ari ziren gizonen egindako delituekin justifikatzen zuten zaintzako edo barneko funtzionarioek eta profesional teknikoek; izan ere, asko emakumeen aurkako indarkeriagatik zeuden kondenatuta, indarkeria hori edozein motatakoa izanik, eta sentitzen zuten emakumeak babesteko erantzukizuna zutela, espetxearen barruan haien aurkako inolako erasorik ez gertatzeko. Hala ere, espetxe barruan emakumeen mugimenduak debekatu eta mugatu beha-

rrean, gizonekiko tratuan beharrezko gaitasunak eta estrategiak irakats litezke, eta tresna egokiak eman, espetxean izan litezkeen gogoz kontrako harremanei aurre egiteko ez ezik, etorkizunean izango dituzten bikote-harreman pertsonalei aurre egiteko ere. Era berean, ona litza-teke sisteman bertan lan gehiago egitea genero-rolak eta indarkeriak ez betikotzeko.

Askatasunaz gabetutako emakumeen eta zaintzako edo barneko funtzionarioen artean sortzen den harreman edo tratua itzuliz, distantziako harremanak egiten ziren, autoritatea eta errespetua markatzeko.

«Hor korapilatu egiten da kontua. Alde handia dago, funtzionario batzuk oso gaiztoak baitira. Batzuek beste edonor bezala tratatzen zaituzte, eta beste batzuek alde handia markatzen dute. Dena ondo izan behar duzu, ezin diezu ezer esan, kristoren errespetua izan behar diezu. Gauzak ez dituzte oihuka esaten, baina robotak balira bezala. Horrelako bizpahiru daude. Gazteak dira. Mutilak, egokitzen zaizkigun gizonezko funtzionarioak, oso jatorrak dira, apartak». E18

«Distantzia nabarmendu behar duzu. Gero, joango zara ikusten, eta, agian, tira, pixka bat lasaitu zaitezke, eta une jakin batean, egia esan, nik nahiko garbi ezartzen dut presoekiko distantzia. Hemen, ikusten dut jendea etorri eta bost minutura presoekin hizketan ari dela, eta esaten duzu, baina, beno, nik 25 urte daramatzat hemen, eta ez naiz haiekin berriketan ibiltzen, zertan zabiltza? Nik uste dut gauzak nahiko argi izan behar direla, ze, noski, gero horrek okerreko interpretazioak eragin ditzake. Agian, hemengoak den preso batek, kultura jakin bat duenak, ba, badaki... gero, beste kontu bat da berak zer pentsatzen duen, baina berak badaki non dagoen eta norekin, ez dakit... Baina, noski, hemen preso atzerritar asko dago, eta bat-batean emakumezko funtzionario gazte bat dute aurrean, irribarre egiten diena, ba...». Funtzionarioa

Aurreko deskribapenetan ikus daitekeenez, harreman profesionala ulertzeko modu desberdinak dira, harreman asimetrikoak tarteko direnean. Sektore batentzat, profesionaltasuna ez da mendeko pertsonekin ezar daitekeen distantziaren araberakoa, baina, beste batentzat, distantzia nabarmentzea eta muga argiak ezartzea lagungarria da bete beharreko lan-posizioari eusteko. Pertsonekin egiten diren lan guztietan bezala, haiekiko enpatiak eta fobiak daude, baita lankideen arteko lehiak ere, egiten diren jardueretan.

«Amak baino gehiago, funtzionario askoren jokoan sartzen dira, 1. guardia gaizki konpontzen da 2. guardiarekin. Orduan, preso ba-

tzuk 1. guardiaren alde daude, eta aipatu dituzun dinamika horietan sartzen dira: lkusi dut funtzionario bat preso bati parte bat jartzzen, eta nola etorri den beste funtzionario bat eta parte hori puskatu duen. Hau da, dinamika batzuk, agian... nire ustez, hori ez da emakume izateagatik gertatzen, baizik eta espazio txiki bat delako, eta, azkenean, egunero elkarrekin daudelako. «Andereñoa –horrela esaten diete emakumezko funtzionarioei– betidanik ezagutzen dute, eta, badakizu, azkenean konfiantza bat sortzen da harekin, batez ere, nire ustez, elkar ezagutzen dutelako...». Psikologoak

Bestalde, inkestatutako emakumeek espetxeko tratua baloratu dute 0tik (oso txarra) 10era (oso ona) arteko eskala batean. Inkestatuek 4,5eko batezbestekoa eman diote (DT = 2,9), eta balorazio hori nabarmen handiagoa da 10 urte edo gutxiago daramatzaten emakumeen artean (5,2ko batezbestekoa, DT = 2,8), espetxean 10 urte baino gehiago daramatenen artean baino (3,1eko batezbestekoa, DT = 2,7).

12. taula
Espetxeko tratuaren balorazioa

		Espetxeko tratua
10 urte edo gutxiago	kop.	32
	Batezb.	5,16
	D.T.	2,77
10 urte baino gehiago	kop.	15
	Batezb.	3,07
	D.T.	2,68
Guztira	kop.	47
	Batezb.	4,49
	D.T.	2,89
	p balioa	0,011

Urte gutxiago daramatenek espetxeko langileengandik jasotako tratuari nahiko bat ematen badiote ere, urte gehiago daramatenek gutxiegi bat ematen dioten. Litekeena da urte gehiago daramatenak, besteak baino instrukzio gehiago izanik, aldarrikatzaileagoak izatea

eta neurri txikiagoan onartzea hitz egiteko modu batzuk; hala, eskakizun-maila handiagoa dute espetxeko profesionalekiko harremanetan tratatuak nolako izan behar duen dagokionean, nola espetxeko profesionalekikoan hala zaintzako edo barneko funtzionarioekiko eta teknikariekikoan, eta, batez ere, tentsio-egoeretan. Aldiz, denbora gutxiago daramatenek, trebetasun eta esperientzia gutxiago dutenez, tolerantzia eta otzantasun handiagoarekin joka dezakete.

11.6. *Abusuak - Sexu-abusuak*

25. arauak ezartzen du nola jokatu emakume presoek espetxeetan abusua eta/edo sexu-abusua jasan dutela salatzen dutenean, eta ikuskapen-taldeetan edo talde fiskalizatzaileetan emakumeak sartu beharra ezartzen du⁵⁷. 25. arauaren abiapuntua da emakumeak bereziki zaurgarriak direla espetxeetako abusuen aurrean eta, bereziki, sexu-abusuen aurrean. Arau hori presoen tratamendurako gutxieneko arauen 35., 36. eta 55. paragrafoen osagarria da, eta orientabidea ematen du Torturaren aurkako Hitzarmena aplikatzean.

Sexu-abusua jasan izana beti hartzen da kontuan beste arau batzuetan (azterketa medikoak, espetxeetako langileak eta haien trebakuntza, preso adingabeak, espetxe-erregimena eta askatasunaz gabezen ez duten neurriak).

Gure barne-legerian, bai ELOOK (49. eta 50. artikulua), bai Espetxeen Erregelamenduak (4.2, 21., 52., 53., 54. eta 249. artikulua), espetxean sartzean presoek eman beharreko informazioa aipatzen dute, bai eta haiek aurkez ditzaketen eskaerak, kexak eta helegiteak ere. Hala ere, ez da jarduteko mekanismo edo modu espezifikorik aurreikusi sexu-abusuak eta/edo abusuak oro har salatzeko, ez eta bereziki egoera horiek jasateko arrisku handiena duten emakume presoek zuzendutakorik ere.

Presoen espetxeratze- eta tratamendu-baldintzak zaintzeari dagokionez, ELOOren 76. artikulua oro har ezartzen du (gizonentzat eta

⁵⁷ «Gehiegikeriak salatzen dituzten presoek berehalako babesa, laguntza eta orientabidea jasoko dituzte, eta agintari eskudun eta independenteek salaketak ikertuko dituzte, konfidentzialtasuna erabat errespetatuz. Babes-neurri guztietan berariaz hartuko da kontuan errepresaliak izateko arriskua.

Sexu-abusua jasan duten presoek, bereziki haurdun geratu direnek, aholkularitza eta orientazio mediko egokiak jasoko dituzte, eta beharrezko osasun fisiko eta mentaleko arreta emango zaie, bai eta babesa eta laguntza juridikoa ere.

Presoen giltzapetze- eta tratamendu-baldintzak zaintzeko, ikuskapen-batzordeetako, bisita- edo gainbegiratze-batzordeetako eta organo fiskalizatzaileetako kideen artean emakumeak izan beharko dira».

emakumeentzat) espetxe-zaintzako epaitegiari dagokiola zaintza hori, eta epaitegi horrek «presoen eskubideak zaindu eta espetxe-araubideko aginduak betetzean gerta daitezkeen gehiegikeriak eta desbidera-
tzeak zuzendu» beharko dituela.

Bestalde, Ikuskapen Batzordeei eta horietan emakumeak sartu beharrari dagokienez, gure barne-legerian ez da ezer jasotzen. ELOOren 79. artikulua Justizia Ministerioko Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiari esleitzen dio «lege honetan arautzen diren erakundeak ikuskatzea», eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, EAEko Espetxe Administra-
zioari.

Bestalde, Erregelamenduaren 280. artikulua honako eginkizun hauek ematen dizkie espetxeetako zuzendaritzei: «zuzendaritza-zen-
troaren gidalerroak —tratamenduari, erregimenari, osasunari, langileei eta kudeaketa ekonomiko-administratiboari lotutako zerbitzuen antola-
menduari buruzkoak— zuzentzea, koordinatzea eta horiek betetzen di-
rela gainbegiratzea, bai eta zerbitzu horiek ikuskatzea eta horietan ikus-
ten den edozein hutsegite zuzentzea ere». Ez da aipatzen garrantzitsua denik funtzionarioen edo lantalde profesionaletako langileen artean emakumeak izatea.

Puntu honetan, 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa, aipatu behar dugu. Lege horren 15. artikulua espetxe-administrazioa behartzen du sexu-aska-
tasunaren aurkako ekintzak prebenitzeko prozedura espezifikoak ar-
bitratzera, eta beharrezko neurriak ezartzen ditu egoitza-erakundeak ingurune segurua izan daitezen. Besteak beste, honako hauek propo-
satzen dira: biktimen salaketak edo erreklamazioak bideratzea, era-
kunde horietan sexu-indarkeria detektatzeko protokolo espezifikoak aurreikustea, biktimei laguntza bermatzea eta hautemandako kasuak ikertzeko prozedura bat antolatzea, betiere indarkeriaren biktimei la-
guntza eta babesa bermatuz, eta salaketak edo erreklamazioak izapi-
detzea. Interesgarria da, halaber, lege horren 30. artikulua nabarmen-
tzea. Artikulu horretan, Espetxe Sistema behartzen da espetxeetako langileen trebakuntza ziurtatzera, sexu-indarkerien aurkako babes in-
tegralaren inguruan.

Sexu-abusuaz ari garenean, pertsona bat iraintzen eta degradatzen duen sexu-izaerako jokaeraz ari gara, ahozkoa edo fisikoa izan. Beraz, ez gara adostutako harremanez ari; abusua jasaten duen pertsonaren borondatearen kontrako harremana da.

Espetxeetan, askatasunaz gabetutako emakumeek egoera horiek ja-
san ditzakete, bai lanbide-kidegoaren aldetik, bai funtzionarioen alde-
tik; izan ere, bi kasuetan, hierarkia bat dago, eta desberdintasunezko
botere-harremana, presoak azken haien mende baitaude.

«*Nik duela urte batzuk entzun nuen neskak gauaren erdian ateratzen zituztela zeldatik eta abusatu egiten zituztela, baina neska batek nahi ez badu, hori entzun egiten da. Brasildar bati egindako abusua ere entzun nuen duela bi urte. Zerbitzuburu bat izan zen. Epaiketara joan ziren. Neskak salatu egin zuen, eta zerbitzuburuari kargua kendu zioten; orain ez du espetxe horretan lan egiten*». E14

«*Bai, ea, baten bat gertatu da. Nik ez dut inoiz bizi izan, eta uste dut hemen oso ezohikoa dela. Ez dizut esango inoiz gertatu ez denik, zerbait gertatu izan delako, baina oso ezohikoa iruditzen zait*». Funtzionarioa

Emakume presoak hierarkiaren beheko aldean daude, eta sistemaren beraren mende; hori dela eta, kasu askotan, ez dute salatu nahi izaten, sinetsiko ez dituzten eta/edo errepresaliak izango ote dituzten beldur.

Kasuren batean, zaintzako edo barneko funtzionarioen batek egin dako abusu-egoera salatu dute emakumeek, eta espetxeko zuzendariak horren arabera jokatu du, epaitegiari jakinarazita.

«*Presoei dagokienez izandako salaketa bakarra funtzionario baten jazarpena salatu zuen emakumezko preso batena izan zen. Nik zalantzarik gabe sinetsi nuen presoaren bertsioa, oso sinesgarria zen. Ezagutzen dut funtzionario hori, badakit nolakoa den, eta oso sinesgarria iruditzen zitzaidan. Orduan, presoak kontatu zidanean, esan nion: «salatu nahi duzu?», eta esan zidan: «ba, ez dakit», eta nik berari: «zuk egiten duzuna egiten duzula ere, nik neuk salatu egin behar dut, gertakari horren jakitun naizelako eta salatu egin behar dudalako». Plantilla gainera datorkizu. Jakina, nik funtzionarioa salatu nuen, diziplinazko espediente bat, eta idatzi bat bidali nuen guardiako epaitegira. Orduan, jakina, funtzionarioari deitu eta esan nion: «hau gertatu da», «hori gezurra da, presoak esaten duena sinetsiko duzu?», «irudi batzuk daude...», ez zen ukiturik edo horrelakorik gertatu, baina bai, bat zetorren presoaren bertsioarekin. «Zu bai emakume puska...» eta horrelako iruzkinak. Gainera, presoak zer lekutan gertatu zen kontatu zidan, eta nik egin nuen lehenengo gauza izan zen kameretara jotzea, irudiak ikusi nituen, eta den-dena zetorren bat. Presoaren hitzik gabeko hizkuntza, funtzionarioaren hitzik gabeko hizkuntza; izan ere, ez zen ezer entzuten, noski, baina irudiak ikusten ziren. Orduan... oso deigarria izan zen, okindegira eramane zuen, ogia erretzen den tokiraino. Zer egiten duzu zuk hor, okindegian, ogia erretzen den lekuan? Eta ikusten da presoak hortik irten nahi duela, egoera horretatik ihes egin nahi duela. Hortaz, nik horren berri izan nuenean, ikuskaritzari jakinarazi nion, baina transferituta geunden ordurako». Informatzailea*

Gertatutako kasu baten kontakizun horrek agerian uzten du espetxe-sistemak, batzuetan, abusu-egoera horiek detektatzen eta artatzen dituela. Hala ere, kontakizunetik ondorioztatzen da, baita ere, emakume presoek zail dutela portaera horiek salatzea, errepresalien beldur direlako, ez sinesteko beldur direlako edo beste arrazoi batzuegatik.

Gehiegikeriazko jokabide horiek presoan aldetik emakumezko presoan aurka ere gerta daitezke, eta, kasu horretan, askatasunaz gabetutako pertsonen arteko abusu-egoerak izango lirateke, baina ezohikoagoak dira.

«Nik mobida bat izan nuen hirugarreneko mutiko batekin, eta hirugarrenera jaitsi behar izan nuen funtzionario batekin hitz egitera. Hura kontrola zezaten, ni jazartzen ari baitzen. Alde guztietan jazaritzen ninduen. Funtzionarioek edozer gauza pentsa dezakete, eta ni saltsa batean sartu. Nahi duten lekutik ibiltzen dira, ez diete galdeztzen nora doazen. Guk baino askatasun handiagoa dute». E15

«Hemen, adibidez, kartzela honetan, duela urte asko, emakume batek... ni guardian nengoen, hura jaitsi, eta gizon batek tailerretako moduluan bortxatu zuela salatu zuen, itxuraz preso batek. Laneko arropak apurtuta jaitsi zen. Ebaki oso azalekoak zituen, bizar-orriaz egindako ebakiak hemen. Egun horretan erizain bat eta ni, biok gizonetakoak, geunden hemen. Laguntzaile bati deitu genion sartzeko, ospitalera deitu nuen eta sexu-erasoen protokoloa jarri genuen martxan hango ginekologoarekin, nire laguna bera. Irten, eta dena asmatu zuen. Osasun mentaleko arazoak zituen». Medikua

12. Kontaktuak eta bisitak

Puntu honetan, presoek kanpoaldearekin dituzten komunikazioei buruz hitz egingo dugu, batez ere senideekin eta abokatuekin dituztenei buruz.

12.1. Senideekiko eta seme-alabekiko kontaktua eta haien bisitak

Familiarekiko eta seme-alabekiko kontaktua 26. eta 28. arauetan jorratzen da⁵⁸. Gure legeriari dagokionez, ez du berariaz ezer jasotzen askatasunaz gabetutako emakumeek seme-alabekin eta senideekin di-

⁵⁸ 26. araua. Zentzuzko bide guztiak erabiliko dira presoak beren senideekin, seme-alabak barne, eta seme-alaben tutore eta legezko ordezkariekin harremanetan jartzeko. Ahal denean, neurriak hartuko dira beren etxetik urrun dauden espetxeetan dauden emakumeen arazoak murrizteko.

tuzten komunikazioei dagokienez eta, oro har, ezartzen du presoek baimena izango dutela aldian-aldian, ahoz eta idatziz, beren hizkuntzan, senide eta lagunekin komunikatzeko, inkomunikazio judizialeko kasuetan izan ezik, intimitatea ahalik eta gehien errespetatuz, eta pertsonen eta moduari dagokienez, tratamendu-intereseko segurtasun-arrazoiengatik eta establezimenduaren ordena egokiagatik ezarritakoak baino murrizketa gehiago izan gabe⁵⁹.

Elkarriketatutako emakume guztientzat funtsezkoa da familiarekin eta, bereziki, seme-alabekin harremana izatea, haien bizitzaren ardatza. Kartzelan sartzeak eten egiten du seme-alabekiko harreman estua eta hurbila, eta horrek ondorio garrantzitsuak eragiten dizkie bizitzan. Puntu honetan, senideek eta seme-alabek egin ditzaketen bisitei eta espetxetik egiten dituzten deiei erreparatuko diegu.

Seme-alabak tutoretzapean daudenean, dagokion diputazioak du zaintza; gurasoak bananduta badaude, kontaktua elkargune batean egiten da, eta hori hilean behin gertatzen da, adierazi zigutenez. Hau da, eguneroko kontaktu batetik hileroko kontaktu batera igarotzen da, eta horrek galera handia eragiten die seme-alabei. Adin nagusikoak badira, dagokien bakoitzean joan daitezke mintzalekura, baina adingabeak badira, epe hori askoz gehiago luzatzen da, nahiz eta alderantziz izan beharko litzatekeen, adingabeen adinaren arabera baita. Bilbon emakumeen modurik ez dagoenez, familiak Euskadiko bi espetxetara joan behar du.

Puntu honetan, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak egin-dako zirkularra, espetxeetako elkarbizitzako komunikazioetara joan daitezkeen seme-alaben komunikazioei buruzkoa⁶⁰. Zirkular horretan, ondorioztatzen da baimena eman behar dela espetxean dauden gurasoen eta hamar urtetik gorako seme-alaben arteko elkarbizitzako komunikazioetarako, gutxienez bi kasutan: 13 urtetik beherako seme-alaben komunikazioetan (Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Euskal Legeak⁶¹ adin hori zehazten du haurtzaroaren

28. araua. *Haurren bisitak ingurune egokian egingo dira, baita langileen portaerari dagokionez ere, eta horietan amaren eta seme-alaben arteko harreman askea ahalbidetu beharko da. Ahal izanez gero, haiekin denbora luzez egoteko aukera emango duten bisitak bultzatu beharko dira.*

⁵⁹ ELOren 51., 52. eta 53. artikulua, eta EEn 41., 42., 43., 44., 45., 46. eta 47. artikulua.

⁶⁰ Elkarbizitzako komunikazioetara joan daitezkeen seme-alaben interpretazioari buruzko informazio-zirkularra, 2022ko maiatzaren 9koa.

⁶¹ 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko (HNL), 2005eko martxoaren 30eko EHAA, aldaketa: 3/2009 Legea, abenduaren 23koa, HNL aldatzen duena, 2009ko abenduaren 31ko EHAA).

eta nerabezaroaren arteko mugatzat) eta hainbat seme-alaba adingabez osatutako familia-nukleo batekin egindako elkarbizitzako komunikazioetan.

Adingabeekin izaten diren komunikazioen maiztasunaz gain, kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da komunikazio horiek non egiten diren. Adingabeei buruz ari garenez, arreta berezia jarri behar zaie komunikazio horiek egingo diren aretoei. Eusko Jaurilaritzaren 2022ko abuztuaren 4ko Zerbitzu Aginduak ezartzen du, espetxe bakoitzaren aukeren arabera, 13 urtetik beherako seme-alabekin ahozko komunikazioak egiten diren kasuetan, mintzaleku orokorren orde, familia-komunikazio bereziak edo elkarbizitzako bisitak egiteko gelak erabili ahal izango direla.

*«Nire familia Bilbon dago, eta pisua hemen, hona etorri beharko lukete. Seme-alabak **Bilboko elkargunean ikusten ditut, bi hilean behin hara eraman behar izaten naute.** Prebentziozko espetxealdian nengoenez, bi hilean behin jarri zizkidaten bisitak. Epaketaren ondoren, bi hilabete behar izan zituzten ni tratamendu-batzarretik pasarazteko, eta horrek esan nahi du prebentziozko espetxealdian jarraitzen nuela, epaitu eta kondenatu egin nindutelako. Maiatzean eman zidaten epaia, eta uztailean arte ez nintzen tratamendu-batzarretik igaro. Bigarren gradua eman zidaten. Banindoan elkarguneetako batera, eta ez zidaten utzi joaten, prebentziozko espetxealdian nengoela konturatu zirelako. Elkarguneetarako baimena espetxeak eman behar du, eta konturatu ez zirenez, lau hilabetez egon nintzen seme-alabak ikusi gabe. Berriz irtetea egokitu zitzaizkidan, epaituta nengoenean, esan zidaten ez zidatela irteten uzten; astelehen batean nintzen irteteko, eta ostiralean eguerdiko 12:30ean jakinarazi zidaten ezin nintzela irten. Elkargunerako aukera galdu nuen, eta beraz, lau hilabete izan ziren. Alaba nagusiak larunbatetan etortzen dira mintzalekura, eta hilean ordu eta erdiko bi bisean biseko bisita dituzte. Ni sartu aurretik zeuden neskek hiru bisean biseko zituzten hilean. Bi zuri dagozkizunak, eta beste bat errespetu-moduluan egoteagatik dagokizuna. Seme-alabak badituzu, hilean behin ikusten dituzu, baldin eta mintzalekura etortzen ez badira. Izan ere, bikotekidea baduzu, beste komunikazioa hari dagokio. Alabak Bilbotik autoz etortzen dira, baina, bestela, sekulako saltsa da mintzalekuan 40 minutu egoteko».* E15

Gure elkarriketatuek azaldutakoaren arabera, adingabeek, zer adin zuten, aukera gehiago edo gutxiago zuten amekiko komunikazioetara joateko; emakume batek adin desberdinetako seme-alabak izanez gero, adibidez, 11 urte baino gutxiagokoek haiek ikusteko aukera gehiago zuten 12-17 urtekoek baino.

«*Igandeetako komunikazioa bederatzietan, hamabietan eta bostetan da. 3tik 13 urtera bitartekoak sar daitezke. **Nire semeak 14 urte ditu, eta ez diote uzten.** Psikologoak esan dit saiatzeko. Eskaria helaraziko diet zuzendariari eta segurtasun-buruari. Senideekiko bisean bisekoa eta elkarbizitzako komunikazioa ere baditugu, hilean behin. Haurra orain egonkor dago, nota onak ateratzen, mailak gaintitzen, eta ezin diot hori egin, egonkortasuna galaraziko nioke. Biak pozik etortzen dira ni ikustera. Ezin diot esan neskari bi aldiz etortzeko, eta berari behin bakarrik».* E16

Elkarriketatutako beste emakume batzuek uste zuten emakumeek gizonek baino aukera gutxiago zituztela bisiten maiztasunean; izan ere, gizonek bi bisita-egun zituzten, eta emakumeek, berriz, bakarra, eta hori diskriminatzailea iruditzen zitzaien⁶².

«*Ba, haiek (gizonek) guk baino bisita gehiago dituzte. Igan-deak eta beste egun bat dituzte. Guk larunbatetan baino ez genituen mintzalekuko txandak. Orain ostiralak lortzeko borrokan ari gara. Guk ere bi egun izateko. Mintzalekuan, astean bitan hitz egin dezakete haiek, eta guk egun batean. Bisean bisekoa eta elkarbizitzako komunikazioa, ordu eta erdikoa da bakoitza. Baina ni pozik nago, hilean behin bada ere. Bideodeiak ere badaude, baina niri, bisean bisekoak erabiltzen ditudanez, ez dizkidate ematen. Nik, adibidez, badut lagun bat hemen familiarik ez duena, baina hari ere ez diote uzten bideodeiak egiten. Nikaraguakoa da. Neskak 10 urteko semea du eta umeak ikusi egin nahi du. Ez diote uzten, urtean behin baitauka mintzalekurako txanda, lagun bat ikustera etortzen zaionean. Zentzu horretan, mintzalekurako txandarik ez badut erabiltzen, ez diot jende horri lekua kentzen, ba eman diezagutela beste aukera bat. Adibidez, astelehenetik ostegunera bideodei bat egin daiteke, ba eman diezagutela zazpitan horretarako aukera. Bideodeiak ordu bat eta hoge minutukoak dira gehienez».* E16

Emakume batzuek planteatzen ziguten zeuzkaten bisean biseko intimoak senideekiko bisean biseko bihurtzeko nahia; izan ere, aldaketa hori ez zen onartzen, araudia bi modutara interpreta zitekeelako, bi-biak eksklusiboki ahalbidetuz edo horiek trukatzeko aukera emanez.

⁶² Espetxe-legeriak gutxienez 20 minutuko bi bisita ezartzen ditu astean, eta aukera ematen du horiek multzokatu eta 40 minutuko bisita bakarra egiteko. Baliteke desberdintasunaren pertzepzioa ez izatea zuzena emakumeek aipatutako komunikazioen denbora ezagutu gabe.

«COVID-garaian lehentasuna ematen zitzaien bisean biseko intimoiei seme-alabekikoei eman beharrean. Baina behin COVIDa normalizatu ondoren, eta bisean bisekoak egiten hasi zirenean, nire semeak 11 urte bete zituen, eta beraz, eten egin ziren elkarbizitzako komunikazioak, eta hemen bi dira hilean, bi ordukoak. Beste leku batzuetan hiru hilean behin hiru ordu dira, baina komunikazio bat hiru hilean behin. Hemen hilean bi dira, eta hori alde handia da. Espainiako legeriak esaten du elkarbizitzako komunikazioak haurrak hamar urte bete arte egin daitezkeela, eta hemen luzatu egiten da, hamar urte dituen bitartean jarraitu baitaiteke egiten. 12 urte bete-tzean, ezin dut hori egin. Horrek esan nahi du harreman zuzenean izan litekeenaren erdia ematen dela; izan ere, hemen, presoak bisean biseko intimo bat eta senideekiko beste bat izan ditzake, eta aukeratu dezake biak intimoak izatea edo biak senideekikoak izatea. Nire kasuan, biak senideekikoak dira, eta, gero, elkarbizitzako beste bi komunikazio ditut. Justizia Sailak gidalerro bat argitaratu zuen, eta 13 urtera arte luzatu zituzten elkarbizitzako komunikazioak. Orduan, berriaz heldu genien elkarbizitzako bisitei. Une honetan, bi ordu egiten ari naiz, baina bera dator ni ikustera, zama hori berea da. Ni saiatzen naiz denbora hori kudeatzean, eta saiatzen naiz eskulanak egiten, lan fisikoak egiten, hitz egiten. Baina bi ordu horiek ez dira nahikoa zuk harreman hori izaten jarraitu ahal izateko, hor amaitzen da». E17

«Zuk araudiari buruz egiten duzun interpretazioaren araberakoa da. Araudiak senideekiko bisean biseko bat eta bisean biseko intimo bat aipatzen ditu eta, gero, elkarbizitzako bisean bisekoa, horiek adingabeekin, bai? Bikotekiderik ez baduzu, zergatik ez dituzu izango senideekiko bi bisean biseko? Zentzuzkoa da. Baina, tira, arautegiari zorrotz jarraitu nahi badiozu, egia da bat senideekiko dela eta beste bat intimoa. Ea, hemen, espetxe honetan, bikotekiderik ez baduzu, senideekiko bi dituzu, eta kito, ez dago inolako arazorik. Egotekotan, espazioagatik egon liteke». Informatzailea

COVID-garaian, espetxeak pandemiaren inguruabarren arabera egokitu behar izan ziren, eta haien jarduera batzuk aldatu zituzten, besteak beste, bisitak malgutu zituzten pilaketak saihesteko, baina, gero, berrezarri egin zituzten.

«Astelehenetik igandera. Mintzalekuko txandak ere pandemiarekin batera. Mintzalekuko txandak asteburuetan ziren; hortaz, pandemiak gauza onak ekarri dizkigu. Besteak beste, **mintzalekuak ireki genituen**, astelehenetik igandera pilaketak saihesteko, eta horri eutsi egin zaio. Familia batzuek nahiago dute astearte arratsaldean etorri, eta asteburuan beste gauza batzuk egiten dituzte, badakizu? Baina hori, nolabait, familiak kondenatzea da, bisitara asteburuan bakarrik

etorri ahal izatea... Elkarbizitzako komunikazioak, ordea, asteburuetan jartzen ditugu, batez ere, ez dezaten aitzakiarik izan haurrek eskolara ez joateko, larunbat edo igande arratsaldeetan, bisean bisekoak edozein unetan izan daitezke». Informatzailea

Beraz, gizarteko beste alderdi batzuetan bezala, pandemiak zenbait aukera kendu zituen alderdi batzuetan, eta badirudi beste batzuetan aukera horiek zabaldu zituela. Nolanahi ere, espetxeek, gainera, saritzeko eta zigortzeko beren sistemak dituzte; besteak beste, portaera onagatik bisita gehiago lortu ahal izatea.

«Eta, gero, espetxe honetan, badakite bisean bisekoak sari gisa lor daitezkeela; orduan, jarduerak egiten badituzte, bisean biseko gehiago dituzte. Hemen, preso batzuek, hilean zortzi bisean biseko ere badituzte: elkarbizitzako bi, dagozkion bi —lau dira dagoeneko— eta, gero, beste lau sari gisa; guztira, zortzi». Informatzailea

Egindako elkarriketetan ez da adierazi emakumeei seme-alabekiko bisitak edo deiak murriztu edo eten zaizkienik zigor gisa, nahiz eta gure espetxe-legerian egoera jakin batzuetan aurreikusita egon, Nazio Batuen 23. araua urratuz.

Telefono bidezko komunikazioei dagokienez, elkarriketatu guztiek kritikatu zuten deien kostua.

*«Ba, nik 15 **dei** horietan, 10-15 euro gastatzen ditut, finkoetara merkeago eta mugikorretara garestiago, zortzi minutu direla uste dut». E1*

*«Ez, ez da inor etortzen ni ikustera. Ezin da etorri, haurra goiztiarra da eta. Lehen, nire ama bizirik zegoenean, etortzen zen. Neba-arrebekin ez dut arazorik, baina nire alaba eta haren haurra zaintzen dituzte. Orain, 20an, **bideodeia** daukat nire biloba ezagutzeko. Hilean bat dut, ordu eta erdikoa. Batzuei oso luze egiten zaie. Eta askotan ez duzu ondo ikusten, leihoan jartzen zaituztelako, azkena jartzen zaituztelako. Ez dizute entzuten, ez zaituzte ikusten». E14*

*«Une horretan, **COVIDa zela eta, 12 dei ziren, igo egin baitzuten** asteko dei kopurua, zortzi minutukoa bakoitza. Asko kostatzen zitzaidan, bi euro eta zerbait. Hemen gutxixeago kostatzen zait, baina garestia da hala ere. Ordutegia ez dator bat haurren eta kanpoko jendearen ordutegiarekin, ordutegi horretan lanean baitaude». E17*

*«19 **dei** astean. Baina oso garestiak dira. Mugikorretara egindako lau dei, adibidez, 10 € dira. Oso garestiak dira. Kalean, prezio ho-*

rretan, Internet, deiak eta guzti nituen. Astean 50 € gastatzen ditut deietan. Hala ere, nahiago dut ordaindu eta alabarekin hitz egin. Eta ahizpari ere deitzen diot. Egunean bi dei egiten ditut. Eta bisean bisekora nire ahizpa etortzen da nire seme-alabekin. Senideekiko bat eta intimo bat ditugu. Bikotekiderik ez dudanez, biak hartzen ditut, baina nire ahizparen esku dago. Egoitza batean egiten du lan. Hil honetan, adibidez, 25era arte ezin da etorri. Ordubete behar dute hona etortzeko, nire koinatuak ekartzen ditu». E16

Zaintzako funtzionarioei edo lantalde profesionalari egindako elkarriketetan iritzi bera zuten, eta ez zuen ulertzen nola izan zitezkeen hain garestiak deiak.

«Deiak oso garestiak dira, eta atzerrira deitu nahi baduzu, akabo. Hain da larria baliabide ekonomikorik ez duen pertsona batek familiarekin hitz egin ahal ez izatea. Onartezina da. Zer egiten dugun hemen? Baimen asko ematen ditut sarreretatik deitzeko. Askotan, ikusten duzu sosik ez dutela, eta esaten diet «tira, zoaz sarreretara, han dohainik da eta». Sarreretako deia doakoa da, eta funtzionarioei esaten diezu «utzi iezaiozu deitzen», «zenbat denbora?», «10-15 minutu, behar duena». Hori, jakina, ezin duzu egin edozein espetxetan, presoa modulutik atera eta sarreretara eraman». Informatzailea

«Atzerritarrei dagokienez, ba al dakizu zein zirrargarria den mutil marokoar bat zuregana etorri eta esatea«urtebete neraman ama ikusi gabe»? Eta COVIDarekin, jendea izugarri beldurtuta zegoen, pentsatuz «nola egongo ote dira ama, familia eta neba-arrebak?». Informatzailea

Deien garestitzea eta horien maiztasun txikia gehien pairatzen zutenak familia atzerrian zuten emakumeak ziren, ezin baitzuten bisitarik jaso, telefono-deiak edo bideokonferentziak baino ez. Hori kontuan hartu beharreko alderdi bat da.

Orain, nork bisitatu zituen eta zer neurritan galdetuz gero, ikus dezakegu bikotekidearen bisitak izan zirela ugarienak, batez beste 9,4 bisita azken sei hilabeteetan (DT = 8,4); ondoren, seme-alabenak, batez beste 7 bisita azken sei hilabeteetan (DT = 6,6); beste senide batzuenak, batez beste 4,5 bisita (DT = 5,8); amen bisitak, batez beste 3,4 bisita (DT = 2,6); GKEetako kideenak, batez beste 2 bisita (DT = 3,4); eta, azkenik, aiten bisitak izan ziren urrienak, batez beste 1,4 bisita azken sei hilabeteetan (DT = 2,5).

Espetxean 10 urte edo gutxiago zeramatzatzen emakumeen eta 10 urte baino gehiago zeramatzatzen artean ez dago alde esanguratsurik, bikotekideari dagokion kasuan izan ezik; izan ere, 10 urte baino

gehiago zeramatzatenek bisita gehiago zituzten batez beste azken sei hilabeteetan (14,2; DT = 7,1), espetxean 10 urte edo gutxiago zeramatzatenen aldean (batez beste 3; DT = 5).

13. taula
Bisita kopurua

Bisita kop. 6 hilabete		Seme- alabak	Ama	Aita	Familiako beste batzuk	Bikote- kidea	GKEak
GUZTIAK	Batezb.	7	3,41	1,45	4,53	9,43	2
	Mediana	6	4	0	3	9	0
	D. T.	6,64	2,575	2,505	5,84	8,39	3,42
≤ 10 URTE	Batezb.	6,11	3,33	0,83	2,75	3	1
	Mediana	2	4	0	1	0	0
	D. T.	8,22	2,69	2,04	3,571	5,02	2,14
> 10 URTE	Batezb.	8,33	3,5	2,2	7,57	14,25	3,33
	Mediana	8	4	0	6	12	2
	D. T.	3,44	2,62	3,03	7,87	7,13	4,50
	p balioa	0,224	0,888	0,537	0,12	0,008	0,228

12.2. Abokatuekiko kontaktua

Abokatuaren arreta funtsezkoa da emakume presoentzat, prebentziozko egoeran edo zigortuta egon arren, aholkularitza juridikoa behar baitute. Emakume guztien % 76k jasotzen zituzten abokatuen bisitak. Hala ere, deigarria da espetxean 10 urte edo gutxiago zeramatzaten emakumeen kasuan % 60k baino gehiagok adierazi zutela inoiz ez zutela abokatuaren bisitarik jasotzen.

Inkestatutako emakumeei dagokienez, emakumeen % 76,1ek jasotzen zituzten bisitak, eta ez zegoen alde nabarmenik espetxean denbora gehiago eta gutxiago zeramatenen artean.

Bestalde, emakumeen % 46,9k ez zuen inoiz abokatuaren bisita jaso; ehuneko hori % 61,8koa zen espetxean 10 urte edo gutxiago zeramatzatenen artean, eta % 13,3koa, 10 urte baino gehiago zeramatenen artean. Hala, beteranoen artean, ohikoena zen abokatuak sei hilean

behin (% 33,3) edo beste maiztasun batekin (% 53,3) egitea bisita. Denbora gutxiago zeramatenen artean, berriz, erratikoagoa zen, patroï argirik gabea (% 32,7) (hilean bitan, nahi duenean, hala eskatzen dudanean, hilean behin baino gehiagotan edo astean behin). Beraz, bi taldeen portaera desberdina da, nabarmen, eta taula honetan ikus daiteke hori:

14. taula
Abokatuekiko bisitak eta kontaktua


Abokatuekiko bisitak eta kontaktua	GUZTIAK		≤10 URTE		> 10 URTE		p balioa
	kop.	BAI (%)	kop.	BAI (%)	kop.	BAI (%)	
Bisitarik baduzu?	46	76,1	31	71	15	86,7	0,247
Zenbatean behin jasotzen duzu abokatuaren bisita?	kop.	%	kop.	%	kop.	%	
Inoiz ez	23	46,9	21	61,8	2	13,3	0,000
Hiru hilean behin	4	8,2	4	11,8	0	0	
Sei hilean behin	6	12,2	1	2,9	5	33,3	
Beste maiztasun bat	16	32,7	8	23,5	8	53,3	
Guztira	49	100	34	100	15	100	

Preso eta informatzaile batzuek emakumeen eta gizonen arteko nolabaiteko diskriminazioa aipatu zuten, gutxiago izanik amaierarako uzten baitziren, baina aurrerago aipatzen da hori zehatzago.

Ildo horretan, EAEko Arartekoak gomendatzen du komunikazio-bal-dintza horiek hobetu behar direla, eta segurtasun-neurriek edo barne-bereizketako eskakizunek ez dezatela mugatu abokatuaren laguntza eskuratzeko eskubidea. Eta gomendio hori partzialki onartu du espetxe-administrazioak.

13. **Nola ikusten duten askatasunaz gabetutako emakumeek beren espetxea**

Askatasunaz gabetutako emakumeei eskatu zaie 0tik 10era arteko puntuazioa emateko dauden espetxeko zenbait alderdiri buruz. Ez da alde esanguratsurik hauteman espetxean 10 urte edo gutxiago daramaten emakumeen eta 10 urte baino gehiago daramatenen artean.



1. grafikoa
Espetxearen autobalorazioa

Oro har, batez besteko puntuazioak ez dira oso altuak; hala, emakumeek gehien baloratzen zutena higiene-produktuak doan jaso ahal izatea zen, batez beste 6,54 punturekin (DT = 2,34); gero, erizaindegiko arreta, batez beste 5,72 punturekin (DT = 2,75); familiaren eta seme-alaben etxetik gertu egotea, batez beste 5,64 punturekin (DT = 3,18); egindako proba medikoak, batez beste 5,57 punturekin (DT = 3,12); arreta ginekologikoa, batez beste 5,53 punturekin (DT = 2,89); kultura-jarduerak, batez beste 5,51 punturekin (DT = 2,72); kanpoko medikuarengana egindako bidaiak, batez beste 5,17 punturekin (DT = 2,73); prestakuntza- eta hezkuntza-jarduerak, batez beste 5,15 punturekin (DT = 2,32); eta produkzio-taillerrak, batez beste 5,09 punturekin (DT = 2,13). 5etik beherako batez besteko kalifikazioak —eta, beraz, gutxiegi— jaso zituzten honako hauek: hezkuntza-jarduerak (4,73ko batezbestekoa, DT = 2,47), jar-

duera okupazionalak (4,72ko batezbestekoa, DT = 2,37), errespetu-moduluek (4,62ko batezbestekoa, DT = 2,65), destinoek (4,56ko batezbestekoa, DT = 2,85), baimenek (4ko batezbestekoa, DT = 3,01), garapen pertsonaleko tailerrek (3,97ko batezbestekoa, DT = 2,85), enplegurako prestakuntza (3,74ko batezbestekoa, DT = 2,40), Ser Mujer programak (3,61eko batezbestekoa, DT = 3,55), modulu mistoek (3,56ko batezbestekoa, DT = 3,94), eta, azkenik, balorazio okerrena duena, beste espetxe batzuetara lekualdatzeak (2,66ko batezbestekoa, DT = 2,84).

Halaber, dauden espetxearekin zuzenean lotuta dauden zenbait baieztatpenekiko duten adostasun- edo desadostasun-mailari buruz galdetu zitzairen. Hala, emakumeen % 77,5 ados zegoen dutxatzean zuten intimitate-mailarekin; % 76,9k irizten zioten emakumeek ez zituztela gizonek adina aukera espetxe horretan lan egiteko; % 76,3k adierazten zuten gizonezko presoek errespetuz tratatzen zituztela, eta proportzio hori handiagoa eta nabarmen desberdina zen espetxean 10 urte edo gutxiago zeramaten emakumeen artean (% 88,5), 10 urte baino gehiago zeramatenen artean baino (% 50); bere moduluan drogak kontsumitzen zirela (% 72,5), eta proportzio edo adostasun-maila handiagoa zegoen horren inguruan espetxean urte gehiago zeramatenen artean (% 100), 10 urte edo gutxiago zeramatenen artean baino (% 60,7); iritsi zenean oso gaizki zegoela, baina lagundu egin ziotela (% 51,2), eta adostasun-maila handiagoa zegoen horren inguruan espetxean denbora gutxiago zeramatenen artean (% 65,5), 10 urte baino gehiago zeramatenen artean baino (% 16,7); espetxean haietaz arduratzen zirela (% 48,7); beren moduluan pilulekin trapitxeatzen zutela (% 48,7), eta horren inguruan adostasun handiagoa zegoen espetxean denbora gehiago zeramatenen artean (% 81,8), denbora gutxiago zeramatenen artean baino (% 35,7). Modulu gatazkatsu batean egotea (% 47,5); espetxeak irakatsi ziola bere burua hobeto baloratzen (% 33,3), eta puntu horretan adostasun handiagoa zegoen espetxean denbora gutxiago zeramaten emakumeen artean (% 46,2), denbora gehiago zeramatenen artean baino (% 7,7); emakume guztiak modulu berean zeudela (% 32,55); espetxeko beste emakumezko preso batzuek beldurra eragin izan ziotela (% 31,7); gaizki zeudenean lesionatu egiten zirela (% 17,5), eta horrekin ados zeuden espetxean 10 urte baino gehiago zeramaten emakume guztiak eta espetxean 10 urte edo gutxiago zeramaten emakumeen % 25,9; beren bikotekideak kontrolatu egiten ziela espetxean zer egiten zuten (% 13,2); lantalde teknikoak bere espetxeko irteera prestatzen ari zela (% 12,5); noizbait sexu-trukea egon zela zerbait behar zutelako (% 9,8); eta espetxean bikotekidea zutela, gauzak erosten zizkielako (% 7,5).

15. taula
Espetxeko hainbat egoerarekiko adostasun-maila

Zu zauden espetxeari buruzko esaldi hauekin ados zaude ala ez?	GUZTIAK		≤ 10 URTE		> 10 URTE		p balioa
	kop.	BAI (%)	kop.	BAI (%)	kop.	BAI (%)	
Nire moduluak drogak kontsumitzen dira	40	72,5	28	60,7	12	100	0,012
Iritsi nintzenean oso gaizki nengoen, baina lagundu egin didate	41	51,2	29	65,5	12	16,7	0,005
Gaizki nagoenean lesionatu egiten naiz	40	17,5	27	25,9	13	100	0,046
Gizonezko presoek errespetuz tratatzen naute	38	76,3	26	88,5	12	50	0,011
Bikotekideak (gizona edo emakumea) espetxean zer egiten dudan kontrolatzen dit	38	13,2	25	16	13	7,7	0,478
Emakumeok eta gizonak ez dugu espetxe honetan lan egiteko aukera bera	39	76,9	26	69,2	13	92,3	0,111
Espetxean nitaz arduratzen dira	39	48,7	26	61,5	13	23,1	0,025
Noizbait sexua trukutzen dut zerbait behar dudalako	41	9,8	28	14,3	13	0	0,157
Nire moduluak pilulak trazitxatzen dira	39	48,7	28	35,7	11	81,8	0,011
Intimitatea dut dutxatzen naizenean	40	77,5	27	74,1	13	84,6	0,46
Emakume guztiak modulu berean gaude	40	32,5	27	40,7	13	15,4	0,113
Modulu gatazkatsu batean nago	40	47,5	27	55,6	13	30,8	0,147
Espetxeko beste emakumezko preso batzuek beldurtu egiten naute	41	31,7	28	39,3	13	15,4	0,131
Bikotekidea dut barruan gauzak erosten dizkidalako	40	7,5	27	11,1	13	0	0,217
Lantalde teknikoak espetxeko nire irteera ari da prestatzen	40	12,5	27	11,1	13	15,4	0,705
Espetxeak neure burua hobeto baloratzen irakatsi dit	39	33,3	26	46,2	13	7,7	0,018

13.1. *Hobetzeko iradokizunak, inkestatik abiatuta*

Espetxean hobetu beharko liratekeen alderdiei buruz galdetu zaie askatasunaz gabetutako emakumeei.

Emakume guztiek aho batez diotenez, hauek dira gehien hobetu beharrekoak: moduluen aukera gehiago izatea, eta horren atzetik, Internetarako sarbidea (emakumeen % 92,1ek), enplegurako prestakuntza (% 91,7k) eta produkzio-tailerrak (emakumeen % 90,3).

Emakumeen % 80k baino gehiagok, baina % 90ek baino gutxiagok, uste dute honako hauek hobetu behar direla: lantalde teknikoko profesionalen tratua (% 89,5), zaintzako funtzionarioen tratua (% 86,8), garapen pertsonalerako tailerrak (% 85,7), familiarekiko kontaktu gehiago (% 85), bideodeiak (% 83,3), prestakuntza arauturako sarbidea (% 82,1) eta seme-alabekiko kontaktu gehiago (% 81,1). Azken hori gehiago eskatzen dute espetxean denbora gehiago daramaten emakumeek (% 100), denbora gutxiago daramatenek baino (% 70,8).

Emakumeen % 70-80k uste dute honako hauek hobetu behar direla: arreta medikoa (% 75,7), instalazioak (% 75,7), jarduera okupazionalak (% 75), mendekotasunen tratamendua (% 75) (antzinatasunaren arabera alde esanguratsuak daude kasu honetan, proportzio handiagoan eskatzen baitute denbora gehiago daramatenek —% 100—, denbora gutxiago daramatenek baino —% 63,2—), aire girotua (% 71,9), moduluen araberrako bereizketa bete dadila (% 70), nola egiten duten zelden erregistroa (% 70).

Eta emakumeen % 70ek baino gutxiagok —baina % 50ek baino gehiagok— uste dute honako hauek hobetu behar direla: kirol-jarduerak (% 63,6), zeldak (% 62,5), garraioak poliziarekin (% 54,5) eta berokuntza (% 50).

16. taula
Espetxean hobetu beharreko alderdiak

Zure ustez, zer alderdi hobetu behar dira espetxe honetan emakumeei laguntzeko?	GUZTIAK		≤ 10 URTE		> 10 URTE		p balioa
	kop.	BAI (%)	kop.	BAI (%)	kop.	BAI (%)	
Nire familiarekin kontaktu gehiago izatea	40	85,0	25	80	15	93	0,259
Seme-alabekin kontaktu gehiago izatea	37	81,1	24	70,8	13	100	0,033
Zaintzako funtzionarioen tratua	38	86,8	23	82,6	15	93,3	0,346
Talde teknikoko profesionalen tratua	38	89,5	23	87	15	93,3	0,537
Arreta medikoa	37	75,7	22	77,3	15	73,3	0,787
Garraioak poliziarekin	33	54,5	18	50	15	60	0,572
Instalazioak	37	75,7	22	68,2	15	86,7	0,204
Jarduera okupazionalak	36	75,0	21	71,4	15	80	0,564
Enplegurako prestakuntza	36	91,7	21	90,5	15	93,3	0,763
Kirol-jarduerak	33	63,6	18	55,6	15	73,3	0,298
Prestakuntza arauturako sarbidea	28	82,1	17	82,4	11	81,8	0,972
Produkzio-tailerrak	31	90,3	19	89,5	12	91,7	0,843
Garapen pertsonalerako tailerrak	35	85,7	21	81	14	92,9	0,331
Mendekotasunen tratamendua	28	75,0	19	63,2	8	100	0,039
Bideodeiak	36	83,3	22	77,3	14	92,9	0,228
Internerako sarbidea	38	92,1	24	87,5	14	100	0,174
Moduluaren bereizketa bete dadila	30	70,0	17	64,7	13	76,9	0,477
Modulu-aukera gehiago egon dadila	35	100	22	100	13	100	1
Nola egiten duten zelden erregistroa	30	70,0	17	58,8	13	84,6	0,133
Berokuntza	32	50,0	19	47,4	13	53,8	0,723
Zeldak	32	62,5	19	63,2	13	61,5	0,927
Aire girotua	32	71,9	19	84,2	13	53,8	0,065

Azkenik, azken galderan, zerbait kontatu nahi ote ziguten galdetu genien inkestatuei, eta jarraian azalduko dugu haiek adierazitakoa.

Desberdintasunari eta diskriminazioari buruz duten pertzepzioari dagokionez:

Gizon eta emakume guztiok eskubide berberak izatea nahi dut. (C06)

Ez ditugu gizonen eskubide berak. Adibidez, elkarbizitzara irteari dagokionez, mutilak irten daitezke, errespetu-moduluan ez badaude ere. Lana badute, atera daitezke, eta lana dugun emakumeoi errespetu-moduluan egotea eskatzen digute irten ahal izateko, eta horrela beste gauza asko. (C09)

Erabateko diskriminazioa ikastaroei, moduluei eta modulutik kanpora mugitzeari dagokionez. Emakumeen moduluen aurrean profil bereziko gizonezkoen moduluak izatea (bortxatzaileak, pederastak...). (C15)

Funtzionarioen eta presoan artean ez badago neutrala den inor emakumeen eskubideak errespetaraziko dituen, horrek ez du ezertarako balioko. (C21)

Alde handia dago gizonen eta emakumeen instalazioen artean, gu bi modulu oso txikitan gauzkate; bestalde, gizonak askatasun handiagoa dute espetxeko instalazioak erabiltzeko (kiroldegia...). Guk, ordea, modulutik irteten garen bakoitzean kontrol asko igaro behar ditugu. (C37)

Emakumeekiko tratua guztiz diskriminatzailea da gizonei emandakoarekin alderatuta. Frankista eta bilakaerarik gabea. (C40).

Hemen, esparru askotan, genero-desberdintasunak daude. Emakumeak neskatoak bagina bezala tratatzen gaituzte, eta kontrolatu egiten gaituzte, gu babesten ari direlako aitzakiarekin. Hemen BARRUAN ere genero-berdintasunerako hezkuntza behar da. (C41)

Emakumeen espetxe guztietan, talde txikienak garelako aitzakiarekin, eskubideak murrizten zaizkigu gizonen aldean, gu babesteko aitzakiarekin. (C48)

Espetxeko baldintzei dagokienez:

Telefono-zerbitzuari dagokionez, 3 dei egin daitezke 5 euroren truke, eta pekulioko diruarekin. Legelaria ez da inoiz modulu honetan agertzen (ez dakit besteetan agertzen ote den). (C13)

Jazarpena eta mobbinga pairatu ditut sukaldean, XX arduradunaren aldetik. Hiru aldiz kexatu nintzaiei XXXri, sukaldariei, funtzionarioari, eta azkenean txandaz aldatu behar izan nuen. Emakumeek sexua trukatatu behar izaten dute droga eta tabakoa lortzeko. Badakite nor diren, baina ez dute geldiarazten. Psikologoak epaile-lanak egiten ditu. Berak eskatzen dizuna onartzen ez baduzu, botere handia du batzarrean, eta baimenik gabe uzten zaitu. Derrigortu eta mehatxatu egiten zaitu. (C18)

Janaria oso txarra da, emakumeok jardueretarako baino ezin gara moduluetatik irten; gizonak, berriz, irten daitezke eta, jardueretarako, baimena eman behar digute, zerrendan egonda ere. Tratu diskriminatzailea jasotzen dugu. Espetxeko egoera ezagutzeko ezinbestekoa da bertan bizitzea. (C25)

Janaria oso txarra da. Emakumeok ezin gara modulutik atera, lana, ikasketak eta/edo jarduerak direla medio ez bada. Gizonak, ordea, besterik gabe irten daitezke paseatzera. Alde horretatik, tratu diskriminatzailea oso handia da emakumea izateagatik, eta, gainera, akats batengatik zerrendatik kanpo gera zaitezke, nahiz eta alde zurretik izena emanda egon. Jarduera eta/edo ekitaldi soziokulturaletara irten gabe geratzen zara. (C28)

Dena den, hau desastre hutsa da. (C29)

Hasieran, asko sufritu nuen, leporatzen didaten delituagatik sartu nintzenean hil egin nahi ninduten, eta hori ni errugabea izanda. (C35)

Hainbat arlotako tratuari dagokionez:

Poliziak gaizki tratatu ninduen. (C01)

Bikotekidearengandik genero-indarkeria jasan dut espetxe barruan, inork ez zidan lagundu lekukoak izanda ere; azkenean, nik hitz egin behar izan nuen, eta bateraezintasun bat jarri. Espetxez aldatu zuten, eta senideengatik, salaketa kendu nuen. Nire senar ohia joan zen, eta sexu-abusua jasaten aritu naiz gizonetako den emakume baten aldetik. Hiru urte daramatza hormonatzen. Ukituak egiteko mehatxuak egiten dizkit, eta nire moduluan jarraitzen du, ezer gertatuko ez balitz bezala (pribilegiatua da), ez dut ezer ulertzen. (C08)

Funtzionarioek presoek egindako abusuak ikusi ditut, eta (funtzionarioak) presoek jipoiak ematen ere bai. (C22)

Emakumeok umeak bezala tratatzen gaituzte, tuntunak bagina bezala. Ez ditugu gizonen instalazio eta eskubide berberak, ez eta emakumeentzako kirol-jarduerak eta lana ere. (C24)

Alor guztietan infantilizatzen dira emakumeak. (C26)

Emakumezko presoek bizi dituzten beharrei dagokienez:

Arreta pertsonal handiagoa izan nahiko nuke. Bikotekidearekin bisean biseko gehiago izan, maizago, eta bikote izateagatik, ez bakarrik ezkontuta egoteagatik. (C05).

Nire seme-alabekin egoteko laguntza behar dut. Funtzionario batekin eztabaidatzeagatik nago modulu honetan, eta damututa nago benetan. Haren barkamena behar dut, lasai egon ahal izateko. (C11)

Azkenik, galdetegian adierazten dituzten pentsamendu eta sententzioak:

Kalean egon beharko genukeela familiarekin. (C14)

Gauza on asko espetxe honi buruz, oso ona da eta, nire egoaldia buruz, bizitza salbatu zidaten; hona etortzea, nire salbazioa izan da, hilda nongoen bestela. (C23)

Zer zentzu du espetxeratzeak? Kasu gehienetan, horixe da egiten den gauza bakarra. (C33)

Aspaldi, adineko gizon batek esan zidan espetxeak horma oso altuekin eraiki zituztela, ez guk ihes ez egiteko, baizik eta kanpotik ez dezaten ikusi barruan zer gertatzen zaigun: tratu txarrak, sexu-abusuak, infantilizazioa, irain sexistak... (C45)

14. **Espetxeetako langileen prestakuntza eta trebakuntza**

29. eta 35. arauak⁶³ espetxeetako langileei eta haien trebakuntzari buruzkoak dira, eta presoek tratamendurako gutxieneko arauen 46. eta 55. paragrafoen osagarri dira.

⁶³ 29. araua. «Emakumeentzako espetxeratze-zentroetako langileen trebakuntzak emakume presoek behar bereziei erantzuteko prestatu beharko ditu, nola haien gizarteratzeari begira, hala helburu hori betetzeko zerbitzu seguru eta egokiei eusteko moduan ere. Emakumezko langileentzako trebakuntza sortzeko neurrietan, kontuan hartu beharko da, halaber, aukera izan beharko dutela goragoko lanpostuetara iristeko, bai eta emakumezko presoek tratamendurako eta haien arretarako politikak eta estrategiak landuko dituzten erantzukizun nagusiko postuetara iristeko ere».

30. araua. «Espetxe-administrazioko goi-mailako instantziek konpromiso argia eta iraunkorra izan beharko dute emakumezko langileekiko genero-arrazoiengatik diskriminazioa prebenitzeko eta diskriminazio horrekin bukatzeko».

Presoen Tratamendurako Gutxieneko Arauek debekatu egiten dute gizonezko langileen parte-hartzea emakumezko presoen artan eta gainbegiraketan, aitortzen baita emakumeek arrisku berezia dutela sexu-abusua jasateko. Hala ere, aurreko Arauetan jasotakoa langile guztiei aplikatzekoa da. Hori garrantzitsua da lantalde profesionaletan nabarmentzea, talde horietan emakume presoekin harremanetan dauden gizonezko profesional eta funtzionarioak baldin badaude.

Funtzionarioen eta lantalde profesionalen prestakuntzari eta trebakuntzari dagokienez, bai Espetxeen Lege Orokorrak, bai Espetxeen Erregelamenduak —ELOren 80. artikulua eta EEn 109. eta 4. artikuluek— aipamen urria eta orokorra egiten diote alderdi horri.

Gure espetxe-legeriak ez du berariaz aipatzen emakume presoekin esku hartzeko trebakuntza berezia behar denik, haien behar espezifikoak eta giza eskubideak kontuan hartuta. Ez du jasotzen langileei generoari buruzko prestakuntza eman behar zaienik, ezta diskriminazioa eta sexu-jazarpena ezabatu behar denik ere, eta ez du berariaz aipatzen osasun mentala, ezta emakume presoek beren buruari lesioak egiteko eta suizidiorako arriskua ere. Ez da ezer aipatzen, osasunari, lehen sorospenei, GIBari edo espetxeetan bizi diren haurren arretari buruz.

31. araua. «Espetxeetako langileen jokabideari buruzko politika eta erregelamendu argiak egin eta aplikatu beharko dira, emakumezko presoek ahalik eta babes handiena emateko genero-arrazoiek eragindako indarkeria fisiko edo hitzeko mota ororen aurrean, bai eta abusuen eta sexu-jazarpenen aurrean ere».

32. araua. «Espetxeetako emakumezko langileek gizonezko lankideen trebakuntza bera izan beharko dute, eta emakumeentzako espetxeetako administrazioaz arduratzen diren funtzionario guztiek genero-gaiak eta sexu-diskriminazioa eta sexu-jazarpena ezabatzeko beharrari buruzko trebakuntza jasoko dute».

33. araua. «1. Emakumezko presoen beharrian espezifikoak eta haien giza eskubideei buruzko trebakuntza jasoko dute haietaz arduratuko diren langileek. 2. Emakumeentzako espetxeratze-zentroetako langileei oinarritzko trebakuntza emango zaie emakumeen osasunari buruzko gai nagusiei buruz, bai eta lehen sorospenei eta oinarritzko prozedura medikoei buruz ere. 3. Haurrak amekin kartzelan egon badaitezke, espetxeko langileak ere sentibilizatzeko dira haurren garapen-premien inguruan, eta haurren osasunaren arretari buruzko oinarritzko ezagutzak emango zaizkie, behar bezala erreakzionatu ahal izateko larrialdietan eta horretarako beharra dagoenean».

34. araua. «Espetxeetako langileen prestakuntza-curriculumak GIBari buruzko trebakuntza-programak hartuko ditu barnean. GIB/HIESa prebenitzeaz eta tratatzeaz gain, eta pazienteei arreta eta laguntza emateaz gain, ikasketa-plan horren parte izango dira genero-gaiak eta giza eskubideei buruzkoak, bereziki lotura eginez GIBarekin eta horrek eragiten dituen estigmatizazio sozialarekin eta diskriminazioarekin.»

35. araua. «Espetxeetako langileak trebatuko dira presoen artean osasun mentaleko arretaren beharrak eta nork bere buruari lesioak eragiteko eta suizidiorako arriskua detektatzeko, bai eta laguntza eta babesa emateko eta kasu horiek espezialistei bideratzeko ere».

Dena den, 10/2022 Lege Organikoak, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoak⁶⁴, 30. artikuluan ezartzen du nahitaezkoa dela genero-ikuspegia kontuan hartuko duen prestakuntza barnean hartzea espetxe-eremuan, bai hasierako prestakuntzan, bai etengabekoan, bai espetxeetan lan egiten dutenen sustapenean eta trebakuntza profesionalean.

Era berean, ez da ezer esaten emakumezko langileak ez baztertzeari buruz prestakuntzarako sarbidean, ez eta goragoko lanpostu edo erantzukizun nagusiko postuetarako sarbidean ere.

Egindako elkarrizketetan ikusi dugunez, langileak, nola talde profesionaletakoak (psikologoak, gizarte-langileak, hezitzaileak, etab.), hala zaintzako edo barneko langileen artekoak, batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren (multzo handiagoa talde profesionaletan), eta gainerakoak beste autonomia-erkidego batzuetan. Gehienak urte asko zaramatzaten espetxe-sisteman, Espainiako estatuko beste espetxe batzuetan egonak ziren eta, une horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan zeuden, hala eskatu zutelako edo ohiko bizilekutik hurbil zeudelako.

Zaintzako edo barneko talde zaharrenak bi gai aipatzen zituen informalki. Lehen a egoera oso gatazkatsuetan indarraren erabilerari buruzkoa zen.

Erdiko korridorean nago, bi funtzionario hurbildu zaizkit, eta nirekin berriketan hasi dira. Bazekiten emakumeen diskriminazioari buruzko ikerketa baterako datuak biltzera etorrira nengoela. Haiek esandakoa entzun, eta harrituta utzi naute. Oso kezkatuta omen daude funtzionarioen kolektiboan gero eta emakume gehiago ari direla sartzen, horietako asko gazteak, eta eskolan %40 emakumeak omen dira. Pentsatzen dute urte gutxi barru emakumeek baino lan-karga handiagoa izango dutela, eta hori diskriminatzailea dela, eskala bateratuta dagoelako. Uste dute emakumeak ez direla gai presoak azpiratzeko gatazka larrietan haiek bereizi behar izanez gero, ez baitute horretarako indarrik izango. Esandakoa entzun diet, baina ez diet iruzkinik egin. (Euskadiko espetxeetako behaketen egunkaria, ikerketaren zuzendaria, 2023ko otsaila-martxoa)

Gertakari horren ondorioz, profesional gehiagori eta zaintzako funtzionarioei galdetu zitzairen, eta gero elkarrizketak egin zitzaizkien. Zaintzako edo barneko funtzionario zaharrenek, haiekin informalki hitz egitean, berriz mahaigaineratzen zuten gaia zeharka.

⁶⁴ 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa (BOE, 215. zk., 2022ko irailaren 7koa).

«Zuk lehoia otzandu nahi baduzu, hor sartu behar duzu. Baina, ez baduzu sartu nahi, nola otzanduko duzu? Ez da nahikoa esatea, tira, tira, tira, tira. Lehenago edo geroago buruz aurrera joan behar duzu harekin, ez duzu beste aukerarik. Ez gara torturatzaileak, ez gara biolentoak, ez zaigu gustatzen, baina, batzuetan, ez duzu beste aukerarik». Funtzionarioa

Zaintzako edo barneko funtzionario guztiek ez zuten iritzi bera, eta pentsamendu horren arrazoa da denbora gehiago daramatenek egoera gatazkatsuak bizi izan zituztela, gaur egun hain ohikoak ez direnak eta, batez ere, oso errotuta dauden balio matxistak eta sexistak dituztela, informatzaile batzuek adierazi ziguten bezala.

«Barneko funtzionarioen kolektiboaren barruan, bada joera bat nik negatibista esaten diodana, baina hori espetxe guztietan gertatzen da». Hezitzailea

«Bai, baina baita emakumezko funtzionarioekin ere. Orain lan-poltsatik etorri zaizkigun neska gazte berri horiek, neskatila batzuk, nire alaben adinekoak, 25, 24, 22 urtekoak; ba, funtzionarioak hor dabil-tza, aztertzen bezala, eta nik esaten diet: «baina, ikus dezagun...», eta funtzionario batek: «neskatila hau, bai polita». Edo praktikak egi-tera etorri diren emakumezko funtzionarioekin, lerdea dariela ikusten dituzu, eta esaten dut: «Tira, mesedez, lanean gaude...». Horrelako portaerak». Informatzailea.

«Bai, mundu hau oso maskulinoa eta oso korporatibista da». Informatzaileak

«Oso matxismo estalia da». Funtzionarioa

Bestalde, lantalde profesional teknikoak osatzen dituztenek, oro har, ez dute horrela pentsatzen, are gehiago, uste dute emakumeek harremanak egiteko beste modu bat dutela, gatazka gutxiago sor ditzakeena.

«Lurrean iraulka ibiltzen direla (funtzionarioei buruz ari da, preso bat azpiratu behar dutenean), eta badirudiela kaleko borroka batean gaudela, ez dutelako prestakuntzarik preso bat azpiratzeko edo esku-burdinak jartzeko, eta azkenean funtzionario bat izendatu beharko dela gaitasun faltagatik edo beste gabezia batzuegatik. Orduan, nik esaten dut, emakume asko barruan, gatazkak asko jaisten direlako. Egia da generoaren kontu hori guztia asko landu behar dela, ulertu behar baitute emakumezko funtzionarioa autoritate bat dela eta errespetatu egin behar dutela. Hori asko landu behar da. Baina, aldi berean, uste dut hori orain gertatzen dela gizonezko asko eta ema-

kume gutxi dagoelako. Funtzionario guztiak emakumeak balira, ziur asko, arazo hori konponduta egongo litzateke. Hemen nabaritzen dut emakumezko funtzionarioak barruan daudenean, gatazka gutxiago dagoela, eta hori da errealitatea. Baina gizonezko funtzionarioen rola hartzen dituzten emakume asko ere badago». Psikologoa

Lantalde profesional teknikoetako langile gehienek eta elkarrizketatutako zaintzako edo barneko emakumezko funtzionario gehienek adierazi dute beharrezkoa dela genero-ikuspegia kontuan hartzen duen prestakuntza; ez dute hala ikusten zaintzako edo barneko gizonezko funtzionarioek, lehen azaldu dugun bezala.

Elkarrizketatzailea: «Zure ustez, behar al da genero- eta berdintasun-gaiei buruzko prestakuntza?

Psikologoa: *Nahitaezkoa izan beharko luke. Baina, begira, arris-
kuen prebentzioei buruzkoa, nahitaezkoa da, eta izugarri kostatzen
da egitea, eta kontuan hartu haien osotasun fisikoaren mesederako
dela. Ba, imajinatu hau: «kontu horiek beste bati». Baina, tira, ezin-
bestekoa izan beharko litzateke».*

Egindako elkarrizketetatik ondorioztatzen da ez dagoela prestakun-
tza-planik eta ez dela errazten langileen ekimenez prestakuntza-ikasta-
roak egitea.

«Ez gaituzte ezertan trebatzen, baina bokazioa dugunez, jarraitzen
dugu interesa izaten geure burua prestatzen jarraitzeko. Duela gu-
txi, toxikomano gazte eta nerabeen tratamenduari buruzko jardunaldi
batzuk izan dira, eta halako gazte pila bat ditugu. Ba, pentsatu nuen:
«tira, ba, nire borondatez emango dut izena, nahi dudalako, nire
denbora erabiliz, bi goiz eta arratsalde bat, eta gero paperak aurkez-
tuko ditut, ea lan egin ditudan goiz horiek...», ez dut eskatzen egu-
nak emateko, baina jardunaldietara joan naizen goiz horiek behintzat,
prestatzera joan naiz eta, hemen inork ez baitigu ematen horren ingu-
ruko prestakuntzarik... Ba, ezetz erantzun digute, prestatu nahi ba-
dugu, gure denbora eta dirua erabil ditzagula». Psikologoa

«Egia da, Idazkaritza Nagusian, antolatzen dituzte ikastaro ba-
tzuk... edo nahiko ikastaro... beno, aspaldi ez dituzte atera, COVIDa
dela eta. Baina, normalean, hainbat ikastaro antolatzen dituzte, baina
zer gertatzen da ikastaro horiekin? Ikastaro horiek sindikatuiei ema-
ten dizkiete, eta sindikatuak aukeratzen dute nori eta nola eman. Or-
duan, askotan, sarbidea ez da behar bezain garbia. Gero, ikastaro ho-
riek tituluen bilduma bihurtu dira, lehiaketetarako puntuak lortzeko». Hezitzailea

«Ez, guk ez dugu prestakuntzarik. Funtzionario gisa sartzen zara, ikasi behar zenuena ikasi duzula suposatzen da, eta gainerakoa, ba, lanean lortzen duzun esperientzia». Funtzionarioa

Beste sektore askotan bezala, lantalde profesional teknikoaren eta zaintzako edo barneko funtzionarioen kolektiboen artean, batzuek espetxeetan lan egiteko hautua egin dute; hau da, bokazioz ari dira beren lana egiten. Beste batzuek, ordea, ogibidetzat dute enplegu hori. Bi profilen arteko aldea gainerako lankideek eta askatasunaz gabetutako emakumeek berek nabari zuten.

Aipatutako bigarren alderdi garrantzitsua da nola komunikatzen den askatasunaz gabetutako emakumeen baldintzei eta egoerei buruko informazioa zaintzako edo barneko funtzionarioen eta lantalde profesional teknikoen artean.

«Zentzu horretan, informazioa transmititu egin behar da. Informazioa harremanaren lehen lerroan dagoen funtzionarioari jakinarazteko sistema bat behar da hor. Hori argi dago eta horretan arrazoi duzu (kolektiboen komunikazioari buruzko berariazko galdera), eta asko hobetu behar da. Eta, alderantziz, haiek ere informazioa helarazi behar dute. Eta, gero, funtzionarioaren lankidetzat dago, hau da, tratamenduan esku hartzea. Horrek ere asko hobetu behar du, eta, horretarako, lantalde teknikoetan integratu behar dute». Informatzailea.

«Nik uste dut komunikazio gehiago egon beharko litzatekeela. Baina, nire ustez, gertatzen dena da, eta hau ideia bat baino ez da, neure iritzia pertsonala, harrokeria pixka bat dago hor, ni zu baino gehiago naiz, halako zerbait. Mundu guztia ez da horrela, baina badago halako ideia bat... izan ere, orain, garai batean ez bezala, emakumeen modulu hau errespetuzkoa baita. Garai batean, astean bilera bat egiten zen. Emakumezko funtzionarioa joaten zen, eta dena delakoa azaltzen zuen, baina orain ez da hori egiten». Funtzionarioa

Ez zirudien komunikazio eta koordinazio naturalik zegoenik, eta horiek profesional teknikoen kolektiboak zaintzako edo barneko funtzionario bakoitzarekin egiten dituen harremanen arabera garatzen dira. Baina komunikazio hori lagungarria eta oso garrantzitsua izan liteke askatasunaz gabetutako emakumeentzat; izan ere, esku hartzen duten pertsona guztiek ez dute haiei eta haien laguntzarako, babeserako eta esku hartzeko beharrei buruzko informazio guztia.

«Noski, baina badakizu zer gertatzen den, guk, funtzionario garen aldetik, alde bateko informazioa dugu, eta tratamenduko teknikariek,

beste bat. Ni erabakiak hartzen dituzten taldeko bileretara joan izan naiz... ea, guk ez genuen botorik, baina ahotsa bai, iritzia ematen uzten zizuten, beno, hirugarren gradua emango ote zioten, beste hura emango ote zioten... orduan, zuk esaten duzu, baina nola emango diozu hirugarren gradua emakume horri, oso gaizki portatzen da eta! Orduan, langilea etorri, eta esaten dizu, tira, jakina, baina emakume honek hiru seme-alaba ditu kalean eta ez dakit zer gehiago, ama gaixorik du eta etxea kentzen badiote, eta halakoak. Ez duzu haren errealitatea ezagutzen. Eta nik pentsatzen dut, ba, bai, egia da». Funtzionarioa

«Emakumeekin duzun harremanaren arabera, ba, jakina... Baina tira, lantalde profesionalen eta funtzionarioen taldeen arteko komunikazioa badago behintzat, eta oso ona da, informazio-jario hori oso baliagarria izan daitekeelako emakumeentzat». Funtzionarioa

Batzuetan, lantalde profesional teknikoen eta zaintzako edo barneko funtzionarioen arteko komunikazioa informala da. Baina, era berean, lantalde profesional teknikoen barruan komunikazio eta koordinazio urria dagoela ere adierazi ziguten, konfidentzialtasunean babestuta. Batez ere osasun mentaleko talde medikoekin sortzen zen arazoa, ez baitzuten informazioa gainerako profesional teknikoekin partekatzen, ezta osasun mentalekoa ez zen osasun-langileekin ere.

«Ez, ez dugu eskura osasunari dagokion informazio guztia. Ez, ez dugu hura lortzeko modurik. Medikuek baino gehiago, nire ustez, ulertzen baitut agian garrantzitsua dela, oso faktore garrantzitsua izan daitekeelako harentzat estres psikologikoari dagokionean, dena delakoa, behintzat osasun mentalaren historialari dagokionez. Ba, ez, guk ere ezin dugu eskuratu. Gure aldetik, espetze-tratamenduko kolektiboaren aldetik, ahaleginak egin dira, hemen Osakidetza kudeatzen baitu Osasun Mentala, jakingo duzunez. Osasun Mentala Osakidetza sartuta dago. Baina ez, ez zaigu inolako informaziorik ematen, salbu eta espresuki eskatzen baduzu, eta, hala ere, ez dizute kasu guztietan ematen, ulertzen baitute...» Psikologoa

«Konfidentzialtasunaren gaia, kalean agian ados... baina hau kartzela da, eta hemen dena nahasten da... Izan ere, haiek (psikiatreek) ez dizkiote tratamenduko taldeari gernuko toxikoen emaitza positiboak eman nahi. Hemengo tratamenduko taldea Torquemadaren inkisizioa izango balitz, ulertuko nuke, baina ez da hala. Baina denok jakin behar dugu, elkarrekin egiten dugu lan. Izan ere, kontsumitzen ari den pertsona bati orain baimen bat etetea hari mesede egitea da». Medikua.

«Talde berria etorri denean, koordinaziorik ez dela egon nabaritu dugu. Lehen, bazen emakumeekin lan egiten zuen doktore bat,

hemen urte asko zeramatzana, eta harreman handia nuen harekin, osasun-arazoren bat zenean. Ba, orain, aldaketa handia nabaritu dut talde berria sartu denean. Komunikazio hori falta da. Ni saiatu naiz hurbilketaren bat egiten, eta izan da pixka bat... aizu, gai medikoak ez dira ukitzen. Konfidentzialtasunaren gaia, ba, bai, oso gai zaila da, nik ez dakit medikuei, oro har, presio handia egiten dieten datuen babesaren kontu horrekin, eta oso orokortuta dago jarrera defentsiboa, batzuetan kosta egiten da kasuak partekatzea, eta, azken batean, hau talde-lana da». Gizarte-langilea

Komunikazio eta koordinazio urri horrek emakumeekiko esku-hartzeari eragiten dio, diziplina anitzeko eta taldeko lanik ez egoteaz gain, eta interesgarria litzateke sakonago aztertzea, hobetzeko.

Azkenik, lan-testuinguruetan gertatzen den beste alderdi garrantzitsu bat da lantalde profesional teknikoetako edo zaintzako edo barneko funtzionarioen kolektiboko langile batek tratatu gabeko osasun mentaleko edo alkoholismoko arazo bat badu. Egoera horiek, berriro diogu, lan-munduan gertatzen dira, eta garrantzitsuenak da enpresek eta erakundeek nola egiten dioten aurre egoera horri. Espetxe-sistemaren kasuan, zuzenean eragiten dio askatasunaz gabetutako emakumeen tratamenduari. Galdetu dugunean, esan digute berriki ez dela halako kasurik izan, baina iraganean izan zituztela.

«Iraganean, hemen, espetxe honetan, izan ditugu halakoak, eta ez zen beharrezkoa inork guri kontatzea, guk ikusi egiten genuelako. Batzuetan, kontatzen dizute «ba, halako hura, mozkor-mozkor eginda etorri da, edo garitan ikusten ditugu edaten»; izan ere, gauza bat da... -gaizki, hala ere, ni ez naiz hemen edaten hasiko, baina, tira-, baten bat herrian izan dela, eta gazta pixka bat eta ardo botila bat ekarri dituela... Mediku bat ere izan genuen. Kontua ez da inor botatzea, laguntzea baizik. Hemen arazo psikiatrikoak zituen mediku bat izan genuen. Ni ez nengoen une horretan, baina ulertzen dut arduradunarentzat katuari joarea ezartzea zela...» Informatzailea

Prebentzio-neurri gisa, espetxeetako bateko kafetegian mugatu eta debekatu⁶⁵ egin da alkoholaren eskuragarritasuna, baina, hasieran, neurri hori ez zuten ondo hartu. Espetxeko langileei egindako elkarriketetan jasotako informazioen arabera, ez zegoen jarduera-protokolorik osasun mentaleko arazoren bat edo substantzia psikoaktiboekiko mendekotasuna duten langileekin esku hartzeko eta haiei laguntzeko.

⁶⁵ Espetxeko kafetegian, bazkaritarako bakarrik eros daitezke edari hartituak, eta debekatuta dago edari destilatuak saltzea eta kontsumitzea.

Azkenik, adierazi behar da azterlan honetan lagundu zuten espe-
txeetako langile guztiek profesionaltasun eta bokazio handia eraku-
tsi zutela emakumeekin egiten zuten lanean. Zituzten zailtasunen eta
galdu nahi ez zituzten lorpenen berri eman ziguten. Beste alderdi ga-
rrantzitsu bat, jarraian aztertuko duguna, gizonen eta emakumeen ar-
tean hautemandako aldeak izan ziren; ikusiko denez, ez zegoen ados-
tasunik, eta prestakuntzan jorratu litezke.

14.1. *Askatasunaz gabetutako gizonen eta emakumeen artean hautemandako aldeak*

Hautemandako alde asko zehaztasun handiagoz edo txikiagoz ai-
patu dira dagoeneko eta, beraz, ez errepikatzen saiatuko gara.

Alde handiak ikusten ziren emakumeen ezaugarrietan, gizonekin
alderatuz gero, ez bakarrik egindako delituari dagokionez, baita espe-
txeko jokabideari zegokionez ere.

*«Gizonekin alderatuz gero, **delituak egiteko beste modu bat**
dute: emakumeek bikotekideei haien delituetan laguntzeko egiten di-
tuzte delituak, edo modu puntual batean, koitunturalki, bizitzako une
jakin horretako kanpoko baldintzek bultzatuta. Gizonek, gehienetan,
delitua beren bizibide egiten dute. Hori dela eta, errazagoa da ema-
kume batek berriz ez egitea.»* Psikologoa

*«Gizonek ikaskuntza-prozesuetan gabeziak, toxikomania-arazoak
eta abar badituzte, emakumeen artean ikus daiteke **faktore horiek
nabarmenagoak** direla zehazteko... muturrekoagoak dira». Infor-
matzailea*

*«Emakumeei dagokienez, oro har, bada nukleo gogor bat, txi-
kia, oso emakume problematikoz osatua, bere burua kontrolatzeko
arazoak dituzte, drogak, gaixotasun mentala... Baina, gehienek **as-
koz ere gehiago laguntzen diote elkarri**, gizonak baino harre-
man normalagoa dute. Gizonak gehiago ibiltzen dira elkar neurtzen,
lehia handiagoa dago haien artean, eta asko zaintzen dute prestigioa
testuinguru horretan. Modulu tradizionaletan, behintzat. Errespetu-
moduluek asko aldatu dute haien egoera, eta **emakumeekiko ha-
rremana askoz konplexuagoa da, biziagoa**, eta, horregatik, asko-
tan problematikoagoa, baina nik ez ditut emakumeei buruzko topiko
horiek antzematen». Informatzailea*

Profesionalek ziotenaren arabera, emakumeekin lan handiagoa egin
behar izaten zuten, denbora gehiago eskaintzen zieten, esku-hartze

handiagoa, bai eta arreta handiagoa ere, gizonekin alderatuz gero. Al-derdi hori ohikoa zen elkarrizketa guztietan.

«Ados, badago **oso astuna** den bat. Egia da, agian, modulura jaitsi, eta esango dizutela: «ai, XX jauna, ez didazu kasurik egiten, ez dakit zer eta badakit zer». Bai, ados, eta oso gogaikarria da. Batzuetan, amorragarria da eta, batzuentzat, halakoak oso deserosoak dira. Baina hori gatazka bat da, benetan? Gatazka arazo bat da, eta arazoa modulu osoa kikilduta duen preso bat da eta hori bai ez dela izango astuna zurekin. **Bai, egia da gehiago eskatzen dutela, mugak gainditzten dituztela, eta lotsagabeagoak direla, argi eta garbi.** Ni, duela urte batzuk, hor nenbilen eta XXrekin gurutzatu nintzen. Niri begira jarri, eta esan zidan: «Ai XX jauna, zenbat loditu, zahartu eta zatartu zaren!». Informatzailea.

«Gizonekin lan egitea eta emakumeekin lan egitea oso bestelakoa da. Egunerokoan, **askoz zailagoa da emakumeekin lan egitea gizonekin baino**, eta hori hala da, azkenean, guk motxila bete-bete eginda daukagulako, eta arreta handiagoa eta maitasun handiagoa behar ditugulako». Informatzailea

«Gizonekin alderatuta dagoen emakume proportzio txikia kontuan hartuta, **askoz gehiago eskatzen dute gure aldetik.** Nik uste dut, kartzelan oso emakume gutxi dagoela, baina han daudenak **oso-oso hondatuta daude, bizitzak ez ditu batere ondo tratatu**, ez eta gizarteak ere. Orduan, ba, jakina, dituzten ezaugarriak direla eta, askoz gehiago behar dute, patologiak ere izaten dituzte, patologia psikiatrikoak, eta, azkenean, horrela hitz eginez gero... **oso astunak dira**». Medikua

«Ba, emakumeek **askoz gehiago eskatzen dute.** Baina laguntza jasotzeko **gizonezkoek baino askoz premia handiagoa** dutelako dela deritzot. Gizonek, hemen barruan daudenean, kanpoko babes osoa dute. Oso zaila da, eta sentitzen dut esatea, gero eta **zailagoa da kanpoan batere babesik ez duen gizonezko bat aurkitzea**, familiako laguntza esan nahi dut; izan ere, erakundeen laguntzari dagokionez, bakoitzak bilatzen duena dauka. Emakume asko sartzen dira inolako babesik gabe, zeukaten hori ere galtzen dute abandonatu egiten dituztelako, kalean zuten bikotekideak baztertu egiten ditu, nola edo hala tratatzen zaituen familia, ez dakit zenbat hilean behin zu ikustera etortzen da, baina, emakumeen kasuan, **oso ohikoa da, espetxean sartzean, familia-inguruneak abandonatzea, kasu askotan**». Psikologoa

«Eta, noski, batzuetan, ikusten badute zu prest zaudela, **ilaran jartzen dira eta horrek psikologo baten kontsulta dirudi.** Txis-

tea dirudi, «bere kontuak kontatzeko» eta, batez ere, emakumeak. Nik aldeia ikusten dut, emakumeek askoz arreta gehiago eskatzen dutela gizonek baino. Gizonak agresiboagoak dira, edo inpultsiboagoak; emakumeak ez, baina asko gustatzen zaie hitz egitea. Eta jaramon egiten dien funtzionario bat ikusten badute, bizitza osoa kontatzen dizute». Funtzionarioa

Arretaren eskaria are handiagoa zen beharrezko arreta psikologikoa —taldekoa eta banakakoa— jasotzen ez zutenean; izan ere, emakume gehienek esku-hartze hori behar dutela esango genuke eta, hain zuzen ere, zaintzako edo barneko emakumezko funtzionarioek eta gizonezko funtzionario batzuek haiei entzuteko eta orientabidea emateko lan hori egiten zuten larritasun handia zuten emakume askorekin.

Emakume izateagatik jasaten dituzten zenbait diskriminazio egiaztatu dira, hala nola espetxeetako zerbitzu juridikoek⁶⁶ artatzen dituzten azkenak izatea edo beste espetxe batzuetara lekualdatzea, gizonezkoen ibilbideak asterokoak baitira, eta emakumezkoenak, berriz, bi hilekoak edo hiru hilekoak.

«Hemen espetxera doan espetxeratuena lege-aholkularitzako txanda bat dago, Madrilen ere badago, ez du berdin-berdin funtzionatzen, leku bakoitzean da desberdina, eta ez du berdin funtzionatzen, baina, tira... Eta batzuetan, hara joatean, ba emakumeak beti ateratzen dituzte azkenak. Noski, azkenak jaisten dira. Orduan, askotan, adibidez, demagun... zerbitzua, normalean, 5:00etatik 7:00etara edo 5:00etatik 7:30era ematen da. Orduan, adibidez, gizonezko asko badaude aurretik, ba, azkenean, ez dituzte ateratzen. Izan ere, niri ere gertatu izan zait inoiz, interfonotik funtzionarioei deitu eta esan behar izatea: «aizu, gizonekin amaitu dut, jaitsiko dituzue emakumeak?». «A ez, ez, oso berandu da, eta afaltzera joan behar dute». Abokatua

«Esaten ari nintzen, preso batek parteak edo txostenak baditu eta behin-behinean badute lehen gradura jaitsi arte, lehen graduan sailkatzen dute, eta hilabete edo bi egon daiteke sarreretan». Funtzionarioa

⁶⁶ Alde horretatik, kontuan hartu behar da Arartekoaren R-13-23-O Ebazpena, 2023ko urriaren 17koa, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen diona malgutzeko eta homogeneizatzeko presoak eragile juridikoei komunikatzeko irizpideak eta hobetzeko Euskadiko hiru espetxeetan komunikazio horiek egiteko erabiltzen diren gelen baldintzak; gomendio hori partzialki onartu du Euskadiko Espetxe Administrazioak.

Profesional batzuek adierazitako beste alderdi bat izan zen seme-alaben zaintzaren estereotipo femeninoak indartu egiten zirela. Seme-alaben egoeraren eta jarraipenaren gaineko zama handiena amengan dago eta ez aitengan, batez ere bi gurasoak espetxean daudenean.

*«Horixe esan behar nizun, **haurrek aita ere badute**. Baina egia da emakumeekin egindako lanean, hori dela alde handia, aldundiarekin duzun harremana; izan ere, horregatik, azkenean, kanpoaldearekiko harreman horrekin, gizarte-zerbitzuekin, **emakumeekin lan egiten baduzu, harreman handia duzu aldundiarekin, eta gizonekin lan egiten baduzu, ez hainbeste**. Hori horrela da. Egia da haurrek aita ere badutela, baina... haurren gaia lantzean, askoz lan gehiago egiten da emakumeekin gizonekin baino». Gizarte-langilea.*

*«82. artikulua zioenez, **familia-kargak zituzten emakumeei hirugarren gradua lortzen lagundu behar zitzairen** eta hori ez da egin behar kasu guztietan. Hori ez da emakumeen kontu bat. Orduan, niri arauetan hori agertzea ez zait gustatzen; **ez zait gustatzen, gizonei eta emakumei eragiten dien zerbait izan beharko lukeelako**. Eta hemen, hain zuzen, saiatu gara kargak zituzten gizonei ere laguntzen». Gizarte-langilea.*

Nahiz eta profesional tekniko horrek zer esan nahi duen ulertu eta 82. artikulua diskriminatzailea badirudi ere, hirugarren graduan sailkatutako emakumei laguntzeko sortu zen; izan ere, garai batean, emakumeek lanik ez bazuten, ez zitzairen gradu hori ematen, eta gizonei bai. Ikusi zuten emakume asko etxekoandreak zirela, eta haien lan nagusia etxea edo familia zaintzea zela eta, beraz, lan hori ere kontuan hartzeko, diskriminazio positibo hori egin zen, aitortuta ez zuten zaintzaile-rol hori zela eta.

Emakumeek aipatutako alderdietako bat ekonomatuak eskaintzen zizkien produktuak izan ziren, horiek ere genero-rolen araberakoak. Oro har, ez zituzten behar zituzten produktu asko, emakume kopurua gizonena baino txikiagoa zelako, baina gizonezko batzuk ere jasan zezaketen diskriminazio hori.

«Desodoranteak, adibidez, denboraldi batean gizonenak baino ez zeuden, baina emakumeen ekonomatuan emakumeen desodoranteak daude, eta gizonen ekonomatuan, gizonenak. Noizbait, mutilen batek, nire lagunen batek, ilean metxak egin nahi izan ditu, eta emakumeenera bidali nau tindua erostera». E1

Emakumeek gizonekiko ikusten duten desberdintasunetako bat barne-destinoetan ikusten zuten diskriminazioa zen, hala nola sukaldean edo espetxearen garbiketan.

«Sukaldariak, gizonak; emakumeok egon beharko genuke, erretituak oso zikinak etortzen baitira. Moduluetan, gu baino hobeto daude, jarduera gehiago dituzte. Kiroldegia dute, gimnasiora joan daitezke. Guri ordu erdi uzten digute, eta haiei ordu eta erdi. Astean behin. Haiek bi egunetan ateratzen dira». E14

«**Sukaldea debekatuta daukagu**, bere garaian zerbait gertatu omen zen-eta, baina hori aspaldi izan zen. Sukaldeko buruetako batek jakin zuen ostalaritzan eta sukaldaritzan lan egina naizela, eta proba bat egitera joango ote nintzen galdetu zidan. Ez diote utzi». E15

«Ez dut ulertzen zergatik **garbitu behar ditugun guk neska-mutilen eskolak**. Izan ere, gaur, adibidez, bi neska hartu dituzte lanerako, eta sukaldea garbitu behar dute, eta hor gizonak eta emakumeek egiten dute lan. **Eremu komunetan mutilek ez dute garbiketa egiten**. Mintzalekua kontratatuta datozen kanpoko neska batzuek garbitzen dute. Bisean bisekoak ere ez ditugu guk garbitzen, ez dakit mutilek egingo ote duten edo kanpoko garbiketa-zerbitzuren batek». E18

«Hain zuzen ere, **bisean bisekoak lehen emakume batek garbitzen zituen beti**, orain gizonak dabilta garbitzen, badakit, beti... Bai noski, **garbiagoak gara**, baina ez gene hori dugulako». Funtzionarioa

«Garbiketa-postuetan uste dut mantentze-lanetarako talde bat dagoela, baina ez dago emakumerik. Baina bitxia da errespetu-modulu batean garbitu egin behar duzulako. Orduan, garbiketaren kontua egin beharreko zerbait da. Guretzat betebeharra da garbitzea. Ba, larunbatetan garbiketa orokorra egiten da. Kontrolatuta gaude moduluaren garbiketa orokorra egiteko, mahaia garbitu behar ditugu jan ondoren. Gizonen jangelan, mahai horiek lanbasekin garbitzen dira, mahaia garbitzeko baino erabiltzen ez diren lanbasekin, hori diote. **Mahaia ez dira lanbasekin garbitzen, baina inork ez die ezer esaten. Inork ez ditu gainbegiratzeko**; hemen bai, oso kontrolatuta gaude». E17

Elkarriketatutako profesionalek uste dute emakumeek hobeto garbitzen dutela eta, beraz, destino horiek lehentasunezkoak direla haienztzat. Aldiz, gizonak garbiketa okerrago egiten zutenez, garbiketa egoia behar zuten destinoak emakumeentzat ziren.

«Bisita bat dagoen guztietan, norbaiti lagundu behar badiot, beti daramat emakumeen sailera, lasaiagoa delako. Eta, gainera, ez dakit, **lasaitasun eta garbitasun handiagoa** arnasten da». Gizarte-langilea.

Elkarrizketatutako pertsona askok matxismoa eta sexismoa agerian jartzen zuten alderdi askotan, baina, oro har, zaintzako edo barneko emakumezko funtzionarioekiko errespetuan eta tratuan.

«Ez da gauza bera. Nik nahiko nuke gauza bera izatea, baina ez da gauza bera. Jende honi asko kostatzen zaio. Latinoak ere badaude, eta matxistak dira; **espainiarrak berez direnak baino matxistagoak dira horiek, eta asko kostatzen zaie onartzea emakume batek zer egin behar duten esatea** edo aginduak ematea. Funtzionario askok ez dute emakumeen zerbitzua egin nahi, **emakumeak ere oso aluak direlako**. Badakite zer arma dituzten, eta, orduan, batzuek, lagun gisa jokatzeko dute presoekin, baina beste batzuek ez dute nahi, eta ondo markatzen dute distantzia, ez direlako fio, une jakin batean arazoak izan ditzakezulako. Zu goizean kontaketa egitera zatotz. Ba, agian, kulerotan edo kulerorik gabe harrrapatuko duzu preso. Orduan, ez da gauza bera, hau da, niri iruditzen zait kanpoko jendeak oso erraz ikusten duela dena, baina hori ez da hain erraza. Horrek azkenean arazo asko sortzen ditu.» Funtzionarioa

«Pixka bat sentsibilizatzea, hara doan emakumearentzat egoera hori zer den ohart daitezen... Duela gutxi, azkena etorri diren funtzionario berrietako bat etorri, eta **titietara begira geratu zitzaidan, eta esaten diot:» zer arraiori begiratzen diozu?». Noski, berak ez zekien ni nor nintzen, eta zerbitzuburu batek esan zion: «joder, errespetu pixka bat, psikologoa da eta», eta nik: «eta hala ez banintz ere bai!», zer ikusi behar du ni psikologoa izateak, sartu eta niri titietara begiratzeko? Baina, baina, zer da hau?» Psikologoa.**

«Ni ziur nago espetxean zenbat eta emakume gehiago egon, orduan eta gatazka gutxiago egongo direla, **gizonek ez dituzten beste tresna batzuk ditugulako**. Nik ikusi izan ditut hemen funtzionarioen jokabide batzuk, eta esaten duzu «Jainko maittea, testosterona alua». Gatazkek behera egingo dute, emakumeek ez baitute... Hau da, hemen liskarrak ikusi ditut, oilarren arteko borrorak, ea nor den harroagoa, preso ala funtzionarioa. Hori ez da ikusten emakumeen artean. Orduan, nik uste dut gatazkak gutxitu egingo direla, ez baitut esaten funtzionarioek gatazkak sortzen dituztenik, e? Baina funtzionarioaren erantzunak askotan egoera gehiago berotzen du, hura lasaitu beharrean. **Funtzionario batzuk supiztailak dira, zuzenean joaten dira iskanbila dagoen tokira, eta jada eskularruak jantzita eramaten dituzte. Eta pentsatzen duzu: «Ez baduzu preso hain modu agresiboan zuzentzen...»** Eta hori gizonezko funtzionarioek egiten dute batez ere, oso arraroa da emakumezko funtzionarioengan. Baina tira, beste estrategia batzuk ditugu. Orduan, ni eskala bateratuaren alde nago, badakidalako gero eta ema-

kume gehiago egongo direla, noski. Hamar urte barru, funtzionarioen %80 emakumezkoak izango dira. Preso gatazkatsuak izango dira, jakina, eta argi dago bi presoren arteko borrokak izango direla, ba, agian... ikusi izan ditut hemen emakumezko funtzionarioak tartean sartzen, eta gizonezko bat baino mila aldiz gehiago errespetatzen dute». Informatzailea.

Lortutako emaitzen ondorio gisa, zaintzako edo barneko funtzionarioen parte batek kezkaz ikusten zuen funtzionarioen eskala bateratua, eta zaintzako edo barneko gizonezko funtzionario batzuek uste zuten emakumezkoek baino lan-karga handiagoa izango zutela⁶⁷; beste sektore batek, berriz, uste zuen profesionaltasunak eta estrategia eta tresna desberdinek gizonen eta emakumeen arteko harremanak normaltzea ekarriko zutela, gizartean eta beste lan-eremu batzuetan gertatzen den bezala.

15. Oztopoak edo egiteke dauden gaiak

Berriro aipatu behar dugu azalpenean zehar kontuan hartu beharko liratekeen hainbat oztopo planteatu direla. Aipatu ez direnak edo oso garrantzitsuak direnak adieraziko ditugu.

Elkarrizketatutako espetxeko langileek espetxearekin berarekin lotutako alderdiak aipatu zituzten, hala nola, askatasunaz gabetutako pertsonak egokiago babestea, profesionalen arteko koordinazio hobearren beharra, espetxeko espazio guztietan emakumeen presentzia normalizatzea eta psikologiako profesional gehiago, dagoeneko aipatu dugun bezala.

«Babestu egin behar da, grabazio-sistemak hedatu behar dira, barneko informatzaileak ere babestu behar dira; izan ere, sistemaren barruan, badaude zerbait gertatzen ari dela dakiten pertsonak, baina salatzekeo beldur dira, korporatibismoa egon daitekeelakoan...» Informatzailea

«Profesionalok ere dugun beharra, ez bakarrik prestatzeko, baita babesa jasotzeko ere; izan ere, batzuetan, sentitzen gara pixka bat... koordinatzeko beharra dugula». Psikologoa

⁶⁷ Azken promozioetan, zaintzako edo barneko emakumezko funtzionario gehiagok gaintu zuten gizonezkoek baino, eta gizonezko funtzionarioek kezka agertzen zuten lan-funtzioekiko desoreka horren inguruan. Hortik dator iruzkin hori.

«Oraindik **gehiago normalizatu behar da emakumeak espetxean espazioak okupatzea** eta ez uztea modulu batean. Eta oraindik apur bat kostatzen da batzuetan... baina jarduera hau elkarrekin, gizon eta emakume». Hezitzailea

«**Psikologo gehiago behar dira, oro har, espetxean**; izan ere, era guztietako nahasmenduak dituzten pertsona asko daude, maila pertsonalean eta maila terapeutikoan lan egiteko premia handia dutenak, bizitzan bizipen traumatikoak izan dituen jendea, eta alderdi horiek benetan lantzeko beharra dutenak.» Gizarte-langilea

Elkarriketatutako espetxeko langileek adierazitako beste alderdi batzuk emakumeekin berekin zuten lotura. Haien narriaduraren kronikotasunak eta haien bizi-ibilbideetan aukerarik ez izateak are zailagoak egiten zituen esku-hartzeak. Hain zuzen ere, zenbait profesionali dilema eragiten zien, alde batetik, haien protagonismoa eta zenbait baliabide ez eskuratzeko nahia errespetatzeak, eta bestetik, emakumeekin denbora gehiago inbertitzeak eta hezkuntza- eta jolas-partaidetzan motibatzeak estrategia eta jarduera berrietan berrikuntzak egiteak.

«**Eta gero nik daukadan gauza bat da, nire gatazka pertsonala, emakume batzuek profesionalki ez garatzea aukeratzen dutela. Eta hori nola errespetatzen dugu?** Ze, jakina, gizarteratzearen ikuspegitik, dena dago bideratuta lan-munduan txertatzera, eta helburua beti da lana bilatu dezala, bizimodua bilatu dezala. Eta erdikidegotik ere, DSBEarekin eta diru-sarrerak bermatzeko errentekin lan egiten denean, mundu guztiak bideratzen du lan-munduan txertatzera, eta beno, lehenik eta behin pertsona batzuek hori ez egitea aukeratzen dute. Eta, gero, pertsona batzuk ezin dira lan-munduan txertatu. Hori ere onartu behar dugu. Nik buruan ditut 12 urterekin eskola utzi duten emakume ijitoak, 15 urterekin seme-alabak izaten hasi, zazpi seme-alaba izan, eta gainera, eskatzen diegu prestatzeko, eta ez dakit zer arlotako profesionalak izateko. Ba, agian, eskatu ezin diren gauzak eskatzen ari gara». Gizarte-langilea.

«**Ba, batzuetan jarrera da, eta ez duzu zeure burua zauden prozesu horren barruan sartuta ikusi nahi.** Batzuetan, parte handi bat jarrera da; beste batzuetan, zure bizitzako ohitura, eta oso zaila dela ikasitakoa desikastea. Oso-oso zaila. Orduan, 40-50 urteko emakume batekin zaudenean, eta pentsatzen duzu, zer irakatsi behar diot nik honi orain». Informatzailea

«**Nire ustez, profesional guztien eta sistemaren beraren inplikazio handiagoa behar dute emakumeek, beharrezko motibazioa lor dezaten** eskura dituzten aukera guztietan parte hartzeko. Izan

ere, gauza asko daude, baina oso zaila da haientzat edozertan mantentzea, asko kostatzen zaie, espetxez kanpoko gauza askok eragiten diete, gizonen ez bezala, eta horren ondorioz, ez dira gai egonkortasunez jarraitzeko egiten dituzten jarduerak». Psikologoak

Azkenik, hauek dira emakumeek erantzun zizkiguten kontu batzuk:

*«Adibidez, Urtezaharrean eta Gabon-gauean, **pixka bat beran-duagora arte utz diezagutela**. Ni abenduaren 29an sartu nintzen, eta pentsatzen nuen, 31n, Urtezaharrean, mahatsa elkarrekin jaten utziko zigutela; ba, ez, arratsaldeko 7etan ematen dizute mahatsa, edozein egunetan bezala». E1*

«Kexa bat jar dezakezu, baina ez dizute jaramon handirik egiten». E13

«Gizonen eta emakumeen arteko harremana oso estereotipatua dute, eta denok maitasuna behar dugula konturatu behar dute. Esaten dute bikotekiderik ez dutenek ikus ez dezaten dela, baina horrek du zentzurik. Beldurrez hitz egiten duzu zure bikotekidearekin, hatzetik helduta joateko beldur zara. Maitasuna behar dugu, giza hurbiltasuna. Espetxekideak ez dira gauza bera. Kontrol bera jasaten dute modulan neskez osatutako bikoteek». E15

*«Lanerako orduan gehiago kontuan har gaitzatela. Emakumeok ez gaude garbitzeko bakarrik. Aurrekoan oso iruzkin sexista bat izan zen: nire lagunari esan zioten emakumeen bila zebiltzala komunikazioak garbitzeko. Espetxekide bat eskultorea da, denetik egiten dugu, eta egiten ez duguna, ikasi egiten dugu. **Eman diezazkigutela ikastaroak, eta ikasiko dugu**. Dela entxufe bat jartzen edo beste edozer». E15*

Aurreko kontakizunetan adierazi ziguten ezartzen zizkieten ordutegiak hobetu behar zirela, batez ere ohiz kanpoko jarduera eta uneetan, beren kexak entzun eta onartu egin behar zituztela, iruditzen baitzitzairen ez zituztela ez irakurtzen ez kontuan hartzen, sexu- eta genero-estereotipoak desagertu egin behar zirela, eta lanerako eta prestakuntzarako aukera gehiago behar zituztela.

16. Mantendu beharreko lorpenak

Lorpenei buruz galdetu genuenean, ia elkarriketaren amaiera zenez, ikusi genuen gehienei kosta egiten zitzaieiela zerbait esatea eta za-

lantza egiten zutela, baina elkarrizketetan zehar denborarekin hobetu ziren alderdi asko aipatu zituzten. Beste sektore batek argi zuen zer lorpen izan ziren mugarriak. Hona hemen ekarpen batzuk:

«Behar duten medikazioa jasotzen dute, eta jaso behar dute-nean, bake soziala dago». Informatzailea

*«Eta gero gainera, noski, horri esker osasun mentaleko taldea etorri zaigu. Beraz, orain, **bi psikiatra ditugu lanaldi osoan**. Gero, psikosi errefraktarioan espezialista den psikiatra bat etortzen da paziente larrientzat eta gero, zerbitziburua asteen bitan etortzen da, eta hura arduratzen da emakumeez». Medikua*

*«Nire sententzia da hemen, **Euskadin, erakundeei dagokienez, gizarte-babesari, askoz gehiago dagoela**, Madrilén baino askoz gehiago, adibidez». Hezitzailea*

«Gizonen eta emakumeen arteko bizikidetzat gauza askotan normalizatu izanak, jarduera asko mistoak izanik parte hartzeak... nik uste dut lortu nahi dugun normalizazio horretarako joera dagoela». Gizarte-langilea

«Eskumuturrekoen gaia asko arindu da. Ez du Madrilera joan behar, Eusko Jaurlaritzara baino ez». E20

Askatasunaz gabetutako pertsonen behar zituzten botikak emateari eta botika horiek behatuta hartzeari esker, hobetu egin ziren espetxeetako preso osasun-baldintzak, eta lantalde medikoarekiko harremana ere aldatu zen. Espetxeratuak arreta emateko psikiatra gehiago jartzea garrantzitsua izan zen, nahiz eta inoiz ez diren nahikoa izango.

Aipatutako beste alderdi batzuk honako hauek izan ziren: jardueretan lantzen ari ziren normalizazioa; destinoak eta hezkuntza modu mistoan lantzea lorpen garrantzitsua izaten ari da eta, batez ere, gutzintzat onuragarria; emakumeen artean hirugarren gradua sustatzea, emakume gehienek hura lortzeko aukera izan zezaten, eta Euskadik askatasunaz gabetutako azken fase honetan kartzelatik ateratzeko dituen babes-sare zabala eta erakunde komunitarioak; eta Euskal Autonomia Erkidegoak baztertutako kolektiboak arreta emateko duen baliabide komunitarioen sare zabala.

17. Azterlanak, gardentasuna eta etorkizuneko ildoak

Bangkokeko arauetan azkenak 67.etik 70.era artekoak dira, eta arau horien ardatzak honako hauek dira: delituen eta emakumeen es-

petxeratzearen inguruko azterlanak, horien ezaugarriak eta esku-hartze onera bideratutako programak, bai eta ikerketen zabalkundea eta argitalpena ere⁶⁸. Ildo horretan, aipatu behar dugu Euskadin alde zuzen egindako eta euskal erakundeek, hala nola EMAKUNDEk, finantzatutako edo babestutako azterlanak aurkitu ditugula. Lan hori egiteak berak jarrera ona erakusten du. Gainera, espetxe-sistemako profesionalek interesa erakutsi zuten urte askoan eguneroko lanean ikusten zutena eta arreta handiagoz aztertu behar zena berresteko.

«Egia da ikerketa asko falta zaigula informazioa izateko. Nire sentazioa da emakumeen artean berrerortze gutxiago dagoela. Eta ibilbide errealistagoak egin daitezke, eta askoz gehiago lagundu ibilbide horietan, laguntza handia behar baita; izan ere, ingurune irekian ere pertsona batzuek oso krisi gogorrrak dituzte, hemen nolabait babestu-

68. 67. araua. «Ahalegina egingo da emaitzetara bideratutako ikerketa sakonak antolatzeke eta sustatzeko, honako hauei buruz: emakumeek egindako delituak, emakumeak zigor-arloko justizia-sistemarekin gatazkan sartzea bultzatzen dituzten arrazoiak, bigarren mailako kriminalizazioaren eta espetxeratzearen eragina emakumeengan, eta delitugileen ezaugarriak. Halaber, emakumeengan berrerortzea murriztera bideratutako programak antolatuko eta sustatuko dira, delitugileen gizarteratze-beharrak asetzera bideratutako politikak formulatzeko, horien plangintza eraginkorra egiteko eta horri lotutako hainbat programa lantzeko».

68. araua. «Ahalegina egingo da hainbat ikerketa antolatzeke eta sustatzeko ama zigor-arloko justizia-sistemarekin gatazkan duten hurrei buruz, batez ere amaren espetxeratzeak eragindako hurrei buruz, eta espetxeratzeak hurrengan duen ondorioei buruz. Hori lagungarria izango da politikak formulatzeko eta programak lantzeko, kontuan hartuta haurren interes gorenak».

69. araua. «Ahalegina egingo da emakumeen jokabide kriminalarekin zerikusia duten joerak, arazoak eta faktoreak eta delitugileen eta haien seme-alaben gizarteratze-beharrei zer-nolako eraginkortasunarekin erantzuten zaizen aztertzeko, ebaluatzeke eta aldiari-aldiari horren berri emateko. Hala, emakumeek zigor-arloko justizia-sistemarekin dituzten gatazken ondorioz haur horiek jasaten dituzten estigmatizazioa eta ondorio negatiboak murriztu ahal izango dira».

70. araua. «1. Komunikabideei eta publikoari jakinaraziko zaie emakumeek zergatik izan dezaketen gatazka zigor-arloko justizia-sistemarekin, eta horren aurrean erreakzionatzeko modurik eraginkorrenak zein diren. Hala, emakumeen gizarteratzea ahalbidetuko da, haien seme-alaben interes gorenak kontuan hartuta».

2. Ikerketak eta jardunbide egokien adibideak argitaratzea eta zabaltzea delitugileei eta haien seme-alabei buruzko zigor-arloko justiziako neurrien emaitzak eta ekitatea hobetzera bideratutako politiken parte izango dira.

3. Hedabideek, publikoak eta delitugileei buruzko gaiez arduratzen diren profesionalek aldiari-aldiari jasoko dute arau hauetan bildutako gaiak eta horien aplikazioari buruzko informazio zehatza.

4. Arau hauei eta ikerketen ondorioei buruzko trebakuntza-programak egin eta gauzatuko dira, dagokien zigor-arloko justiziako funtzionarioentzat, haietan jasotako xedapenei buruz sentsibilizatzeke».

tako sistema batean baitaude, eta ingurune irekira igarotzean errealtate gordinera itzultzen dira». Gizarte-langilea

«Zenbait emakume lan-munduan txertatzearen kontu hori, uste dut berriz hausnartu behar dugula, eta gizonei dagokienez ere berdin, badaude-eta gizonezko batzuk ezin direnak lan-munduan txertatu. Badago nolabaiteko obsesio bat lan-munduan txertatzeko... Ba, baliteke gizarteratzea, oro har, ez lortzea lan-munduan txertatuz; beste bide batzuk egon daitezke, eta hori ere aztertu behar dugu. Gizarte-langilea

Espetxe-sistemako zein hirugarren sektoreko profesionalentzat interesgarriak diren alderdiak ikertzea etorkizunerako erronka izan daiteke. Era berean, Euskadiko espetxe-biztanleriari buruzko datuak Estatuko Espetxeetako Idazkaritza Nagusiaren webgunean daude, ikertzaileek kontsultatzeko moduan. Hala ere, espetxeratuen zenbait aldagai zabaltea (bereziki espetxeko barne-dinamikan parte hartzeari buruzkoa) eta aldagai guztiak sexuaren, generoaren, etnizitatearen eta nazionalitatearen arabera bereiztea (horiek dira nagusiak), Bangkokeko Arauekin oso bat datozen baldintzak izango lirateke, aukera emango bailukete gainerako biztanleak gehiago sensibilizatzeko eta azterketa zehatzagoak eta sakonagoak egiteko.

Azkenik, txosten honen hasieran planteatu genuen bezala, azterlan honen emaitzek Euskadin espetxe-eskumenak hartu zirenean zegoen egoera erakusten dute. Baliteke txosten hau ixteko unean hemen aipatutako alderdi asko aldatu izana. Interesgarria litzateke bost urte barru txosten honetan hobetu daitezkeen eta etorkizuneko erronka gisa planteatzen diren gai askotan lortutako aurrerapenak berrikusi ahal izatea. Euskal espetxe-eredua aplikatzen ari da eta horrek emakumeen baldintzak hobetuko ditu Euskadiko espetxeetan.

Ondorioak

Ikerketaren emaitzekin hasteko, emakumezko funtzionario batek espetxea erakutsi zigunean esandako esaldi bat aipatuko dugu, hau da, emakumeak gizonetzkoen espetxe batean zeudela eta, beraz, horretara egokitu behar zirela, emakumeak gizonak baino askoz gutxiago baitziren. Egoera horrek dena baldintzatzen du. Aurreko azterlanetatik jasozten genuen espetxe-sistema androzentrikoa eta emakumeekiko diskriminatzailea zela, eta kalifikatzaile horrek bere horretan dirau oraindik, azken hiru urteetan aurrerapen batzuk gertatu badira ere.

I. Euskadin askatasunaz gabetutako emakumeei buruz

Euskadiko emakumezko espetxeratuen artean, bi egoera bereizgarri ikusten dira emakumeen artean. Alde batetik, sektore batek zigor handiak ditu, baina pertsona aldetik, familiaren eta hezkuntzaren aldetik, laguntza eta babes handia du. Beste emakume talde batek oso baldintza sozioekonomiko prekarioak ditu, eta pobrezia eta segurtasunik eta babes sozialik eza nagusi diren testuinguruetatik datoz. Lantalde profesional teknikoak esku hartzeko ahalegin handiak bideratu behar izaten ditu azken talde horretara, mota orotako gabezia ugari baitituzte, eta gabezia horiek ezin izaten ditu familiak edo hurbileko kanpoko gizarte-sareak ase; besteak beste, horrelakorik izaten ez dutelako.

Gabezia mota desberdinak dituzten emakumeen bi kolektibo nabarmendu behar dira: ijito etniako emakumeak eta emakume atzerritarrak. Lehenengoek familia-sarearen laguntza dute eta bigarrenak, berriz, ez dute familia-sarerik, haien senideak jatorrizko herrialdeetan baitaude. Hala ere, atzerriko emakumeek eskaintzen zaizkien jarduera, eskola edo tailer guztietan parte hartzen duten bitartean, ijito etniako emakume gehienek ez dute parte hartzen, bikotekideek baldintzatzen dituztelako.

Espetxean sartzen diren emakume asko egoera sozial eta pertsonal oso konplexu eta gogorrekin sartzen dira: bikotekidearen tratu txarrak, substantzia psikoaktiboekiko mendekotasuna, tratamendu psikiatrikoa, arazo ekonomiko larriak eta osasun mentaleko arazoak. Baina erdiek, gutxi gorabehera, sartu aurretik lan egonkorra zutela esan ziguten.

II. Sarrera, destinoa eta espetxeko eremuak

Espetxeratzean, profesionalek (medikuak, psikologoak eta gizarte-langileak, batez ere) emakumea artatu eta baloratu egiten dute, eta zehazten dute hasierako uneetan barneko langileren baten laguntza behar ote duen, dela suizidioa prebenitzeko protokoloa¹ ezartzen delako, dela lehen espetxeratzea delako eta hura gainditzen laguntzeko.

Galdekatutako emakumeen erdia baino gehiago lehen aldiz espetxeratuta zeuden. Espetxeratze horrek larritasun eta antsietate handia eragiten die, eta, agian, esku-hartze espezializaturen bat behar izan dezakete.

Emakumeek, bi espetxeetan, espetxeko espazio txikiagoak eta baldintza okerragoak dituzte gizonetzkoekin alderatuta; bereziki kaskarra da Martuteneko modulua, txikia izateaz gain, isolatuta baitago, eta ez du erizaindegirako lekurik.

Gainera, emakumeek ez dute espazio komunetan mugitzeko askatasunik, une oro kontrolatuta daude eta baten batek lagunduta ibili behar dute. Bestalde, senideentzat ez da erraza Zaballara joatea, Gas-teitzik urrun dagoelako, eta familiek autorik ez badute, oso zaila da bertara iristea.

Bestalde, Martuteneko espetxea ixten ez den bitartean, megafonia-sistema berrikustea komeni da.

III. Espetxe-erregimena²

Azken urteotan handitu egin da emakumeentzako jardueren eskaintza, gehienak aldizkakoak. Halaber, ahaleginak egin dira ordaindutako destinoen eskaintzak eta tailer profesionalak bultzatzeko.

¹ Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzaren 1/2023 Instrukzioak ezartzen du Euskadiko espetxeetan suizidioak prebenitzeko programa.

² Epigrafe honetan jasotzen dira gure legedian espetxe-tratamendua osatzen duten berretzeko eta gizarteratzeko jarduerak, tailerrak eta programak.

Emakumeen %60k inkesta egiteko unean lanen bat dutela adierazi dute. Hala ere, oraindik gutxi dira emakumeak, batez ere lan-irteera handiagoa duten produkzio- eta prestakuntza-tailerretan.

Emakumeei eskainitako jarduera- eta prestakuntza-eskaintza asko ez ziren motibagarriak, ez baitira kontuan hartu haien interesak eta premiak.

Aurreko azterketetan bezala, nabarmentzekoa da gehiegizko babes ematen zaiela emakumeei, eta infantilizatu egiten direla. Hain zuzen ere, jasotako tratuari buruz emakumeek egindako balorazioak ez du nahiko bat ere lortu, 10 puntutik 4,5 eman baitizkiote.

IV. Haurdunak, bular-emaileak eta amak

Askatasunaz gabetutako emakume haurdunei, bular-emailei eta amei dagokienez, egindako azterlanetik eta emakume presoen eta profesionalen adierazpenetatik ondorioztatzen da espetxean dauden ia emakume haurdun eta ama guztiek erabakitzen dutela beren haurtxoak haiekin ez geratzea eta kanpora ateratzea eta, hala, hirugarrenen zaintzapean geratzen dira. Amek beren semearen edo alabaren bizitzako lehen asteetan hartu behar duten erabaki horrek amaren eta seme-alaben arteko lotura goizegi etetea dakar eta, gerora, zaila izan daiteke hori berreskuratzea.

Eskumenak Estatu zentraletik Euskal Autonomia Erkidegora transferitu ondoren, egoera hobetu egin da, eta ama-unitate bat dute erabilgarri, nahiz eta azterlan honen ondorioak idazteko unean unitate hori ez den erabili.

V. Zehapenak

Emakumeen pertzepzioa da gizonek baino zehapen gehiago jasotzen dituztela, eta gizonei onartzen zaizkien zenbait portaera beraiei ez zaizkiela onartzen. Gizonekiko aldea ez dago zehapen kopuruari lotuta, baizik eta zehapen horien edukiari. Diziplinako zehapenak eta parteak portaera-sorta zabal bati erantzunez ezartzen dira, batzuetan arbitrariorak diren irizpideen arabera, bai eta zaintzako edo barneko funtzionarioaren arabera ere. Inkestatutako emakumezko presoen ia erdiek adierazi dute arazoren bat dutela funtzionarioekin, baina gatazken %70 askatasunaz gabetutakoen artekoak dira.

VI. Osasuna, ongizatea eta osasun-arreta

Emakumeek osasun fisikorako eta osasun mentalerako arreta dute Osakidetza profesionalekin. Hala ere, bizi dituzten egoera batzuetan

rako psikoterapia-beharrak ez dira erabat asetzen, hala nola bikotekidearen indarkeria edo tratu txarrak, mendekotasunen tratamendua genero-ikuspegia kontuan hartuta, edo seme-alabengandik urrun egoteagatik eta haien zaintza eta arreta beste pertsona edo erakunde batzuen esku uzteagatik sentitzen duten erruak eta lotsak eragindako ondoezak.

Adierazi dutenez, kanpo-kontsultetan, Ertzaintzak laguntzen ditueanean, ez da arreta medikoan dagokien intimitatea errespetatzen.

Bestalde, Martutenen ez dute erizaindegirik eta, beraz, ezin dute beren gaitzari egokitutako arreta jaso. Gainera, beharrezko osasun-arreta jaso ahal izateko oztopo arkitektonikoak daudela adierazten dute. Egoera horrek larritasuna eta isolamendu-egoerak sortzen ditu emakumeengan eta, ondorioz, haien sufrimendua areagotzen da.

Psikofarmakoen kontsumoa handia da, egunean ia lau pilula kontsumitzen baitituzte batez beste. Galdetutakoen ia erdiak hartzen du osasun mentalarekin lotutako medikazioaren bat. Medikazioa osasun-langileek behatuta hartzen dute, eta neurri hori ezarri zenetik medikazioaren kontsumoa murriztu egin da, baina oraindik ere altua da.

Espetxeetan ezarritako mendekotasunetan esku hartzeko programei dagokienez, estandarrak dira, eta ez dituzte kontuan hartzen espetxeratutako emakumeak itxialdi-ingurunean daudela, ez eta haien kultura-eta genero-bereizketa edo aurreko biktimizazioa ere.

Azkenik, azpimarratu behar da espetxe-osasunaren arloan Osakidetza dituela eskumenak, eta onenetakoa dela Estatu osoan.

VII. **Tratua eta tratu txarrak**

Emakume batzuek tratu txar psikologikoak eta ahozko tratu txarrak adierazi dituzte, batez ere, langileen aldetik. Batzuetan, okerragoa iruditzen zaie emakumezko langileen tratua gizonezko langileena baino. Kasu horietan, berriz ere, emakume eta profesional bakoitzaren nortasunak zehazten du egoera horiei nola aurre egin eta nola saiatu egoera horiek zuzentzen edo eramaten.

Berariaz adierazten ez bada ere, inkestetatik eta elkarrizketetatik ondorioztatzen da emakumeek ez dutela informazio argirik eta espezifikorik jasotzen espetxe-sistemako langileengandik jasotako gehiegikeriazko jokabide horiek salatze edo espetxe-sistemari jakinarazteko dituzten bideei buruz. Era berean, salbuespenak salbuespen, ez dirudi Espetxe Administrazioaren aldetik jarduketara argirik dagoenik langileengandik edo emakume presoengandik egoera horien berri izaten dutenean.

Emakume presoek edozein motatako abusuak jasateko arrisku handiagoa dute espetxeetan, besteak beste, sexu-abusuak jasateko.

Gaur egun, oraindik ere, zaintzako edo barneko zenbait funtzionarioik eta talde profesionalak gehiegikeriaz tratatzen dituzte emakume presoak.

Bai emakume presoek, bai espetxeetako langileek onartu dute abusu horiek gertatzen direla, bai sistemako langileen aldetik, bai presoek aldetik. Nahiz eta errealitate hori salbuespenezkotzat jo, harekin batera datoz emakumeek salatzen dituzten zailtasunak, errepresalien beldur direlako, sinetsiko ez dituztelakoan, ezertarako balio ez duela pentsatzeagatik, etab. Langileen jarduera, ia beti, norbanakoaren nortasunaren arabera da, eta horrek zehaztuko du nola esku hartu. Hala ere, atzemandako kasuetan, espetxeak irmo jokatu zuen, eta horretarako prozedura egokiak egin zituen.

VIII. Familia-harremanak eta -bisitak

Seme-alaben eta senideen bisitak ez dira nahikoa familiaren babesa dutenentzat, azken sei hilabeteetan seme-alaben 7 bisita izan baitituzte, batez beste. %25ek ez dute kanpoko babesik, eta, beraz, ez dute bisitarik jasotzen.

Emakumeek diskriminatuta daudela uste dute, bisitak gizonek baino maiztasun txikiagoarekin jasotzen baitituzte, bai mintzalekuetan, bai bisean bisekoetan (intimoak, senideenak eta elkarbizitzakoak).

Emakumeek seme-alabei egin diezazkieketen deiak ez dira nahikoa, eta garestiegiak dira. Deien gehiegizko prezioak herrialdetik kanpo bizi diren seme-alabak eta senideak dituzten emakume atzeritarrei eragiten die bereziki, haiekin harremanetan jartzeko modu bakarra telefonoa baitute. Seme-alabak dira emakumeen motibazio eta larritasun nagusia, eta, beraz, haiekin harreman gutxi izateak eragin negatiboa du emakumeen gogo-aldartean eta osasunean.

Hala ere, profesionalak, ahal duten neurrian, erraztu egiten dute seme-alabekiko eta senideekiko harremana.

IX. Espetxeetako langileen prestakuntza eta trebakuntza

Elkarriketetan nabarmendu den alderdietako bat da espetxeko langileentzako prestakuntzaren beharra, bai zaintzako funtzionarioentzat, bai profesional teknikoentzat.

Prestakuntza horrek, emakumeekin lan egiteko beharrezkoak diren alderdiak ez ezik, generoari eta genero-ikuspegia kontuan hartzen duten jardueri buruzko prestakuntza ere hartu beharko du barnean, ja-

rrera eta portaera sexistak, giza eskubideak eta torturaren, tratu txarren eta tratu anker eta apalesgarrien prebentzioa desagerrarazteko.

Era berean, berrikusi egin behar da presoekiko berdintasun-per-
tzezio faltsua eta, beraz, ez dela ezer egin behar, eta gizonak eta
emakumeak modu berean kaltetuak direlako ikuspegia. Bestalde, pro-
fesionalen arteko koordinazioa eta komunikazioa beharrezkoak dira
diskriminazioari aurre egiteko eta askatasunaz gabetutako emakumeek
jaso behar duten arretaren kalitatea hobetzeko.

X. Ordezko neurriak³

Erregimen arruntaren ordezkotako neurriei dagokienez, hirugarren gra-
duaren aplikazioan aurrerapauso garrantzitsua eman da azken lau ur-
teetan, lantalde teknikoak egokitzen dituen proposamen guztiak
bultzatzen eta kudeatzen baitira.

Espetxe-politikaren aldeko apustu argia sumatzen da, askatasunaz
gabetutako emakumeengan hirugarren gradua araua izan dadin eta ez
salbuespena.

Bestalde, erkidegoko laguntza-baliabideek neurri hori gauzatzeko
aukera ematen dute, eta oso sare garrantzitsua osatzen dute Euskal
Autonomia Erkidegoan, mantendu eta indartu beharrekoa.

XI. Askatasunaz gabetutako emakumeen balorazioak

Emakumeek negatiboki baloratutako alderdien artean, badira ba-
tzuk berrikusi beharrekoak, nahikoa ere jaso ez dutenak; besteak beste,
honako hauek nabarmentzen dira: beste espetxe batzuetara egindako
lekualdaketak, modulu mistoak, Ser Mujer programa, enplegurako
prestakuntza, garapen pertsonalerako tailerrak, baimenak, destinoak,
errespetuzko moduluak, jarduera okupazionalak eta hezkuntza-jarduerak.

Berriro diogu, honako hau Eusko Jaurlaritzak espetxe-eskumenak
bere gain hartu zituen hasierako unearen argazkia da, eta hemen aur-
kezten dira euskal espetxeetako emakumezko presoek eta profesiona-
lek partekatutako informaziotik ateratako proposamenak, azterlan ho-
netako lantaldeak landu dituenak.

³ Ordezko neurriak aipatzean, betetzeko erregimen arruntaren ordezkotako neurriei bu-
ruz ari gara, ez espetxe-zigorren ordezkotako neurriez, horiek, nolanahi ere, zigor-arloko
jurisdikzioaren mende baitaude (eteteak, ordezkapenak, etab.).

Erreferentzia bibliografikoak

- Bericat Alastuey, E. (1998): *La integración de los métodos cuantitativo y cualitativo en la investigación social: significado y medida*. Bartzelona: Ariel.
- Arostegui, E., Fernández A., García del Moral, N., y Urbano, A. (2008): *Prisión y género. Efectos del encarcelamiento en mujeres y hombres presos y en su entorno familiar*. Bilbo: Asociación Zubiko.
- de Miguel Calvo, E. (2014): «El encierro carcelario. Impacto en las mentes y los cuerpos de las mujeres presas», *Cuadernos de Trabajo Social*, n.º 27(2), pp. 394-405 https://doi.org/10.5209/rev_CUTS.2014.v27.n2.43821
- de Miguel Calvo, E. (2015): «Mujeres usuarias de drogas en prisión», *Praxis Sociológica*, n.º 19, pp. 141-159.
- de Miguel Calvo, E. (2015): *Relaciones amorosas de las mujeres encarceladas*. Bilbao: Universidad del País Vasco.
- de Miguel Calvo, E. (2016). «Mujeres, consumo de drogas y encarcelamiento. Una aproximación interseccional», *Política y Sociedad*, n.º 53(2), pp. 529-549. https://doi.org/10.5209/rev_POSO.2016.v53.n2.47421
- Manzanos Bilbao, C. (2003): *Situación de las mujeres en las cárceles del País Vasco*, Bilbo: Gobierno Vasco.
- Romo, N. (2010): «La mirada de género en el abordaje de los usos y abusos de drogas», *Revista Española de Drogodependencias*, n.º 35(3), pp. 269-272.
- Ruiz Torrado, M. (2017): *Kartzela Género – erakunde bezala*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea
- UNODC. (2011): *REGLAS DE BANGKOK. Reglas de las Naciones Unidas para el tratamiento de las reclusas y medidas no privativas de la libertad para las mujeres delincuentes y sus Comentarios*. chrome-extension://efaidnbmn-nibpcajpcglclefindmkaj/https://www.unodc.org/documents/justice-and-prison-reform/Bangkok_Rules_ESP_24032015.pdf
- Villacampa, C., & Torres, N. (2012): «Mujeres víctimas de trata en prisión en España», *Revista de Derecho Penal y Criminología*, 3. Aroa, n.º 8, pp.411-494.
- Zuil Navarro M y Villarreal, A. (2024): *La mitad que sangra: cómo y por qué hemos ignorado históricamente la menstruación*. Madril: Libros del K.O.

Eranskina

Askatasunaz gabetuta dauden emakumeentzako galdetegia

Askatasunaz gabetuta dauden emakumeen egoera *aztertzen ari gara*. Parte har ezazu gurekin, galdetegi hau betez. Anonimoa da: ez dugu inor identifikatuko, eta datu pertsonalik gabe aztertuko dugu.

1. Sexua:

1. Emakumea
2. Transa
3. Intersexuala

2. Jaiotza-urtea**3. Jaioterria:**

1. Espainia
2. Besta bat, zehaztu

4. Administrazio-egoera erregularrean zaude?

1. Bai
2. Ez

5. Kanporatzeko agindua daukazu?

1. Bai
2. Ez

6. Espetxeratu aurretik, zer probintzian bizizinen?**7. Espetxeratu aurretik bizi zinen probintzian ari zara zigorra betetzen?**

1. Bai
2. Ez

8. Nazionalitatea**9. Espetxean daramazun denbora urte hilabete****10. Noiztik zaude espetxean?****11. Zer egoeratan zaude orain?**

1. Prebentibo nago
2. 1. graduan nago
3. 2. gradua betetzen ari naiz
4. 3. gradua betetzen ari naiz
5. Bestelakoak, zehaztu

12. Zer nolako moduluan zaude?

1. Errespetu-modulua
2. Modulu mistoa
3. Ohiko modulua
4. Erizaintza
5. Araubide itxiko modulua

13. Espetxean zauden lehen aldia da?

1. Ez, zenbat aldiz
2. Bai

14. Baduzu desgaitasun intelektualik?

1. Bai 2. Ez

15. Aitortuta daukazu?

1. Bai 2. Ez

16. Badaukazu pekuliorik espetxean, zure beharrak ordaintzeko?

1. Bai 2. Ez

17. Zenbateko pekulioa daukazu astean? €

18. Nork sartzen du dirua zure pekulio-kontura? (hainbat erantzun)

1. Gurasoek
2. Bikotekideak
3. Seme-alabek
4. Lagunek
5. Bestelakoek

19. Espetxeratu aurretik, egoera hauetakoren bat jasan zenuen?

	Bai	Ez
1. Leporatu didaten delitua egiteko presionatu ninduten	1	2
2. Bikotekideak tratu txarrak ematen zizkidan	1	2
3. Sexu-abusua jasan nuen	1	2
4. Prostituzioan aritzera behartu ninduten	1	2
5. Drogen/alkoholaren mende nengoen	1	2
6. Klean bizi nintzen	1	2
7. Desgaitasun fisikoa	1	2
8. Desgaitasun psikikoa	1	2
9. Osasun mentaleko arazoak	1	2
10. Ondoez psikologikoak	1	2
11. Medikazio psikiatrikoarekin tratamenduan	1	2
12. Arazo ekonomiko larriak	1	2
13. Besteren bat, zein		

20. Espetxeko profesionalek egoera hauetakoren batengatik artatu zaituzte?

	Bai	Ez
1. Bikotekidearen tratu txarreatatik	1	2
2. Jasan nituen sexu-abusuengatik	1	2
3. Drogekiko mendekotasunagatik	1	2
4. Nire desgaitasunagatik	1	2
5. Antsietateagatik, depresioagatik...	1	2
6. Seme-alabekin arazoak edukitzeagatik	1	2
7. Bikotekidearekin arazoak edukitzeagatik	1	2
8. Beste barneratu batzuen jazarpenagatik	1	2
9. Osasun-arazoengatik	1	2
10. Funtzionarioekin arazoak edukitzeagatik	1	2
11. Bestelakoak, zehaztu		

21. Honako profesional hauek azken sei hilabeteetan artatu zaituzte?

	Bai	Ez	Zenbat aldiz
1. Psikologoak	1	2	
2. Medikuak	1	2	
3. Erizainak	1	2	
4. Juristak	1	2	
5. Gizarte-langileak	1	2	
6. Gizarte-hezitzaileak	1	2	

22. Azken 12 hilabeteetan ginekologoak ikusi zaitu?

1. Bai 2. Ez

23. Baloratu 0tik 10era espetxean ematen dizuten tratu orokorra.

Oso txarra 0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 Oso ona

24. Bisitak izaten dituzu?

1. Bai 2. Ez

25. Adierazi zenbat bisita izan dituzun azken sei hilabeteetan honako pertsona hauekin

	Bisita-kop.
1. Seme-alabak	
2. Ama	
3. Aita	
4. Beste senide batzuk	
5. Bikotekidea	
6. GKE-etako kideak	
7. Beste batzuk	

26. Baloratu 0tik 10era zure osasun fisikoaren egoera.

Oso txarra 0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 *Oso ona*

27. Baloratu 0tik 10era zure osasun psikologikoaren egoera.

Oso txarra 0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 *Oso ona*

28. Zer jarduera motatan hartzen duzu parte orain?

	Bai	Ez
1. Eskola/ikasketak (DBH, UNED...)	1	2
2. Ekoizpen-destinoa/lana	1	2
3. Jarduera okupazionalak	1	2
4. Kirolak	1	2
5. Lanbide Heziketa	1	2
6. Kanpoko entitateen hitzaldiak	1	2
7. Ser Mujer programa	1	2
8. Adikzioen tratamendua	1	2
9. Osasun mentaleko programa	1	2
10. Bestelakoak, zehaztu		

29. Espetxean lana baduzu eta ordaintzen badizute,

1. Zenbat kobratzen duzu hilabeteen? €
2. Ez daukat lanik

30. Zenbat ordu egiten dituzu lan astean? ordu
(*jarri 0, lanik egiten ez baduzu*)

31. Amaitutako ikasketen maila

0. Bat ere ez
1. Lehen Hezkuntza
2. Bigarren Hezkuntza
3. Batxilergoa/Lanbide Heziketa
4. Unibertsitatea

32. Baduzu seme-alabarik?

1. Bai, zenbat seme-alaba
2. Ez

33. Norekin daude seme-alabak?

1. Nire familiarekin
2. Aitarekin
3. Aitaren familiarekin
4. Harrera-familia batekin
5. Adopzio-familiarekin
6. Adingabeen zentro batean
7. Nirekin, espetxean
8. Lagunekin
9. Independizatuta daude
10. Ez dakit

34. Orain baduzu bikotekiderik?

1. Bai, espetxean
2. Bai, espetxetik kanpo
3. Ez

35. Bazenuen bikotekiderik espetxera sartu aurretik?

1. Bai, baina ez gaude harremanetan
2. Bai, eta harremanetan gaude
3. Ez

36. Zenbatero etortzen zaizu abokatua?

1. Inoiz ez
2. Hiru hilean behin
3. Sei hilean behin
4. Urtean behin
5. Beste bat

37. Zenbat urte/hilabeteko kondena daukazu?

1. Oraindik ez naute kondenatu
2. urte/hilabetekoa

38. Lehen graduan egon zara?

1. Bai. Zenbat denbora? hilabete
2. Ez

39. Eta isolamenduan?

1. Bai. Zenbat denbora? egun
2. Ez

40. Isolamenduan egon zinenean (egon bazara), haurdun zeunden?

1. Bai
2. Ez

41. Isolamenduan egon zinenean (egon bazara), haurtxoa zurekin zeneukan?

1. Bai
2. Ez

42. Espetxez aldatu zaituzte?

1. Bai. Zenbat aldiz?
2. Ez

43. Zenbat espetxetan egon zara

44. Zergatik lekualdatu zintuzten? Markatu batzuk, hala badagokio

1. Nire familiarengandik hurbilago egoteko.
2. Zenbait zigor nituelako
3. Gatazkengatik
4. Haur bat edukiko nuelako
5. Epaiketa batera joateko
6. Nik eskatu nuelako
7. Bestelakoak

45. Espetxe honetan daramazun denboran, izan duzu inoiz gatazkarik honako pertsona hauekin?

	Bai	Ez
1. Beste barneratu batzuekin	1	2
2. Funtzionario emakumeekin	1	2
3. Funtzionario gizonekin	1	2
4. Poliziarekin, kondukzioetan	1	2
5. Profesionalekin	1	2
6. Espetxeko zuzendaritzarekin	1	2

46. Zure ustez, espetxe honetan zer alderdik hobetu behar dute, emakumeei laguntzeko?

	Bai	Ez
1. Familiarekin harreman handiagoa	1	2
2. Seme-alabekin harreman handiagoa	1	2
3. Zaintzako funtzionarioen tratua	1	2
4. Talde teknikoko profesionalen tratua	1	2
5. Arreta medikoa	1	2
6. Poliziaren kondukzioak	1	2
7. Instalazioak	1	2
8. Jarduera okupazionalak	1	2
9. Enplegurako prestakuntza	1	2
10. Kirol-jarduerak	1	2
11. Prestakuntza arauturako sarbidea	1	2
12. Ekoizpen-lantegiak	1	2
13. Garapen pertsonalerako lantegiak	1	2
14. Adikzioen tratamendua	1	2
15. Bideodeiak	1	2
16. Interneterako sarbidea	1	2
17. Moduluak bereizteko printzipioa bete dadila	1	2
18. Modulu-aukera gehiago egon dadila	1	2
19. Ziegak miatzeko modua	1	2
20. Berogailua	1	2
21. Ziegak	1	2
22. Aire girotua	1	2

47. Espetxealdian bizi izan duzu inoiz larritzat jotzen duzun egoerarik?

1. Bai

2. Ez

48. Baietz bada, zerbait egin zenuen?

1. Bai 2. Ez

49. Baietz erantzun baduzu, adierazi zer egin zenuen

1. Espetxeko zuzendaritzari jakinarazi nion
2. Epaitegian salatu nuen
3. Nire kabuz konpondu nuen
4. Ez nuen ezer egin
5. Besterik

50. Espetxera sartu aurretik, egoera hauetakoren batean zeunden?

	Bai	Ez
1. Lan egonkorra neukan	1	2
2. Aldi baterako lana neukan	1	2
3. Gurasoak zaintzapean nituen	1	2
4. Nik bakarrik zaintzen nituen seme-alabak	1	2
5. Diru/sorospen publikoa jasotzen nuen	1	2
6. Metadonarekin/beste adikzio batzuen tratamenduan nengoen	1	2
7. Medikazioa hartzen nuen, osasun mentalagatik	1	2
8. Seme-alabak harreran nituen	1	2

51. Espetxealdian miaketa edo arakatze pertsonalik egin dizute?

1. Bai 2. Ez

52. Baietz bada, nolakoak izan zen?

	Bai	Ez
1. Langile emakumeek bakarrik	1	2
2. Prozedura elektronikoaren bidez	1	2
3. Arroparik gabe	1	2
4. Sentadillak edo flexioak egin behar izan nituen	1	2
5. Bestelakoak, zer		

53. Kalifikatu 0tik 10era espetxe honetako alderdi hauek:

oso balorazio txarra 0 ----- 10 oso balorazio

	Puntuazioa
1. Errespetu-moduluak	
2. Erizaintzako arreta	
3. Prestakuntza- eta hezkuntza-jarduerak	
4. Hezkuntza-jarduerak	
5. Enplegurako prestakuntza	
6. Kirol-jarduerak	
7. Garapen pertsonalerako lantegiak	
8. Kultura-jarduerak	
9. Ekoizpen-lantegiak	
10. Jarduera okupazionalak	
11. Espetxetik seme-alaben eta familiaren etxera dagoen distantzia	
12. Modulu mistoak	
13. Kanpoko medikuarenganako kondukzioak	
14. Beste espetxe batzuetarako lekualdaketak	
15. Baimenak	
16. Destinoak	
17. Ser Mujer programa	
18. Arreta ginekologikoa	
19. Probak (mamografiak, ekografiak, zitologiak...)	
20. Emakumeen higienarako produktuak (tanpoiak, konpresak...)	

54. Espetxean zaudenetik hartu duzu osasun mentalerako medikazioirik?

1. Bai 2. Ez

55. Sartu aurretik hartzen zenuen?

1. Bai 2. Ez

56. Zenbat pilula hartzen dituzu egunean?

57. Nork ematen dizkizu pilulak?

1. Medikuak
2. Beste barneratu batzuek
3. Familiak
4. Lagunek
5. Bestelakoak

58. Zergatik hartzen dituzu pilulak? *(erantzun egoki guztiak markatu ditzaitez)*

1. Lo egiteko behar ditut
2. Lasai egoteko behar ditut
3. Guztiak ahazteko behar ditut
4. Egunak jasaten laguntzen didate
5. Bestelakoak

59. Adierazi esaldi hauekin ados zauden ala ez, orain zauden espetxeari dagokionez

Ez nago batere ados 0 1 2 3 Guztiz ados nago

ESALDIAK	Bai	Ez
1. Nire moduluan drogak hartzen dira		
2. Iritsi nintzenean oso gaizki nengoen, baina lagundu egin didate		
3. Gaizki nagoenean, neure burua lesionatzen dut		
4. Gizon presoek errespetuz tratatzen naute		
5. Bikotekideak (gizon zein emakume) espetxean egiten dudana kontrolatzen du		
6. Espetxe honetan, emakumeok ez dauzkagu gizonek lan egiteko dauzkaten aukera berberak		
7. Espetxean, nirekin kezkatzen dira		
8. Noizean behin, zerbait behar dudanean, sexua trukutzen dut		
9. Nire moduluan pilulak saltzen dituzte		
10. Duxatzen naizenean intimitatea edukitzen dut		
11. Emakume guztiok modulu berean gaude		
12. Modulu gatazkatsu batean nago		
13. Espetxeko beste barneratu batzuek beldurrarazten naute		
14. Bikotekidea daukat barruan, gauzak erosten dizkidalako		
15. Talde teknikoak espetxetik ateratzen naizenerako prestatzen ari zait		
16. Espetxeak neure burua baloratzen irakatsi dit		

60. Beste zerbait kontatu nahi diguzu?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Eskerrik asko laguntzeagatik
Tolestu galdetegia, eta sartu gutun-azalean

Giza Eskubideei buruzko

Deusto Koadernoak, núm. 116

ISBN (zenbakia): 978-84-1325-276-6

DOI (zenbakia): <https://doi.org/10.18543/VDWZ3748>

Azterlan honen helburua da Euskadiko espetxeetan askatasunaz gabetuta dauden emakumeen beharrei ematen zaien arreta ebaluatzea, Estatuaren espetxe-eskumenak eskuordetzearen testuinguruan eta euskal eredua ezarri aurretik; horretarako, hain zuzen, presoan tratamendurako Nazio Batuen arauak, Bangkokeko Arauak deritzenak, hartu dira erreferentziatzat. Ikerketa emakume presoengan zentratu da, ikuspegi metodologiko mistoa erabiliz. 17 elkarrikketa egin zitzaizkien Zaballako eta Martuteneko espetxeetako profesionalei eta arlo horretan aditu diren pertsoneri, eta beste 9 elkarrikketa askatasunaz gabetutako emakumeei. Horrez gain, aurrez aurreko inkesta bat egin zitzaien, gaztelaniaz eta euskaraz, bi zentroetako 49 espetxeraturi. Emaitzek agerian utzi dute egun, oraindik, emakume presoenganako diskriminazio-moduak daudela, eta euskal espetxe-sisteman genero-ikuspegia erabat txertatzeko bidean aurrera egiteko beharra nabarmendu dute.

Carmen Meneses Falcón Antropologia sozialean doktorea da, Madrilgo Comillas Unibertsitate Pontifikaleko irakaslea eta ikertzailea, eta Generoa, Arriskua eta Zurgarritasuna ikerketa-taldeko zuzendaria. Bere ikerketa-ildoak generoa, emakumeak eta gizarte-bazterketa dira.

Rosa Martínez Perza abokatua da, generoan eta espetxe-zuzenbidean espezializatua. Horrez gain, La Rinconadako Udaleko berdintasun-arloko zuzendaria da, eta Rebeca Santamalia Espetxe Zuzenbideko Elkarteko (Asdepres) emakume- eta genero-batzordeko kidea.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTITZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SALA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS



Deusto

Argitalpenak
Deustuko Unibertsitatea